

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Tolosa



Aurkibidea

Udalerria: Tolosa

Sarrera



Tolosaldea eskualdeko udalerrri nagusia da Tolosa, besteak beste babarrunengatik eta inauteriengatik ezaguna. Gipuzkoako hiriburua izan zen hamar urtez (1844-1854). Ibarra, Irura, Anoeta eta Alegia ditu mugakide. Auzo hauek dira nagusi: Alde Zaharra, Bedaio, Urkizu eta Aldaba. Bertako euskara erdialdeko euskararen aldaera bat da, Beterrikoa.

Argazkia: [Wikipedia](#).

- **Biztanleak:** 18.231
- **Euskaldunak:** %64,72

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **63**
- Zintak: **78**
- Pasarteak: **1.139**
- Transkribatutakoak: **109**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **1.081**

Proiektuak

- 101L - DSS2016 Donostialdea
- Ahaztuen Oroimena
- Dialektologia-EHU
- Donostiako ahotsak
- Euskal Herriko Ahotsak
- Euskararen historia soziala Elgoibarren
- Fondo partikularrak
- Gazte gara gazte
- Rudolf Trebitsch-en euskal grabazioak (1913)
- San Ignacio ikastetxea. Ahozko ondarea jasotzen
- UEU Udako Euskal Unibertsitatea

Hizlariak

Maria Luisa Agirre Azurmendi (1919-2013)



Tolosako San Esteban auzoan jaioa izan arren, zegamarrak zituen bai ama eta bai aita. Eskolan beti ibili zen gustura, eta ikasketetarako diru-laguntzei esker jarraitu ahal izan zituen ikasketak. Hala, unibertsitatera heltzen lehendabiziko emakumeetako bat izan zen, Medikuntza ikasten hasi zenean. Pediatrian espezializatu zen eta urtetan jardun zuen kontsultan pediatria gisa lanean.

Maria Jesus Albisu Toledo (1923)



Urkizuko Urkizu Gainkoa etxean jaio zen. Bi bizitzakoa zen etxea, eta Maria Jesus eta bere familiaren bizitza taberna ere bazen. Sei senidetan gazteena, 11 urte zituela Zumarragara joan zen, izeba baten etxera, mojen eskolan ikasi ahal izateko. Handik etxera itzuli zen, eta gerra garaiko urte ilun haiek pasa ondoren, Urkizuko beste baserri batera ezkondu zen, Etxe Onetara.

Gregoria Albizu Beraza (1930)



Tolosako Larramendi auzoko kale-etxe batean jaioa. Aita tolosarra zuen, eta ama, berriz, nafarra, Uztegikoa. Bederatzi urte bete artean Tolosan bizi izan baziren ere, gerra bukaera aldera Uztegiko baserrira joan ziren bizitzera ama eta seniderik gazteenak. Aitak txapela-fabrikan egiten zuen lan, eta han gelditu zen bera. Gregoriak bost urte egin zituen Uztegin. Handik Arribera joan zen neskame. Handik itzuli eta hamalau urterekin Amarotzeko lima-fabrikan hasi zen lanean, limak garbitzen. Handik Donostiara joan zen neskame. Han, ordea, pneumonia harrapatu zuen eta medikuak mendialdeko klima komeni zitzaiola esan zion. Hala joan zen neskame Abaltzisketako Larraitzeko tabernara. Hogei urterekin, Abaltzisketako 'Otamendi Bitarte'-ra ezkondu zen.

Martin Balerdi Gorostegi (1924)



Bedaio Elizegi baserrian jaioa da Martin. Aita jaiotetxe berekoa zuen, eta ama berriz, Amezketarra. Ama artzain baten alaba omen zen, eta beraiek ere beti eduki omen zituzten ardiak etxean. Bederatzi senidetan gazteena zen bera, baina ez omen zen hori inolako abantaila lanerako libratzeko garaian, beti izaten baitzen lanen bat berarentzat: ardiak zaintzea zela, apaizari meza ematen laguntzea zela... 17 urterekin morroi joan zen Legazpira lanera, Patrizio Etxeberria aberatsaren langile gisa. Soldadutzatik itzuli zenean paper-lantegi batean hasi zen lanean, eta hura itxi zutenean beste batean jarraitu zuen, lan berean, handik erretiroa hartu zuen arte. Azken urteetan Alegian bizi izan da.

Pakita Balerdi Ondarza (1942)



Bedaio Elizegi baserrian jaioa. Aita bertakoa zuen, eta ama Zumizketakoa. Sei senidetan bosgarrena izan arren, etxean lan asko egin behar izan zuen. Ahizpa zaharragoak neskame joan ziren, eta amari etxeko martxa eramaten lagundu zion gazte garaian. [Joxe Mari Zulaika 'Paskualsoro'](#) segalari eta harri-jasotzailearekin ezkondu zen, jaiotetxera.

Dionisio Balerdi Zubeldia (1924)



7 senideko familian, Bedaio Barrena baserrian jaioa da Dionisio.

Karlos Beloki Zabala (1948)



Bedaio Ilorreta baserrian jaioa. Ardiak txikitatik gustatzen zitzaizkion, baina aitak ez zuen ardirik nahi baserrian, bestela ere nahiko lan bazela eta. Berak, ordea, ezin etsi, eta nahiko diru lortu zuen bezain pronto jarri zituen bere lehen ardiak. Gaztagintzari ekin zion orduan, eta makina bat urtez jardun du horretan geroztik, berari gazta jatea gustatzen ez bazaio ere.

Bernabe Bergara Aginaga (1929)



Zizurkilen jaioa da Bernabe, 'Fraisoro' sehaska-etxean. Oso txikitan hartu zuen Tolosako Montescue auzoko familia batek beraien etxean, eta beti sentiarazi dute eta sentitu izan da familia horretako partaide. Haurra zela Hernialdera joan zen bizitzera, amonaren etxera, eta 11 urterekin morroi joan zen Leaburura, eta ondoren Gipuzkoako herri askotan ibili zen morroi (Leaburun, Albizturren, Zerainen...). 14 urterekin, fabrika lanean hasia erabaki zuen, Tolosako 'Curtidos y Derivados'-en. Baina morroi lanetara itzuli zen 15 urterekin, berriz ere Tolosako 'Engomadora Moderna'-n lanean hasi arte. Ondoren, Anoetako paper-lantegi batean ere aritu zen lanean, eta handik hartu zuen erretiroa. Azken urteetan Berrobin bizi izan da.

Jose Miguel Elozegi Aldasoro (1933)



Juan Miguel Tolosako Pilartxoenea etxean jaio zen, aita tolosarra zuen; ama, Argentinan jaioa eta Tolosan hezia. Hiru urte zituela hasi zen eskolan, mojekin. Zazpi urterekin, eskolapioetara aldatu eta bertan egin zituen hamar urte, batxilerra ere atera zuelarik. Gaztetan, Tolosako atletismo taldean zen eta mendira joatea ere oso gustuko zuen. 25 urte zituela ezkondu eta Leitzan urte bete igaro ondoren, Donostiara joan zen bizi izatera, bertan bost seme-alaba izan zituelarik. Leitzako Toponimia jasotakoa eta basogintzaren inguruko ikerketa baten partaide izanik, bi gai hauen inguruko hainbat datu eman zizkigun elkarriketa egunean.

Maria Pilar Eskide Otegi (1924)



Tolosako Amostegieta kalean jaio zen, etxeko sukaldean. Ama bera jaio eta hilabetera hil zen, izan zuen erditze gogorraren ondorioz. Etxean inork bularrik emango ez zionez, Aldaba auzoko Arizmendi baserriko emakumea arduratu zen berataz, aurretik 13 seme-alaba zituen, baina etxekotzat hartu zuen Maria Pilar. Tolosako "Enseñanza" moja eskolan ikasia. 14 urterekin eskola bukatu eta Tolosako tailer batean jardun zuen lanean makilaia gordetzeko kutxak egiten, 25 urterekin ezkondu zen arte.

Mariani Izaskun Estanga Uriarte (1933)



Solana kalean jaioa, gurasoak Betelukoak zituen. Taberna izan zuten bertan, eta gero hotel modukoa Laskurain kalean, 19 apopilokoa. Lau senide ziren. Mojetan ikasi zuen. 12 urterekin hasi zen lanean, etxeko negozioan. Gero, neskame ere egon zen Oiartzunen eta Donostian. Tolosar batekin ezkondu zen 1961ean, Irunera. 'Txingudi' ikastolako sortzaileetako bat da; bertan egin zuen lana 40 urtean.

Santos Ezeiza Otamendi (1928)



Urkizu auzoko Urkizugainkoa baserrian jaioa. Bi bizitzakoa zen etxea: batean Santosen familia bizi zen eta bestea taberna zen. Txikitan meza-mutil izana, gogoan du apaizak meza isila nola eman zuen, ate guztiak itxita, "gorriak" Urkizura iritsi zirenean. 32 urte bete arte baserrian egin zuen lan Santosek, 23 urte bete zituenean Tolosako fabrika batean lanean hasi bazen ere.

Hilarion Ezeizabarrena Ugartemendia (1916-2010)



Tolosako Auzo Txikiko Ezeizabarrena baserrian jaioa. Etxearen izena eta abizena bat datozkio, eta baserria 1600. urteaz geroztik dokumentatuta dagoela dio, ziurrenik lehenagokoa izango bada ere. Sagasti handiak ditu baserriak, eta aitonarengandik ikasi zuen sagardoa egiten. Sei senidetan bigarrena, gerran hiru urte pasa ondoren etxera itzuli, eta etxeko martxa hartzea egokitu zitzaion. Geroztik ez zion lan egiteari utzi.

Xabier Garikano Solabarrieta (1931)



Xabier Garikano tolosarra da. Santa Klara kalean jaioa, bai ama eta bai aita tolosarrak zituen. Gerra aurretik 'Laskorain' ikastolan ibili zen. Gerra garaian, kaletarren miseria jasateaz gain, peritonitis larria izan zuen, eta hiltzat eman bazuten ere, bizirik atera zen, "mirariz". Txikitatik izan zuen inauterietarako grina, aita kontatzen baitzizkion hark bere gazte garaian egindakoak. Gaztea zela hasi zen parte hartzen Tolosako inauterien antolakuntzan, eta gurekin egon zenean oraindik ere mozorrotuta ateratzen zen urtero.

Marijo Garmendia Txapartegi (1962)



Tolosan jaio zen. 12-13 urte zituela, Elgoibarrera joan ziren bizitzera. Aldaketa handia izan zen berarentzat. Ordura arte euskaraz egiten bazuen ere, Elgoibarren gaztelania nagusitu zitzaion. Ikasketa guztiak gaztelaniaz egin zituen eta amarekin bakarrik erabiltzen zuen euskara. Ikasketak bukatu ostean, euskara ikasten hasi zen Elgoibarko Udal Euskaltegian eta hilabete batzuen buruan atera zuen titulua. Euskararekiko kontzientzia hartuta, ordutik euskaraz bizitzen saiatu izan da eremu guztietan. 1984an Elgoibarko Zazpiki irrati librea martxan jartzen parte hartu zuen. Garai hartan Psikologia ikasketak egiten ari zen Donostian eta asteburuetan, herrira itzultzean, pare bat irratsaio egiten zituen. "Elgoibarko euskararen historia soziala" proiekturako egin zitzaion elkarriketa.

Andres Gaztañaga

Grabazioa egin zitzaionean, 85 urte zituen.

Maria Pilar Gaztañaga

Idoia Gereñu Odriozola (1980)



Tolosan jaioa. Filosofia ikasi zuen EHUn eta Humanitateetako master bat Madrilén, arte eszenikoekin lotura zuena. Master bukaeran gerra aurreko eta erbesteko antzerkigintzari buruzko ikerketa egin zuen. Ondoren Jarrai antzerki taldeari buruzko doktorego tesia ere egin zuen, gerraosteko abangoardiako antzerkiari buruzkoa. Antzerki irakasle moduan jardun du hainbat tokitan eta baita filosofiako irakasle moduan ere. EHAZE Euskal Herriko Antzerkizale elkarteko koordinatzailea izan zen bi urtez. Garai bateko antzerkigintzaren inguruko kontuak jasotzeko elkarriketatu genuen; une hartan filosofia eta musika irakasle gisa zebilen Tolosako Laskorain ikastolan, eta Katiuska antzerki taldeko zuzendaria zen.

Jabier Goenaga Aiestaran (1925-2013)



Zegamakoa zuen ama, etxekoandrea; aita, Tolosakoa, Amaroizko paper-fabrikako langilea. Sei senidetan bosgarrena, fabrikak jarritako etxean bizi ziren denak. Amaroizko eskolara joan zen 14 urte arte, gero, paper-fabrikari hasi zen lanean eta bertan pasa zituen 40 urte. Urtero, hilabete batez, arraunerako prestatzen zen Amaroizko batelarekin San Juanetako estropadan parte hartzeko. Denbora librean zuen apurretan, ehizara joatea eta nobelak irakurtzea atsegin zuen. [Maria Eugenia Uriarte Urretabizkaia](#)rekin ezkondu zen eta hiru seme-alaba izan zituen.

Antonio Gorostidi Etxaleku (1931-2015)



Urkizuko Etxeberri baserrian jaioa. Aita bertakoa zuen, eta ama, berriz, Auzo Txikiko Saletxe baserrikoa. Zortzi senidetan bigarrena, 14 urte bete zituenerako hasia zen segan. Etxean, soroko ohiko lanez gain, tabakoa ere egiten zuten. Ez zen, ordea, etxean behar bezala lehortzen, eta etxeko erretzaileek kanpoko tabakoa erre behar izaten zuten.

Begoña Gorostidi Etxaleku (1944)



Urkizuko Etxeberri baserrian jaioa. Aita bertakoa zuen, eta ama, berriz, Auzo Txikiko Saletxe baserrikoa. Zortzi senidetan zazpigarrena, jaiotetxera ezkondu zen. Berarekin bizi den anaia Antoniorekin batera egin zitzaion elkarriketa.

Pepi Gorostidi Garmendia (1939)



Tolosako Kale Nagusian jaioa. Ama Legorretako Errotaburu baserrikoa zuen, eta aita, berriz, Abaltzisketako Olano Barrena baserrikoa. Tolosako 'Hijas de Jesus' mojen ikastetxean ikasi zuen, erdara hutsean. Doktrina, berez, euskaraz eta erdaraz ematen zuten Tolosan, euskaraz Tolosa inguruko herrietako haurrentzat eta baserritarrentzat, eta erdaraz gainontzekoentzat. Gurasoek haiek euskaraz ikas zezaten eskatu bazuten ere, erdaraz ikastera behartu zituzten, kalekoak izateagatik. Etxean, ordea, aita euskaraz egin zezaten agindu izan zien beti, kalean "ahal zutena" egin beharko bazuten ere. 24 urterekin ezkondu zen Pepi, eta haurdun geratzearekin batera, Tolosako ikastolaren sorrera proiektuan murgildu zen erabat. Bere alaba izan omen zen 'Laskurain' ikastolan matrikulatu zen lehen haurra. Ondorenean, ikastolako haurrentzat eskolaz kanpoko jarduerak antolatzen aritu izan zen urte askoan (mendi-irteerak, udalekuak...). Gerora, zinegotzi ere izan da.

Joxe Mari Gorrotxategi Pikasari (1929-2019)



Erramu egunez jaio zen Joxe Mari, Tolosako Kale Nagusiko bigarrenen. Bai ama eta bai aita Zegamarrak zituen, eta aitonaren baserriak eragin handia izan zuen beregan. Lau anai-arrebatan zaharrena izateaz gain, mutil bakarra ere bazen. Aita konfitero izanik, berehala hasi zen konfiteritzan eta elikagai dendan lanean, asteburutan lehenik, eta denbora osoz geroago. Gozogintza ikasketak egin zituen Iruñean, Katalunian, Alemanian, Frantzian... eta ez zaio sekula jakin-mina ase. Gozogintzaz aparteko zaletasunak ere izan ditu: bidaiatzea, argazkigintza, irakurtzea... Gizon jantzia bezain xamurra ezagutzeko aukera izan dugu egindako elkarrizketan.

Joxe Mari Iraola Olano (1929)



Tolosako Urkizu auzoko Urkizu Azpi baserrian jaioa. Aita bertakoa zuen, eta ama, berriz, beheraxeago dagoen Gurutzeaga baserrikoa. Etxean jateko adina beti izan dutela dio, eta miseriarik ez duela ezagutu. Maiorazkoa izanik, jaiotetxera ezkondu zen. Baserrian lan egin du beti, eta ez omen du sekula lantegian lana egiteko tentaziorik izan.

Joana Iraola Uranga (1924)



Urkizun jaio eta ezkondu arte bertan bizi izan zen, Auzotxikian. Baserrikoak zituen gurasoak: ama Albizturren jaioa eta aita Urkizukoa. Zortzi senideetan zaharrena, lanari gogotik ekin zion txiki-txikitatik, baserriko lanetan, senideak zaintzen... eskolara joateko denbora handirik gabe. Jose Caminosekin ezkontzean, Tolosako Usabal auzora joan zen bizitzera eta bertan bizi izan da. Bederatzi seme-alaba izan ditu. Fedearen galeraz, lehengo bizimodu gogorraz eta bestelako kontuez mintzatu da.

Migel Mari Iraola Uranga (1921-2016)



Tolosan jaio zen, baina urte askoan Ibarren bizi izan da. Tolosako eskolapioetan ikasia, gogoan ditu gerra aurreko urteak, gerra bera, baita haren ostean etorritako aldaketak ere. 14 urte zituela, errementari-lanetan hasi zen Tolosan anaiarekin batera, eta ordutik hainbat etxetan aritu izan dira lanean. Kirolarekiko zaletasuna izan du: atletismoan ibilitakoa, disko-jaurtiketan txapeldun izan zen; eta, horrez gain, Tolosa futbol-taldearen jarraitzaile eta bazkide izan da urte askoan. 'Arco-iris' elkartearen sortzaileetako bat da, elkarrizketa garaian bizirik geratzen zen bakarra; eta, elkarteari esker, bizipen ahaztezinak izan ditu: besteak beste, 50 urtean elkarteko txarangako zuzendaria izan da; eta, omenaldi gisa, berari eskainitako abestia ere badauka. Ezkondu eta hiru seme-alaba izan zituen, eta haien goxotasunaz inguratuta bizi da gaur egun. Tolosarra, oso parte-hartzailea eta bizia, herriaren historiaren lekuko pribilegiatua dugu Migel Mari.

Joxe Irastorza Imaz

Martina Iturbe Zubeldia (1914-2013)



Bedaioiko Zugazti baserrian jaioa, oso gazterik umezain joan zen Uitzira (Nafarroa). Ondoren neskame aritu zen Iruñean, eta han zela lehertu zen gerra. Han zauritutako eta hildako soldaduak zeramatzaten kamioiak etxe aurretik nola pasatzen ziren ikusi zuen. Nola hala itzuli zen Bedaia, eta Zugazti Barrena baserrira ezkondu zen. Geroztik, baserrian eta baserritik bizi izan zen. Elkarrizketa garaian ere ez omen zen Bedaion bera baino abilagorik babarrunak aletzen.

Asier Izagirre Pasaban (1972)



Tolosarra; gurasoak ere bertakoak. 1998tik Donostian bizi da, Ainhoa Aierbe aktorearekin ezkontuta. Eskalatzailea eta mendizalea. Edurne Pasaban lehengusinarekin batera sei urtez ibili zen mendian, "himalayismo preofesionalean" murgilduta. Zuhaitzak kimatzen egiten du lan. San Ignacio ikastetxeko ikasleek egin zioten elkarriketa.

Antonio Jauregi Maiza (1931)



Antonio Bedaioko Gurbilaundi baserrian jaioa da. Beti izan du gogoetarako grina, eta bere bizipenei buruzko erreflexio asko egina da, bere kontakizunek agerian uzten dutenez. Baserriko gerra ondoreneko giroa kontatu digu, eskola kontuak, gaixotasunak, estraperloa, janaria, jolasak, sorgin kontuak, neska kontuak, soldadutza...

Valentina Jauregi Maiza (1930)



Bedaioko Gurbilaundi baserrian jaioa. Senide asko izan, eta neskame lanetan jardun zuen Donostian, Mirakontxan. Gaztetan, gaur egun ere Bedaioko berezitasun bat den 'Ingurutxo' dantza berezia berreskuratzen lan asko egin zuen. Zaharrengandik ikasi eta bere adineko gainontzekoei zein gazteagokoei dantza hori irakatsi eta herriko festetako ohitura berreskuratzeari ekin zion lagun batzuekin batera.

Carmen Jauregi Zabala (1924-2014)



Tolosako Urkizu auzoko Etxe Oneta baserrian jaioa. Aita urkizuarra zuen, eta ama Berrobikoa. Bere gazte garaian ez zegoen errepiderik Urkizura zihoanik, eta Tolosatik aparte samar bizi ziren urkizuarrek. Gaztetan, Bidaniara ezkondu zen.

Maria Jauregi Zabala (1921-2015)



Urkizuko Etxe Oneta baserrian jaioa da Maria. Urkizuko herri eskolan ibili zen errepublika garaian, eta ondorenean Tolosako "enseñantzatan" 16 urte bete arte. Ahizpa bat zuen, zaharragoa, eta berak etxeko martxa eraman behar izan zuen. Bi anaia ere bazituen, zaharragoak, baina haiek gerrara joan behar izan zuten soldadu. Mariari ondorioz, soroko lana eta ganaduaren zaintza egokitu zitzaizkion gehienbat. Gerra bukatu zenean, Tolosako Gorrotxategi dendan egin zuen lan sei urtez. Handik etxera itzuli zen, eta berehala ezkondu zen, Urkizu Gainekoa baserrira. Han bizi izan da geroztik.

Maitere Jauregi Zubillaga (1943)



Bedaioiko Gurbila Txiki baserrian jaioa eta Bedaiora bertara ezkondua. Maria Jauregi Zubillagaren ahizpa gaztea da, eta Mariak kontatutako guztiak bizi ez baldin baditu ere berak ere ondo gogoan ditu gaur egun desagertu diren hainbat ohitura.

Maria Jauregi Zubillaga (1929)



Bedaioiko Gurbila Txiki baserrian jaioa, baserrian bizi izan da beti. Gaztetan ordea, neskame joan zen Tolosara, eta han sukaldaritza ikastaroak jaso zituen.

Juanita Kerejeta Etxeberria (1922)



Guraso biak Aldabakoak zituen, nekazariak. Zazpi senidetan hirugarrena zen. Bidanira ezkondu zen, Juan Bautista Larrarterekin, eta lau seme-alaba izan zituzten. Juanita baserriko lanetan ibili da, eta baita saltzaile ere.

Edorta Kortadi Olano (1946)



Tolosan jaioa, ama Alegikoa zuen eta aita donostiarra. Tolosan bizi ziren: denda zeukaten Kale Nagusian. Bertan bizi izan ziren Edortak 14 urte bete zituen arte; uholdeek denda txikitu zuten, eta Donostiara joan ziren bizitzera. Aitak ferrategia ipini zuen Grosen. Mutikotan Tolosako eskolapioetan ikasi zuen, eta gero Donostiako Lasallen. Seminariora bidali zuten ondoren, apaizgai: Saturraranen eta Donostian egon zen. Bartzelonara ere joan zen, Artearen Historia ikastera. Museologoa eta arte kritikaria da. Ilustratzailea ere bai: hainbat ilustrazio eta kartel egin zituen sasoi batean. Oso gertutik ezagutu zuen Donostiako giro artistikoa (Eskulturaren Euskal Eskola, Ur eta Gaur taldeak...). Santa Maria elizako parrokoa da eta Donostiako Elizbarrutiko museoko zuzendaria. Euskara ia erabat galdu zuen gaztaroan, eta gero berriro ikasi zuen.

Mattin Labayen Sansinenea (1931)



Ama Donostiako alde zaharrekoa zuen, eta aita, berriz, Antonio Maria Labayen, tolosarra. Aita Tolosako alkate izatera heldu zen, Eusko Alderdi Jeltzaleko kide gisa. Antzerkigintzan ere lan mardula egin zuen, eta euskaltzain ere izan zen. Aitak sorturiko giro horretan hezi zen Mattin. Gerra hasi zenean, ordea, Bidasako mugaz beste aldera joan behar izan zuten; lehenik, Sarara eta, ondoren, Donibane Lohitzunera. Saran kokatzen ditu Mattinek bere oroitzapen goxoenak. Alta, 1944an Tolosara itzuli ziren Mattin eta bere anaia, Ramon. Ordurako Mattinek argi zuen pintura zela bere zaletasunik maiteena eta bere adierazpidea. Hala, pinturan sakondu zuen, Arte Ederrak ikasiz. Ez dio sekula pintatzeari utzi.

Maria Dolores Larrañaga Beloki (1923-2016)



Belauntzakoa zuen ama eta tolosarra aita. Gurasoak bezala, baserritarra izan da bera ere bizitza osoan zehar, San Esteban auzoko Laskurain baserrikoa hain zuzen. Familia pobreakoa zela dio eta gogor lan egin behar izan zuela bizimodua aurrera ateratzeko. Baserriko lanetaz gain, etxez etxe aritu izan da esnea banatzen; baita kaletarrei arropa garbiketa zerbitzua eskaintzen ere. 16 urterekin, auzoko lantegi txiki batean hasi zen lanean, bizikletentzako piezak egiten. Zahartzarora iristean bizi omen da inoiz baino hobeto.

Eusebio Larrea Esnaola (1922)

Aldaba auzoko "Kaxeta"-koa zen Eusebio.

Juana Lasa Jauregi (1929)



Aldabako Arizmendi baserrian jaioa. Aita Aldabakoa zuen, eta ama Zaldibiakoa. Zortzi senidetan laugarrena. Aldabako gain hartatik ikusi zuten Ikaztegietakoa apeaderoa eraikitzen. Hala ere, ez zuten Ikaztegietakoko joerarik eta Alegiara edo Tolosara jo ohi zuten erosketak egitera. 16 urterekin neskame joan zen Orendaingo baserri batera. Han hiru urte pasa eta kalera joan zen neskame. Asteasuko senarra hartu zuen, eta Ikaztegietakora joan ziren biak bizitzera.

Maria Dolores Leunda Artola (1925)



Tolosako Iturralde baserrian jaioa, Santa Luzia auzoan. Ama anoetarra zuen, eta aita, berriz, jaiotetxe berekoa. Gerra aurrean, Maria Doloresek sei urte bete zituenerako, bi tokitan zeuden ikastolak Tolosan: bat Gorriti plazan eta bestea Laskurain kalean. Bera, Laskurain kaleko ikastolan hasi zen, beraz, ikasten. 11 urterekin, 1936an, batxilerrean eman zuen izena. Bere garaian ikastolako bakarra izan zen. Neska eta baserrikoa izanik, are harrigarriagoa zen bere kasua. Urte hartan gerra hasi zen. Batxilerra 'Sagrada Familia'-n, "Frantsesetan" egin zuen, ikastolak ez baitzuen batxilergoa egiteko prestakuntzarik eskaintzen. Valladolid-en egin zuen batxilergoko azterketa, eta hala atera zuen titulua. Ondoren, magisteritza ikasi zuen, eta gerra ondorenean Tolosako 'Laskurain' ikastola birsortzen aritu zenetako bat izan zen. Irakasle lanetan aritu zen geroztik, ikastolatik erretiroa hartu zuen arte.



Josu Lopez Gazpio (1987)

Kimikan doktorea da eta UEUko Kimika sailburua.

Miren Ixiar Lopez-Mendizabal Olano (1932-2013)



Tolosako Solana kalean jaioa (gaur egun Zerkausi kalea den horretan). Ixak Lopez-Mendizabal euskaltzale eta letrazagizon ezagunaren alaba. Gerra Zibila lehertu zenean bera eta bere familia Lapurdira erbesteratu ziren. Han, ordea, bigarren mundu gerrak harrapatu zituen, eta Argentinara egin zuten alde. Han hogeita hamar urtetik gora pasa zituzten. Izaskun ahizpa eta biak, euskal etxearen inguruan haien aita sortutako dantza taldean eta abesbatzan aritu ziren, besteak beste. Gerra garaian galdu zuten guztia, baina Tolosara itzultzerako berreskuratu zuten hamarkada luzetan haien familiakoa izan den inprenta zaharra. Inprenta horren gaineko etxebizitzan bizi izan ziren bi ahizpak, azken urteetan.

Miren Izaskun Lopez-Mendizabal Olano (1928-2011)



Tolosako Solana kalean jaioa (gaur egun Zerkausi kalea den horretan). Ixak Lopez-Mendizabal euskaltzale eta letrazagizon ezagunaren alaba. Gerra Zibila lehertu zenean, bera eta bere familia Lapurdira erbesteratu ziren. Han, ordea, bigarren mundu gerrak harrapatu zituen, eta Argentinara egin zuten alde. Han hogeita hamar urtetik gora pasa zituzten. Ixiar ahizpa eta biak, euskal etxearen inguruan haien aita sortutako dantza taldean eta abesbatzan aritu ziren, besteak beste. Gerra garaian galdu zuten guztia, baina Tolosara itzultzerako berreskuratu zuten hamarkada luzetan haien familiakoa izan den inprenta zaharra. Inprenta horren gaineko etxebizitzan bizi izan ziren bi ahizpak, azken urteetan.

Mahai-ingurua Bedaion



Bedaion egindako mahai-inguru honetan parte hartu zuten, ezkerretik eskuinera:

[Martina Iturbe](#), [Karlos Beloki](#), Juan Jauregi, [Maria Dolores Maiza](#), Patxi Jauregi, [Joakina Zubillaga](#), [Maria Zubillaga](#), Bautista Zabala, [Antonio Jauregi](#), [Maitere Jauregi](#), [Valentina Jauregi](#), Jose Zabala eta [Dionisio Balerdik](#).

Maria Dolores Maiza Artola (1937)




Bedaioiko Errotan jaioa. Gerra ondorenean, aita errotariaren ibileren lekuko zuzena izan zen. Herriko bi telefonoetako bat errotan bertan zegoen, eta abisuak ematen makina bat kilometro egindakoa da. Ezkondutakoan, Errotan bertan bizitzen jarraitu zuen.

Valeriano Mokorooa (1871)

1913. urtean Rudolf Trebitsch etnografo austriarrak jasotako grabaketa. Idazlea zen eta 42 urte zituen grabaketa egin zitzaionean. Euskalkia: gipuzkera.

- Diskoaren erreferentzia: 2.232 eta 2.233

Pakita Peñagarikano Elozegi (1926)



Tolosako Aldaba auzoan jaioa, Aldabazarra baserrian. Bost familia bizi ziren bertan, denak oso handiak. Beraiek hamar senide izan ziren, eta zortzi atera ziren aurrera. Ama Amezketakoa zuten eta aita bertakoa. Maizterrak ziren. Txerriak, behiak, oiloak... zituzten, baita zaldia ere. Besteak beste, garia eta babarruna ereiten zuten. Auzoko eskolan ibili zen, bederatzi urte bete arte. Esnea saltzera joaten zen Tolosara. 19 urterekin moja sartu zen (bere beste lau ahizpa bezalaxe), eta handik 37 urtera utzi egin zuen. Valladoliden eta Iruñean egon zen moja. Gero, Donostiara joan zen bizitzera. Erretiroa hartu ondoren ikasi zuen igeri egiten; azken urteotan Interneten ibiltzen ere ikasi du.

Fermina San Sebastian Ugartemendia (1932)



Tolosan jaio zen eta bertan bizi izan da beti. Aita bertakoa zuen eta ama, berriz, Albisturkoa. Bi anai-arreba ziren. Baserrian lan asko egina. Senarra Larraulgoa. Donostiako San Ignacio ikastetxeko ikasleek egin zioten elkarrizketa.

Maria Luisa Sancho Olareaga (1929)



Tolosarra zuen ama; aita, berriz, Toledokoa. Pasaian jaio arren, Tolosara etorri zen bizitzera bi urterekin. Santa Luzia bailaran bizi izan zen aiton-amonen baserrian, gurasoak kanpora joan beharra izan zuten-eta. Zazpi senidetan seigarrena da, eta gazte-gaztetatik baserrian aritu da lanean. Batxilergo ikasketak bukatu eta andereño lanetan aritu zen ezkondu zen arte. 11 seme-alaba izan zituen.

Julen Telleria Lopetegi (1990)

1990eko irailaren 28an jaio zen Julen. Iruran jaiotako tolosarra dela dio; izan ere, urtebete eskas zuela familia Iruratik Tolosara joan zen bizitzera. Aita tolosarra du, eta ama, berriz, Belauntzako. Bi senidetan zaharrena da. Umetatik izan du musikarako zaletasuna, eta hiru urterekin musika eskolan hasi zen. Zortzi urterekin perkusioa ikasten hasi, eta bateria ikasketak egin zituen gero. 10 urterekin atera zen aurrenekoz inauterietan txarangarekin danborra jotzen. [Udaberri dantza taldean](#) danbor-jole moduan hasi bazen ere, hainbat urte eman ditu taldeko antolaketa lanetan. Tabernari lanetan ere ibilia da. Ikus-entzunezko ikasketak egin zituen Leioan. Karrera amaierako praktikak Euskadi Irratian egin zituen. [Gaztea Irratian](#) asteburuetakoa irratsaio batekin hasi zen. Ondoren, *Akabo bakea* gaueko saioan aritu zen bi urtez Amaia Artetxerekin. Eta elkarrizketa egin genion unean, *Akabo bakea* arratsaldeko irratsaioko eta [Gu ta gutarrak](#) Etb 1eko saioa aurkezle lanetan zebilen. Musikaz, lagunarteaz, Tolosako inauteriez, herriko giroaz eta beste hainbat gairi buruz mintzatu zitzaigun.

Tomaxa

Tolosako Auzo-txikia auzoko Ezeizagoiena baserrian jaioa. Aita bertakoa zuen eta ama, berriz, Andoaingo Sorabilla auzokoa. Aitak errota hartu zuenean errotara jaitsi ziren, berak 5-6 urte zituela. Aitak pentsu-biltegia jarri zuen bertan eta geroago baita kantera ere. Baina gerra-garaian hil zitzaion aita, berak 12 urte inguru zituenean, eta 6 senide gelditu ziren amarekin. Tolosara joan zen eskolara, hasieran "Hijas de Jesus"era, baina aita hil zenean, handik atera egin zuten. Geroago "Inmaculada"ra joan zen, baina egunean ordubete besterik ez zuen egiten. Umetatik lan asko egin behar izan du.

Pakito Txintxurreta Larrañaga (1935)



Pakito, Tolosako Urkizu auzoko Arantzabe baserrian hazia da. Berak gaztetan kanpora lanera irten eta ezkontzeko asmoa baldin bazuen ere, familian gertatutako zenbait ezbehar zirela eta, baserrian gelditu behar izan zuen. Geroztik, berak eraman du etxeko martxa: oiloak, soroak, baratzea... Ez da damutu Pakito etxetik alde egin ez izanaz; etxekoen eta auzokoen esker onak ere balioa baitu.

Joxe Mari Ugartemendia Zubillaga (1938)




San Esteban auzoko Luzuriaga baserrian jaioa. Zazpi senidetan gazteena, aita bertakoa zuen eta ama Bedaiokoa, Tolosara neskame joana. Baserritik bizi ziren: tratua saltzen zuten azokan (esnea eta barazkiak) eta txekorrak saltzen zituzten. Hamaika urtera arte ibili zen eskolan, eta handik aurrera baserriko lanetan batez ere. Soldaduska egin aurretik Tolosako tailer batean jardun zuen lanean, tuboak egiten, eta ondoren ALFA etxeko josteko makinak saltzen, Donostian.

Asun Uriarte Urretabizkaia (1929)



Joxepa Urretabizkaia zuen ama, Amarozkkoa eta etxekoandrea. Aita, Inazio Uriarte, Ibarakoa zen eta 'Noruego' fabrian aritzen zen lanean txofer gisa. [Eugenia](#) ahizparekin batera egin zioten elkarrizketa [Ahaztuen Oroimena](#) taldekoek, gerrako kontuak jasotzeko.

Maria Eugenia Uriarte Urretabizkaia (1925)



Joxepa Urretabizkaia zuen ama, Amarozkkoa eta etxekoandrea. Aita, Inazio Uriarte, Ibarakoa zen eta 'Noruego' fabrian aritzen zen lanean txofer gisa. Tolosako Santa Maria plazan jaio zen Maria Eugenia, baina [Jabier Goenaga Aiestaran](#)ekin ezkondukoan, Amarozko Agirrenea etxera joan zen bizitzera. 14 urte zituela, Amarozko paper-fabrian hasi zen lanean, eta handik atera zuen bizimodua 40 urtez. Hiru seme-alaba izan zituen. [Ahaztuen Oroimena](#) taldekoek ere egin zioten elkarrizketa [Asun](#) ahizparekin batera.

Manuel Urreta (1888)

1913. urtean Rudolf Trebitsch etnografo austriarrak jasotako grabaketa. Merkataria zen eta 25 urte zituen grabaketa egin zitzaionean. Euskalkia: gipuzkera.

- Diskoaren erreferentzia: 2.234 eta 2.235

Eugenio Zabala Olazabal (1933)



Eugenio Bedaion jaio zen, Elizetxe baserrian. Aita herri berekoa zuen, Jazku baserrikoa, eta ama, berriz, Zarautzen jaioa eta txikitan Bedaia bizitzera joana. Izan ere, Eugenioren amaren aldeko amona Aizarnakoa zen, eta aita zarautzarra, eta Zاراутtik ganadua eta trasteak hartu eta Bedaia joan omen ziren bizitzera, bidea oinez eginda. Eugenio bera, Bedaion hazia da, baina gazte zela Alegian harakin gisa lanean hasi, eta bertara joan zen bizitzera.

Joakina Zubillaga Agirrezabala (1929-2021)



Amezketako lurretan jaio arren, [Maria](#) eta Joakina ahizpak Bedaiokoak sentitzen dira. Izan ere, Amezketako eta Bedaio erreka batek bereizten ditu, eta Ezkolborro baserria Amezketako aldean badago ere, lotura Bedaiorekin izan dute beti, eskola, eliza eta gainontzekoari dagokionez. Joakina Belarmuga baserrira ezkondu zen eta 12 haur erditutako emakumea da. Herrian fundamentu handiko emakumearen ospea du.

Maria Zubillaga Agirrezabala (1924-2013)



Amezketako lurretan jaio arren, Maria eta [Joakina](#) ahizpak Bedaiokoak sentitzen dira. Izan ere, Amezketako eta Bedaio erreka batek bereizten ditu, eta Ezkolborro baserria Amezketako aldean badago ere, lotura Bedaiorekin izan dute beti, eskola, eliza eta gainontzekoari dagokionez. Maria baserrian jaio eta hazitakoa da, eta 21 urterekin ezkondu zen Bedaia bertara.

Juanita Zubimendi Ibarguren (1926-2017)



[Zestoa](#)ko Arroa auzoan jaio da, Muskandegi baserrian. Zortzi senidetan zaharrena, baserriko lanetan eta senideak zaintzen pasa zituen urteak 15 bete arte, Zarautzera joan baitzen orduan neskame gisa. Lau urte beranduago, etxera bueltatzeko gogorik ez eta Tolosako Politena tabernan lan egiteko eskaintza jaso bezain pronto hara joan zen lanera. Bertan ezkondu zen 22 urte zituela Jose Aierberekin. Tolosan bizi izandako garaia kontatu dizkigu, besteak beste, taberna giroa, inauteri eta San Joan ospakizunak eta euskararen egoera. Bere hizkera, jaioterrikoaren eta Tolosaren arteko nahasketa dela esan daiteke.

Joxe Mari Zulaika Aizpurua *Paskualsoro* (1938)



Zarauzko Urteta auzoko Paskualsoro baserrian jaioa. Lurrez Zarautz egiten bazen ere, baserria gertuago zegoen Aiatik, eta hala joaten ziren Paskualsоротik Aiako Urdaneta auzora mezetara. 10 senidetan gazteena, Joxe Marik oso gaztetatik izan zituen herri-kirolak gustuko. Idi-apustuetan aritu ondoren, segari ekin zion, eta gerora, harria jasotzen ere aritu izan da. Gizon txikia bezain indartsua, gazteei erakusten ere jardun izan da. Bedaioko (Tolosa) [Pakita Balerdi](#)rekin ezkondu zen.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Ohiturak eta bizimodua

1.1. Katalintxoren istorioa

- **Hizlaria(k):** Zubillaga Agirrezabala, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** TOL-001/005
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:13:00. **Bukatu:** 00:14:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- **Laburpena:** Neska gazteak ehunezko arropak josten aritzen omen ziren gauetz. Behin, gaueko 12etan lanak bukatu eta etxetik ateratakoan ilargi ederra zegoela ikusi zuten. Katalintxo etxeari bueltak ematen hasi zen. Hirugarren buelta ematen ari zela,ugar bat izan zen eta betiko desagertu omen zen.

Transkripzioa

- Ta bestia, Katalina txikiyana, nola zan?
- Zugastibarrenen, Zugastibarren badakizu zuk nun daon, Belarmugatik beheraon. Han, neska gaztek gauean eitten emen zuen, lanak eitten zittuenen... Urdun ehunezko arropan aitzia izango dezu /izangozu/, ta ehunezko maindirek-eta nola itten zittuen. Ta haik itten-ta aitzen emen zien, gau baten baten itxea, besten beste itxea... Ez dakit zenbat lagun ibiliko zien, neska gaztek. Ta gau baten jun ta saioa in emen zuen, ta gauen hamabik eta "Beno, erretiratu behar deu". Atera emen zien ta illargi earra. "Ios, hau illargie!", ta "Bai, earra!". Dena argi-argi-argi. Ta "Itxe honitxi buelta emango nitxoken oaintxe", "Ez dionala ematen!". Hiru buelta. Ta "Baietz eman!", "Ezetetz eman". Bi buelta eman emen zixkon ta, hirugarrenen zetorrela, "Gaue gauekontzat ta egune egunezkontzat, Katalintxo guretzat", ta izan emen zanugarra bezelako zea bat izan emen zan, ta akabo. Hue ez emen zan gehio azaldu.
- Ta hoi zeinek kontatzen zizun?
- Hoik askok dakizkie.
- Bai, e?
- Bai, bai, bai, bai.
- Ta Katalintxo hoi zein zan o? Jakin al da zein zan?

- A! Ez dakit, urtek izango die /izangoie/ hoi zala ta. Hoi ez dakit.

1.2. Mateo Txisturen ipuina: apaiza ehizara joan eta desagertu

- **Hizlaria(k)**: Zubillaga Agirrezabala, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: TOL-001/006
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:14:23. **Bukatu**: 00:16:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- **Laburpena**: Apaiza ehiztaria omen zen. Behin, meza eamteari utzita txakurrekin ehizara joan zen; desagertu eta inoiz ez omen zen itzuli. Goikoaren zigorra zela esaten zuten, meza emateari uzteagatik. Orduz gero, Mateo txistu ezizena jarri zioten apaizari; eta, gauean soinurik entzuten bazuten, hura zela esaten zen.

Transkripzioa

- Ta gero apaizana ´re bai, esan nizun. Apaiza ´re.
- Nola zan hoi?
- Ehiztarie emen zan. Apaizak, gaiñera, asko esaten due ehiztariek diela. Ehiztarie. Meza ematen ai emen zan, ta ehiz-zakurrek zimitaiyoa erbie ekarri. Uau-uau ta uau-uau, ta bere hortan utzi meza emateko gauzek ta atea ta martxa. Apaizek alde ein emen zun zakurrekin erbie o zean segika o... Ez zuen harrapatuko, baiño behintzat. Alde ein emen zun, akabo gehio apaiz hue ez emen zan azaldu [esaten zuen].
- Ta hoi dana sorgiñak omen zian? Hoi ´re sorgiñei zeatzen zitzaien?
- Sorgiñe ez, hoi beste aldea. Nunbait apaizak meza ematen ai dala ez du... ez zaio tokatuko zeaik, ateatzea, meza ematen ai dan kason. Baiño han goiko harrek eo zerbaittek zeatu zun hure. Hoi esaten zittuen behintzat. Nola alde in zun, ta akabo. Mateo Txistu.
- Hoi zein zan?
- Mateo Txistu esaten zuen, ba. Mateo Txistun zeak, ohiuk-eta, gauen ezer aitzen baldin bazien, "Hara! Mateo Txistu hor dabil".
- Txistuk-o aitzen zian?
- Bai, hori aitzen zan.
- Eta zein zan Mateo Txistu hoi? Gaiztua zan o?
- Apaiza horrengatik emen zan hoi. Horri jarri ziuela hoi esaten zuen. Mateo Txistu hoi. Apaiza meza ematen ai zala nola alde in zun, ordun ´e apaizak eo obispoak o zeatuko zuen hoi. Ba, akabo. Hure ez emen zan gehio azaldu.

1.3. Umeak nola hezi? Lehengo eta oraingo metodoa

- **Hizlaria(k)**: Jauregi Maiza, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: TOL-003/005
- **Iraupena**: 0:05:11. **Hasi**: 00:15:03. **Bukatu**: 00:20:14
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**

Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
 Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
 Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
 Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

- **Laburpena:** Eskolarako gogorik ez zuen izaten, oso urduria baitzen; ezin izaten zuen kontzentratu. Katona erabiltzen zuten ikasteko; orduko irakasleari buruz hitz egiten du. Lehen umeak jo egin behar zirela uste zen; gaur egungo umeen heziketari buruzko iritzia ematen du. Behin aitak itulan egiteko eskatu zionean izandako pasartea kontatzen du eta horren harira izandako gogoeta.

Transkripzioa

Eskolako ez nun gogoik. Batez. Gogoik batez. Eskolai nion bildurre. Nitzen oso-oso nerbiosoa. Eta ez neuken baseik. Ez neuken amaik. Ez neuken erakusten dunik. Ez neuken... ideaik ez neuken, eta neoni ez nitzen gai, alegie, eskola ikasteko ze formazio jarri behar non. Neri esaten baziten: “liburu hau [letu] zazu”, burue bajatuko nun, ta nik letrai, bai, baiño... eukiko nittun zazpi milla pentsamentu ta nik ze letzen ai nitzen bate ez nekin. Letu itten non. Ikesi non nik. Nik ikesi non dotriñe, ikasi non maunuskrito ta ikasi nittun [hoik]. Baiño... Katona´re bai, zeak esan zuna, Juanek esan zuna /esantzuna/. Aurrena, kantona, Gabinakin. Aittu giñen esaten harek jotzen zula-ta, baiño ez gendun /ezkendun/ eman... meritue bazula esan behar gendun. Hori iristen zaneaiño, harrek Bedaion lan asko in zun, peztik kobratu bare, e! Bakarren batek ogi-kozkorren bat eo [...], ta [...] pixka bat´e bai. Nik´e eaman izan nun [...] pixka bat. Hantxe egoten zan hure. Ze[jo] behar zun harek? Harrek asko in zun. Harrek Bedaioko umei dotriña eakutsi zien. Ta bee izena itten, ta letzen´e bai eakutsi zien harek. Hori asko zan garai hartako! Ta iñok eskerrik ez zion ematen hari. Zartakok ematen [eztakit ze itten] zittula. Jakiña, orduan hala baitzan. Lehenaotik zetorren umea jotzeko ta... jo in behar zan edukazioa emateko. Ta gaur´e pixkat gogortxio ingo balitzaio hobe. Jo ez de esaten, baiño... Umea jotzea ez da ona, e. Eta umea jo behar baldin bada, arrazoia oso segurutik behar du, e! Ez baldin badau seguru-segurutik ez pentsatu gero ume harrek asko dakila, e! Nik esango dizut kaso. Ni tokatu nitzen behin itxulen ibili beharren, gogoan kontra, ta desarrazoian. Nik arrazoi ta ez banu bezela tratatu eta nik itzulen ibili behar izan nun. Nik eta nere arrebak gendun tratua iñe, nik, gosalduta arte —goizian egunsentittik juten nitzen sorora idik-eta lotuta, ta—, ni ibiliko nitzela gosalduta arte itzulen. Eta nere arreba —hor zan herrin lehengon— hure ibiliko zala gosalduta gero, handik atzera, [hamabiyak] bitarten. Tratua in gendun. Hure gosariyakin jun zan, ta ez zun gutxi in, gosaltzeko gogoa inda neon ni´re ta. Jan gendun bapo ta nere arten “Oain libre nauk. Ño! Oain jolasera juteko modun nauk” eta ni gustora. Ta nun esaten dio /esateiyo/: “Aitte, nik itzuleako... ni ez naiz itzuleako... ez dauket nik itzuleako gogorik”, “Ze ez daukezula gogorik? Zuk itzulan ibiliko zeala esan dezu! Ni gosalduta arte ibiltzeko, ta zu geo ibiliko zeala ta. Oain ez daukezula gogorik? Ezta nik´e! Ni ez naiz ibiliko”. Aitte zanak, ez dakit nik, ni motille, hure nexka, ni baiño zaharrao zan, baiño ni gogorrao jotzen niñun eo zer eo. Deskuidatu da ni itzulen jartzeko esatera aitte, ta aittek behin esan ezkerro ein ein behar, ba, [...] soro aldetik, [...]. Hala, itzulen jarriazi nau, heldu [beso...] eamanda. Jarri nau itzulen ta, pentsa zazu nik orduako ze letxea neuken, txapelak-eta burutik-ta tira harrika ta anda la letxe goitik behera abittu nitzaión! Zenbat urte eukiko nittun nik? Zortzi urte eo, ez dakit, ba, ze eukiko nittun... hamar? Ez dakit. Zortzin bat urte. Ta, jakiñe, saltatu da ta harrapatu nau ta

ipurdie bero-bero-bero ein ta egoarte guziko hotzak kendu. Miñe ez, e? Erresumiñe nik geo sentitzen nun. Miñik batez! Ta nik gaur arte. Nik aitte zanai esan izandu nion, e. Ta arrebai oaindi ez da denbora asko esan diotela: "Nik oaindi hartu dittuten ipurdiko haundienak honen paltaz!". Ordun, umeakin kontu haundia behar da, nola agindu behar zaion, gurasok, gaiñantzen umeak gogoan eukitzen du. Ta gero txarra izaten da zea, [kontrastea] bueltan. Oain, nik aitte maitte nun, ta aittek´e bai ni, ta horrengatik zea, baiño... beti behintzat kontu pixkat eukitzea gauze inportantea dala, umea ez dala edozein moduz aurren hartzekoa desarrazoian. Ez baita ontzen! Onduko balitz, zerbaitte eittea badau; umea gaiztatu ein leike desarrazoian edozein moduz tratatu ezkeo. Hoi da kasoa, azken baten.

1.4. Txanbrak, kankanak eta buruko zapia

- **Hizlaria(k)**: Jauregi Zubillaga, Maitere; Jauregi Zubillaga, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: TOL-006/013
- **Iraupena**: 0:01:57. **Hasi**: 00:20:32. **Bukatu**: 00:22:29
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**: Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- **Laburpena**: Gazte garaian, nola janzten ziren azaltzen dute. Emakumezkoen txanbrak nolakoak ziren kontatzen du: lepo aldean itxiak, paparrean botoiak eta gerri aldean bolanteak. Gonak, berriz, beltzak edota "pinttoak" izan ohi ziren, eta kankana ere jarri ohi zitzaion "harrotzeko". Emakumeak 40 urte ingururekin hasten ziren buruan zapia jartzen.

Transkripzioa

- Garai haietan ze erropa jazten zenduen? Nik ez det imajinatzen, ba, nola jazten ziñaten.

- Maria: Oain ikusten da, e, garai haitan´e gonak eta... Ordun txanbra beltza esaten zitzaion, brusa beltza bezala, txanbra. Itxik, botoi beltxakin ta. Hemen bolante pittin bat izaten zun, ta itxie, bere kuello itxiekin. Txanbra. Ta gero gona beltza, o pintto... zea, txuri-beltza. Eta hoi´re asko ibiltzen zien. Asko. Ta brusa txurie. Brusa txurie eta gona, esan dizutena, pintto hoitakoa ta beltza. Eta dena estilo hortakoa, kolore hortako zea ibiltzen zan.

- Eta pañueloa ibiltzen zenduen?

- Maria: Ez, gaztek ez. Ez. Behin edadeko... Emakumek ze? Berrogei urte ezkeoz hasten zien hemen pañolo ta zea hoikin. Pentsa zazu ze... Ta oain, [beira], zea. Eta, gaiñantzen, ez. Gaiñantzen, [beak] zeatu ta...

- Maitere: Lehenao beste bat izaten zan...

- Maria: Moño in ta, jenealen...

- Maitere: ... kankan esaten zitzaion. Dana harro-harro-harro ein, zeñek baiño zeñek harroago jarri.

- Maria: Gona, kankan esaten zitzaion.

- Kankan, azpiko gona?

- Maria: Azpiko gona zeatu.

- Maitere: Azpikoa ta gaiñekoa´re bai, e?

- Maria: Bai, bik, karo, gaiñekoa zeatzeko.

- Maitere: Dena holaxe harro-harro-harro ein ta...

- Zenbat harroago, politto?
- Maitere: Zeiñek baiño zeñek harroago jarri ibiltzen zan jendea. Kankan esaten zitzaion ordun harri. Gogoratzen al zea? Kankan.
- Maria: Kankan. Bai, bai. Kankan esaten zitzaion. Kankan esaten zitzaion harri.
- Maitere: Hoik guk ezautzen genduna.
- Maria: Bai, kankana, “el cancán”. Gona kankan, buelokin ta. Baiño brusa txurie kantidadea ibiltzen zan. Ta beltza´re bai. Gona beltzak eta brusa txurie kantidadea ibiltzen zan. Ta soiñeko ttanttodunek-eta ordun´e jartzen zien.
- Maitere: Bai, gonak eta [...] ibiltzen zien, denetatiken.
- Maria: Bai, denetatik ibiltzen zien.
- Maitere: Ordun ez zan ikusten oain bezela galtzaik-eta, e! Ez, ez.
- Maria: Bai, zea! Ez.

1.5. Ogia egiten eta labea garbitzen

- **Hizlaria(k)**: Jauregi Maiza, Valentina
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: TOL-011/002
- **Iraupena**: 0:02:55. **Hasi**: 00:01:16. **Bukatu**: 00:04:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
Baserria » Baserriko lanak » Garia
- **Laburpena**: Etxean zer jaten zuten azaltzen du: babarrunak eta azak egosita, labeko ogia... Ogia nola prestatzen zuten azaltzen du. Labea garbitzeko hostoa jartzen zuten makilaren puntan.

Transkripzioa

- Etxian jateko, danok jateko, ze ein behar izaten zenduen?
- Jateko ta? Ba, su bajun babarruma ta azak egosi behintzat, bazkaltzeko. Haik preparatu ta haik. Ta ogie, berriz, labea gendun, ogie erretzeko labe zea bat, ta ogie han erretzen gendun. Orrea ein. Gero hure hola harrotu arten etxoin.
- Nola izaten zan hoi?
- Zea ein, masa, ta gero hure tapatu ta uzten gendun orro-mahaie eo erro-mahaie esaten giñekiun, han eitten gendun. Eta gero trapu batekin hure eitten gendun tapatu pixkat, ez hoztutzeatik. Ude beroakin-ta masa hoi eitten zan, ta ez hoztutzeatik. Ta gero hure eitten zan harrotu orre hori.
- Bere kasa harrotzen zan?
- Bere kasa harrotzen zan. Ta gero harrotzen zan garain, ez dakit nik zenbat denbora pasako gendun, ordu erdi bat eo [...], geo puxkek ein, ogie tamaiñeko puskek, ta gero [berriz hure], masa, gozatu ta pillen jarri. Labea berotzen zan sue einda, aurretik sue einda, ta geo labea dena garbittu. Ze esaten... laba-xatarra esaten giñekiun guk.
- Zer zan hoi?
- Eitten gendun, ba, hostokin. O lizarran hostok baldin bazien garai hartan, haikin; gaiñantzen beste zeozer, hostoa zuen zeakin. Makille luze baten, eta hure han lotu hosto hoik, ta gero laben. Klaro, garbittu ein behar. Nola ikatza ta hautse, han berotzeko nola sue eitten zan. Garbittu labea.
- [...]. Nola garbitzen zenduten?
- Hostok... Bai, makillen puntan jarri hosto haik, eskoba bezela, eskoba

balitz bezela, ta laben garbittu, labea garbittu.

- Nola deitzen zeniyen horri?

- Labe-xatarra esaten giñikiun guk. Ez dakit.

- Eta ze egur erretzen zan laben?

- Bueno, zeona. Bai. Ba, pagoa izaten zan onena. Oain, aurretik txikituta.

Gero, ogia ateratzen zanen, egurrek hezek igual izaten zien, ta laben

sartutzen gendun. Ogia atera, zeatu, ta gero hurrengo errealdirako laben

sartu egurrek ta ihar-ihar-ihar eitten zien su beroa... labeko bero harrekin.

Ta gero hurruna ogie erre behar gendunen, berriz atzea sue eman,ta haikin

ein ogie. Bueno, haik garbittu ta labea berotuta. Bai.

1.6. Gastuak; errenta eta konjurua

- **Hizlaria(k):** Zabala Olazabal, Eugenio

- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren

- **Erref:** TOL-013/008

- **Iraupena:** 0:00:42. **Hasi:** 00:08:08. **Bukatu:** 00:08:50

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**

Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

- **Laburpena:** Etxearen errenta pagatzeko lanak izaten omen ziren.

Elizari ere zerbait ordaindu behar izaten zitzaion "harria ez egiteko

konjuruagatik".

Transkripzioa

- Erentan kontuk...

- Errenta kontue. Errenta ni ez naiz gogoratzen zenbat izango zan. Baiño behintzat hue´re pagatzeko komeritan ibiltzen zien. Hori badakit.

- Aitzen zenduen etxian "laixte errenta pagatu beharko deu" ta...

- Bai, bai. Ta geo elizea´re ez dakit nik zenbat eamaten zan. Konjurue itten zuen, harrie ez itteko ta ez dakit zer. Meza ateatakon itten zuen konjurue.

Elizatik kanpoa atea ta apaizak eitten zun konjurue. Hure´re ez dakit

zenbat pagatzen zan. Geo ez dakit beste ze. Elizek behintzat bere zea

batzuk bazittun. Ta beti... beti eziña. Beti eziñean.

1.7. Martinen umetako egun bat

- **Hizlaria(k):** Balerdi Gorostegi, Martin

- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren

- **Erref:** TOL-014/004

- **Iraupena:** 0:03:31. **Hasi:** 00:05:15. **Bukatu:** 00:08:46

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**

Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina

Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak

- **Laburpena:** Martinek aitarekin egiten zuen lo. Berak izendatzen zizkion

eguneko lanak. Goizekoak: oiloei jaten eman, meza lagundu, dotrina

ikasi auzoko emakume batekin. Arratsaldean, goizean ikasitako dotrina

galdetzen zieten. Etxera itzulitakoan baserriko lanak zituen zain: ardiak,

oilok eta abar.

Transkripzioa

- Nik, nere lana izaten zan, goizen, jeiki. Aitteen itten nun lo, aitteen batera, ohi baten itten gendun. Aitteen esaten zin: "Tira, Martin, muittu hai, lanak itteko zerek eta". Beno. Goizen jeiki ta jarriko ziten kafea o kafesnea o jarriko ziten. Ezta? Eta gero esango ziten: "Beira, oain oillo-etxea jun behar dek". Oillo-etxea izaten zan hemendi larehun bat metro inguru izaten zan oillo-etxea. "Oain oillo-etxea". Ta hure. Goizen jun, txuloa irekitzen nien oillori, jana ematen nien ta etxera etortzen nitzen. Ta etxera etorri ta gero hurrengo lana izaten nun, ba, esaten zin: "Zeak esan dik, apaizak esan dik meza laguntzea juteko". Ta meza-laguntzaillea neoni bakarrik neon, beste mutillek alde in zuen aurretik zerenak, eta meza-laguntzen. [...] goizetan hola. Zazpitan eo zazpi t'erdik, zortzitan izaten zan meza, ta hola, geo meza laguntzea. Gero etortzen nitzen etxera handik. Etxera etorri ta ogi-kozkorren bat'e jango nun, hola. Ta geo dotriña ikastea. Dotriña. Beatzitako, e? [Goizen] beatzitako dotriña ikastea juten [giñen]. Ta han zeon emakumezko bat, ez zun titulue, ez zan maestra, ez zan... baiño zaletue zan umeri eakusteko zea; beak zekin guzia erakusten ziun. Guri moldezko letra harrek erakutsi ziun. Bai. Eskribitzekoa ez, e? Hori ez zekin.

- Moldezkoa.

- Moldezkoa. Moldezkoa esaten diou /esateyou/ ba liburuei, liburuko letrea da moldezko... Hori jakingo dezu /jakingozu/, noski. Bai. Ta han, han ikasi gendun; dotriñek eta danak, handik ikasi giñun. Bai. [...]

- Nun ematen zenduen hoi?

- E?

- Nun ematen zizkizuen...?

- Hantxe bertan. Hantxe bertan, dotriñetxen.

- A!

- Dotriñetxea esaten [giñekiun], dotriña emateko etxea zeon, lekue, kuartoa zeon.

- Elizan bertan?

- Ez, ez, aparte zeon hoi, zimitoriyon. Beste gauza gehio're... billerak eitteko, elizeako zerbait behar zanen eo hau zala eo segizik eta gauzak eta bakarren bat hiltzen zan garaian... Gero ardoa ta ogie're ematen [zien], berriz, mezeta juten zientantzat eta biltzeko etxe hoik hola zien. Bai. Hola zien kuarto hoik. Bai. Gero, hangoa eitten gendun, etxera juten giñen hamabitan ateata, ta bueno. Geo, ba, aatsalden berriz'e juten giñen ordubateako, eo ordubitako. Jarri ordubita, bai. Ordubitako juten giñen ta ordubitan juten giñen ta goizen ikasi genduna aatsalden galdetzen ziun, sailleen jarrita, dotriñe, ta bakoitzek erantzuten gendun. Ta ez bagendun ikasi, ez gendun erantzuten. Ta esaten [zun]: "Ez dek ikasi, e?" ta "Ez dek ikasi" ta, bueno, ba "Biharko ikasi, e?" ta hola. Gero, hala, atsaldeko hori ein ta geo etxera etortzen giñen, ta etxekokin baten ardi ta oillo ta... itzulen ta... E? Ganauen itzulen ta danen ibiltzen giñen, ta bueno.

1.8. Euskarazko bi dotrina mota buruz ikasi

- **Hizlaria(k)**: Balerdi Gorostegi, Martin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: TOL-014/006
- **Iraupena**: 0:02:34. **Hasi**: 00:11:30. **Bukatu**: 00:14:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina
- **Laburpena:** Bi dotrina mota ikasten zituzten, bata erdarazko hitzez betetako euskarazkoa eta bestea euskara garbikoa. Biak eraman zituen ikasita Martinek (buruz esaten ditu pasarteak), eta apaizak komunioa eman zion azkenik.

Transkripzioa

Apaiza han zeon, silloi haundin eserita, han zeon jarrita, holaxe. Maestrak esaten zion... Esan zion: "Aaa! Nerekin ikasten ibilita, ikasi ez duna, hemen komulgatuko ez dala-ta nola utzi dezu?", hola. Eta apaizak esan zion zeai, maestrai esan zion: "Ea, galdetu, dotriña galdetu ea badakin o ez dakin zerbait", dotriña luzea izaten zan! Eta hola. Eta maestrak esan zion: "Nik honi galdetzen hemen aritzen naiz hola, baiño ez al da hobe... jakin behar dezuna /behazuna/ zu zea ta zuk galdetzea?" esan zion, apaizai esan zion, "Zuk galdetzea ez al da hobe?". Ta, bueno, ba, Hala, jarri giñen mahaien. Hartu zun liburue, dotriña hartu zun, ta esan ziten "Nor da Jangoikoa?" esan ziten, ta "Dago gauza bat pentsatu ahal litekean baino eszelentegoa, [...] jaun bat da [...] poderoso, sabioa, justoa, printzipioa, fiña ta gauza guziena". Hori erantzun nion hola. Ta "Aa". Bi ikasten ari giñen. Hoi erdie erderaz zun horrek. Antzemango ziozun. Hoi lehen... zahar-zaharra, aurreneko dotriñe zan ta. Ta bigarrena zan, ze, euskera bizigon ateatakoa zan bigarren dotriñe, bai? Ta esan zion zeak "Ikasten ari danai zuk galdetuiozu" apaizek esan zion maestrai hola. Ta esan zion "Nor da Jangoikoa?" ta "Izan littekeen izakirik bikaiñena, zeru-lurren egillea ta jabe onari betiko zoriona ta gaiztoari betiko zoritxarra emango dion jauna da Jangoikoa" esan nion. "Bai, bai, bai", maestrak. "Ta?" apaizai esan zion, "Ta?", "Ba, komulgatuko det. Komulgatuko det". Ta komulgatu giñutzen ta akabo. Gauzak nola izaten dien, e?

1.9. Euskara garbiko dotrinak zaharra ordezkatu

- **Hizlaria(k):** Balerdi Gorostegi, Martin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** TOL-014/007
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:14:04. **Bukatu:** 00:15:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina
- **Laburpena:** Martinek dio eskandalu edo eztabaida handiak izan zirela bi dotrinak zirela eta. Maistrak zaharra bakarrik zekien, euskara-erdara nahasturikoa, baina apaizak berria, euskara garbikoa, ezarri zuen.

Transkripzioa

- Zuek bi dotriña ikasten zenituen?
- Bi, bi. Bai. Bi. Aurrena aurrena esan dean hoi, erdi euskera erdi erderaz ateratako dotriña. Ez dakit noiz aterata izango zan hoi. Lehengo ze, zaharren ateratakoa. Ta gero, berritu zan garaian, horrekin eskandalo haundie izan gendun.
- A bai?
- Bai! Horrekin [arazo] haundie izan zan.
- Zer ba?
- Batzuk danak utzita bat´e... bat´e... utzi ta bat´e ikasi [gabe]

geratutakok bazien, ez zeola ikasteik eta.

- Zuek aurrena hasi ziñaten dotriña zaharra ikasten?

- Zaharra, bai, zaharretikan.

- Eta halako baten, apaizak erabaki zun dotriña aldatzia?

- Bai, han erabaki zuen dotriña berrie zertzea, ateratzea, ikastea. Eta ordun, maestrak´e lehengo zahar hure bazekin memoriz dena, dena o ondo [...], baiño harek´e berriik ez zekin. Eta berri hure ikasteko, ba, jun behar gendun apaizangana ta harrek jartzen zigun [egunero] dotriñe. Liburu hure hartu ta handik ikasi ta zertzeko. Hoik danak hola eman giñun. Ez dakit xuxen-xuxen esango dittuan, baiño hoik hala die. Hoik halaxe die gauzak, bai.

- Eta zeuek zeuen liburua bazenduen dotriñana?

- Bai, bai, bai.

- Ordun, bi euki zenituen zuek?

- Bai, bai, bi eukitzen giñun, bai. Nik etxen hantxe nun ta han geratu zan. Han ez dakit ze ingo zuen handi aurrera. Gero iñok ikasi zun o ze in zuen ez dakit. Ilobak-eta bazien, baiño ez dakit ikasi zuen.

1.10. Fraideei ogia lapurtu labetik

- **Hizlaria(k)**: Balerdi Gorostegi, Martin

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren

- **Erref**: TOL-014/010

- **Iraupena**: 0:03:36. **Hasi**: 00:23:12. **Bukatu**: 00:26:48

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Gaia(k)**:

Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdota, kontakizunak

- **Laburpena**: Arabako Valdegobiara (Gaubea) joan ziren lanera komentu batera. Ogia fraideei labetik lapurtu eta nola jan zuten kontatzen du.

Transkripzioa

- Arabaa jun giñen, valle Valdegovía. Araban azken-azkeneko barrioa da.

- Baiño harea... Baiño zuek fabrikan iten zenduenen Patrizio Etxeberrianen lana, nun iten zenduen lo ta jan ta hoi dana?

- Guk ba... jartzen ziun, konparazio batea, beira, esango dizut, gaur jartzen digu /jartzeiu/ Oiartzunen lana, ezta? Beno, esango dut /esangout/.

“Oiartzunen daukezue lana”. Oiartzunea jun ta holako lekutan bazkarie daukezue, ta holako tokitan afarie daukezue, ta holako lekutan lotako lekue daukezue jarrie.

- A! Egokitzen ziñeten...

- Bai, egokitzen zan tokin.

- Eta bitarten ze lan in behar izaten zenduen?

- Han itten gendun, ba, esaten dana, liburuk-eta jartzeko, liburuk-eta beren lekutan bilduta-ta jartzeko, lekuk-eta jartzeko, arotzai lagunduko ziozun...

“Carpintero”. E? Arotzai lagunduko ziozun batzutan, ta besteai, berriz, hargiñe izaten zan. Hargiñe izaten zan, ba, “albañil” o zea. Harrek eramaten zun eskuzko lana zea itten eta gero arotzak eramaten zun atzeko lana gauzak-eta kolokatzeko. Hori izaten zan. Bueno. Valle de Valdegovía. Bai, guk... Han´e fraileri ogia lapurtu nien.

- Nola?

- Jesuuss! Gosek genden ba. Lau motil genden, lau motil giñen. Zer da ta behera, sartu nitzen hola behe xamarrean ta etxen... Kolegioa aparte zeon,

baiño zeuzken behiek, zeuzken oillok, zeuzken txerriik, zeuzken patok eta danak errekan ondon, beren ikuilluekin, gauzeekin-ta jarri ta han zeuzken. Ta, ba, esan nun: “Hemen, kasuen sos, hemen zerbaitt´e hola...” ta. Hola, labe haundi bat zeon ta ni labea lehenok´re ikusita neon, labek ikusita neon hola. Ta hoi baiño pixka-pixkat lodixeoko tubo baten batzutan kea ateratzen zan behetik gora. “Hor, hor badek zerbaitt´e” esaten nun, “Hor ogie erretzen egongo dek /egongok/”. Hala, goitik behera saltatu nitzen ta behera jun ta, labea, atea ireki nion, eta “dak” eta bi ogi zeren. Zeatik izango zien han sartu zienak hogeta hamar bat igual sartuko zittuen, hola, haundiek. Haundiek ez, baiño zeak zien. Eta gero baxtarren-eta izaten dienak ez die behar bezela erretzen, erdi aldera beroangana bildu ber. Eta ondo erreta zerenak, behar bezela erreta zerenak, atera ta haik han utzita zeren erretzeko. Ta “Bai? Ez [ete dik] dana jan behar?” ta nik hartu bat eta eraman niñun. Ta laguneri esan nien: “Hi, ogie ekarri dit hola ta jan behar diu hola”. Ta bat guk baiño gehixo aintzen zuna bagendun lautatikan bat, Joxe Manuel [Ibarluzea] zan haure, mutilla, bai. Hure gu baiño arreraxeo zeon, harek zertzen giñon, bakarren bat behar izaten da ta. Hala, “Mmmm...” esaten zin “Ez zekit...”. Hala, dana jan gendun. Dana jan gendun ta hala pasa giñen. Iñok ez zun ezertxo´re esan ta ondo.

1.11. Martinek ogia lapurtu zuena bera izan zela aitortu

- **Hizlaria(k)**: Balerdi Gorostegi, Martin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: TOL-014/012
- **Iraupena**: 0:03:10. **Hasi**: 00:29:42. **Bukatu**: 00:32:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
 - Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena**: Behin, bi ogi harrapatu zituen baten orde. Fraideak konturatu, galdeketa egin eta Martinek berak lapurtu zituela aitortu zuen. Fraide euskaldunaren barreak. Martinek ez zekien erdaraz garai hartan.

Transkripzioa

- Hala, etorri zien bi gizon hoik...
- Egon e. Ahaztu zait nun genbiltzan. A! Zuek fraileei ya lehenengo egunen ogi bat lapurtu, hurrengon bi...
- Hurrengon bi, bai, hurrengon bi. Valle de Valdegovía zan hoi, e? Arabako zea zan hoi, Angosto. Hola. Bai. Bale. Hurrengon bi eraman nittun. Ta geo, etorri zien bi apaiz, bi fraile etorri zien. Lanen ari giñen tokira, [aizu], izenez deitzen [...]: “Aizu, etorri honeaiño”. Ta aurrena buru itten zuna o pixkat zeatzen zuna hari deittu ziu. Ta bueno. Esan nun “Ño!Arrazoi txarren bat badiu”. Hala, behera jeitsi zan hure. Harrekin hizketan nabillela, euskeraz-erderaz bietara iten zun harrek, ta hola ta hola [...]. Harek ez zekila ezer, harek ez zekila ezer, harek ez zula zeatu [...] eta hola ta. Bueno. Besteei galdetzeko harri galdetu zien bezela ta zer esaten zien. Ta hola. Hure jun zan ta hurrana nei, “Martin etorri!”. Esan ziten, “Beira — lagunek esan ziten—, oain hiri deittuko die ta eorrek jakingo dek ze esan behar dieken. Galdetzen diken garaien eorrek jakingo dek ze erantzun behar deken”, “Bai, nik pentsatuta zeukeat” esan nion, “A, beno, hobeto

ordun” esan ziten. Hala jun nitzen. Ta “dak” eta jarri nitzen han. Bat alde bateti ta bestea besteti, ta ni oain naun bezela, zure aurren. Han jarri nitzen bin aurren, holaxe. Ta, bueno. Ta, bai, nola ogiik faltatu zaizkien eta... erreka haundi bat zeon han ta handikan pasatuta-eo bakarren batek gauen-eo zertuta, sartuta-eo harrapatu zittun eo zean ta... Ez zekiela, ta gauzek... gu giñen eo ez giñen jakin in behar ziela, gauzek jakin in behar ziela ta hola ta hola ta... Esan nion, esan nun: “Ez euki iñon zeaik. Iñon errezelo txarrik ez euki — esan nien hola—, ogiik harrapatu dittuna ni naiz” esan nien. Uuu... mekauen sos, hola. Kastillanoa hure, hola; entenditu zun nahi beste harek. Esaten zian: “¿Todavía tienes valor? ¿Todavía tienes valor para decir eso?” esan ziten hola, “Pues —esan emen nion —, pues, señor, el hambre no tiene límite” esan emen nion. Ez dakit hala esan nion! Hala, behintzat. Hasten da /hastea/ euskaldune parrez! Bestea serio ta... Gero, bueno.

1.12. Hilkutxa hilerrira iritsi arteko bidea

- **Hizlaria(k)**: Txintxurreta Larrañaga, Pakito
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: TOL-017/007
- **Iraupena**: 0:01:03. **Hasi**: 00:10:13. **Bukatu**: 00:11:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- **Laburpena**: Lehen norbait hiltzen zenean, etxetik eramaten zuten gorpua elizara eta hilerrira.

Transkripzioa

- Garai baten, por ejemplo, pertsona bat hiltzen zanen, oain bezela ez zan egongo tanatoriyua ta...
- Ez, etxeti ematen zuen gorputze, etxeti.
- Nola izaten zan hoi?
- Hartu lau lagunek kaja bizkarren, ta oiñez hemendi Albizturko kanposantua.
- Albizturreaiño?
- Albizturrea. Han elizatik gaikalden da kanposantua Albizturren. Hareaiño bizkarka hemendi, bai. Ni emanda nao hor beheko gizon bat, lau lagunek. Kajak badakizu nola izaten dittun zeak lau aldetati. Hartu bizkarren, ta Albizturko kanposantuaiño; elizaa eman ta geo kanposantua.
- Zenbat bide dao hemendik Albizturko kanposantua?
- Hemendikan kanposantua? Ia orduerdia baiño gehio behar du. Baiño elizen aurrea uzten zan; geo, kanposantua ematen zan. Berriz...
- Ta elizaa arteko bide hoi dana lauek iten zenduen o releboka o...?
- Lauek eman ta kitto. Iñok [eze... releboik] ez du itten ordun. Ez. Nik badakit nola eman gendun hor gizon bat hor behekoa.
- Eta ez al zan izaten, ez dakit, ba, ondoko baserritakok bidea mahaien bat atea deskantsatzeko o?
- Bai, ateako zuen nunbaitten o. Eliza ondón e bai ta.

1.13. Urkizuko eskolako oroitzapenak

- **Hizlaria(k):** Jauregi Zabala, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** TOL-018/006
- **Iraupena:** 0:03:27. **Hasi:** 00:10:01. **Bukatu:** 00:13:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
 - Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- **Laburpena:** Errepublikara garaia bizi zuen Mariak; Urkizuko eskolan eta Tolosako Ensenñazetan ikasi zuen. Urkizuko eskola nolako zen aipatzen du: apaiza zen maisua, euskaraz erakusten zuen, zer ikasten zuten... Maisu bati ikasleek beldurra zioten eta piper egiten zuten eskolatik; amona konturatzen zen noiz ez ziren joaten eskolara.

Transkripzioa

- Nola dituzu gogoan gerra aurreko kontuk? Ze bizimodu-klase o...
- Gerra aurreti o ondoren?
- Gerra aurreti.
- A! Gerra aurretiken, ba, egie esan, eskola´re bagendun. Bai. Ensenñazetan Tolosan ibili giñen. Aurrena, hemen. Ta gero, ordun, garai hartan, euskera o zea bakarrik ikasten gendun. Ta gero, Ensenñazetan, nere... denpora pixka bat in nun; han erderaz ta pixka bat han ikasi gendun.
- Ordun, aurrena, hemen egoten zan herriko eskola o auzokoa o...
- Bai, hori da. Bai.
- Nun izaten zan?
- Hor, eskolan bertan. Beno... Elizan... elizak beak dauka eskola, beheran.
- A bai?
- Baai! [...] habitazioa´re konpleto. Ta mojak udaran mojak hor egoten die.
- Ordun... Ura nahi dezu?
- Ez, oain utzizu. Gutxi eaten det; ude gehio ean behar nula esaten die, ta bai, arrazoa. Eta esan detena, ba...
- Aurrena herriko eskolan.
- Bai.
- Ta ze eskola klase izaten zan hoi?
- A, euskeraz oso... euskerazkoa, e. Gaiñera, gero apaizak ematen zuen eskola. Ordun bea... ordun. Eta apaiza zan, gaiñera, don Felix, oso euskadun... [aldekoa]. Azkoiti o horkoa izan behar zuen, Azkoiti o Azpeiti o [hor aldekoa]. Eta euskeraz ta, beno, euskera´re... oso euskaltzalea zan ta eskola´re ematen asko balio zuna. Eta gero hura...
- Ze ematen zizuen?
- Nola esango dizut, ba, beti bezalaxe: aurrena letzen, gero "multiplicar", "dividir", "sumar"... ta hoik denak. Eskola oso ondo erakusten zuen, e? [Zeuden] apaizak, o... Oin, apaizak hemen, ba, bost urte o hola itten zittuenen kanbiatu itten zien. Eta apez bat kanbiatu zuen, hor beheko... Hernani aldekoa, horkoa zan. Eta zan oso jenio bizikoa o ez dakit, ba, umek behintzat gogor hartzen zittuna, [...] hartzen zittuna. Eta hura zan garaian, ikaraz eskolara juteko egoten giñen. Ta bat eo beste piper ere bai iten gendun; ein ein gendun.
- Nola iten zenduen hoi?
- Piper... ba, gu hor... etxetik etorri ta gero hor, bason, hor egon

denborapasa; eta gero hamabitan etxea juten giñen. Baiño gure amona zanak esaten ziun: “Bai, zuek gaur ez zeate eskolaa jun, e”. Harek antzematen ziun hola juten ez giñenen.

- Bai? Nola antzematen zizuen?

- Ordue baiño lehen juten giñelako. Antzematen ziun, bai. Amona bizkorra baizan, bai. Eta apaizak [holaxe] kanbiatu [...], ba, diferentzi haundiko apaizak: batzuk asko balio zuenak eskola ematen; ta beste batzuk, berriz, umek gogorregi hartzen zittulako o ez dakit zer, behintzat eskolaa jun nahi ezta jartzen giñen, zeatutzen giñen.

- Ikara ematen zizuen?

- Bai. Ikara, bai. Gogorregi hartzen zittun umek.

- Baiño euskeraz ematen zizuen?

- Bai, dena euskeraz, bai. Bai, erderaz guk ikasi gendun beheran, zean, Enseñanzetan.

- Ze zuek zenbat urtera arte ibiliko ziiñaten herriko eskolan?

- Herriko eskolan hemen? Ba, [zazpi] urte bai, zeatiken hasiko giñen... zortzin bat urtekin o? Ta zortzi ya... bai, hamaika-hamabi urte arte ibiliko giñen eskolan, bai.

1.14. Tolosako Enseñanzen ikasten ibilia

- **Hizlaria(k):** Jauregi Zabala, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** TOL-018/009
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 00:14:56. **Bukatu:** 00:17:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena:** Tolosako Enseñanzen ikasi zuenean, bera bakarrik joaten zen; joan-etorria oinez egiten zuen. Ordurako ondo ikasia zegoen Urkizuko eskolan. Etxean ahizpa zaharrenak bakarrik zekien erdaraz, eta hari esker elkar ulertzen ziren soldaduekin gerra garaian.

Transkripzioa

- Ordun, Enseñantzatan, ze juten ziñaten bi ahizpak?

- Ez, bi bakarrik ordun juten nitzen. Bai. Hemendiken ya bakarrik.

- Nolatan erabaki zuen zuen gurasok harea bialtzia?

- Ba, eskola gustatzen zitzaien, eskola ematea, ta. Bai. Jun ta etorri... Jun ta etorri oiñez itten nun. Gero bazkaldu han Tolosako ezaun bat bagendun han, beak denda zaukena, eta handik ibiltzen giñen, eta han bazkaldu itten gendun. Bazkaldu eta gero atzera illuntzen, illuntzen o atsalden, berriz etxea, eskolatik irtetzen giñenen.

- Ta, klaro, Urkizutik atea, sekula kastillanoik aitu be iya-ya, ta derrepente moja bat erderaz klasea ematen, gogorra izango zan, ba, hasieran...

- Bai, beno, ba! Ze esango dizut /esangoizut/? Ordun ya hamen eskola bastante ikasita genden. Gero harea jun giñenen mojataa´re han “dividir”-en nik bezin ondo iñok ez zun itten “dividir”, nik bezin azkar ta ondo, han Enseñanzetan´e. Hemen ondo... eskola ondo... apaiza batek oso ondo erakusten zun eskola, e!

- Ta zuk, orduan, kastillanoa aitu zendun noizbait´e?

- Aitu bai, baiño hitz ein ez. Ya... Gero hemen egon zien, gerra-denboran, egon zien militarrek o, ez dakit naparrak o zer zien, kanpokok. Eta gure

ahizpa zaharrenak haretzek zaukan... erderaz zekin, eta hari eskerrak. Gaiñantzen, [denak] erderaz ez zekienak. Ta haik'e militar hoiri hitz eitteko, ba, ahizpa zaharrena arreglatzen zan. Eskerrak harek bazaukan eskola. [Haura]´re Tolosan, ez dakit, hura´re Enseyntzan o ez dakit nun ibiliko zan; behintzat eskolan ibili emen zan pixka bat. Ta orduan ikasi emen zuen erderaz. Han euskeraz ez zekiela-o zea hartan, behintzat ikasi zuen, ta hari eskerrak. Gaiñantzen, hemen iñok ez erderaz. Bueno...! dana euskeraz. Ta lehen esan dizutena... beno...

- Ordun, rekuerto ona dezu zuk Enseyntzatako garaiana?

- Bai, bai, bai. Gaiñera, orduko hemendik juteko ya esaten dizut, ba, dividir ta hoik danak ondo ikasita genden ya. Oain, bakar-bakarrik hoixe, ez giñekiula erderaz; euskeraz bakarrik.

- Ta horreatik parre o iten zizuen?

- Ez, ez, ez, ez. Mojatan errespeto haundia.

1.15. 'Xabiertxo' liburuarekin ikasten

- **Hizlaria(k)**: Ezeiza Otamendi, Santos
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: TOL-019/010
- **Iraupena**: 0:01:57. **Hasi**: 00:15:15. **Bukatu**: 00:17:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
- **Laburpena**: 1934 inguruan hasi zen eskolan, sei urte zituela. Eskolan sartzean, aitagurea errezatu behar izaten zuten, eta Xabiertxo liburua erabiltzen zuten. Liburu hura nolakoa zen azaltzen du.

Transkripzioa

- Ta zu sei bat urtekin eo hola hasiko ziñan eskolan?

- Bai hola.

- Bestek'e bai?

- Bai.

- Orduntxe "treinta y cuatro" o izango zan?

- Bai, bai. Xei bat urte inguru eskolan hasita.

- Ta ze eskola klase izaten zan? Aillatu eskola ta ze in behar izaten zan eo ze?

- Eskola jun ta aurrena errezatu.

- "Aita gure" bat o?

- "Aitaren ta semeren" in ta "Aita gurea" errezatu ta geo eskolan hasi.

- Ta ordun...

- Ta beti liburu bat erabiltzen gendun.

- Ze liburu?

- Oain'e [...] 'Xabiertxo'.

- 'Xabiertxo'?

- 'Xabiertxo'. Nik 'Xabiertxo' hor nunbait ta eskola bati besteai beste baten ordeztu hari eman nion. 'Xabiertxo', bai.

- Ta ze liburu zan hoi, ipuiak hola?

- 'Xabiertxo' zan liburu oso ona. Letra txikik bazeuzken, haundixogok'e bai, haundigok'e bai ta hiru klasetako "numero", letra zeuzken. Ta 'Xabiertxo'kin guk, nik ez e, danok 'Xabiertxo' ibiltzen gendun, danok 'Xabiertxo' gendun garai hartan.

- Ta zertako izaten zan?
 - Eskola ikisteko, letzen ikisteko, letzen ikisteko.
 - Ta zer zien ixtorik hola?
 - Ez, ez, ez, ez.
 - Emaztea: Bakizu zer zan? Gosia ta bista ona.
 - Bai ezta? Karo, antzemango zenien.
 - Bai. 'Xabierto' harekin, harekin ikisi gendun guk. Nik beste liburuik ez dakit, dotriña zea dotriña bai. Dotriña ikisten.
 - Ta 'Xabierto' harek zer esplikatzun zun o ze esanten zun liburu...?
 - Harek gauzak jartzen zittun, ipuiak ekartzen zittun bai. Ta geo hua letzen gendun, hua ikasten gendun, geo maistrana joaten giñen ta geo ze ikasi gendun, han letu behar izaten gendun maistran aurren, ta apaizen aurren. Apaizak maistra ezin du izan, apaizan aurren. Eo neskamen aurren letutzen gendun ahal gendun bezela.
 - Ta euskeraz izango zan hori?
 - Euskeraz zan dana, 'Xabierto'. Ez dezu behin ere aitu 'Xabierto'? Gure [...] eman nion hoixe ta hue. Bai honek ezautzen zun 'Xabierto'.

1.16. Eskolan, 'Xabierto' eta arbela

- **Hizlaria(k)**: Ezeiza Otamendi, Santos
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: TOL-019/012
- **Iraupena**: 0:02:21. **Hasi**: 00:18:05. **Bukatu**: 00:20:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k)**:
 Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
- **Laburpena**: Dotrina eta Xabierto liburuan oinarrituta ikasi zuen. Arbela bazuten eta klarionarekin idazten zuten bertan. Materiala nola zorrozten eta berritzen zuten azaltzen du.

Transkripzioa

- 'Xabierto' ordun dotriña-liburua ta izaten zenduen pizarraik-o?
 - Bai, pizarra haundi batzuk, hantxe zintzilika. Hain aitzen giñan "numerok" itten ikisten, bai, han aitzen giñen.
 - Tizakin o pizarroiakin?
 - Ta gero mapa haundi bat'e bagendun, mapa handi bat'e bagendun. Ez [...] mapa iten, apaizak makilla luzea hartzen zun ta harekin aitzen zan eakuxten.
 - Zer zan Española mapa?
 - Bai, Española bai, Española mapa haundie zan, haundie zan mapa.
 - Ikasten zenittuen Española probintzik-eta?
 - Bai, bai. Batzuk ikisi, baiño oain ahaztu in zait.
 - Baiño saiatze zea behintzat?
 - Bai, bai, bai. Ahaztu in zaixkiu, baiño ordun pixka bat ikisi gendun, bai.
 - Ta pizarra hoitan idazteko, pizarroia izaten zenuen eo?
 - Klarionakin.
 - Klariona?
 - Klariona zurikin. Klarionak bazien, barra luzek bazien ordun'e bai bazien, ta klarionakin haikin pizarra aitzen giñen eskribitzen.
 - Ta haik apaizak beak jartzen zitun eo zuek eosi ber?
 - Beak ez, beanak, beak jartzen zittun haik. Haitxek merkek izango zian

nunbait-eta, ordun ez zan diruik-eta.

- Besteik ez zenuen izango, hola estutxek eo kartapaziok eta oain dauden motxilak-eta?

- Ez, ez, ez. Ez gendun holakoik.

- Lapitzik ez?

- Lapitzak bagiñuzen bai, lapitzak haitxek, baiño beste boligrafo zea tintakoik ez zan. Lapitzakin aitzen giñan danok.

- Lumaik ez?

- Ez, ez, ez.

- Ta kuadernoa eo zeoze bazenuen ordun?

- Kuadernoa bai ekartzen zigun, baiño lapitzakin beti aitzen giñan gu e, beti lapitzakin, beti muturra itteko katxarroik ez gendun, ta kutxillokin in muturra ta segi. Muturra kutxillokin itten gendun, geo sortu zien lapitzen zeak muturra itteko hoik. Geo kutxillokin zorrozten gendun, pixkat muturra in ta harekin aitzen giñen.

- Zeuek ekarritako kutxilloa eo beak jartzen zun apaizak?

- Han izaten zan baten bat bai, baten bat apaizak jarritakoak izaten zien. Bai, kutxilloakin muturra itten. Geo sortu zan muturra itteko hoi.

- Ta borragomak ta bazenuten?

- Bai, hoi bagiñuzen, borragoma bagiñuzen, bai gorri batzuk ta hoi goatzen naiz oaindikan nola ibiltzen giñun, bai.

- Nahiko lan ordun zuek eskribitzen ta ikasten?

- Bai, halaxe ibili giñen bai.

1.17. Apaizaren meza isila

- **Hizlaria(k):** Ezeiza Otamendi, Santos

- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren

- **Erref:** TOL-019/030

- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:49:08. **Bukatu:** 00:50:17

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon

- **Gaia(k):**

Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera

- **Laburpena:** Gerra etorri zenean, apaizaren meza isila ezagutu zuen Santosek; izan ere, apaizari desafioa egin zioten meza emanez gero hil egingo zutela esanez.

Transkripzioa

- Ta geo eun baten gerra denboa etorri zan, gerra etorri zan ta hemen bazien ba gorrik eta naparrak ta relijiosok gorri xamarrek bazien nonbait eta apaizak nonbait desapiua in zien. Meza ematen harrapatzen bazaittu hil ingo zaittu, desapiua nonbait in zien ta apaiza ni jun nintzen beti bezela monagillo apaizai meza launtzea ta ta apaiza han zeon zai ta ni sartu nintzen garaien atea "ra" itxi ta meza ixilik eman gendun. Meza ixilik, geo zintzarriya jotzen gendun; oain ez da jotzen, baiño ordun zintzarria jotzen gendun meza erdiko garaien ta zintzarria jotzen gendun, ta bai mezako garaien ta geo santu denboran'e baita hiru bat aldiz mezan jotzen gendun zintzarria fuerte jotzen gendun ta apaizak esan ziun: "zintzarria ez jo, zintzarria gabe meza ixila eman behar deu". Ta iñor ez zan apaizan neskamea segurasko izango zan atze-atzen, iñor ez zan besteik. Ta meza ixil-ixillik eman ta martxa! geo eskola, etxea jun ta [...] inda, ematen baldin baziun oillaskoa, bai.

1.18. Aitonaren anekdotak

- **Hizlaria(k)**: Ezeiza Otamendi, Santos
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: TOL-019/035
- **Iraupena**: 0:03:39. **Hasi**: 00:59:11. **Bukatu**: 01:02:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena**: Santosen amona bi aldiz ezkondu zen. Bigarren senarra baserriko morroia zen; gizon parrandazalea zen hura eta soldaduekin izandako anekdotak kontatzen ditu.

Transkripzioa

- Gue aittona zana parranderua izan behar zun. Gure amonak bi gizon zittun, aurreneko gizona hil ein zitzaion. Aurreneko gizonana nere aitta, aurreneko gizonana hemen zan nere aitta ta geo ezkondu zan etxean, orduan baserrin lana in behar izaten baitzan. Ta ordun lana itteko indarra behar izaten zan ta morroie zun hartua etxen, aittan partez morroia. Aittona edadekua pixkat hua eta aittona're bai. Aittona morroian, morroia aittona, gure aittona zan morroi zeona ta geo morroiakin ezkondu zan, gue aittonakin ezkondu zan amona. Lana itteko ordun behar baitzan baserrin, aitta hil zitzaion gu zortzi ume giñun txikik ta lana itteko baten bat behar zan ta aittonakin beste gizona hartu zun, biarrena Juan Angel Arsuaga hartu zun. Alkizako Saletxekoa zan. Ta juergista, etxen aitzian langillea zan baiño kalea, honea etorritz geo galdu itten zan, atxurtu-eta itten zun-ta. Ta beti beandu, beti gauen beandu. Ta ordun ba ixpik ba omen zien ba, ixpik ordun ixpik esaten zien. Ixpik Guardia Zibillek bezela ixpik, azpitik lana iten zuenak, entenditzen dezu? Ta gue aittona beti beandu ta eun baten harrapatu omen zuen behetik gora ta gure aittona ta: "E zu, nola zabiltza hemen?" ta "ni peritik etxea". Ta nonbait, euskeraz, erderaz ne modun jakingo zun harek ta "peritik etxea" ta hasi zitzaion galdezka ixpi soldaduk eo galdezka hasi zitzaizkion ta "zu ze opiniotakoa zea?" ta aurrena bai. "Ni, ni ze opiniotakoa? Ni, ni karlista, oain karlista". Hemen ematen omen zue insiñia ordun, gerra denboan. "Ni jaiotzetik karlista, oain karlista, [...] bai lista". Hoi erakutsi omen zun gue aittonak. Karlista esan zun. Geo haik. Geo han berriz'e pixka bat harrapatu ein omen zuen, handikan pixkatea berriz'e harrapatu ta apaizena ordun eman omen zuen. Ordun, apaizak gehien alkateak agintzen zun garai hartan apaizak-eta. Apaizena ta apaizena eman omen zuen gure aitton hoi ta beti eztulka eoten zan, eztul asko itten zun harek. Erre itten zun, pixkat eztula; erre're txarra iten zun: artobizarrak-eta takoik eta ez zan garai hartan. Ta apaizena eman omen zun ta: "Hau ze, hau hola ta hola ta gora ta hau gizona ze gizon da?" Apaizak esan omen zion: "Hau gizon on puxkea da". Ta: "Zuk ze izen, ze apellidu dittuzu?" ta beti eztulka tipo hoietako bat izan ber omen zun ta Fernando modukoa hala izan ber zun gue aittona, odoletik ez gea ezer, baiño tipo hoietakoa izan behar zun. "Ze apellidu dituzu?" apaizen aurren ta: "Ni Juan Angel Arsuaga Tapia" "aja", beti eztulka eoten zalako, laugarren eztula. Hoi ixtoria!

1.19. Gerraostean ere 'Xabiertxo' liburua

- **Hizlaria(k):** Ezeiza Otamendi, Santos
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** TOL-019/038
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 01:10:28. **Bukatu:** 01:13:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
- **Laburpena:** Gerraostean, eskolako sistema aldatu zen: euskara kendu eta erdaraz eman behar izaten zuten eskola, nahiz eta erdaraz ia ez jakin. Hala ere, Xabiertxo liburua erabiltzen zuten baita gerra ostean ere.

Transkripzioa

- Zu gerrak mutil koskorretan harrapatu zintun.
- Bai, nik bederatzi urte, zortzi-bederatzi urte.
- Ta oaindik eskolan?
- Bai, eskolan, alegiya.
- Ta kanbiatu zan eskola ordun?
- Bai, ordun eskola beti euskeraz itten gendun, beti euskeraz zan eskola beti. Gero zorioneko Franco hoi, hoi jarri zan Franco ta fuera euskera e ta eun batetik bestea euskera kendu in ziun. Ta erderaz guk tutik ez genekiun erderaz ta errezatu erderaz itten zuen, errezatu erderaz itten zuen apaizak eta maestra neskamea zan. Ta hala legea eman zien ta eun batetik beste dana erderaz. Ta guk hala euskeraz itten gendun pixkat pixkat, zeatik hitz ein behintzat guk euskeraz beti hitz eiten gendun, nola erderaz ez genion tutik ez genekiun ta.
- Ta apaiza euskalduna izango zan ba?
- Apaizak erderaz ta euskeraz bita, ondo itten zuna. Apaiza estudiokoa izaten da ta, hoi bita ondo ingo zun harek.
- Ta eun batetik bestea danoi euskeraz itten zizuenak oain erderaz?
- Bai, bai. Beti euskeraz. Eun batetik bestea legea etorri zitzairen, ta hemendik aurrea erderaz etorri alegia Franco ta erderaz hitz ein berko da, erderaz in berko da ta euskeraz aitzen giñen, zeatiken ez gendun, ez genion dena obeditzen. Baiño beak, beak legea ekarri ziun erderaz baiño nola guk euskeraz, erderaz bat ere ez genekiun-ta, baiño erderaz hitz eitteko elizan zeozer errezatu edo erderaz zeoze ingo zun baiño gaiñontzekoa euskeraz iten genun.
- Beak klasea euskeraz ematen zizuen?
- Bai, bai; euskeraz iten zan, nola ba erderaz? Euskerazko liburuak danak giñuzen-ta: 'Xabiertxo' esan dizut ba! Beste liburuik ez zan azaltzen han. Ordun, Francok nik ez dakit, Francoren, ordun diruik ez zun harek izango ta eskola erderaz euskeraz ta erderaz eman ber ta erderazko liburuik ez zuen ekarri.
- Legea bai baiño...
- Hitz ein ta euskeraz itteko erderaz itteko, baiño erderazko liburu bat ez zuen ekarri. 'Xabiertxo' goitik ta 'Xabiertxo' behetik.
- Ta hua erderaz ezin letu.
- Hua euskeraz, ta gu 'Xabiertxo'kin ibiltzen giñen. Geo hola izan zan, baiño beti euskeraz eutsi genion ta.
- Ordun apaizak uzten zizuen'e bai?
- Bai, bai, uzten ziun; bai, bai, euskeraz hoixe uzten ziula beharko gaiñea! Ez, ez; ez ziun ematen, ez ziun ematen. Bertakok zien ta.

- Batzuk kastiguak ematen zituen?
- Bai, baiño ez, ez, guri ez.

1.20. Janaria kontserbatzeko moduak

- **Hizlaria(k)**: Ezeiza Otamendi, Santos
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: TOL-019/041
- **Iraupena**: 0:02:07. **Hasi**: 01:19:43. **Bukatu**: 01:21:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- **Laburpena**: Janaria kontserbatzeko zer egiten zuten azaltzen du: goitegiak erabiltzen zituzten, jeneroa gazitu egiten zuten, piper gorriekin igurzten zuten janaria...

Transkripzioa

- Ta gaiñontzen, beste aprobetxatzeko ez zan izango janaria kontserbatzeko frigorifikok eta zea?
- Ez, ezer ez.
- Nola iten zan ordun?
- Ordun? Prexkera. Prexkera. Leihon aurren jarri jartzen zien, zea ospel aldetik euzkik sartzen ez zun tokin jartzen zan sarea eo ta elbi sartua gabe. Sarea estu-estue, sare ixtu-ixtua jartzen zitzaion buelta guztin. Ta elbik ez zan sartzen, baiño haizea sartu itten zitzaion. Ta huaxe zan prexkera, garai bateko konjeladorek eta neberak haixek zien.
- Ta bestela gatzetan eukitzen zien gauzak o?
- Bai, txerrikiya. Txerrikiya gazitu iten zan e.
- Dana? Urdaia...
- Bai, bai. Gazi kutxen. Gazi kutxen sartzen zan ta gatza bota, azpin'e bai. Geo txerri puskatzen zan garaien txerri gaiñen jartzen zitzaion, berriz gatza bota. Gaiñen beste hiru beste harri haundi bat eo bi jartzen zitzaizkien, harri gaiñen. Zeai. Ordun gauzak merke izaten zien, diru ez zan-ta! Gatza bota ta harri haundi batzuk txerriri gaiñen gatzi kutxen. Ta gor-gor eoten zien, gatza bueno harrikin zapalduta gaztuta. Hala eukitzen zien ba hillabete pare baten eo, gatzetan. Geo atea, gatza guztia garbittu ahal dan ondona garbittu ta pipar gorriakin dana igurtzi ta ganbaran zintzilik jartzen zien, ganbaran. Ta elbik ez zuen jaten gatza, gazia eoten baitzan.
- Ta piper gorriakin zeatik igurtzitzen zian ba?
- Elbik ez sartzeagatik.
- Elbik gutxio jaten zuen piper gorriakin emanda?
- Emakumea: Nik ez dakit horreatik zan ba.
- Bai. Pipar gorrie hautsa zan. Ta gorri-gorri geatzen zan ta elbik ez zian etortzen. Gor-gor eoten zan. Eskerrak hari.

1.21. Jolasean, galduz gero...

- **Hizlaria(k)**: Albisu Toledo, Maria Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: TOL-020/023

- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:36:31. **Bukatu:** 00:38:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena:** Umetako jolasak. Neska eta mutilen jolasak. Txokoketan, pilotan, sokasaltoan... aritzen ziren. Jolasean galtzen zuenak Ama Birjina edo santuren baten estampa eman edo errezo bat egin behar izaten zuen.

Transkripzioa

- Ta sokasaltoan neska-mutillak batera ibiltzen ziñaten? O neskak bakarrik?

- Danak. [Haiek] igual beste zeoze sortuko zuen, saltoka o zean, [etxesalton] o ze esaten zaio? Salto iten. Bat etzanda jarri, hola, etzanda o lau-hankan jarri, ta gero salto in gaiñeti ta. Hala ibiltzen zien mutillak. Ni gogoratzen naiz. Gero pelotan ta. Pelotan ´e bai.

- Zuek pelotan ez ziñaten ibiltzen?

- Bai, txokoketan. Bai, ibiltzen giñan, bai. Eta gero zean... Bai, gero zea ´re bai, txokoketan ta gero esto... jokutzen gendun, ba... Ordun izaten zan estampa. Estampak. Ordun estimazioa izaten zuen estampa hoik. Hainbeste estampa izaten zan orduan. Eta estampak. Galtzen zunai estampak ematea; entregatu behar zendun estampa bat, galtzen bazendun. Estampa zan orduan asko.

- Zeren estampak izaten zian?

- Ama Birjiñanak-eta, estampak. Jesusen Bihotza ta Arantzazukoa ta, estampak. Behintzat, estampak. [Zenbaitetan pillak estampak eta]. Klaro. Zeozen ilusioa.

- Txukun-txukun gordeta eukitzen zenitun kuarton?

- Klaro. Estampak. Hori gogoratzen naiz ni. Eta beste batzuk baztar jarri ta, zean, agurmari bat esan o...

- Galdu ezkeo?

- Galduta. Holako zigorrak.

- Zeuok zeuon buruai jarrita?

- E?

- Lagunan arten jarritako zigorrak?

- Klaro. Holaxen. Gure gazte-denbora hola jun zan. Gerrakin asko zeatu zan, e? Buuu... Moztu ziun guri gerrak...

1.22. Taloa, ez; ogia, bai

- **Hizlaria(k):** Iraola Olano, Joxe Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** TOL-022/014
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:14:23. **Bukatu:** 00:15:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
Baserria » Baserriko lanak » Garia
- **Laburpena:** Gerra denboran, taloa baino nahiago izaten zuen ogia. Ogi dezente egiten zuten etxean. Amak baino talo hobeak erretzen zituen arrebak.

Transkripzioa

- Nik behintzat taloa baiño, txarrena izanda're, ogie nahio nun. Mutil koskorra nintzela gerra denboran'e ogie txarrena bazan'e taloa baiño nahio nun nik... beti nahio izaten nun. Beste batzuk, berriz, taloa gustoa. Ta oain'e ez naiz talozalea izan behin'e. Batzuk, "taloa probatu behar diu"... nahi baezue probatu, nik ez zeukat /etzeukat/ inbidirik...
- Nahikoa janda [...]
- ... bai taloa jateko.
- Zuek goizetan adibidez taloa jango zenduen o goizetako're ogiye izango [...]?
- Goizetan batzutan bai ta eguardin'e bai taloa jan izandu zan, gauen'e bai ta... nola zeon ogie ta. Baiño guk ogie dexente sortzen gendun e nolabait'e... ogie dexente.
- Etxen iten zenduen?
- Etxen , etxen itten gogoan dauket nik.
- Amak ingo zun?
- Amak, bai. Ama taloa erretzen'e ona zan. Baiño ama baiño hobea zan arreba, taloa erretzen. Bai. Donostin bizi da oain. Taloa erretzen oso ona. Harek itten zun taloa mehe-mehe-mehea. Ta haren taloa itten zan holaxe puztu-puztu. Handik zemaittek jaten zittun lau ta bost talo aide! zeati puztu mehe-mehe-mehea. Ta ama zanak itten zun berriz pixkat lodixea. Handik lehentxeo geatuko ziñen jaten. Hoi bai.

1.23. Gosaria eta bazkaria

- **Hizlaria(k):** Iraola Olano, Joxe Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** TOL-022/015
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 00:15:41. **Bukatu:** 00:16:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- **Laburpena:** Jatorduetan, zer jaten zuten kontatzen du. Gosaltzeko, urdaia, arrautza eta ogia izaten zuten. Bazaltzeko, haragia edota haragi-salda, babarruna eta aza.

Transkripzioa

- Ta ze izaten zan egunerokotasunian zuek jaten zenduena, goizen talo ta esnia?
- Goizen talo ta esnea ta gu pixkat hazi o... nere gogon beti goizen urdaie ta arrautze ta ogie izaten zan generalen. Hoi bai. Ta eguardie etortzen zanen, berriz, haragi pixkat. Eunero kalea nola juten zien, beti pixkat ekartzen zuen. Ta askotan haragi salda ta beti izaten zan babarruna, eunero, hoi bai, ta aza ere bai. Guk aza egunero jaten gendun. Babarruna ta aza ta geo, baldin bazan, haragi pixkat. Guk, egia esaten dizut, ez gendun hola gose, ondo beti. Oain beti babarruna ta aza o hola, baiño behintzat goseik ez.
- Ta gosaltzeko egunero arrautza bai, e?
- Eunero o... bai, gehienen, arrautza ta urdaie o hola.

1.24. Etxerako zein kanporako tabakoa

- **Hizlaria(k):** Gorostidi Etxaleku, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** TOL-024/042
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 01:03:05. **Bukatu:** 01:03:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Bizioak
- **Laburpena:** Etxerako tabakoa ereiten zuen Aitonak. Urkizuko zenbait baserritan, oster, asko hartzen zen, saltzeko landatzen baitzuten.

Transkripzioa

- Galdera azkena ingo dizutena zuri bakarrik, tabakoa iten zenduen zuek?
- Bai, etxeako bakarrik e? Nik ez det ezautu gaiñantzen. Urkizu azpin asko. (emakumea) - Nei ez zaian goatzen.
- Bai, tabakoa gure aitta zantzak itten zan. Bai, bai, esaten dizut ba, sei-zortzi bat gehiena izango zian. [...] asko itten zuen. hor hor, koiñadua ta laguntzen aitzen giñen. Ta bestea Muñagorri.
- Han'e bai?
- Han gehio. Hoik zuen lehengusu bat ingenieroa tabakon asuntia ibiltzen zuna. Muñagorriko hoik. Ta haren bidez ekartzen zuen Urkizu azpikok'e. Ordun tabako asko iten zan hemen. Hoi bi basarrik behintzat. Ta baten ta besten nik asko ikusi det nik.

1.25. Arropa garbitzea

- **Hizlaria(k):** Balerdi Ondarza, Pakita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** TOL-027/005
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:04:45. **Bukatu:** 00:05:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- **Laburpena:** Arropa garbiketa. Urik ez zuten etxean, eta errekatik hartu behar izaten zuten. Arropak balde batean garbitzen zituzten, xaboi eta lixibarekin. Gero, askan urberitzen zituzten.

Transkripzioa

- Erropa nola garbitzen zenduen?
- Ure... Beno, nik... batzuk... Ama zanak nereak-eta zea baten, hola, zulo baten eo balde haundi baten egosten-ta jartzen zittuen. Baiña nik neonek [...] ure ekarri, ur beroakin, jaboiaquin, garbitzen giñuzen. Ta lejia bota pixka bat [mantxa zeukena] ta garbitzen giñuzen. Ta gero garbittutakon, burun hartu ta eramaten giñuzen askaa garbitzea, eo aklaratzeta. Nola ure asko behar baizan aklaratzeko, harrea juten giñan.
- Eta etxen bertan nun garbitzen zenduen arropa hura?
- Pregaderan. Pregaderan. Balde baten jarri arropak, ta itxen, hala garbitzen giñuzen.
- Ta maindireak edo arropa zuria ta...?
- Bai, bai, hoik'e bai. Lehenago egosi itten zittuen hoik. Nik neonek ez nittun /enittun/ hoik ezautu. Hoik ez.

- Zuen amak-eta bai, baiño...
- Bai, bai. Nere amak-eta bai, baiño nik ez, nik ez nun ezautu. Nik bestaldea, jaboiaikin ezautu nun, nittun.

1.26. Ardiki eta gazta faltarik ez

- **Hizlaria(k):** Balerdi Ondarza, Pakita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** TOL-027/007
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:06:01. **Bukatu:** 00:07:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- **Laburpena:** Baserrian ardiak zituzten, eta, beraz, beti izaten zuten ardikia, gazta... Udazkenean, aitzak sardina zaharrak eramaten zituen etxera. Oilo asko izaten zen baserrian, eta arrautzak azokan saltzen zituzten. Ateratako diruarekin, amak jakiak erosten zituen: kafea, arroza, azukrea, olioia...

Transkripzioa

- Zu txikiya ziñala, 13 urte inguru zenituela, nahiko jan bazan?
- Beno, guk ez deu hola gosea ezautu, nola [bagenduzkiun] ardik etxen, beti eo ardikie... Gero, gazta're urte guztiko eitten gendun, ta, hola, gose-gosea ez. Ez hola oain bezelako aukerik, baiño goseik ez gendun ezautu. Aitte zanak'e sardin-zaharrak udazkenen ekartzen zittun kaja pare bat eta hala moldatzen giñan. Arrautzekin, lehen esan deuna, arrautza izaten zan ta hola.
- Arrautzak ez zian Tolosan saltzeko gordetzen?
- Bai, baiño ordun oillok asko egoten zien etxen ta denetako allegatzen zan ordun.
- Bedaion esan baitie...
- Bai, Tolosaa. Bai, ni baiño zaharragok. Baiño nik neonek ez det hortaiñoko... holako mixerie zeatu, ezautu. [Hola... mixerie ezautzeko]. Lehen zaharrak hori ezautuko zuen, baiño... Guk'e bai, guk'e saltzen zittun amak Tolosaa eamanda, ta asteko kafea ta gauzek ekartzen zittun; arrozak eta, behar zienak, azukre ta olio ta hoik ekartzen zittuen.

1.27. Bazkaritan, babarruna eta patata

- **Hizlaria(k):** Balerdi Ondarza, Pakita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** TOL-027/008
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:07:16. **Bukatu:** 00:08:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- **Laburpena:** Bazkaritan, babarrun gorria jan ohi zuten jeneralean. Patata egosia ogiarekin zopa eginda ere jaten zuten. Tolosatik ekartzen zuten fruta.

Transkripzioa

- Ta, gaiñontzen, eguneroko bazkaria normalen ze izaten zan?
- Hemen normalen ordun babarruna, gorrie. Babarruna. Hoi bai. Ta geo, baba beltxa´re bai, gari tarten eitten zan, ta ekarri´re itten zan baba [txuri-beltxa] zan hoi. Baiña normalen babarruna. Babarruna. Ta geo, patatak, ez oain bezela porruekin eo edozein berdukin nahastuta, patatak, egosita izaten zien, zopa batzuk in ta hala jaten genittun. Ta geo baratxuri-zopa.
- Ta patatak nola iten zenituen?
- Patatak egosi ta geo zopa batzuk iten genixkon guk.
- Nola zopak?
- Ogie bota gaiñetik, haikin jateko. Anaiai asko gustatzen ta aitte zanai´e bai. Ta hola. Geo gazta ta Tolosaa juten zanen fruta pixka bat ta hola.

1.28. Mariaren Alabak eta luistarrak: neskak eta mutilak, denak kongregaziotan

- **Hizlaria(k):** Lasa Jauregi, Juana
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** TOL-028/015
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:22:22. **Bukatu:** 00:24:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Kongregazioak
- **Laburpena:** Neskak Mariaren Alaben kongregazioan izaten ziren, eta mutilak luistarren kongregazioan. Medailak izaten zituzten zintatik zintzilik, eta hilabeteen behin hura jantzita joaten ziren kongregazioko mezara.

Transkripzioa

- Ordun kongregaziok´e izango zien.
- Onbre! Kongregaziok? Zintakin juten giñen. Nik, oandik ez die urte asko, bota in nittun, baiño euki dittut kongregazioko zintak... beno! Ez dakit hamahiru-hamalau urtekin o hola jazten ziuena zinta hoi. Bitarten ez zan zintaik. Aurreneko komunioa ein eta gero izaten zan bigarren komunioa, hamahiru bat urtekin eo hola, hamabi-hamahiru urtekin. Eta aurreneko komunioa itten gendunen, juten giñen hillen lehendabiziko ostiralen jaune hartzea. Baiño ez gendun bat huts eitten, e! Eta gero, kongregazioa izaten zan hillen aurreneko igandea. Ta izaten giñen emakumek Marian Alabak, eta gizonak luistarrak.
- Ze koloretako zinta zan zuena?
- Urdiñe. Eta mutillek uste det zurie zuela.
- Eta medalla-o izaten zan?
- Onbre! Ama Birjiñan medallakin. Ta bere kaja txikik. Onbre, ahal zunak erosiko zittun, baiño. Medallan zinta bildu-bildu-bildu in ta kaja txiki hartan sartu ta gordetzen zan. Zea.
- Eta zer zenduen medalla danak igual-iguala?
- Ez. Beno, baiño danak gauza bat zeukean, danak zeuken Ama Birjiña.
- Baiño estilo diferentetarako.
- Bai, baiño danak igualtsuk, e? Danak igualtsuk.
- Eta nola izaten zan hoi? Bakoitzak erosi behar izaten zun?
- Bai, bai. Bai. Edo ez dakit... Ez, ez, erosi bakoitzek. Onbre, baiño danok... gurasok bazekien. Zinta hue erosi ta etxen medalla erantsi ta zinta jarri ta gero kaja ttiki batzuk izaten zien ta han sartu ta. Hue ezkondu bitarten. Eta

ezkondu ta gero beste bat sortu zan —oain ahaztu´re in zait—, beste bat bagendun, zinta gorrie gendun. Baiño ez dakit medallan ze jartzen zun ez dakit. Baiño zinta... “apostolado” eo ez dakit [...]. Hoi ezkondu ta gero. Gaztetan beti “Hijas de María” ta “Hijas de Jesus” izaten zien. Eta mutillei esaten zitzaien luistarrak.

- “Hijas de Jesus” zer zan beste kongregazio tipo bat emakumeena?
- Izen horrekin zeatzen zan, ez dakit. Guk beti Ama Birjiña ibiltzen gendun. Gu “Hijas de María”. “Hijas de Jesus” izango zien mutillek izango zien. Mutillek zinta txurie zeken; guk urdiñe genduken.

1.29. Asteasun kongregaziotik botatako neskaren istorioa

- **Hizlaria(k)**: Lasa Jauregi, Juana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: TOL-028/016
- **Iraupena**: 0:02:41. **Hasi**: 00:24:56. **Bukatu**: 00:27:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- **Laburpena**: Asteasun gertatutakoa kontatzen du. Neska gazte batek lotuan dantza egin omen zuen, eta apaizak horregatik kongregaziotik bota zuen. Ondoren, neska gaixotu eta hil egin omen zen, eta apaizaren aginduz zintarik eta estandarerik gabe joan omen ziren neska-mutilak ehorzketara.

Transkripzioa

- Ta esaten zizuen zeoze gaiztua iten ikusi ezkeo, hoi ez zula... “Hijas de Maria”k ez zuela holakoik iten ta...
- Bai, kaso bat hortan kontatuko dizut, ez Aldaban, baiño Asteasun bai. Eske ez da oandio denbora asko aittu deala irratin, irratin eo telebistan, Hernialden, Hernialden uste det, bai, Ernialden agarraun ez zeon itteik. Pekatue zan oso haundie. Eta Tolosan bai. Eta ez zitzaiun sartzen burun Tolosan ez baldin bazan pekatu, Hernialden nola izango zan pekatue? Ba, Asteasun´e pekatue emen zan dantza ittea. Villabonan ez. Eta neska gazten batek dantzan in, agarrauen in, han Asteasun, ta apaizek kongregaziotiken bota. Ta kongregaziotiken botatakon, gero, ez [zeben] kongregazioko zintakin ez zeken juteik. Baiño hemen´e bazien botatakok. Ta geo ez zeken juteik gehio, jaune hartzea jun zitzezken, baiño zintakin ez, zintakin kanpoan gelditzen zan. Ta Asteasun neska hoi in emen zan ondorenen gaixotu ta hil. Eta entierroa. Ta ez neskak eta ez motillek, danak jun zien zintaik gabe. Ta, gaiñea, ateatzen zan estandarte. Hemen egongo die /egongoie/ gordeta oain´e. Luistarrak zeukean San Luisekin beren estandarte. Ta emakumek zeukean beren estandarte. Eta, ordun, entierrokon, atea behar zuen estandarte hoik. Baiño nola ez baizan, botata nola baizeon, ba, estandarte hoik ez zittuen atea. Eta, ondorenen, gaztek´e oso hasarratu ein emen zien, ta esan emen zuen: “Ba, jai bat jari behar deu ta danok-danok ein behar deu dantza agarraun, aber danok bialtzen gaittun”. Ta ordun bukatu emen zan Asteasukoa. Hoi hemen bazan —oain hil zan— Asteasuko emakume bat, ta harek askotan kontatu zian. Pentsatu ze autoridadea zeukean apaizak. Ze autoridadea zeukean! Ze umillazioa hoi. Pentsatu, famili harentzako, neska haren... garai hartan, neska haren

familintzako ze izango zan. Hemezortzi-hemeretzi urtekin neska hil ta entierroa ia nulo.

1.30. Tolosan libre zena Aldaban bekatu

- **Hizlaria(k):** Lasa Jauregi, Juana
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** TOL-028/018
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:27:43. **Bukatu:** 00:29:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak
- **Laburpena:** Herri txikietan debekatuta zegoen lotuan dantza egitea, eta ia herri gehienetan neskaren bat bota zuten dantza lotuan egin izanagatik. Tolosa eta Alegian, berriz, libre zen dantza lotuan egitea.

Transkripzioa

- Kongregaziotik botatako emakume bat beti're [...]?
- A, bai, gaizki ikusia... Ezkontzeaiño ez dakit allegatzen zien, baiño guraso askontzako-ta behintzat... ez dakit. Ze, dantza pixkat ittea. Ta, esaten dizut /esateizut/, Asteasun ez zeon itteik eta Villabonan bai.
- Aldaban'e ez.
- Buo! Aldaban! Bueno...! Ezta hemen Ikaztegietan'e ez, e? Hemen'e bazien botatakok kongregaziotiken, e? Hemen, Ikaztegietan. Eta Alegrin bai, e?
- Hoi jakiten zan? Holako hoi bota duela kongregaziotik eta...
- Jakingo ez zenun, herri koxkorretan! Eske danok juten giñen ta bagiñikiun "hoi kongregaziotik botata dao".
- Zuek, ordia, Aldabakok izanda, Ikaztegietako zea hoik enteratzen ziñeten?
- Hoixe entenditzen... [...] dana enteratzen giñen! Baiña hemen motibo hoixe izaten zan. Ta Alegrin dantza ittea. Baiño Ikaztegietakok Alegrin in ezkeo, berdin botatzen zuen, e? Eta nik ez dakit nola ez zan... nola ez giñen jabetzen: "Guk zeatik ez deu dantza in ber, Alegrikok itten baldin badue /baue/?" Ta Tolosan eitten zan, eta herri haundietan danatan. Baiño herri txikitan ez. Ta herri txiki askotan, e? Askotan, askotan ez zan eitten.
- Ta hoi bezela diferentzi gehio bazian herri txikin ta herri haundin arten pekatu kontutan?
- Nik uste det apaizek pekatu kontue igualtsu esango zuela. Hoi pekatue igualtsue izango zan. Bakarrik dantzako hoi zan grabea.
- Ta zuek pentsatuko zenduen, gaiñea, ez? Jarriko ziñeten pentsatzen hoi pekatu zeatik ote zan o ze...?
- Ez dakit gehiegi pentsatu're itten gendun. Hola egoten giñen. Nola aberee jartzen zaizkie hola tapa batzuk aurea ikusteko? Hoixe.

1.31. Komunioa hartu aurretik marrubi bat jan zueneko

- **Hizlaria(k):** Lasa Jauregi, Juana
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** TOL-028/019
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:29:42. **Bukatu:** 00:31:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**

Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

- **Laburpena:** Konfesioa nahi zenean egiten zen, baina kongregazio egunerako, denek konfesatu behar izaten zuten. Baraurik joan behar izaten zuten komunioa hartzera ere. Juanak behin marrubi bat jan omen zuen komunioa hartu aurretik, eta ez zaio oraindik ahaztu.

Transkripzioa

- Eta, gaiñontzen, elizako konfesiok-eta noiz izaten zian o nola izaten zian?
- Hoi nahi zuen... nahi zanen. Baiño kongregaziokon konfesatu beharra zeon. Kongregazioa ez ziñen jungo konfesatu bare. Kongregazioa, esaten dizut, hillen lehendabiziko igande hortan jauna hartzea, kongregazioko zintakin hantxe juten giñen.
- Dotore jantzita.
- Oso dotore.
- Eta ze izaten zan? Meza aurretik konfesatzen zan?
- Bai. Por ejemplo, Aldaban ta herri txiki hoitan bai, ze larunbaten ez giñen juten. Meza aurretiken. O beste batzuk juten zien propio Aldabatiken kuadrillan Aldabaa, o Jesus!, Alegria, konfesatzea. Haik juerga. Neska ta mutil juntatu ta Alegria atsaldea pasatzea. Baiño ohiturak holaxe zeren. Holaxe zeren.
- Eta zuei, apaiza zeon herrin ta zenbait pekatu konfesatzeak igual lotsa gutxi emango zun, baiño beste batzuk gehixe ta...
- Bai, pekatuik eitten al gendun? Ze pekatu eitten gendun? Bueno, bueno! Bai, ze? Amai txokolatea harrapatu diot /harrapatuiot/ eo holako zeren batzuk. Bueno, bueno. Umekeri batzuk zien. Horreatik esaten dizut, gauza asko kanbiatu da oneako. Oneako. Oain mito batzuk dare lehengok. Oain apaizek ez dittue aittu nahiko. Ez dittue aittu nahiko. Gaztek ez dakit, igual pasako due /pasakoue/, baiño zaharrak darenak ez dittue aittu nahiko gauzek, baiño hala die. Egik hola die.
- Ta baraurik jun behar izaten zenduen, gaiñera.
- Bai, bai, bai. Ni gogoratzen naiz behin, umea nitzela, hillen lehendabiziko ostiralen, biden marrubin bat jan. Joe, baiño... marrubie jan nun, baiño komunioa hartu bare ezin geldittu. Etxen edozeiñek esango zun. Ta komunioa hartu nun. Baiño denbora askon euki nun pentsamentu hue, e! Marrubie jan nula, e. Ta ordun, gaiñea, izaten zan mingaiñen hartu ta esaten zuen hortzakin-ta ez zala ikittu behar.

1.32. Ikastolak sortzeko dirua biltzen

- **Hizlaria(k):** Gorostidi Garmendia, Pepi
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** TOL-030/011
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:25:33. **Bukatu:** 00:26:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**

Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- **Laburpena:** Ikastolak sortzeko dirua biltzen aritzen zen jendea, baina isilpean. Pepik haurra izan zuenean, Laskorain ikastolan matrikulatu zuen.

Transkripzioa

- Eta ordun, ba, gogoratzen naiz diru-biltzen ibiltzen zan jendea ikastola sortzeko, "o sea que" kontzientzia bazegon. Baiña klaro, garai haitan gaiñea ixilpian, ixilpian, ezin zendun esan zertarako zan. Eta mendian ere goatzen naiz koadrillatan, ba, bat arduratzen zan, tarteka dirua biltzen zun, ta guk ezta galdetu're zeñei ematen zion... Zertarako zan bai, jakiñian gaiñian genden: ikastola sortzeko. Baiño diru zeñi ematen zion ta hori, hoi dena txiton, ixil-ixilian. Eta, klaro, ni hogeita lau urtekin ezkondu nintzan eta gero haurdun gelditu nintzenian, eta ya lehenengo urtia ta bigarrego urtia, hiru urtekin hasi behar zun umeak eskolan, eta nik ez nun nahi ez monjatara eta ez nazionaletara. Bueno! Hori garbi neukan, eta beti ikastolan atzian, aber nola zebillen, nola zihoan ikastola. Beti horren atzetikan. Eta berez hala izandu zan, nere alaba izandu zan ikastolan, Laskuraingo ikastolan, lehenengo matrikulatutakoa. "Es que" ni neon, bueno, hori neukan garbi-garbi-garbi neukan. Eta alde hortatikan.

1.33. Ikastolako gurasoen ahalegina

- **Hizlaria(k):** Gorostidi Garmendia, Pepi
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** TOL-030/012
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:26:34. **Bukatu:** 00:27:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- **Laburpena:** Ikastolaren sorreran, zailtasun handiak egon ziren arren, aurrera jo zuten. Gurasoak jantzi egin ziren ikastaro eta hitzaldietara joaten.

Transkripzioa

- Eta, klaro, ordun ikastola, "ya que" sartzen gean ikastolan martxan, ba, ikastola azkenean sortu zan; baiño, klaro, zailtasun haundiakin: diruik ez zegoen, baimenik ez zeuden, eta kondizio haietan, ezta? Baiño, bueno, aurea jo gendun, eta ordun aurea jo gendun; eta, bueno, bazeuden hor talde bat ba ikastola aurea eramateko, ba, ba, ba, juridikokin eta gauza hoiek eta guztik. Baiño, klaro, gero atzian genden gurasoak. Eta, klaro, gurasoak ere nola nahi gendun, lana egin behar gendun. Lana egin behar gendun, zeatikan gero gaiñea oso garbi gendun ikastola izan behar zula bestek baiño hobetogo, onago, zergatikan gaiñean gendulako inspektore guztiak eta denak. "O sea que" ordun ikastola izan behar zun beste eskolak baiño onagoa oaindikan. Eta, klaro, bere zailtasunak zauzkan. Eta ordun, ba, ni gogoratzen naiz ordun kontzientziatuta giñan gurasoak eta ekartzen zizkiguten psikologoak, sendagilleak... Denak guri jaztera. "O sea que" etortzen ziren txarlak eta gauzak ematera; eta, joe, hantxe joaten giñen guraso guztiak, gu jaztera. "O sea que" gurasoak jaztera eta ikastera joaten giñan. Eta gero, ba, ikastolan, ba, lanea. Zeatik datorren urterako gela gehio behar ditugu, ta jo ta nun sartu behar ditugu, ta zer egin behar degu... Ta han lan egin behar zegoen. Pintatu behar zan? Ba pintatzea joaten ziñan. Ez dakit ze egin behar zan? Ba egitea joaten ziñan. Ta hola pixkat hasi giñan.

1.34. Ikastolara joateko arrazoiak eta hizkuntzekiko filosofia

- **Hizlaria(k):** Leunda Artola, Maria Dolores
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** TOL-031/011
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:17:38. **Bukatu:** 00:19:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia
Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak
- **Laburpena:** Umetan zergatik eraman zuten ikastolara aipatzen du. Hizkuntzak komunikatzeko tresna direnez, ingelesa eta gaztelania ere ikastea garrantzitsua iruditzen zaio, horrela mundura zabaltzen baikara.

Transkripzioa

- Zure gurasok zek motibatu zitun, zu txikiya ziñala... Bueno, zure ama, zu ikastolan sartzea? Euskera zaletasunak...

- Bai, berentzako zan, berentzako zan, nere ama erderaz bueno juxtu-juxtu bere firma jartzen zekin, eta euskera zan basarrin euskera zan. Baiño zan baserriko euskera. Tema filosofiko bat ateratzen alperrik aiko zea zure aitonai esaten, ezta? Nei'de bai e?

- Baiño ordun ez zan pentsatzen, o beste guraso batzuk ez zuen pentsatzen "guk ez dakigu erderaz, ta gure seme-alabek ikasi dezatela", ta ordun erderazko eskola bidali ta...?

- Ez, "es que", ikastolan'e, klaro, ni iritsi nintzan hamaika urtera, baiño oain ikastolan erdera eta gero inglesa ikasten dan bezela, ordun inglesa ez zan pentsatzen, baiño erdera ikastia izango zan asignatura bezela. Pentsatzen det, harek segitu bazun. Zeaitkan erabat, erabat... Ez da logikoa erabat baztertzia erdera. Batzui hala irudituko zaie, baiño nik ez det pentsatzen. Aizu, mundun hirugarren hizkuntza da ta erdera ez dago despreziatzeik. Guk maite badegu ta guria bezela euskera ikasten badegu, askoz logikuagua da oain damakien prozesua. Ez dakit ze urte arte, lau urte arte o, euskera bakarrik ikasten due. Gero ya pixkana hasten dia erdera zeatzen. Eta ya beatzi urte daukadan illoba, ya zortzikin hasten dia inglesa, ta ideala hoi da. Aizu, mundun zabaldu in behar deu, eta beste jendekin'e tratatu in behar deu. Nik hoi daukat oandikan'e, hutsune haundiya, nik oain esango balie "'la varita mágica", ze nahi zenduke?", ba nik bat, inglesa ondo jakitia. Eta ya ez daukat harea ta honea ibiltzeko edadia. Baiño iruitzen zait personakin komunikatzeko ta mundun zabalen ibiltzeko, zu motxilakin askotan jungo zean bezela, inglesak baliyo dizula, ezta? Eta erdera'de bai. Erdera ez da despreziatu ber, nere iritzi.

1.35. Ikastolan erlijioa bai ala ez?

- **Hizlaria(k):** Leunda Artola, Maria Dolores
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** TOL-031/019
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:33:38. **Bukatu:** 00:34:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider

- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
- **Laburpena:** Ikastolan eztabaida handiak egon ziren erlijioaren inguruan: ikastolatik kanpo ala ikastolan bertan eman behar zen erlijioa? Batzuek orduan ikastola arbuia egin zuten.

Transkripzioa

- Monjak bere seillua bazuen. Gero relijiokin ere istorik izan zian.
- Ze istori, ba?
- Bere istorik. Ba, klaro, ez zala relijioko emango. Ta bueno, batzuntzat, guraso batzuntzat izan zan hoi... Eztabaida haundik izan zian relijiokin'e. Eta, klaro, bestek esaten zuen ba hoi apaizak eman behar zuela; haik eman behar duela, ikastolatik kanpora.
- Ta guraso batzuk eskandalizatu bezela iten zian?
- Bai, bai, bai, bai, guraso batzuk ez zuen onartzen. Ordun, guraso batzuntzat retxazua'de izan zan...

1.36. Eskolatik piper egiten zuen

- **Hizlaria(k):** Albizu Beraza, Gregoria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** TOL-039/009
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:10:54. **Bukatu:** 00:12:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Eskolaz gain, gurasoek eskola partikularretan ere apuntatu zuten Gregoria, baina berak piper egiten zuen.

Transkripzioa

- Eta geo ni akordatzan naiz, behintzet, ez dakit zenbat urtekin, baiño nere gurasok pentsatu zuen partikularrea bialtzea; eskolaz gaila, partikularrea. Pagatzeko garaie bai iristen zitzaie, baiño ni eskola ez juten.
- Ze iten zendun ba?
- Bakarren bat harrapatuko nun jolasen ibiltzeko. Kalen bakarrik ez nintzan ibilliko. Baiño dakitena da hoi, ez nintzela juten eskolara. Eta oain "por ejemplo" juten ez bazen, gurasoi abixatu itten die. Ordun ez: "Ez zea juten? Pues ez zea juten!". Eta maestra harena ez zait goatzen izena, baiño lekue nun zan bai: oaingo San Frantziskoko eliz horren aldamenen. Ta partikular bialdu niñuen, baiño ez nintzan jun. geo hala ikasita geatu nintzen. Hala ikasita geatu nintzen.

1.37. Pneumonia 3. aldiz harrapatu zueneko

- **Hizlaria(k):** Albizu Beraza, Gregoria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** TOL-039/020
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:33:35. **Bukatu:** 00:34:25

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberría, Eider
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
Lanbideak » Neskameak
Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak
- **Laburpena:** Donostian neskame zebilela, pneumonia harrapatu zuen. Orduan, medikuak aholkatu zion mendia aldera joateko.

Transkripzioa

- Donostin naola, harrapatu nun pulmonie. Eta ordun mediku batek esan zion nere gurasoei mendira ateratzeko. Ni mendi aldera ateratzeko. Nunbait ez dakit ze billatuko ziyon. Baiño behintzet pulmonie. Eta, klaro, ni lehenago're bi aldiz pulmonie pasata neon. Bi aldiz pulmonie pasata neon, hemezortzi urtetako. Eta berriz'e pulmonie harrapatu nun ordun... Eta esan zien ni ateratzeko mendi aldera.

1.38. Nortasun handiko emakumea gaztetatik

- **Hizlaria(k):** Albizu Beraza, Gregoria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** TOL-039/021
- **Iraupena:** 0:03:47. **Hasi:** 00:34:25. **Bukatu:** 00:38:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberría, Eider
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- **Laburpena:** Donostiatik Larraitz mendira eramán zuten lanera eta taberna batean egon zen neskame. Han zebilela, dantza lotua egiten zuen Gregoriak eta garai hartan bekatua zenez hori, eskandalua izan zen. Gainera, apaizak fama txarra jarri zion Gregoriari, konfesatzera joaten ez zelako. Behin aita eta Gregoria joan ziren apaiz harengana eta kontuak garbi utzi zizkion.

Transkripzioa

- Eta etorri nintzen Larraitza, ekarri niñuen ez dakit nolaz edo zer, Larraitzea ekarri niñuen. Eta hor eondu nintzen, oain ez dao taberna hue, baiño taberna baten, neskame. Eta gero honea ezkondu nintzen, hortik honea ezkondu nintzen. Baiño eskandalua pranko jarri ta gero. Ni hor neola, nik eitten nun dantza jaietan jende gehio bezela're dantzan, agarraun. Ta ordun pekatue zan, ordun pekatue zan. Eta hemen zeon apaiza bat bizkaitarra, bizkaitarra zeon apaiza. Eta harek ikeragarri fama txarra jarri zian, baltsen dantza itten nulako. Herrira etorri, eta gizonezko guztiri neregatik gaizki hitz eitten. Eta ordun, hotako gazterie biltzen zan jai atsalden o illuntzea izen zan ostatun, herriko ostatun. Kartata edo, o tertulia o biltzen zan. Eta apaiz horrek bai gaizki iruittu edo gaizki, ez dakit. Kuestioa da behintzet ni ez nintzela astero konfesatzera juten harena. Eta dantzan eitten nun tabernan, tabernan. Eta ikeragarritzko fama txarra jarri zin e?

- Eon e? Barkatu. Oaintxe e? Ta nolatan jarri zizun apaizak fama txarra?

Nola lortu zun zuri fama txarra jartzia?

- Ba dantza itten nulako bakarrik! Baiño nik dantza denan bistan eitten nun! Tabernan eitten nun. Han neon neskame, eta bertan dantza eitten nun. Eta harek ezin eraman nunbait, harek ezin eraman. Eta behin, hala ai zala, nere aittei hots ein nion, eta ekarriarazi nun aitte, eta jun giñen apaiz horrena biok. Beira, behin'e ez diot horren gaizki iñoi hitz egin ere. Behin'e ez e? Baiño harei gaizki hitz eitten nion. Gaizki hitz ein nion, ez. Nik esan niona zan harei "Zuk nei kargua hartu behar ziazun aurrena, neregatikan herriko gazteri guzie gaizki hitz eittera jutea baiño. Nei aurrena kargua hartu behar ziazun. Baiño zu ez zea apaiza. Zuk damakizuna da sotana, baiño zu ez zea apaiza" esan nion, baiño halako muturrera jarriko nion. Eta gauze gehio esan nizekion. Baiño hemen nao. Hue zan hemeretzi urte nittun garaian. Baiño ni handikan urtebetea ezkondu nintzen. Eta bertara.

1.39. Laskorain kaleko ikastolatik "enseñantzara"

- **Hizlaria(k):** Garikano Solabarrieta, Xabier
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** TOL-055/002
- **Iraupena:** 0:00:33. **Hasi:** 00:01:58. **Bukatu:** 00:02:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- **Laburpena:** Gerra aurretik, Tolosako ikastolan ibili zen. Laskorain kaleko bizitza batean zegoen ikastola. Gerra hasi zenean, ikastola itxi eta "ensenantza edo jesuitinetan" hasi zen.

Transkripzioa

- Eskolan-ta nun ibili ziñan zu?

- Eskolan hasi giñan, ni hasi nintzan, gerra aurretikan, ikastolan. Ikastola zeon calle Laskorain; oain nola dago hor, este... Aralar Kirolak. Hor goran, goiko biztzia batian. Han ibili nintzan urtebete o urte t´erdi. Ta gero gerra etorri zan. Gerra etorri zanian akabo ikastola, ta hasi giñan eskolan "Enseñantzetan", jesuitinas. Eta hor in nun komuniyua.

1.40. Peritonitisa

- **Hizlaria(k):** Garikano Solabarrieta, Xabier
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** TOL-055/003
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:02:31. **Bukatu:** 00:04:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Osasun-zentroak
- **Laburpena:** 1938an, peritonitis baten erruz, oso larri egon zen arren, aurrera atera zen. Ebakuntzari buruzko gorabeherak kontatzen ditu. Peritonitisa zela eta, jaunartzea urtebete beranduago egin zuen.

Transkripzioa

- Baiño hor neola, euki nun... egon nitzan oso gaixo. Euki nun peritonitis. Gerra garaian.

- Hori zer da, ba?

- Peritonitis da, ba, apendize zea iten dala. Ordun zan mortal. Bai. Gerra garaia zan, 1938. Hemen, hotel Oria daon hontan, klinika zeon, eta hor militar batek operatu zian. Baiño hain gaixki neon, osea, hilko nitzala. Eta tripa iriki baiñon kanpoko larrua pixkat josi zuen eta hala utzi ziaten. Eta hilda neola. Ya iñularra zan. Eta ordun etortzen zian moja batzuk [Belatekuak], ez dakit nola zian, sierba batzuk zian, etortzen zian gaixuak-eta zaintzea gauian eta. Apaizak axkeneko zeak-eta, bedeinkaziuak-eta bota ziaten eta maindire batian bilduta euki ziaten manta baten. Esan zuten “Gaua pasako deu hemen”. Eta nere ama eta moja, han etortzen zan moja, sor Remedios, haik gau guztin egon omen zian errezatzen. Eta ez nintzan hil. Eta zer gertatu zan? Etxea eaman ziaten eta, bueno, ba, atera nitzan nola-hala. Eta nola gaixki operatu ziaten, 18 urtera arte euki nun ikaragarritzko hernia, hola, [...] bezela, hemen. Baiño ez nitzan atrebitzen operatzea, zeatikan, joe, ez nun operatzia nahi ezta... Ba, operatu zian Figueridok hortxe bertan eta oain oso ondo nago. Ta hola. Ta gero jun nitzan... horrengatikan, komuniyua in behar izandu nun hurrengo urtian, urtebete zaharragua.

1.41. Norberaren garbitasuna

- **Hizlaria(k)**: Larrañaga Beloki, Maria Dolores
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Soroa Hernandez, Maddi
- **Erref**: TOL-061/004
- **Iraupena**: 0:01:09. **Hasi**: 00:06:26. **Bukatu**: 00:07:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala
- **Laburpena**: Garbitasun pertsonalari buruz hitz egiten du. Aldian behin, balde batekin garbitzen ziren.

Transkripzioa

- Ta geon iten gendun ba berdura asko.

- Ta baiñatzeko ta?

- Baiñatu? Ez giñan baiñatzen. Bueno, “este” garbitu dena balde baten-eo hola bai baiño dutxatu ezta pentsatu're. Zer zanik'e ordun, oain dala laurogeita zazpi urte? Bueno, ez zan gaiñea basarrin dutxik, ezer ez zan eta geo ba.

- Tarten behin hola garbitzen ziñaten ahal zanen?

- Bai, bai ta “yasta, yasta”.

- Ta hor esan dezu han arropa garbitzen zenuenen busti iten ziñatela ta etxeako arropa kanbiatu.

- Etxea jun ta geo kanbiatu.

- Eta guk oain eukitzen deu armarioan kriston arropa pillakin ta eunero bi ta hiru aldiz ta zuen garaien hola izaten zan' e bai, arropa kanbiatzeko?

- Ez, ez. Bueno ezta pentsatu'de, ezta pentsatu'de. Arropa bat “quita y pon y vale”. Oain bezela behin jantzi ta lavadora-eta ezta pentsatu'de. Ibiltzen giñan mixerable bezela hortan basarritarra.

1.42. Arropa garbitzen, diru truke

- **Hizlaria(k):** Larrañaga Beloki, Maria Dolores
- **Elkarrizketatzailea(k):** Soroa Hernandez, Maddi
- **Erref:** TOL-061/010
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:13:49. **Bukatu:** 00:15:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- **Laburpena:** Kaleko arropa garbitzen zuen, diru truke. Etxez etxe arropa bildu eta "labaderoan" busti ondoren, gurdian etxera eramaten zituen. Behin baserrian, arropa barrika batzuetan egosi ondoren, garbitu egiten zen. Auzoko errekan astindu eta urberrituta, lehortzen jartzen ziren. Ostegunetan entregatzen zuten arropa fardeletan bilduta.

Transkripzioa

- Arropa kanpoko garbitzen gendun guk. Bai. Gurdi, gu eta zan basarriya bi bizitzekua eta biyok arropa kaleko arropa garbitzen gendun, etxez etxe arropa biltzen eta han, zean labadoren labadora eo badao hor?

- Labaderoa?

- Labaderua. Hor busti ta gurdin behiakin etxea eaman. Geo egosi.

- Egosi arropa?

- Arropa barrika batzutan egosi eta geo garbittu eta esaten dizuten ur hortan erreka hortan astindu ta akclaratu ta atzea etxea eaman eta geo zabaldu. Egualdi ona zeonen zabaldu eta geo pleatu eta entreatu osteunen-eo hola.

- Ta egosi, nola egosten zenuen?

- Ba egosten gendun, zea zan "este" bidoia bezelako bat eta han subakin "este" likidoa ez dakit ze botatzen zitzaion, kaustika eo zeoze botatzen zitzaion ta harekin egosten gendun barrikan, eta geo osteunetan, nere ahizpa zaharrenak ibiltzen zan, ni ez nitzan ibili behin ere. Hua ibiltzen zan ba arropa entreatzen, berriz. Garbitu ta pleatu, pardelakin eta bakoitza bere etxeta.

- Ta garbitzen ahal zan?

- Bai, bai, bai. Zuri-zuri-zuri. Bai. Ordun ez zan, ez labadoraik eta ezer ez zan ordun.

1.43. Arropa zabaltzeko lekua

- **Hizlaria(k):** Larrañaga Beloki, Maria Dolores
- **Elkarrizketatzailea(k):** Soroa Hernandez, Maddi
- **Erref:** TOL-061/011
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:15:43. **Bukatu:** 00:16:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- **Laburpena:** Arropa argitu ondoren, belardi handi batean esekitzen zuten arropa. Eguraldi txarra egiten zuenean, berriz, ganbaran

zabaltzen zuten. Arropa lehortzen ez bazen, ostegunetan beharrean ostiraletan entregatzen zuten.

Transkripzioa

- Nun zabaltzen zenuen arropa?
- Bagendun han toki bat oso haundiya.
- Etxe barrun?
- Ez, ez, kanpon. Belaza, alanbrea batetik bestea jarri postekin eta han zabaltzen gendun dena arropa guztiya.
- Ta egualdi txarra iten zunen?
- Egualdi txarra iten zunen ba ganbaran, ganbaran zabaltzen gendun. Negua zea izaten zanen gogorra ta hola ba igual osteuna bitarte, ostiala entregatu ez zalako lehortu eo hola eta ya amakin atxalde bat eo hola [...] pleatzen, pentsa zazu ze bizimoduba zan! Eta hua haik pleatzen ta bakoitzak bere tokitan jarri ta atzea entreatu itten giñuzen.

1.44. Arropa garbiketa

- **Hizlaria(k)**: Larrañaga Beloki, Maria Dolores
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Soroa Hernandez, Maddi
- **Erref**: TOL-061/012
- **Iraupena**: 0:01:33. **Hasi**: 00:16:35. **Bukatu**: 00:18:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- **Laburpena**: Kaleko jendearen arropa garbitzen zuten baserrian. Maindireak eta barruko arropak garbitzen zituzten. Arropak bi aldiz egosten ziren.

Transkripzioa

- Ta ze arropa klase izaten zan?
- Denetan, denetatik. Bueno maindireik ez, bai maindirek eta "interior" kamixetak-eta. Kulerok ez dakit izaten zian. Kamixeta bai, maindirek'e bai ta zeak.
- Kulerok ze izaten zien igual lotsa ematen zion jendei zuei ematea kulerok garbitzeko?
- Ez, "que va".
- Pertsonalagoa zalako?
- Ba ez, ez, ez. Kulerok garbitzen giñuzen. Denetatik, denetatik.
- Ordun, barril hoiek haundik izango zian zuk esan dezuna?
- "Hombre", hoixe, bai baiño hoi behin, bi alditan-o hola eosten zan eta geo bi, gu biyok bakarrik itten gendun barrillana hoy. Eta geo iruitzen zitzaigun hua uzten bagendun ez giñala biziko eta seitu ta geo utzi gindun hua ta ez dakit nola arreglatzen giñan baiño behintzat aurea atea giñan.
- Ta barrioko jendek ematen zizuen arropa eo beste?
- Ez, ez, ez. Kalekok.
- Kalekok?
- Kalekok. Barriyokok ez.
- Pixkat diru gehio zeukanak?
- Ba, "hombre", beti esaten ziu: "Ba al dakik nongok dian? Arropak nola zabaltzen ditue? Hangok dituk hok" mutillak esaten ziu.

1.45. "Ihauteriak" izeneko olerkia

- **Hizlaria(k):** Mokoroo, Valeriano
- **Elkarrizketatzailea(k):** Trebitsch, Rudolf
- **Erref:** TOL-071/003
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:02:05. **Bukatu:** 00:04:07
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- **Laburpena:** "Ihauteriak" izeneko olerkia. Euskal ihauterien euskal izaera galbidean doala dio, moraltasun galera tarteko. "Euskalzale Aldizkaria" izeneko hartutakoa da pasarte hau. Bilbon sortutako aldizkari honen zuzendaria Resurreccion Maria de Azkue zen.

Transkripzioa

Iñauteria

Autza dan gorputz argaltzuari
gozagiroak emanaz
igaro dira Iñauteriak
"Urrengo arte" esanaz.
Jesus maileak, zeinbat naigabe
arratzalde eta gabaz,
egun oietan eraman ditu
loikeriaz ta birauaz.

Mozorroturik beren buruak
Jantzirik soiñ txit nabarrak
jira ta bira neska-mutillak
emen oju, an algarak,
ibiltzen dira lotza galdurik
emanik laztan zatarrak
apaindurikan beren laguntzaz
nazkagarritzko baztarrak.
Euskal izkuntza, soñu ederrak,
mutu gelditu zerate?
Errugabeko dantza garbiak,
noiztandik erren zaudete?
Artzal-jaitako billera onak,
nork gaueratu zaituzte?
Itz batean, nork azpikoz gora
euskera bana digute?

Erdal etzaiak landatutako
Sasi-arrotz puzoidunak,
zain mingarriak zabaldu ditu
esnatzeko lo daudenak;
aiñ eraskorrak dirade berriz
mentu txar oien aztarnak,
non itzatzirik arkitzen geran
zorigaitzez euskaldu[nak.]

1.46. "Aita eta semea" izeneko narrazioa

- **Hizlaria(k):** Urreta , Manuel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Trebitsch, Rudolf
- **Erref:** TOL-072/001
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:56
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- **Laburpena:** "Euskalzale Aldizkaria" izenekoetik hartutakoa da pasarte hau. Bilbon sortutako aldizkari honen zuzendaria Resurreccion Maria de Azkue zen. "Aita eta semea" izeneko narrazioa da.

Transkripzioa

Uri txiki bateko burunausie.

Egun batean, pertz-kondoa gorde etziotelako, bi urteko umea bañon areago negarrez egondu zan gizon bat esanaz emaz[teari] etziola naitasun aundirik, ba naiago izan zuela semetxoari eman pertz-kondoa. Urrengo igandean aia egin zuan emazteak, eta semetxoak jan baiño len, oietako bat bialdu zuan Meza nagusi ondoan senarrarengana esatera etorri zeuela azkar etxera pertz-kondoa jan nai bazun. Mutilla joan zan aitari albiste au eramatera; ordu onetan zegoan ura uri-etxe edo konsejuan iganderoko billeran. Sartu zan semea erriko jaunak arki ziran lekura eta danen aurrean aitari esaten dio:

- Aita, amak esan dit pertz-kondoa mizkatu nai badu, len bait len joateko. Lotsaturik, ark egiten dio beatzarekin keiñu bat adieraziyez ixillik egon dedilla.

Mutill errugabeak, kemen aundiaz, orduan dio:

- Bai, oain ixillik egoteko diozu, eta joan dan igandean bezela amak gorde ezpazuan, nearrez jardungo zenduan umeak bezela.

Au aditu ondoan, ze esanik eztago, erriko jaun guztiak algaraz eta farrez asi ziran, eta gure alkatea lotsaturik gelditu zan.

Alaz guziaz ere etxera iritxi zan ean pertz-kondoan galdera egin zion lenengo emazteari.

1.47. "Benetako istorioak"

- **Hizlaria(k):** Urreta , Manuel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Trebitsch, Rudolf
- **Erref:** TOL-072/003
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:02:03. **Bukatu:** 00:04:05
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
Baserría » Baserriko lanak
- **Laburpena:** "Euskalzale Aldizkaria" izenekoetik hartutakoa da pasarte hau. Bilbon sortutako aldizkari honen zuzendaria Resurreccion Maria de Azkue zen. Bi baserritarren arteko elkarrizketa bat da "Benetako istorioak" izeneko hau. Uztari buruz ari dira hizketan, euriaren garrantziaz.

Transkripzioa

Izkirimiri gertatuak

- Erramon, nik plazan salerosiak egin bitartean oliyo-[ontz]i oni jariyoa kendu bear diozu.

- Ondo da! Ta, Joxpa-Pilipa, kanpoak labore onak dakazkite?

- Obe genduke ba gauzik asko baño! Egi-egie esaten dizut eta gaur edo biyar, euriya, bañan gogotik, ezpadu egiten... aurtengo nekazariyaren izatea joana da pikotara. Lur guziak elkortu dittu beroak eta lena berriz esaten dizut, euririk egiten ezpadu ainbat lasterren... urte gogoangarriya, bai guretzat eta orobat kaletarrentzat.

- Beiñere ba ta arrazoiz eskatzen dezute! Jaungoikoari nai dakiola ba len-bai-len euri zapar aundi bat eittea.

- Ala izan dedilla. Gero arte.

- Agur.

Plazako jua-entorriyak bukatzearekin batean asten du donariyo ederrean euri-zapar oparotsu bat, eta badijoa len aitatu degun ontzigillearengana.

- Jariyoa kendu diozu nere oliyo-ontziari, Erramon!

- Bai, tori... ta, zer esaten dirazu oraiñ euri-jasa oparotsu onengatik?

- Egi-egi bat esan bear bada, munduan ezta dirurik euri onek egiten duan lana ordainduko duanik...

- Orra ba, orra, gure Jaungoikoaren lanak, eskergabekeriz ordainduko badiokzagu ere.

- Alaxe da, bai. Ointxen ater[tuko balu ordu laurdentxo batean...!]

- Atertu?

- Bai, etxera joateko busti gabe, euriakorik ez tet ekarri ta... Askok baldiñ bagera onen antzekoak... Nola asma dezake gure Jaungoikoak?]

2. Familia eta harremanak

2.1. Bataioetan aita eta ama pontekoak

- **Hizlaria(k):** Zubillaga Agirrezabala, Joakina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** TOL-002/002
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:24:00. **Bukatu:** 00:25:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- **Laburpena:** Bataioei buruz hitz egiten du: aita eta ama pontekoak zein izaten ziren aipatzen du.

Transkripzioa

- Bataioa ez zan izaten oain bezela ospakizun haundi bat.

- Ez. Jeneralen, aldameneko gizonak ta emakumek ta geo bere aittepuntea ta amapuntea ta hoik.

- Ta aittepuntea ta amapuntea zein izaten zan normalian?

- Juten zan txandan. Gaur hemengo gizonezkoa baldin bazan, beno, nere aldeti gizonezkoa baldin bazan, gizonan aldeti emakumezkoa. Ta hola juten zan, txandan.

- Ta normalian zein izaten zian, ahizpan bat o anaien bat o...?

- Bai. Ba, haitatik guren denak kunplittuta're bazien, ta geo eo koiñatan bat eo koiñadun bat eo hola.

- Ta oain jartzen dia, baiño jartzeatik jartzen dia pixkat. Baiño garai hartan eukiko zun inportantzia zein jartzen zan aitaponte ta zein...?

- Hoixe bazeola inportantzie. Haundie, gaiñera! Ta gero, jakiñe, jakiñe, "Hoik hoi jarri [dike], baiño hoi ez zuen tokatzen, ni tokatzen niñuan" ta...

- Liskarrak´e bai?

- Bai, ba. Bueno. Haundie ez zan izaten, e, jeneralmente. Segurogo jokutzen giñen ta.

2.2. "Gordeketan", etxe bueltan

- **Hizlaria(k):** Zubillaga Agirrezabala, Joakina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** TOL-002/006
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:28:18. **Bukatu:** 00:29:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena:** Etxean lan asko izaten zen, eta jolasteko tarte gutxi izaten zen. "Gordeketan" ibiltzen ziren etxe bueltan.

Transkripzioa

- Zuek jolasik eta... Jolasak ingo zenituen txikitan.

- Bai, jolasak itten giñuzten, baiño astez nahiko lan. Etxea etorri ta bateko arditaa, besteko behietaa o nik ez dakit ba. Ta egurrek´e su hortako orduntxe txikituta ta. Dena lanen.

- Eta jolasik-eta gutxi?

- Gutxi, oso gutxi.

- Ta zertaa jolasten ziñaten jolastutakon? Ze izaten zan?

- Ba, jeneralmente behintzat guk "[...]", ez dakit, zuk ez dezu... "gordeketan". Jeneralmente behintzat bai.

- Nun ibiltzen ziñaten?

- Hementxe, etxe bueltan, bateti bestea. Hortxe izaten [...]. Iñorrek kanpoako zeaik ez zun izaten ta. Geo zaharrenak pixkat kanpora hasi zianen...

2.3. Harribitxiak galdu...

- **Hizlaria(k):** Zubillaga Agirrezabala, Joakina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** TOL-002/008
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:30:45. **Bukatu:** 00:31:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- **Laburpena:** Umetako oroitzapenak kontatzen ditu. Auzoko neska batek eraztunak egiteko harribitxiak utzi zizkion; bueltan eskatu zizkionean, Joakinak galdu egin zituela kontatzen du.

Transkripzioa

- Ta zu txikiya ziñala, ze rekuerto dauzkezu, hola, baserrikoak, polittenak?

- Nik eskolan... ni oso txikitan hasi nitzen eskolaa. Han baso-biden jun

behar izaten gendun. Geo, esan det, ba, lehen, bakarrik [handik geldittu] nitzen. Aldamenekok-eta, goiz... gutxi zien bestela´re, baiño goiz eskola utzi zien haik. Ta neska bat nun han herrin kontrakoa. Ta nik bakarrik ez ba hainbeste zea, ta pitxie, eraztunak-eta itteko badakizu nola izaten dien. Eraztunak-eta itteko zeak egoten die /egoteie/, ba?

- Harribitxik?

- Bai. Hoik. Harrek eman zizkiten. Neonek ez nun izaten, ta harrek ematen zizkiten. Ta nik ein´e bai. Ta geo bueltan eskatzen zizkiten! Baiño nik galdu. Ta "Bai, hure eman beharko dian /beharkoian/! Ez haiz... nere aitek bestela eskupetakin botako hau!". Ta enee! hoi bildurre! Bildurre ordun sartzen zitzaiten nei.

2.4. Eskolako zigorak etxean ez zituen kontatzen

- **Hizlaria(k):** Jauregi Maiza, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** TOL-003/006
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:20:14. **Bukatu:** 00:21:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
- **Laburpena:** Eskolan jotzen zutenean, etxean ez zuen kontatzen Antoniok; izan ere, esatekotan, bere errua zein izan zen ere esan beharko zuen.

Transkripzioa

- Bai, eskolan ni jo izandu niñun Gabinak. Ni jo izandu niñun. Nik ez nun etxen esan´e eitten. Nik bate ez nun esaten etxen. Jo bai. Ba, kulpek, askotan, kulpek izan´e eitten dittuzu ta... Esaten dizu ixilik egoteko, ta kontutan igual ai zea beste batekin ta. O bultzaka o zean igual; egoteko geldi, ta ez bazare, zeorri zea kulpante. Ordun, kulpantea baldin bazea, ba, harek zartako batzuk ematea o zeozer jotzea behintzat, [alegia] neri ez [zitzaiten] iruditzen hola... desarrazoizko gauze zani. Etxen okerragok igual izaten zien. Ta, ordun, nik etxen ez nun esan´e eitten. Nik etxen hure esateko ze ein nun esan beharra neuken, ta. Neri egie egikin esatea gustatzen baitzat. Ez zea, hau preparatu, ta hau hola utzi egi hau, ta "beste hau zetorrek, beste hau´re egie dek eta... baiño hau, beste egi hau, gordetzen baet, hori earki etorriko dek /etorrikok/". Hori asko hitz eitten da, e? Hori asko eitten da. Hori txarra da. Egie esan behar du egi-egi, bestela bate ez esan.

- Ordun ixilik egon ber...

- Hori hola da. Ta, ordun, nik ez nien /enien/esaten. Ni ez naiz gogoratzen esanik. Hatzaparrak-eta hola jarrita bai, jota, ubelduta ta. Minbera izaten zan.

2.5. Anai-arrebak zaintzeko ardura

- **Hizlaria(k):** Beloki Zabala, Karlos
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** TOL-008/002

- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:01:22. **Bukatu:** 00:02:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena:** Baserriko bizimodua du hizpide. Bederatzi anai-arreba ziren; Karlos zaharrena. Anai-arrebak zaintzeko ardura zuen.

Transkripzioa

- Senidetan zaharrena ziñala esan didazu.
- Bai. Ta majiña bat zaindu nittun nik, nerek baiño gehigo, nere senidek.
- Bai? Zenbat senide ziñaten?
- Beatzi.
- Ta ordun nola konpontzen zan aita, ama, seme zaharrena...?
- Aittek eta amak ein behar izaten zittuen lan pilla bat. Oain bezalaxe izaten zan lana ugari, diru gutxi irabazteko. Eta ni, zaharrena nola bainintzen, ba, pixkat gai izan nintzenen umeei erreparatzeko eo, hortxe. Sehaska haundi bat izaten zan, hola... zan [...] zana, hola, bi hanka zittuna. Ta han eraiñaz. Eta hantxe. Txupetea nahi izaten zuen. Arreba bigarrenak, nere hurrengo arrebak, txupetezalea zan oso . Eta ez dakit laugarrengoa o zein zan, ni hari erreparatzen, [pixkat] eraiñez, ezin isildu ta txupetea emanda ta. Ta bestea atzetiken begira txupetea hartuko lukenen. Ta, halako baten, ni pixkat distraittu nitzen garaien, da! kendu hari txupetea, ta hartu txupetea ta korrika! Ta ni utzi umea ta hari segika, etxean bueltan. Ta noizpaitten txupetea harrapatu nonen, txupetea kendu ta berriz atzea umea isiltzea. Ta hemen ibiltzen giñen komeritan. Ta hortxe, ahal zan bezala. Amak, askotan, igual aitte lanak eittea o basoa o kanpoa juna, igual behientzako janak ekarri behar. Eta, bueno, ez zan oaingo kontuik izaten. Oain´e gaizki baiño ordun gaizkigo. Ordun gaizkigo. Eta hola, ba, beatzitaiño.

2.6. Familian beti oso ondo tratatu izan dute

- **Hizlaria(k):** Bergara Aginaga, Bernabe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** TOL-012/004
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:06:14. **Bukatu:** 00:07:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Familia eredu desberdinak
- **Laburpena:** Ama ezagutzeko aukera eman ziotenean gaztetan, ez zuen nahi izan. 27 urtera arte morroi ibili zen jatekoa lortzeko. Adoptatu zuten familian oso ondo tratatu izan zuten.

Transkripzioa

- Zizurkilgo sekretariyuak esan zian ba ezkontzeko agirik ateratzea jun nintzanen, "fe de bautismo" ta ateratzea jun nintzanen, esan zian... Ta gaiñea esan zian, "Ama ezautzeko gogoik ba al daukazu?", ta hain zea ibiliya neon ni, baserritik baserria morroi ta famili haundiya. Beatzi, beatzi senide giñen, senide ni ordeko, baiño beatzi senide. Ta ibili giñan, ba, hok

esaten duen bezela. Gerra ondun, [...] ailleatzeatikan, baserritan ibilli naiz ni hogeita zazpi urte arte.

- Morroi?

- Morroi, bai, eon naiz, eon naiz Ormaiztegin, geo zazpi urte t'erdi in nittun Zeraiñen, ta hola. Handikan penakin atera nintzen, lagun batek deitu ta enpresa etortzeko

ordura arte etxian? Kuriosidadia, ordekoa ta bestek berdin-berdin tratatuk zian? Ez zan antzematen diferentziak?

- Kasik nik ezautzen dedala, kasik, neroni hobeto.

- Bai?

- Bai. Egiya esan behar badet, bai. Ta nik haregatikan ni beharbada ez nintzan prekuatuko. Gaizki tratatu baniñuen akaso, gehixeo espabilatuko nintzan, baiño ez, ez, ez nun izan nunbait.

2.7. Aitona-amonak kostaldetik Bedaiora

- **Hizlaria(k):** Zabala Olazabal, Eugenio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** TOL-013/002
- **Iraupena:** 0:02:53. **Hasi:** 00:02:08. **Bukatu:** 00:05:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Familiaren jatorriari buruz hitz egiten du. Aitona-amonak kostaldetik Bedaiora joan ziren bizitzera.

Transkripzioa

Aitona-amonak kostaldetik Bedaiora

- Zuen gurasok biak zien Bedaiokok?

- Nere ama etorri zan... Beno, aittona, aman... aittona ta amona zien...

Amona zan zeakoa... Buf! Aittona zan Zarauzkoa. Ta amona zan Itziarko inguru hortan hor ze herri...

- Deba o?

- Ez, beste herri txikixeok badie hor, bi o. Aizarna, Aizarnakok. Aizarna.

- A beira! Ordun, aitona-amonak kostaldekok?

- Bai. Ta nunbait ni ez nitzien... Ordun ez zuen, gurasok ez zuen ordun...

gauzak ez zittuen esaten. Oain guk'e... Baiño oain askoz'e garbigo hitz eitten da /hitzeittea/ familin; esan nahi nuke, ze pasatu dan ta. Ta uste det hasarratu o zerbaitte izan zuela. Ezkonduko zien aittona ta amona bean gurason etxea. Ta ez zien ondo konpontzen nunbait ta, ordun, Bedaion zeuken pariente, Jazkun. Ta honek esan, noabaitte jun in beharra zeuken nunbait, eta esan zien: "Hemen Bedaion bazeok baserri bat hutsik". Hartu behiek, ez dakit zenbat, hiru o lau zittuen, karrok kargatu ta Zarauztik oiñez etorri zien Bedaioa. Ta bi ume zittuen; Bedaion beste hiru jaio [zizkien].

- Tartean zure ama.

- Egon, Bedaion hiru... Aber... [Frantxiska], Antoni, Iñaxio, Migel... ez, lau izango zien. Bai. [Frantxiska], Antoni... Ez, hiru neska. Ez, ez, bost zien. Bost zien. Ta nere ama zaharrena. Ta bestek... Ta geo nere ama geatu zan Bedaion etxeako; zea, baserriako geratu zan. Ta nere anaia zaharrak esaten zien geo ya zertu zanen: "Jo, zuek Aiako gaiñen, Andazarretan, hartu arba batekin, arba, makilla batekin eo, ta atzea haruntza bialduazi. Paraje hontaa nola etorri liteke handik? Handik paraje hontaa nola etorri liteke?"

esaten zien harek.

- Zeiñek esaten zien hoi?

- Nere anaia zaharrak amonai esaten zion. Amonai ta ama... Beno, ama neska koskorra ekarriko zuen, ez dakit zenbat denborakoa, baiño segurasko lau o bost urtekoa igual izango zan.

2.8. Tolosarako eta Urkizurako joera

- **Hizlaria(k):** Ezeizabarrena Ugartemendia, Hilarion
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** TOL-023/003
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:02:30. **Bukatu:** 00:04:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena:** Auzo Txikia auzoari buruz hitz egiten du. Beraiek gaztetan Urkizurako joera izaten zuten gehienbat, baina gerora Tolosara joaten ziren. Berak eskola-etxean ikusi zuen, Auzo Txiki eta Urkizuren artean kokatuta zegoena. Aita egunero joaten zen Tolosara mezara; ama, ordea, esne-saltzera joaten zen Tolosara.

Transkripzioa

- Ta zuek honi, auzo honi, nola esaten zaio?

- Auzo Txikia.

- Auzo Txikia, ezta?

- Bai.

- Eta Urkizu hemendik gora hasten da?

- Bai, hori erditikan gora o hola da hoi Urkizu. Horrek bere eliza-ta badittu, baiño Auzo Txikik ez du elizikan.

- Eta zuek nora jo dezue, Tolosara gehio?

- Iya Tolosaa gehiyenian. Mutil-koxkorretan, gaztetan, Urkizua asko. Bai. Dotrina´re harekin ibiltzen giñan. Eskola hemen bertan gendun guk.

- Urkizun?

- E. Eskola itteko garaian, esaten zuen hemen eskola itteko hasi ziela, ta urkizuarra keja, ta karretaratik neurtuta, erdin in zuela eskola. Ta guk hor ikasi gendun gero.

- Ze etxe zan?

- Eskola-etxea esaten zaio.

- Ta, ordun, Urkizukok eta Auzo Txikikok han ikasten zenduen?

- Bai, hala zien [ikusten danez]. Baiño guk beti Urkizun apaiza ezautu gendun, ta apaizak eskola ematen zun Urkizun bertan.

- Ordun, bi eskola zian?

- Bai.

- Urkizu goian bat eta erdi-biden bestea.

- Bai.

- Ta zuek galdetzen dizuenen nungok zeaten?

- Guk, Auzo Txikikuak.

- Tolosarrak nolabaitt´e?

- Bai, Tolosakuak.

- Ta gaztetan nahiz ta —o txikitan— joera gehio euki Urkizu aldea, noiz hasi ziñaten Tolosaa gehio jotzen?

- Beno, gure aittak-eta ´re enjeneral Tolosaa juden zian mezetaa. Ta ama, berriz, egunero esne-saltzea juden zan.

3. Iritziak

3.1. Zerua eta infernuari buruzko gogoeta

- **Hizlaria(k):** Jauregi Maiza, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** TOL-003/001
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia
- **Laburpena:** Zeruari eta infernuari buruzko gogoeta egiten du.

Transkripzioa

- Zerua ez izatea pena emango litake. Infernua ez izatea, bale. Infernuri ez da, gaiñea. Nik hoi hogeita bost urtetako erabaki nun. Erabaki, e! Nik esan nun: "Hemen esaten diguen /esateiuen/ bezela eternidadea infernue, [...] baiño sue gogorragoa dala, ta gero eternidadea zerue. Mundu hontan gizona gaiztonetik onenea ez zeok diferentzi hoi, eternidadeakin konparatzeko. Ta hori ez dek egie". Nik hogeita bost urtetako hola jan nun hoi. Hoi ez dek posible. Ta oaindik ez die hiru bat urte apaiz bati, hola, goi xamarreko arzipreste bati, esan nion "Aizu, hola ta hola, ta hau ta hau ta hau, ta hau posible al da?", ta "Ez, Antonio, ez, hi lasai. Jangoikoa gu baiño onagoa dek ta gu denok salbatuko gaittuk" esan ziten. Oain, nik Jangoikoa ez dakit gu baiño onagoa dan. Nik pentsatzen det /pentsatzet/ ni baiño onagoa baldin bada, nahikoa dittula infernun bost egun gaiztonak ´e. "Earrak pasa dittuk; etorri hai, etorri hai honea". Beste gauze: Jangoikoak iñak denok. Ordun, zein da kulpantea? Bea, bea.

- Hala izango da.

- Nik hola ikusten dittut! Nik hola ikusten det /ikustet/nik.

3.2. "Kulturak jendea berdintzen du"

- **Hizlaria(k):** Leunda Artola, Maria Dolores
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** TOL-031/006
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:08:06. **Bukatu:** 00:09:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
- **Laburpena:** Lehen ez zen arrunta baserriko neskek batxillerra ikastea. Hala ere, Maria Dolores ez zen baztertua sentitu: diruaren eta odol urdinaren gainetik, kulturak jendea berdindu egiten duela dio.

Transkripzioa

- Ordun emakume asko al zian batxillerra iten zuenak?

- Baserrikok oso gutxi. Baserrikok hemen inguruko Kaxilda ta ni. Kaxilda da ni baiño bi o hiru urte zaharragua izango da. Kaxilda ta ni. Eta kolejion ez, kolejion'e gure taldea zan haundiya ta giñan bost. Bestek iten zuen "cultura general" esaten zana. Batxiller iten gendun: beste kurso baten zian bi, batekoa'de izan zan, ta guria zan ugariya bezela, bost izan giñan. Eta, bueno, gaiña denak zian, bat abogadun alaba, bestia medikuan alaba, bestia denda inportantena. Ni nintzan, ba, "pues, la pobre caserita". Baiño behin'e ez naiz sentitu alde hortatik diskriminatua. Ta oaintxe bertan deitu dit haitako batek, lagun haundiya det. Eta nere konplejok izango nitun, baiño bueno, hoi denak ahaztuta daude zeatikan, gero azken baten, oaindikan'e batzuk badaude pentsatzen duenak odola urdiña duela beak, baiño geo ta gutxigo daude holakok. Azken baten, ba, kulturak eta horrek iten zaitu gero berdindu. Eta zuk nortasun pixkat baldin badezu, ez dezu uzten zure burua iñoiz zapaltzen. Pasau nitun e? Nere momentu txarrak pasako nitun.

3.3. Infernua eta zeruari buruzko gogoetak

- **Hizlaria(k):** Leunda Artola, Maria Dolores
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** TOL-031/022
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:38:58. **Bukatu:** 00:40:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia
- **Laburpena:** Lehen fede gehiago zuen jendeak; orain, ordea, ez. Infernuari eta zeruari buruzko gogoetak egiten ditu.

Transkripzioa

- Lehengo gurasok eta umek'e fede gehiago izango zuen, ezta?
- Bai, "nos tragábamos todo. Pero yo ya no. Nos tragábamos todo". Ta gurasok ze esanik ez. Nik esaten det, nere ama ta hola, "porque no creo que existe ni el cielo ni el infierno", baiño "si existiera el limbo, suelo decir, son del limbo, de tan inocentes. del limbo". Nik ya ez det sinisten zerua donik, eta inpernua... Hemen ikusten det, telebisiyuan ikusten det. Infernua behinik behin egunero ikusten det. Oain bertan ikusten dezu Pakistanen e? Eta ordun nun dago gure jauntxo hori? "Te haces descreída".
- Ordun ez zeon, ordea, holakoik esateik, ezta?
- Ez, esateik ez. Ikusi'de ez giñuten gauza asko iten baiño... "Eso lo de los pederastas, y los curas no sé qué"...

4. Aisia

4.1. Galtzak, inauterietan aurrenekoz

- **Hizlaria(k):** Jauregi Zubillaga, Maitere; Jauregi Zubillaga, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** TOL-006/014
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:22:29. **Bukatu:** 00:24:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**

Aisia » Jai-giroa » Inauteriak

Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

- **Laburpena:** Neskek ez zuten galtzarik jantzen. Emakume atzerritar bati galtzak jantzita edukitzearren elizara sartzea galarazi zioteneko pasadizoa kontatzen du. Maiterek inauterietan jantzi zituen galtzak aurrenekoz; etxera itzultzerako, ordea, erantzi egin zituen.

Transkripzioa

- Maria: Galtzakin badakit nik hola junda protestatu ziena herri baten.
- Nola izan zan hoi? Nik hori aitu nahi det.
- Maria: Etorri zien galtzakin, ez dakit zein herritan izango zien, aidanen, ta ez zien utziko elizen sartzen galtzakin-ta ikusi zittuen garain, ta. Eta haik kanpotik etorri emen zien, ta esan emen zuen hain herrin ta hain nazion hure korriente zala, hala ibiltzen zala. Ta han ez zala sekulan ibiltzen holako jantziik, eta ez zuela nahi han ikusteik zea hure, galtzak eta gauza hoik emakumek. Nik´e ez nittun ikusi nahi izaten, ikusi nahi. Hori´re ibili zan. Urtek die, desde luego.
- Eta zu gogoratzen zea Bedaion aurreneko emakumia ikusi zendun garaia galtzak jantzita? Goguan dezu zuk lehenengo emakumia...?
- Maria: Ez dakit zenbat urte izango dien hoi, Bedaion...
- Maitere: Aurrenekoa?
- Aurrenekoa galtzak jantzita.
- Maria: Bai, ba, Bedaion aurrena galtzak jantzita ikusitakoa akordatzen al naizen.
- Maitere: Ez gea akordatzen, baiña gu... nik...
- Maria: Ni neoni garai haitan...
- Maitere: ... karnabaletan jantzi nittun.
- Bai?
- Maitere: Aurreneko karnabaletan jantzi nittun. Han ez zan ikusten. Hemengo jendeak ez zun ikusten. Baiño geo erantzita etorri, e, gora. [Ahal izatez]. Aber. Zenbat denbora da, ba, oandiken?
- Maria: Ez dao, ba, urte asko galtzakin hemen hasitako zeak, e?
- Maitere: Berrogeita hamar bat urte bai. Berrogeita hamar [bueltan].
- Maria: Hortxe, berrogeita hamar-hamabost... hamabost bat urte, hortxe. Hortxe ibiliko da.
- Maitere: [Ez zan] ordun ez zan ikusten galtzaik hemen.

4.2. Zine mutua eskolan

- **Hizlaria(k):** Ezeiza Otamendi, Santos
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** TOL-019/013
- **Iraupena:** 0:02:36. **Hasi:** 00:20:26. **Bukatu:** 00:23:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**

Aisia » Kultura » Zinema

Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Apaizak ematen zituen eskolak Urkizun. Apaiz haietako batek, don Felizianok, zine mutua jartzen zien, hartarako proiektagailua baitzeukan; oso pozik egoten ziren hari begira eta zer film klase ikusten zuten aipatzen du. Igandetean ere izaten zen zinea eskolan.

Transkripzioa

- Apaiza zer zan bullosoa hola o bronka botatzekua-o?
- Apaiza, bat don Feliziano Andoaiñea jun zan. Azkoitikoa zan. Ni txikia nitzala hua ona zan, harek harek jartzen ziun umeei, umeei umeei gustoa itteko izaten zun harek. Ta hitz itten ez zun zinea jartzen ziun. Hitz eiten ez zuna e! Zinea bazeukan. Jartzen ziun batzutan, jontxo ez ziun beti jartzen, argiya [...] itten zun ta. Ta hitz itten zuna jartzen ziun. Ta gu hari beida erotzen eoten giñan, ez zun hitz eiten e! Irudi gabe ikusten zien.
- Zer zun proiektore bat?
- Ikusi. Bai. Makina bazun don Felizianok nunbaitetik ekarrita. Ta ez zun hitz eitten e, baiño gaurko eunen telebisio baiño gustoago hari beida mutil koxkorretan ze gustoa eoten giñan.
- Ze pelikula klase zian?
- Ez dakit ze pelikula izango zien. Astua larren igual izango zien eo holakoxe batzuk igual ta geo beste pelikulaik bat ere ez, holakoxiok. Jesukristonak, zea Judasenak-eta hoi botatzen zittun. Jesukriston jaiotzak ta hoik botatzen zittun, Judas ta hoik botatzen zittun ta gu umek hairi beida harritzen eoten giñen. Ze gustoa eoten giñen gaiñea.
- Paretan nola jartzen zitun pertsonak muitzen-ta?
- Aparatua bazuen, nunbaitte. Oain'e elizan jartzen dittue paretan'e kantak eta San Franziskon'e bat'e zea jarri gabe. Paretan jartzen digue. Aparatu horrekin botata pareta txurittu ta.
- Gu ez gea harritzen, baiño gu oain ez gea harritzen baiño garaiko umiak joe esango ber zenduen joe esan behar zenuen "zer da hoi?", o sea magia iruituko zitzaizuen zuei?
- Bai, bai, bai; hala iruitzen zitzaibun, baiña gustoa eoten giñan hari beida. Geo igandetana'e botatzen ziun. Gu hantxe igandetana iñoa ez giñen juten gu ta igandetana'e bai botatzen ziuen eskolan don Felizianok, zine hoi; zine hitz eitten ez zun hoi, mutue. Baiño irudi haiei beida gu erotzen eoten giñen. Egia esango dizut, hoik hala die ta.
- Ta don Feliziano hua aizkoitiarra zan?
- Azkoitiarra zan, ta geo Andoaiñea jun zan. Bai, gue amai asko laundu zion gue aitta hil zen garaian paperak itten ta harek asko laundu zion don Felizianok. Oso gizon ona zan. Ta han nexkame Urkizuazpikoa zun, Kontxixi Iraola.
- Ta zuen alden harek euskeraz diferente hitz eingo zun ba?
- Ez zazula uste, euskeraz urte batzuk. Bueno, urte asko pasako zittun Urkizun'e bai. Gehienez'e Urkizun apaizak lau urte asko ez zittun pasatzen, ya lau bat urte pasa ta berrie etortzen zan jeneralmente.
- Ze nahiao izaten zuen alde in beste tokin batea?
- Bai, destinatu iten zuen nunbait, ta geo berria ekartzen zuen, lau-bost bat urte apaiza eoten zan.

4.3. Tolosako inauterietako giroa

- **Hizlaria(k):** Ezeiza Otamendi, Santos
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** TOL-019/027
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:45:37. **Bukatu:** 00:47:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Aisia » Jai-giroa » Inauteriak

- **Laburpena:** Inauteriak egun handiak izaten ziren. Kaleetako giroa nolakoa izaten zen azaltzen du. Inguruko herrietatik ere etortzen zen jendea Tolosara.

Transkripzioa

- Eun handik izango zian Karnabaletakok zuetzako ere?
- Bai, bueno. Bai, Karnabalak beti gustokok izan izandu dittu gaztek.
- Izaten zan ordun txaranga ta zea ta oain bezela, musika kalia?
- Bai, bai, bai; hoiek izaten zien; bai, bai, bai. Ya oaingo posturan, ez noski oain bezelako elegantek, jantzita musikakok, baiño eltze zaharrakin eo platerakin musika izaten zan, jotzen zuen musika. Ta gu, gu goatzen naiz ni xexenetatik atea ta nik orduen hemezortzi bat urte, hamasei urte izango nittun ta danborrada aurrean jartzen zan ta atzetik dantzan ta korron aurrea ta atzea ta aurrea ibiltzen giñen sekulako festa gusto asko ibiltzen giñen, aurreko zeai musikai seituz; bai, bai.
- Inguruko herrietakok juten zian o Tolosan tolosarrak izaten zian gehienbat?
- Izaten zan jendea, jende asko juten zan Tolosa ordun e.
- Ibarratikan?
- Bai, bai, Ibarra ta Andoaindikan'e bai. Ta Villabona aldetik ta Tolosa jende asko etortzen zan ordun; bai, bai, bai. Tolosan karnabalatan beti izan da jendea, beti; bai, bai. Hoi nik bezela beste batek esango dizu, Tolosan beti jendea asko izan dala karnabaletan.
- Festako eun aproposa ordun?
- Bai, bai.
- Andregaia billatzeko're ta ordun jendia saiatuko zan?
- Ordun kostatzen zan, kostatzea hoi itia baiño behintzat.

4.4. Aurreneko idi-apustua

- **Hizlaria(k):** Zulaika Aizpurua, Joxe Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** TOL-026/004
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:03:13. **Bukatu:** 00:04:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Aisia » Kirola » Herri-kirolak
- **Laburpena:** Herri-kiroletako zaletasuna nondik datorkion kontatzen du. 18 urterekin hasi zen idi-apustuak jokatzen: alde bakoitzak bi mila pezeta jokatu zituen. Soldadutza ondorenean, sega-apustua jokatu zuen Iturriotzen.

Transkripzioa

- Noiz hasi ziñan zu herri-kiroletan afizionatzen o nola jun zan zure ibilbidia?
- Herri-kiroletan aurren-aurrea, ba, hemezortzi urtekin, ba, idi-apustuba jokatzen.
- Idi-apustuk?
- Bai, harriyai heldu ta atzetikan zeatzen, laguntzen. Ta geo, ba, handikan, soldaduska in ta geo soldaduska ondorenen sega-apustua jokatu nun Iturriotzen.
- Egon, e. Galdetuko dizut idi-probako idi-apustuk ze prueba klase izaten zian ordun?
- Ordun 'e oaintxe bezelaxe, ba, jokuak alkarri; geo premio kanpeonatuk

baten ta besten. Oain baiño ´re gehio, gaiñea, askoz ´e izaten zien ordun. Haitan.

- Zenbat diru jokatzan zan orduan?

- Ba! Ordun ´e diruba... Badakizu, oaingo konparaziyokin, ba... Ordun nik goguan det aurreneko joku hartan, ba, alde bakoitzetikan biña milla pezeta. Ta bazan ordun diruba. Hala esaten zan behintzat.

- Konparazion esango zenduke ordun gehio zala oain jokatzan dana baiño?

- Askotan bai. Hua... zeatik eze apostu hola amistoso bateako, nik ze esango dizut? Ordun mutil batek lau hillabeten irabazten zun diruba zan hoi. Ordun hillian bostehun pezeta irabazten zun mutilla zan, ba, "ño! horrek sueldo earral zakak!" esaten zan.

4.5. Idi-apustua: Gipuzkoako eta Bizkaiko plazak

- **Hizlaria(k):** Zulaika Aizpurua, Joxe Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** TOL-026/005
- **Iraupena:** 0:00:44. **Hasi:** 00:04:53. **Bukatu:** 00:05:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Aisia » Kirola » Herri-kirolak
- **Laburpena:** Idi-apustuen nondik norakoak kontatzen ditu. Garailea plaza gehien egiten zituena izaten zen. Gipuzkoan, plazak 22 metrokoak izan ohi dira. Bizkaian, berriz, luzeagoak; 28-29 metro ingurukoak. Bizkaiko plazak, ordea, errazagoak dira.

Transkripzioa

- Ze prueba in behar izaten zan? Han, plazan, bakoitza bere idi-pariakin, ta ze in behar izaten zan?

- Haruntza ta honuntza, ba, leku jakiña egoten zan, ta jokua nola itten zan. Batzutan etten zan igualen, bestetan eitten zan, berriz, zerbait bentaja batei o bestiai emanda. Baiño geo zeñek plazaik gehiena eitten zittun, hua izaten zan garaille.

- Eta zenbat metroko plazak izaten zian?

- Hemen, jenealen, ba, hogeita bi metrokok die hemen. Bizkaian luzeauak dia Bizkaian. Bizkaian hogeta zortzi ta beatzi ta...Oain, plazak hemengoak baiño errezoxogok dia.

- Lurraatik beraatik?

4.6. Gerra hasieran, liburuak erre zituzten Tolosako Plaza Zaharrean

- **Hizlaria(k):** Gorrotxategi Pikasari, Joxe Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** TOL-035/006
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:09:27. **Bukatu:** 00:10:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Aisia » Kultura » Irakurtzea
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

- **Laburpena:** Gazte garaian, liburuetikiko zaletasuna piztu zitzaion. Gerra hasieran, Plaza Zaharrean liburuak nola erre zituzten gogoratzen du.

Transkripzioa

- Hamazazpi-hemezortzi-hogei urtekin nahi nun jakin ta liburuak erosi nitun. Nik beti izandu det afizioa, liburu-afizioa, ezta? Eta ibili nintzen este Manterola ta holako zea billatu nahian, eta esan ziaten zea zala este PNVko zean baten txoferra, garaje baten lan eiten zuna, ta haren liburun bat o beste izango zula. Ta hala jun nintzen ba batek bialduta, abertzale batek bialduta, ta zergatik iñok ez zitun, ez zun nahi etxean euki holako liburuk, abertzalea baldin bazan. Ni goatzen naiz plaza zaharrean nola erre zuten liburu pillu haundi bat, ni goatzen naiz.

- Gerra ondorenan?

- Ez, ez, ez, ez, gerra aurreneko egunetan. Bai, bai, ni goatzen naiz, Plaza Zaharrean, aiuntamentu parean, pillo bat liburu zea nola erre zituzten. Baiño orduan liburuak erre, baiño nik zentzutasunik ez neukan zazpi urtekin. Baiño goatzen naiz nola liburuak erre ziran.

4.7. Arco-iris elkartearen hastapenak

- **Hizlaria(k):** Iraola Uranga, Migel Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider
- **Erref:** TOL-066/004
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:04:40. **Bukatu:** 00:06:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Aisia » Taberna giroa » Elkarte gastronomikoak
Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika
- **Laburpena:** Errepublika garaian, lagunak elkarte biltzen ziren; orduan, Arco-iris izena asmatu zuten. Elkarte hartan, jarrera politiko desberdinetako jendea biltzen zen. Han, dantzak ikasi zituzten, eta emanaldiak ematen zituzten.

Transkripzioa

- Gu, klaro, lagun-lagunak o beti izaten da kuadrilla, no? Zerkausin biltzen giñan, soziedade bezela. Ta orduan atera zan Arco Iris izena. Batzuk esaten due gauz bat, baiño neretzako hori izan zan famili karlistak eta republikanuak, sozialistak eta nazionalistak. Baiño ni... nere arreba zan emakume... "nacionalistas". Bai, nere arreba. Eta, ordun, neri sartu zitzaian... dantzari. Eta juten giñan, ba, herritaa. Nola iten zuen han... Nola da hori? este... esango det! Nola iten zuen... "mitines". "Mitines" iten zuen. Eta gu juten giñen, ba, dantza itea. Ordun ikasi genun dantza; hanka nola mugitzen genun! Oaiñ'e mugitzia dauket, baiño...

- Hori zer zan republika garaian?

- A bai, bai, klaro, klaro. Nik republika garaian neuzkan hamabost urte.

4.8. Arco-iris izena asmatu zutenekoa

- **Hizlaria(k):** Iraola Uranga, Migel Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider
- **Erref:** TOL-066/005

- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:06:15. **Bukatu:** 00:07:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Aisia » Taberna giroa » Elkarte gastronomikoak
Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika
- **Laburpena:** Errepublika garaian, hainbat jarrera politikotako jendea batzen zen elkarteetan; eta, denen artean, Arco-iris izena jartzea erabaki zuten.

Transkripzioa

- Eta ze giro zeon orduan, republika garaian? Zuk gogoratzen dezu nola konpontzen zan jendia?

- Bai, hasi naiz izena, Arco Iris, aber nundik azaldu zan. Eta ni beti gogoratzen naiz han, Zerkausin, iten genun junta bezela. Ta batzuk, famili batzuk, republicanos, bestiak karlistak, bestiak sozialistak eta... Ba, guk hamabost urte. Ze izango nitzan ni? Ba... Bueno, arrebagatik, ba, Batzokira juten ta hola. Ta, ordun, ze izena jarri behar genun sozidadiai. Ta [...] ze izena, ba... [bat...]. Ya gero atera zan "zergatik ez degu jartzen Arco Iris?". E? Danak diferentia nola zian. Ta hola, hola hasi giñan sozidadea.

4.9. San Anton jaiak

- **Hizlaria(k):** Mokoroo, Valeriano
- **Elkarrizketatzailea(k):** Trebitsch, Rudolf
- **Erref:** TOL-071/001
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:59
- **Gaia(k):**
Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- **Laburpena:** "Euskalzale Aldizkaria" izenekoetik hartutakoa da pasarte hau. Bilbon sortutako aldizkari honen zuzendaria Resurreccion Maria de Azkue zen. San Anton jaiaren berri ematen du, lehenagokoak eta grabazioko garaikoak alderatuz.

Transkripzioa

San Anton antziñian ... eta San Anton gaur. Nola ezagun dan egunetik egunera ari gerala aurreratzen... atzera!

Oroitzen naiz gaztetxoa nintzala nere jaiet-erritxoan zenbateraiño larría edo naia edukitzen genduan egun zoragarri au ospatzeko; bada urteoro egun orretan izan oi zan zerri aundi baten errifa edo norentzat izana, aitorturik San Anton deritzan anai kidearen onerako zala orretan irabazten zan dirua. Goiz goizetik asiko ziran anaikide orretako buruzari edo kargudun jaunak etxerik etxe papertxo batzuetan izkribatuaz izen ta izen-gañak bakoitzeko errealtxo banan, eta berealaxen osatzen zan zerriak balio zuben ainbeste, kontuan idukirik anaikidetarrak bakarrik izaten zutela sarbidea jokura.

Eta gaur? Gaur ere bada, bai, zerriaren errifa, bañan... lengo moduban! Ezta aldeko ere.

Bi edo iru illabetez lendik asten da, beste eginkizunik gabe, kalerik kale, jai eta lan-egun, gizon bat eztarria urratu-bearrean irrintzika: Rifa; tira errialian billetia; quien me compra? akabatzerá dijoaz... Eta doi-doi saltzen ditu egun orretarako; orrenbestexe denboran buruan!

Eta nola ez, baldin lautatik bat petxetarako bear bada; irutatik bi, onelakontzat; erdia, alakontzat; egunetik onenbeste... besteren

batentzat!

Nork eta errazoiarekin galdetuko ez du: Zenbat balio du zerriak, eta norentzat dira irabaziak?

Atzera gaitean, atzera gaitean... aurrera!

5. Herria, azpiegitura

5.1. Apretak eta zapatak

- **Hizlaria(k)**: Jauregi Zubillaga, Maitere; Jauregi Zubillaga, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: TOL-006/015
- **Iraupena**: 0:02:08. **Hasi**: 00:24:04. **Bukatu**: 00:26:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- **Laburpena**: Mendi-bideetan ibiltzeko, apretak eta abarkak jantzen zituzten. Festara joateko, berriz, sandaliak edota zapatak jantzen zituzten. Tolosako "apeadero" pareko denda batean saltzen zituzten Azpeitian egindako apretak.

Transkripzioa

- Oiñetan ze ibiltzen zenduen?

- Maria: Oiñetan apreketa asko, ez zan zeaik eta. Zapatillek eta apreketak ordun ibiltzen zien gehiena; zapatak oso gutxi.

- Maitere: Gero, nora jutun giñen? Beste gauz bat. Festaa jun behar bagendun, jutun giñen Azkaratea.

- Maria: Larraitze.

- Maitere: Badakizu nun daon Azkarate? Ba al dakizu nun daon?

- Bai.

- Maria: Bedaiotik seittun dao ta.

- Maitere: Gure etxetiken belaxe dao. Mikeletek´e zelatan aittu zien, ba? Ba, hortxe dao. Gure etxea hor gaikalde hortantxe dao etxea. Ta Azkarate mugan terrenok-eta dare denak. Ta hara jutun giñen festaa. Ta nola jungo giñen, ba, zapatillekin? Beti lokatza besteik ez zan izaten. Ta Larraitzea jun behar gendunen´e abarka-galtzerdik.

- Maria: Bai, bai, hala zan. Egualdi earra baldin bazan, zapatillek ta apraketak eamaten zien asko. Egualdi earra zan garain hoik eamaten zien, ta txarra baldin bazan...

- Maitere: Ordun garoa ta [zabar] asko izaten zan bide hoitan. Bide txarrak izaten zien ordun´e. Beno, oain baiño hobek, noski, baiño...

- Maria: Bai, sandaliak o zeak. Sandaliak o zeak, ebie itten zunen sandaliak´e bai.

- Maitere: Sandaliak nola emango giñun, ba, Maritxu, eurie itten zunen?

- Maria: Ebie itten zunen´e sandalia beltzak-eta izaten zien, eta haik´e ibiltzen zien, e?

- Maitere: Ez hemen ibiltzeko. Ez hemen ibiltzeko, ordea, Maria!

- Maria: Festaa juteko, esan nahi nuke.

- Maitere: Zapata baju batzuk eta hola, ez sandaliak. Sandaliak gero ez al zien goitik behera juteko, festaa-ta jutun giñenen?

- Maria: Hoi ba! Sandaliak, hori esan nahi nuke, festaa jutun giñenen. Sandaliak eta apreketak eta zapatillek.

- Apreketa hoiek etxen iten al zenituen?

- Maria: Ez. Hoik garai hartan ta oain´e hoik kantidadea Azpeitin itten zien. Ta Tolosan gero zeatzen zien hor, saltzen. Tolosan bertan´e eingo zien, noski; ez naiz hoinbeste akordatzen. Oaintxe´re urdun zeatzen zienak, Azpeititik ekarrita zeatzen zienak, Tolosan, apeaderon paren, beste kallejoia zeatu pare-paren, ixkiñen, ta oaiñik denda harek segittu eitten du, apreketak eta gauzak. Tolosan. Bai. Hantxe segitzen du.

- Maitere: Abarkak lotu, [...]honaiño goraiño lotu, galtzetin zurik jantzi ta...

- Maria: Bai.

5.2. Herri-lanak

- **Hizlaria(k)**: Iraola Olano, Joxe Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: TOL-022/006
- **Iraupena**: 0:01:59. **Hasi**: 00:05:19. **Bukatu**: 00:07:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- **Laburpena**: Herri-lana nola izaten zen kontatzen du. Baserri bakoitzak bideko zati bat zaintzeko ardura izaten zuen, eta etxe bakoitzetik pertsona batek joan behar izaten zuen lanak egitera. Bailaran 10-12 lagun osatzen ziren lan horiek egiteko. Urtero egin behar izaten zen bide txukunketa. Herri-lanak egiten zituztenentzat ardoa eta ogia ematen omen zuen Tolosako Udalak.

Transkripzioa

- Ta bide haiek, karo, oiantxe gurdiya pasa, oaintxe aberea, zea, kaxkartu´re ingo zian o zulok in o...

- Bai. Ta geo herri-lana izaten zan, barrioko lana. Batzuk uste det punto batetik bestea... Guk hemendi gendun... Munittaberri ba al dakizu nun daon? Bandresen etxea jakingo dezu /jakingozu/ ba. Hareaiñoxe gendun guk ein berra. Badakizu, zulok in o zeoze itten bazan. Haraiñoxe. Ta beste aldeti, berriz, zeara, Malakaa. Malaka ba al dakizu nun daon? Monteskutik honeago, hemen, azken-azkeneko etxea [du] hori gora. Malaka. Ta beheti gora ,berriz, repetidorea, repetidorea o, badakizu nun daon, haraiñoxe. Bai. Ta hemen baillaran ordun, ez dakit, ba, hamar lagun o hamabi o ze osatuko giñen, baiño behintzat beti hoi arreglatu ein behar izaten zan. Urtero pasatzen zan.

- Urtero ein behar izaten zan?

- Urtero bere pasadizoa, zeoze txukundu.

- Ordun, urtian hasieran ta urtian azkenian bidek ez zian igual-igual egongo.

- Ez, beti kaxkartzen zien, baiño... ba! behintzat hortixe ibiltzen zan.

- Ta ze bialtzen zan etxe bakoitzetik...?

- Etxe bakoitzeti bat. Jenealen atsaldekoa o. Atsalden izaten zan jenealen. Ta geo alkate zanak atsaldekoa´re ekartzen zun, ardo pixkat eta, atsaldekoa. Ta batzutan txurruta gehixeo einda´re bai etxea! Holakok´e pasatzen zien!

- Aitzaki ona.

- Bai. Ta gure aittona zana urte dezentetan egon zan alkate. Ta harek nola herriti ekartzen zun, herriti alkantzatzen zuen ardo pixkat ta ogiye. Ta hola. Ta nola zertzen zun. Hoi gogon dauket nik dana. Ta geo hemen bestea,

[Ipar] eo esaten deuna, horko alkatea zan, horrek´e igual-igual ekartzen zun.

- Tolosatik ekartzen zan ardua?

- Bai, Tolosakoa. Aiuntamentun uste det ematen zula hoi, ardoa ta herri-lana [...] ogi pixkat.

5.3. Bide-konponketarako erremintak

- **Hizlaria(k):** Iraola Olano, Joxe Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** TOL-022/009
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:08:28. **Bukatu:** 00:09:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena:** Bide-konponketarako zer erreminta erabiltzen ziren aipatzen du: saskia, hondeaitzurra (aitzur luzea), aitzurra eta pikatxoa. Ur-bideak nola egiten ziren azaltzen du.

Transkripzioa

- Bidek arreglatzian lana, ordun, zer zan? Nola... ze erraminta ibiltzen zian, adibidez?

- Ze erraminta? Lur-saskie o saski koxkor bat eta hondeatxurre o esaten zaiena, atxurre, ta pikatxoa.

- Hondeatxurre?

- Bai, hondeatxurre esaten diou /esateiou/ guk. Beste atxur jorrako hoik baiño hazixegoa izaten da /izatea/. Akaso ikusiko zendun. Hondeatxurre ta pikatxoa.

- Ta saskiya´re bereziya izaten zan lurra jasotzeko?

- Eee... bereziya... oain´e badare lur-saskik, lurretako, ta laneako´re bai. Hola, saski koxkor batzuk, haundi hoik bare izaten zien. Beti hua izaten zan. Ur-bidek itten zien ta ur-bidek itten zien zikindu o [...]. Ta geo [...] izaten zan saskie. Han batek o bestek bete, beste zakue bizkarren sartu buruti, ta saskika, biden nun falta dan, harea o.

- Ta ur-bidek ze iten zien, izkiñatan, hola? bazterren?

- Ur-bidek itten zien, hola, aldapa goiti behera badijoa ta, ure mozteko, lekun-lekun-lekun. Bestela bide danak eamango littuke urek. Ta hartako eitten zien ur-bidek. Ta geo handiken ur-bidea baztarrea ebaki ta baztarren belardin o zean, hola, zulo bat egoten zan, ta harea, lurre-ta harea botatzen zuen. Ta geo urten behin o zean hustu ein ber hue´re, pixkat, saskika o nola-hala. Ta hola.

5.4. Urik ez baserrian

- **Hizlaria(k):** Larrañaga Beloki, Maria Dolores
- **Elkarrizketatzailea(k):** Soroa Hernandez, Maddi
- **Erref:** TOL-061/003
- **Iraupena:** 0:03:18. **Hasi:** 00:03:08. **Bukatu:** 00:06:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- **Laburpena:** Baserrian ez zuten urik, eta komunak gerora egin ziren. Ura auzoko erreka batetik hartzen zuten; buruan eramaten zuten baldea.

Transkripzioa

- Etxeak goatzen zea komuna zeuken, ura, kalefazioa, labeik?

- Ura, udik ez, udik ez. Komunik'e bai komona geoztik in zan, gu jaio ta gero eta urik ez. Ura ya azkena arte ez da izan.

- Ta nola lortzen zenuen?

- Nola? Ba behera jun aldapan eta arropa garbittu eta burun ura iyo gora astoakin bai ta astokian arropa uretan sartu geok eta han garbittu. Negua ta udara.

- Ze eoten zan aska?

- Ez, ez, ez. Zea bat, erreka bat bezela ta han eoten zian harrik zea itteko lixo itteko. Eta ordun dena, barrio guztia eoten zan hola eta uretan sartu handik pasatzen zianak harrittuta gelditzen zian ude nola danak eoten giñan. Negun.

- Kaleko jendea izango zan?

- Bai. Eta guk ukitzen giñuzen zea batzuk osea plastiko gauza batzuk eta haik etxea juteako gor-gor inda gelditzen zien hotzak. Ez harrittu geo reumak eta gauzak izatia ezta? Eta.

- Eta etxea jundakon nola berotzen ziñaten han pasatako hotza?

- Hotza ba kanbiatu eta zeoze berua hartu eta ordun normala zan hoi.

- Ekonomikakin.

- Ekonomika? Bai, suba bajuba. Suba bajuba ta han eoten giñan zeoze berua hartzen gendun ta hortan. Ta hiru ume-eo bazian 'e behera jun ta amak garbittu arropa. Eta ura'de bakizu zenbat behar dan etxen ta burun eman baldeka uda behetik gora.

- Plastikozko baldek?

- Ez. Beste balde marroneiak-eta nola izaten dia?

- Nolakok?

- Marroneiak-eta.

- Burnikok.

- Burniya bezela. Bai, haitakua.

- Esnea biltzeko erabilitakoa?

- Bai, bai, bai; hoitakua.

- Ta jartzen zenuen marroia hoi ta burun arten zeoze?

- Bai, haren azpin. Eta buruba ta hua buruban jarri zea, ba trapu bat hola bilduta, eta geo hua gaiñen. Eta aldapa bastante haundiya gaiñea! Eta eamaten gendun. Oain haiña ura ez zan gastatzen ordun, ez zeon-ta. Eta geo uda jarri zuenen, bueno ez gendun... Ni handik alde in ta geo jarri zuen. Bueno ez gendun sinexten. Nere ahizpak sinixtu're ez zun iten. Hamar ume zittun eta hain arropa dana garbittu eta uda astoakin beti lau marmita eta mixeriya. Basarrin, mixeriya.

6. Baserria

6.1. Txiki-txikitatik ardiak gustuko

- **Hizlaria(k):** Beloki Zabala, Karlos
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren

- **Erref:** TOL-008/003
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:02:53. **Bukatu:** 00:05:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
 Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza
 Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- **Laburpena:** 16 urte zituela, igeltsero lanetan hasi zen. Txiki-txikitatik zituen ardiak gustuko, eta igeltsero lanetik ateratzen zuen diruarekin arkumeak erosten zituen. Gero, Karlosen aita ardi batzuk ekarri zituen eta artaldea osatu zuten. Aita ibiltzen zen ardiekin, eta gaztak ere egiten zituen. Karlosen aita Ordiziako azokara joaten zen arkumeak eta gazta saltzera.

Transkripzioa

Ni bastante garaiz hasi nintzen ateatzen. Aurrena, zerbait ibili nintzen, 16 urtekin hasita, pixkat igeltsero hasi behar nula ta, hola, igeltsero. Beti ardik etxen. Ttiki-ttikitatiken gustatu izandu zitzaizkiten ardik. Eta lehen eukitzen omen zittuen aittek-eta, baiño, gero, ni ya... ni jaiota ta garai hoitan behintzat ez. Garai hoitan ez. Eta hona etortzen zan artzai bat negun eta, jo, ni beti inbiditan. Ni beti inbiditan. Eta "Aitte, ardik" eta "Bai, ardik zea", ta... Gero behintzat hasi nitzen garaian 16 urtekin eo igeltsero ta zerbait, handiken irabazten nun dirukin-ta, arkumek ekarri ta biberotik-eta [...] emanez ta hola batzuk jarri ta... Neri gustatu iten. Ez haikin egoteko, lanen beste alden ibili behar izaten non, baiño kapritxo hoik. Ordun aittek ekarri zittun beste 2-3 ardi o eta nik hazitakokin eta abar hasi giñen ardik, hola, batzuk ugaritzen. Eta orduzkeoz beti izan ditteu ardik. Eta ni nola ibiltzen nintzen kanpoa asteburutan ta lanetik etortzen nintzenen ta beti etxen lanen ibiltzen nitzela, baiño aitte erabat etxen. Aitte ibiltzen zan ardikin. Gaztak itten zittun. Hamabost aldira o, Ordizia ematen zitun. Ya hartzaillea fijo eukitzen zun eta hola ibiltzen giñen. Nik... obran ordun lanen ibiltzen nitzen. Bueno, soldaduskatik etorri ta gero berriro obran hasi nitzen. Eta, ordun, obran ibiltzen nitzen. Goizen lanea juteako goizago atera ta eamaten nun Ordizia hure. Arkumek baldin bazien, arkumek, gaztak baldin bazittun, gaztak, hartu ta harea ematen nun eta lanea juten nitzen. Eta gero, ba, baldin banitzen hemen Tolosa aldetiken eo hemen ingurutiken, bazkaltzea etortzen nitzen etxea. Hure trenen etortzen zan Alegria, ta gero hure etxea ekartzen non. Hala, bazkaldu ta berriz jun. Gaiñantzen, normalen ez nintzen etxea etortzen, tabernan baten eo bazkaltzen gendun, baiño.

6.2. Ordiziako azoka

- **Hizlaria(k):** Beloki Zabala, Karlos
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** TOL-008/004
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 00:05:16. **Bukatu:** 00:06:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- **Laburpena:** Asteazkenetan, Ordiziako azokara joaten ziren tratura. Tolosako azokara oso gutxitan joaten ziren.

Transkripzioa

- Eta Ordizia... Zeatik juten ziñaten Ordizia?
- Ba, Ordizin astiazkenetan nola izaten dan azoka. Bai ordun ta bai oain. [...] segitzen du. Eta, ordun, ba, biltzen zien arkume erostaillek, karnizerok... eta, ba, han tratua eitten zan.
- Eta Tolosaa ez zenduen joeraik eukitzen?
- Tolosaa oso gutxi. Oso gutxi. Tolosan larunbatetan izaten da /izatea/.
- Eta zeatik hoi?
- Ba, ni ez naiz goatzen iñoiz... Ordizin beti izan izandu da... zan feri... ez dakit, ba, oain ez dakit, baiño inportantegoa eo, o kantidade gehigo biltzen zan. Beti ohitture gehigo zan. Eta han... harea ibiltzen giñen. Beti, aitte zan garaien, harea ibiltzen giñen.

6.3. "Sasardiak", basoko ardiak

- **Hizlaria(k)**: Beloki Zabala, Karlos
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: TOL-008/007
- **Iraupena**: 0:00:59. **Hasi**: 00:11:08. **Bukatu**: 00:12:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Baserría » Baserriko lanak » Artzaintza
- **Laburpena**: Artzaintza du hizpide. "Sasardiekin" (sasiardiekin) hasi ziren; basoko ardia izan ohi da, "ahuntzaren estilokoa". Ardi mota horren ezaugarriak aipatzen ditu. Karlosen aita aritzen zen gaztak egiten.

Transkripzioa

- Ardikin lehendabizi hasi giñen esaten zaienak "sasardik" eo, basoko ardi latxa. Bueno, ardi latxa dena da hemen ibiltzen dan hau, baiño arkumea hazitzeko bakarrik bezela.
- Sasardia?
- Bai. Ez al dezu iñoiz entzun?
- Ez.
- Sasardie da, ba, pixkat sasi aldetiken ibiltzen dan ardia, ahuntzen estiloa. Ardik izaten die, ba, hanka-luxeagok ta hola mehaxtagok ta hola. Hoik ya sasi aldea ta... sasira gehiago jotzen duenak, laharrek eta hola jateko. Hoitatik eta hola pixkanan hasi giñan eta, gero, nahastutzen, ba, beste razako aharikin-ta, ta hola. Gero hasi giñen, ba, gaztak eiten. Printzipal aitte gehigo. Gaztak itten-ta aitte hasi zan. Ni beti etxen beste lanak eitteko bai, baiño erabat-erabat egoten zana aitte nola izaten zan.

6.4. Ogiaren masa eta mahaia

- **Hizlaria(k)**: Jauregi Maiza, Valentina
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: TOL-011/003
- **Iraupena**: 0:03:15. **Hasi**: 00:04:11. **Bukatu**: 00:07:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**

Baserria » Baserriko lanak » Garia

Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak

- **Laburpena:** Ogiaren masa nola egiten zuten azaltzen du. Ogia egiteko, mahai berezia izaten zuten, errazagoa izan zedin masa bertan egitea.

Transkripzioa

- Ta masa, berriz, iriñe. Ealki, jelki, ealki esaten giñekiun guk zean... ze esaten giñekun...? Bahia. Bai. Ta bahian zeatu, ealki, ta zea kentzen zion... Jesus, Maria eta Jose! Iriñe behera ta gaiñen gelditzen zan azala.

- Hitztuna 2: Zahie.

- Zahie, hoi da. Masa ein, gero hure, masa hure, trapu batekin tapatu ta pixkat... Bai, orduerdi baten eo eukitzen gendun ta hure eitten zan harro-harro-harro.

- Ta [hortako] ez zenduten eukitzen pusketa bat aurreko...

- Bai, hori da, orrantza txikie, pelota txiki bat, ta harrekin orrea eitten gendun. Iriñe jarri, erdin zuloa bezela jarri, ta geo hure ude botata dena biguntzen zan zea, masa hure, [pixke hure], ta geo harrekin dena orrea ein.

- Ta hortako mahai berezi bat izaten zan, e?

- Guk ze esaten giñekiun, ba... Orra-mahaie esaten [giñon], erro-mahaie esaten giñon, baiño orra-mahaie. Bai, hoi da. Bai.

- Eta nolakoa izaten zan mahai hoi?

- Hoi denak iguala ez zan izango. Geo berria in genduna diferentexeo zan. Hau baiño luzegoa. Hau baiño haundixegoa, luzegoa, aurrenekoa behintzat, ta gero zabaleroa, ba, holakon bat eo izango zon. Baiño bere tapakin izaten zan, kutxe bat bazan bezela. Ta han ein masa ta gero, hola, zea, pillen utzi, trapu batekin tapatu, ta geo denbora puska bat utzitzen zitzaien masa horri ta hori eitten zan harro-harro.

- Ta ze bentaja zun erro-mahai horrek? Zeatik ez zan iten sukaldeko mahaien bertan? ze bentaja zun?

- Ez. Badakizu, iriñe jarri behar izaten zan; gero ude bota behar zitzaien ta, badakizu, ixkiñetatik mahai hontan... Bai, ein... ze kantidade hartzen zan. Baiño hamar-hamalau ogi igual eitten zien, ta ogik dexentek. Ta, ordun, mahaien gaiñen ta hola eitteko gaizki izaten zan. Ta hoi propio zin orre-mahai e eo erro-mahaie eo esaten giñekiun. Bai. Ta geo han tapatu tapakin ta egoten zien trapu batekin orrea ´re bai, zea. Zenbatsu eingo gendun? Orduerdi bat eo. Ez dakit. Gehixeo eo hola. Ta harro-harro-harro eitten zan orre hure. Erdin zulok zittula jartzen zan orrea altxatzen zanen. Ta geo, ebaki puskek handik, ta berriz atzera gozatu ta ogie, denak ogi puskek jarri.

- Ta nun iten zenduen ogia? Orre-mahai hoi nun egoten zan? Sukalden?

- Sukalden eukitzen gendun guk. Bai, bai, sukalden, baxtar baten hure han egoten zan.

6.5. Baserriko bizimodua

- **Hizlaria(k):** Zabala Olazabal, Eugenio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** TOL-013/005
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:06:22. **Bukatu:** 00:07:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**

Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

- **Laburpena:** Gurasoak eta orduko bizimodua ditu hizpide. Aita Jazkutik Elizetxera ezkondu zen. Zortzi seme-alaba izan zituzten. Mahaian, 11 lagun izaten ziren. Ukuiluan, bost behi egon ohi ziren.

Transkripzioa

Ta aitte zan... aitte hangoa zan nerea. Ta aitte ibiltzen zan, ba, bason ta hola, ta behintzat nere amakin zeatu zan, ezkondu zan. Oseake Jazkutik Elizetxea etorri zan. Ta geo, familie, ba, zortzi izan zittuen, izan giñen. Ta ikuillun bost behi. Bat antzue segurasko, bat umeik ez zun ingo. Ta sukalden, mahaian, hamaika lagun. Ta etxeko garie o artoa o zea. Ta oillaskon batzuk eo arrautz batzuk eo zerbaitte zanen, Tolosaa feria jun ta umentzako zerbaitte, oiñetako zeozer. Ordun ez zeon caja de ahorros-era jun ta dirua atera ta kajeroik eta zeaik. Ta ordun holaxe moldatu behar izaten zan.

6.6. Baserriko diru-iturriak eta etxejabeak

- **Hizlaria(k):** Zabala Olazabal, Eugenio

- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren

- **Erref:** TOL-013/006

- **Iraupena:** 0:00:34. **Hasi:** 00:07:23. **Bukatu:** 00:07:57

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**

Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea

Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

- **Laburpena:** Baserriko diru-iturriak zein ziren aipatzen du: azokako salmenta eta txekor salmenta. Elosegitarrak ziren etxejabeak; haiei buruz hitz egiten du.

Transkripzioa

- Zuen etxea sartzen zan diru bakarra Tolosako azokatik ekarritakoa?

- Bai, bai, bai. Hure, ta geo txekor bat eo beste hazten zana. Haik. Ta errenta´re pagatu in behar.

- Zuen etxea zan Elosegitarrena?

- Elosegitarrena, bai.

- Bedaio erdiya beaiek zuen, ezta?

- Bai, bai. Alustiza ta Elosegi zien. Hoik lehenao emen zien familia batekok, baiño gero familia ezkondu in zanen, partittu in zuela esaten zuen. Ez dakit. Ta, ordun, bat geatuko zan Alustiza ta bestea Elosegi.

6.7. Baserriko lanak eta tresnak

- **Hizlaria(k):** Txintxurreta Larrañaga, Pakito

- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren

- **Erref:** TOL-017/003

- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:03:02. **Bukatu:** 00:05:06

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak
Baserria » Baserriko lanak
- **Laburpena:** Soroan zer lan egiten zituzten azaltzen du: arbia, garia, baba, aza, patata, ilarra, belarra moztu... Hainbat tresna erabiltzen zituzten horretarako: sega, igitaia...

Transkripzioa

- Zu hemen hazia zea, ta ze lan-klase zenduen baserrin? Sorotan ta ze...?
 - Ba, soron? Esango dizut: negun arbik ekarri. Arbie ba al dakizu zer dan? "Nabo". Arbie ekarri, ta. Etxea ekarri ta txikitu ta. Geo, egosi lata ta txerri eman. Ta geo, hue kendutakon, garik in. Garie eitten gendun. Asko, gaiñea. Ta baba´re bai, tarten botatzen gendun. Eta geo, garik eta geo hurrena artoa, babarrunakin, eitten gendun. Baratzan, baratzan´e [...] eitten gendun, azak, patata, ilarra, koniflora, daneti baratzan´e. Daneti itten gendun. Ta belarra moztu ta, segakin ta, gero eskoarekin bildu ta, itaiekin harkaitz-zulok ebaki ta... [...] harkaitzei ebaki zulok. Konparazio batea, hemen harri haundie dao, ta [segaz kostatzen], itaiekin, "rak!", "rak!". Garie´re [haekin] ebakitzen gendun aurren-aurrea; gero segakin. Gero, harri bat jarri, tronko bat, ta eskukin jo. Geo makina sortu zan, baiño eskutan, e? holaxe, "klak" eta "klak". Bala ein, [hau bezelaxe] lotu, ta jo harriyen ta geo idaurrak, idaurrak izaten die bi makil bata [bestian atzeti] ta harekin jo. Gero, hura [...], pilla ein ta lastoa behientzako ta garie ogie itteko.
 - Ta hasiera-hasieran esan diazu igitaiakin ebakitzen zenduela?
 - Itaiekin aurrea garie. Dana holaxe hartu ta "rak", "rak", "rak", pilla ein, ta "rak!" berriz´e. Askotan ebaki´re!
 - Ta zeatik kanbiatu zenduen gero segaa?
 - Errezo eitteati. Jarri gendun, eskoarea jarri segai, ta botatzen zendun, ba, belarra ebakitzen bezela, zuzen. Illaran jartzen zuen dana, holaxe, hau [bezela], illaran. Gero lotutzen gendun ta "raa" ein ta gero [mitxorrak] in garikin, garik [gora]. Zenbat lan! Buuu! Guk zenbat lan ein deun Jainkok´e ez daki ta!

6.8. Baserriko lanetik bizi

- **Hizlaria(k):** Iraola Olano, Joxe Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** TOL-022/002
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:02:10. **Bukatu:** 00:03:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena:** Baserriko lanetik atera dute bizimodua. Babarruna, artoa... lantzen zituzten. Behiak eta idiak zituzten baserrian. Astoa edo behorarekin egunero joan ohi ziren esnea saltzera. Txekorra ere hazten zuten.

Transkripzioa

- Ze bizimodu-klase zan garai haietan? Nundik ateatzen zan... 8 seme-alabai ta gurasoi jaten emateko?
 - Bi hillak. Baiño, dana dala, behintzat zortzi bagiñen. Ba, hemendixe. Atxurrekin ta behi batzukin, ta holaxe bizimodue. Beste zeaik ez zan. Oain

aiñe beharrik-eta bare. Badakizu, babarruna ta artoa-ta izaten zan, ta haikintxe.

- Ganadurik bazenduen?
- Bai, ganadue beti euki deu guk. Behiak eta idik eta... beti ganadue.
- Ta nundik ateatzen zan dirua ganaduakin? Esnetik? O...
- Bai. Hemendiken... asko ez zan emango, baiño esnekin egunero kalera juten zien, behorra o astoa o zena zelakin. Ta harekin. Ta gero txekorra hazi ta hue matadera eaman ta harekin bizimodue. Holaxe ateatzen zan.

6.9. Txekorra saldu eta haragia erosi

- **Hizlaria(k):** Iraola Olano, Joxe Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** TOL-022/003
- **Iraupena:** 0:00:49. **Hasi:** 00:03:03. **Bukatu:** 00:03:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- **Laburpena:** Urtean, 12 bat txekor hazten zituzten. Gero, hiltegiara eramaten zuten aberea. Txekorrak kanporako hazten zituzten. Etxerako, haragia kaletik ekartzen zuten.

Transkripzioa

- Txekorrak urtian zenbat izaten zian?
- A! Ordun... nik zenbat esango dizut, ba? Horixe bai detela zaille! Gehienaz ´e zenbat izango zien, ba? hillen bat izango al zan? Hillen bat. Hillen bat. Ez dakit, e. Hamabi txekor. Handik aurrera ez zan izango [...].
- Eta txekor hua etxeako ez zan izaten sekula? O bat etxeako ta bat kanpoako o... nola?
- Ez, ez, beti gustoa, gaiñera, ta kanpoako. Ta behar zan haragi pixke, egunero nola kalera juten zien, asko ez zuen ekarriko, baiño behintzat beti ekartzen zan; ekartzen zan, andrek o juten zanak, zeati, karnizeriti.
- Ordun, txekorra saldu ta gero haragiya erosi?
- Haragi pixkat, bai. Badakizu, ordun diru pixka... [haren zea] izaten zan, beti izaten zan zeoze.

6.10. Urkizu aldeko gurdibideak

- **Hizlaria(k):** Iraola Olano, Joxe Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** TOL-022/005
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:04:05. **Bukatu:** 00:05:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- **Laburpena:** Baserrietan, ez zen errepiderik; gurdibideetatik ibili ohi ziren. Urkizu Azpitik kalera jaisteko bide bat erabiltzen zuten, eta bueltatzeko beste bat; abereekin izanez gero, xamurragoa izaten zelako. Estazio aldera ere hirugarren bide bat bazela aipatzen du.

Transkripzioa

- Zuek txikik ziñatela, hemen oain bide bazterren zaudete, baiño ordun bideik´e ez zan izango, holakoik behintzat.
- Holakoik ez. Ordun goiti behera ikusten die /ikusteie/ hor oain´e goiti beherako zea batzuk karreterati behera nola daren, hoitantxe behera.
- Gurdi bidia?
- Bai, gurdi-bidia. Hoitintxe behera juten zan. Ta etorri´re bai. Ta gero bestea goitiken. Zuk... Ez dakit zu behin´e pasa zean. Beste bidea badao hor Tolosaa jutekoa.
- Montesku aldea juten dana?
- Montesku aldea juten dan hoi. Jenealen, jetxi hemendi ta iyo handi.
- A bai, e? Zeatik izaten zan hori?
- Ba, goiti behera hau aldapa... hemen azkar jeixten zan, baiño gero aberekin-ta etortzeko bide patxada hobekoa. Goiko bidea esaten giñon. Ta geo beste bat´e bazan erdi-bideti behera, estazioa zuzen-zuzenen. Beste bide bat badu horrek estazioa. Muttitte(g)ittan behera. Aittu al dezu behin´e Muttitte(g)iko... estazioa zuzen-zuzen, goiti behera.
- Ta bide hoi ibiltzen zan o gutxio?
- Hoi beti gutxio. Oain, oiñezkoa... Hor aberekin ta hola, bide hortati gutxio, baiño oiñezkoa horti behera´re askotan, aguro sartzen baizan estazioa. Ya ordu laurden baten goiti behera ya estazion zenden.

6.11. Baserrian, lan ugari

- **Hizlaria(k):** Iraola Olano, Joxe Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** TOL-022/007
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:07:18. **Bukatu:** 00:08:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena:** Lehen, baserrian berandu arte aritzen ziren lanean. Goizean, berriz, goiz jaiki behar izaten zen behiak jezteko.

Transkripzioa

- Ordun gustoa jungo zan mutil gaztia. O hala´re lan gogorra zan?
- Eee, gogorra... ordun lan gogorra... halaxe ohituta egoten zan ta lan gogorrik ez zan /etzan/. Oain ibiltzen die /ibiltzeie/ gogorrek eta ez dakit... baiño ordun lan gogorrik... Dana halaxe ohituta zeon, ta lan gogorrik ez zan izaten ordun. Oain, iluntzen´e zortzitako apaltzeko presto gare, ohia juteko presto gare. Ta, ordun, gauen hamarretako txistue jo ta belarra ebakitzen igual aitzen zan, ta bastante aparte, ta etxea etorrita´re lanak in in ber: behiak jetzi o belarra [goiko] ganbaraa jaso ber zala o zeoze. Ta, ordun, hamaikak, hamabik, lanen holaxe jotzen zuen. Ta goizen jeiki ein ber, seiek aldera berriz´e behintzat, arriba! Orduko bizimodue horixe zan. Ta ordun dana halaxe ikusten zan ta, bate miraik bae, gustora. Gustora bizitzen zan. Aizu, nik ze esango dizut /esangoizut/.

6.12. Morroia eta neskamea

- **Hizlaria(k):** Iraola Olano, Joxe Mari

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: TOL-022/011
- **Iraupena**: 0:00:38. **Hasi**: 00:10:37. **Bukatu**: 00:11:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena**: Morroia eta neskamea izan zituzten baserrian. Baserrian, denentzat izaten zen lana. Dirurik ez zuten, baina goserik ere ez zuten pasatu.

Transkripzioa

- Ta ni morroia´re ezaututa nao gure etxen. Neskamea´re bai.
- Bai, e?
- Bai. Bat Lizartzakoa ta bestea hemen [Olatea]koa´re euki gendun morroi; zea, Karmenen-ta... Karmenen-ta zer zan, osaba o anaie o...? Ez dakit, ba. Horkoa euki gendun.
- Danentzako lana bazan, e?
- Bai, bai, lana bai. Diruik ez, baiño lana bai. Ta goseik´e ez dizut esango, e? Guk goseik, hola, ez deu ezautu. Oain bezela ez zan [noski] dana komenientzikoa izango, baiño jana´re bai. Goseik ez det ezautu nik behiñ´e gure etxen.

6.13. Iluntzean, errotara

- **Hizlaria(k)**: Iraola Olano, Joxe Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: TOL-022/013
- **Iraupena**: 0:02:09. **Hasi**: 00:12:14. **Bukatu**: 00:14:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko lanak » Errota
- **Laburpena**: Gerra denboran, ehotzea galarazita zegoen, eta iluntzean joan ohi ziren errotara. Urkizuko "Otsagain" eta Albizturko "Ugarte" errotetara joan ohi ziren. Errotariak eramandakoaren erdia hartu ohi zuen. Errotara joaterako, etxean neurtu ohi zuten garia. Alea neurtzeko zer ontzi erabiltzen ziren aipatzen du: lakaria, gaitzerua, anea (lau gaitzeru)...

Transkripzioa

- Ta izaten zan hemen kontrabandoik o?
- Kontrabandon jendea ibiltzen zala esaten zen, baiño guk kontrabandoa izaten gendun gariye o hola hartu ta gerra denboran-ta zan ehotzea ta ez zuen uzten errotan. Bat Otsagain, bakizu.
- Hemen azpikoa.
- Azpialdeko hoi. Horrea're bai, ta zeara ere bai. Albizturko Ugarte ba al dakizu nun don? Harea´re junda gare. Iluntzen jun ta gauen hamabik alde arte o ordubik alde arte han eon. Ta berrogei kilo ematen baziñun, hogei kilo harek kentzen zizkitzun. Ta kaixo motel etxea bueltan.
- Ta orduako pixatuta ematen zenduen gariya?
- Bai, pixatuta o neurtuta o. Izaten zan lakarie're bai. Ta bestea izaten zan gaitzerue. Ta lau gaitzerukin itten zan anea. Ta ba bai gutxi gora behera kontuk ondo ateratzen zien.
- Ta lakaria edo zenbateko kentzen zuen?

- Zea, esaten dizut /esateizut/ ba, ordun nahi zuena. Ez zeon /etzeon/ neurriik, nahi zuena. Ehotzea kuestioa, ogie itteko ta ekartzeko.

- Ta ze iten zuen gauez zabaldu errota?

- Bai, gauez-ta aritzen zien. Hala´re harrapatuko zittuen nahi izan ezkeo baiño, beti guardia zibille o kristoa izaten baizan. Ta gauez. Ta Ugartetik honea baso hoitatikan gauez etortzen giñen. Hartuta iriñe ta astokin. Han hola zan.

- Ta ze juten ziñaten mutil koskorak o ya gazte samarrak?

- Gazte samarrak eta, hor koskor-koskorak ez. Ta gerratik gero're gure etxetik aitta zana ta morroia're bai ta, juten zan ta. Etxen'e bagendun geo, garie-ta pixkat ehotzeko zea bat, makina o zea. Baiño beti ogie-ta itteko iriñe, errotan bezalako iriñe ez baidu itten, latzagoa o zea. Ta hola.

- Ta etxen zer zan kafia ehotzeko makina hoitako bat?

- Ez, handixegoa zan, handixegoa bagendun guk. Baiño hain irin ona on-ona ez itten. Baiño ordun zeoze ogie iñ ezkeo, gustoa.

6.14. Ezeizabarrena baserria

- **Hizlaria(k):** Ezeizabarrena Ugartemendia, Hilarion
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** TOL-023/002
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:00:42. **Bukatu:** 00:02:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Ezeizabarrena baserriaren izenari eta historiari buruz hitz egiten du.

Transkripzioa

- Ezeizabarrena etxeko apellidoa dezu zuk?
- Bai. Hiru Ezeiza dia eta hau barrenekoa.
- Nola dia? Ezeizagoikoa...
- Bai, Ezeizagoiena, Ezeizabitarre ta Ezeizabarrena. Bai.
- Garai baten hirurak famili igualanak zian, o?
- Ez det uste. Ez det uste. Hemengoak gero in zula edo... Baiño gure etxen dokumentuk [eta hauk] danak 1600ekuak dia, e? Atzeko berriik ez dakiu.
- 1600enian etxe hau bazan, ordun?
- Bai. Bazeon, bai, bai. Eta lehenbiziko, ordun, alaba, ikusten danez / ikusteanez/, semeik gabe zan ta kanpoko batekin ezkondu zan. Ta harrezkeo beti semiak izan dia.
- A, bai?
- Bai, maiorazkoak.
- Lehen alaba baldin bazan zaharrena...
- Alaba bat 1600en edo ordun ezkondu zan napar batekin.
- Zuek, ordun, odol naparra daukezue?
- Bai, [Jaintorena] edo ez dakit nola zan. Baiño aman apellidua segitzen du harrezkeo beti.
- Ezeizabarrena izan dia hemen danak?
- Bai, harrezkeo bai. Ta harrezkeo beti semiak izan dia, e.
- Orduan, 1600etik danak Ezeizabarrena apellidua hemen?
- Bai.
- Histori puska bat bada, e?
- Bai. Beno.

6.15. Baserriko lanak

- **Hizlaria(k)**: Balerdi Ondarza, Pakita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: TOL-027/003
- **Iraupena**: 0:01:19. **Hasi**: 00:03:06. **Bukatu**: 00:04:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 - Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
 - Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza
 - Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena**: Baserriko lanak aipatzen ditu. Behiak eta ardiak zituzten baserrian, eta haiek gobernatzen laguntzen zion anaiari. Ardiei ume egiten laguntzen eta gaztak egiten ibilia da.

Transkripzioa

- Behietan ta, ardik´e jexten´e bai ta.
- Ardiik izaten zenuten etxen?
- Bai. Anaiak... ibiltzen zan. Ta anaiak laguntzen, [udara biden] behintzat. Ta denetan eitten, ahal genduna eitten.
- Anaia...
- Arkumek...
- Bai, esan, esan.
- Arkumek jaiotzen zienen, erreparoa juten giñen, ta haik eiñazi´e bai ta gaztak ein ta...
- Hoi txabolan bertan?
- Ez, hemen, etxen. Hemen, etxean gaikalden gendun txabola, ardik

eukitzeko borda, ta han eukitzen giñuzen ardik. Etxen.

- Eta arkume iten laguntzea...?

- Arkume iten laguntzea gauen´e juten giñen.

- Nola izaten zan hoi?

- Hoi, fila hartu ta juten giñen bordaa, ta umea itten ari zan eo ez zan ikusi ta eitten ari baldin bazan, heldu hanketatik eta kendu.

6.16. Ardi-gazta nola egiten zuen

- **Hizlaria(k)**: Balerdi Ondarza, Pakita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: TOL-027/009
- **Iraupena**: 0:02:32. **Hasi**: 00:08:14. **Bukatu**: 00:10:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak
- **Laburpena**: Ardi-gazta nola egiten den azaltzen du. Esnea jetzi berritan egin behar izaten da gazta, esnea epela dagoen artean. Gatzagia bota eta epelean uzten zen, su-ondoan. Gero malatsarekin jo. Malatsa gorostiarekin egindako egur bat izaten da, mamia nahasteko erabiltzen dena.

Transkripzioa

- Gazta zeorrek ein izan dezu sekula?

- Sekula? Bai!

- Majiña bat aldiz...

- Eindako diruk baneuzke...! [Ondo] egongo giñeke gizona ta biok.

- Nola iten zenuten gazta?

- Gazta, ba, esnea ekartzen zun ta barreñoi bat jartzen gendun ta pasatu pasadoreakin, gaiñean trapu zurie jarrita. Gatzagie bota hurruna ta epelen su-ondon ondun jartzen gendun gazta, zea, pertz hoi, epelen egoteko. Epela behar zun. Ta geo, hartzen zunen, malatsakin jo. Malatsa ez dakit badakizun. Egur bat izaten da malatsa, jotzeko. Ta harrekin jo ta pixkaten utzi. Ta geo, mamie eskukin biltzen gendun alderdi batea.

- Malatsa ze izaten zan?

- Malatsa, ba, gorostikin eindako egur bat. Hiru eo lau adar izaten zittun, ta, hola, okertu ta zean sartzen zaixkion txulon, zeak, puntak.

- Txulon sartu o lotu?

- Lotu, lotu. Ta txulon´e bai, txulon´e sartuta´re bai. Txulon sartuta´re... ta han lotuta. Hure da malatsa.

- Zuen anaiak ekartzen zun etxeaiño esnia gazta iteko?

- Bai, marmitteen, marmitteen ekartzen zun, bizkarren.

- Jetxi berritan, ezta?

- Bizkarren. E?

- Jetxi berritan ekarriko zun.

- Bai, jetxi ta segittun. Hori epelen in beharreko gauza da ardi-gazta.

- Ta gatzagia farmazitik ekartzen zenduen?

- Ez, ez, arkumeana. Arkumeana. Kuratutzen zuen ta kuratutakua normalen ibiltzen gendun.

- Eta, ordun, gatzagia bota. Ta hua noiz antzematen zaio punttun daola?

- Ba, hamabost bat minitu. Holakon bat, ezta? Normalen, hamabost bat minitu.

- Joxe Mari: Gero bihetzakin...

- Geo behatzakin´e bai. Geo, asko xamar hartu ezkeoz´e gazure ateatzen hasten zitzaion zeai, mamiei. Erreza zan ateatzen.

- Geo mami hura eskuz biltzen zenduen?

- Biltzen nun, bai. Hola, hartu xuabe-xuabe, ta bea etortzen zan tiraka baztarrea.

- Ta gero harekin?

- Harrekin, moztu kutxilloakin ta trozok, zea, ontzin sartu ta [fin].

- Kutxilloakin moztan zenduen?

- Bai, kutxilloakin moztu. Kutxilloakin.

- Ez zan egurrezkoa o...?

- Ez, ez, oain daon [paletaik]... oain pala batekin´e moztutzen due, baiño guk kutxilloakin. Hoik kantidade asko itten dittue ta diferente eitten gendun guk.

6.17. Gazta egiteko tresnak

- **Hizlaria(k)**: Balerdi Ondarza, Pakita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: TOL-027/010
- **Iraupena**: 0:01:32. **Hasi**: 00:10:46. **Bukatu**: 00:12:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 Baserría » Baserriko lanak » Artzaintza
 Baserría » Baserriko lanak » Baserriko tresnak
- **Laburpena**: Gaztak egiteko egurrezko moldeak erabiltzen zituzten. Prentsa nolakoa zen kontatzen du.

Transkripzioa

- Ta molde-edo izaten zenituen, ontzik?

- Moldek bai. Moldek bai. Aurrena, aurrena egurrezkoakin aritzen giñen, eskuz dena. Baiño geo makina bat ekarri gendun egurrezkoa ta harrekin sartu molden ta eitten giñuzen. Baiño eskukoakin ein behar dezu /behazu/ zeorrek [...], haik eta gazurek denak kendu bitarten, eta ontzin utzi hurrungo otordue bitarten. Ta geo ordun ateatzen zan zumitze. Kendu ta sekatzan jarri.

- Eta gero ekarri zenduen prentsa?

- Prentsa, bai, egurrezkoa.

- Nolakoa zan?

- Nolakoa? Ba, nola esplikatuko dizut nik? Hola, barra bat beheran. Beno, beheran hankak; ta geo barra bat gaztak jartzeko. Gureak zittun hiru — hiru, ez dakit lau zittun—egurrek, hola, goitik behera sartu ta geo gazta sartzen zendun azpin. Ta geo burni batzuk zittun hola tiran jartzeko, ta harrie jartzen giñun burni haitan karga eukitzeko, [...], gazure ateatzeko. Hala itten gendun gazta.

- Eta zenbat denboran eukitzen zan?

- Goizen in ta iluntzen atea. Ta illuntzen eindakua goizen atea. Ta gatzetan´e igual. Gatzta ontzi baten jartzen gendun, gatzta hartzeko. Ta goizen itten zana iluntzen atea, ta illuntzen itten zana goizen atea.

6.18. Gazura, txekor eta txerrientzat

- **Hizlaria(k):** Balerdi Ondarza, Pakita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** TOL-027/011
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:12:18. **Bukatu:** 00:12:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena:** Gazura txekorreí eta txerrieí ematen zien. Animaliak irabazi egiten omen du gazura hartuta.

Transkripzioa

- Ta gero, gazura ibiltzen zenduen zeozertako?
- Bai, txekorrari ematen giñon ta txerrirí're bai. Denari. Oso gustora jaten zuen hure.
- Txerrirí eo txerrikumeeí?
- Beno, txerrikumek zienen, txerrikumeri. Baiño txerri... txerrikumek ez zienen, txerrirí, letxonai, bai. Ta txekorrarí're bai.
- Gustora?
- Bai, oso gustora. Harrek diferentzi haundie eitten die animalirí.
- Bai? Zertan antzematen zaio o?
- Antzeman. Gizendu ta ondo irabazi. Hure gauza ona da gazure.

6.19. Maizterrak

- **Hizlaria(k):** Larrañaga Beloki, Maria Dolores
- **Elkarrizketatzailea(k):** Soroa Hernandez, Maddi
- **Erref:** TOL-061/002
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:02:03. **Bukatu:** 00:03:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena:** Maria Doloresen gurasoak maizterrak ziren; baserriko nagusia Plaza Zaharrean bizi zen. Nagusiari errenta pagatu eta, urtean behin, oparia eman behar izaten zitzaion. Tratuan saltzen zutenarekin bizi ziren.

Transkripzioa

- Zure baserria nolakoa zan?
- Nere baserria zan pobria. Pobre bizitu gea, gaztetan. Eta geo eskolan hasi giñan ta eskola...
- Baserria zer zan gurasona, baten batek utzitakoa?
- Ez, ez, ez.
- Eo maizter bezela zeundeten?
- Maizterrak. Zan bere nausia Plaza Zaharren bizi zana. Ematen giñuzen ba, ematen zittuen urten behin zea erregalua bezela ematen zizien nausiei ordun. Oain ez, baiño ordun bai. Eta geo ba errenta patu eta geo tratua berdura iten zanakin bizi.
- Ta goatzen zea zenbat patzen zenuen errentagatik?
- Ez, ez. Gaiñea, ez nun jakiten zenbat patzen gendun ordun.
- Hoi aitan kontua.
- Amai bai, bai eta geo eskolako garaian etorri zan.

6.20. Berdurak saltzera

- **Hizlaria(k)**: Larrañaga Beloki, Maria Dolores
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Soroa Hernandez, Maddi
- **Erref**: TOL-061/005
- **Iraupena**: 0:01:13. **Hasi**: 00:07:35. **Bukatu**: 00:08:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- **Laburpena**: Plazan berdura saltzen zuten gurasoek. Ateratzen zuten diruarekin enkarguak egiten zituzten. Astoarekin edota gurdia behiei lotuta erabiltzen zuten kalera jaisteko.

Transkripzioa

- Ta geo diruba irabazten zuen berdurakin, berdura plaza eaman eta harekin ateatzen zuenakin enkarguk in ahal zianak eta hola pasatzen giñan.
- Ze eukitzen zenuen etxen, ze berdura klase?
- Denetatik: aza, koliflorra eta letxuk eta hoitatikan asko, asko ematen gendun.
- Aberek'e bai?
- Aberek ez, astua.
- Karga ekartzeko.
- Bai, bai. Ta gurdin'e bai ematen gendun, bai.
- Bi astokin?
- Ez, gurdiya behiakin, behiakin ematen gendun eta lanbatetan hoi e! Berdura gehixo ematen zan lanbatetan eta ematen gendun ba behiakin. Aittak ematen zun eta han uzten zun ama berdurakin ta geo harek itten zittun enkarguk beak burun holako sexto redondo eta harekin enkarguk in ta etxea.

6.21. Larunbateko azoka, hobea

- **Hizlaria(k)**: Larrañaga Beloki, Maria Dolores

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Soroa Hernandez, Maddi
- **Erref**: TOL-061/006
- **Iraupena**: 0:01:24. **Hasi**: 00:08:48. **Bukatu**: 00:10:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- **Laburpena**: Berdura plazara joaten ziren tratua egitera. Giro ona egoten zen, eta salmenta ona izaten zen. Larunbatetan gehiago saltzen zen. Esnea ere saltzen zuten.

Transkripzioa

- Ta noa joaten ziñaten saltzea, tratua itea?
- Zeara, plaza.
- Ze plazata?
- Plaza Berdura.
- Berdura plaza?
- Bai.
- Ta nola izaten zan hango ambientea-o?
- Ona, ona. Asko saltzen zan.
- Eguneroko kontua izaten zan eo oain bezela larunbatetan?
- Larunbatetan gehio, oain bezela ez e, baiño lanbatetan izaten zan berdura gehio ta jendia'de bai gehiogo. Ta esnia eunero ematen zan.
- Gurdiai tiratzeko behi hari esnea ateatzen zenien?
- Bai. Behiak jetzi ta esnia hua saltzea.
- Ta zenbat postu eoten zien Berdura Plazan?
- Plazan?
- Zuetaz aparte jende gehio eoten zan saltzen?
- Bai, bai, bai. Basarritar guztik, denak.
- Zenbat gutxi gorabehera?
- Bueno hor barriyon zenbat zian Gorri, Izar, bi [...] hiru [...] lau, bost o sei.
- Ta geo Monteskutik eta izaten zian?
- Bai, Monteskutik bai, bai.
- Ba denera mordoxka bat.
- Bai, bai, bai. Ordun esnia asko saltzen zan, esne naturala eta asko saltzen zan.

6.22. Esne-bezeroak

- **Hizlaria(k)**: Larrañaga Beloki, Maria Dolores
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Soroa Hernandez, Maddi
- **Erref**: TOL-061/007
- **Iraupena**: 0:02:39. **Hasi**: 00:10:12. **Bukatu**: 00:12:51
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- **Laburpena**: Esnea etxez etxe partitzen dute. Bezeroak nola lortzen ziren kontatzen du. Esnea marmitatan eramaten zen, eta txantxila erabiltzen zen esnea neurtzeko; litrokoa edota litro erdikoa izaten zen. Esne-bezeroek esnea egosi egin behar izaten zuen. Egunean eguneko esnea izaten zen.

Transkripzioa

- Nola iten zenuen zuengana erakartzeko jendea? Ze klaro hainbeste baserritarakin zuek nahiko zenuen zuengana etortzea, esne eostea.
- Bueno, parrokiak'ei bai. Ta etxeta'de bai, etxeta'de asko ematen zan lehen. Zea, esnia, guk gehiena etxetan ematen giñuzen.
- Ta nola iten zan tratua? Ze etxeta jun eta...
- "Este" hartu eta plazan nonbaite hartu ta "este": "Holako tokitan bizi naiz ta eamango nazu etxea?" ta hola. Ba oain gutxi zeatu da hoi e, itxi hoi, lehen dena eamaten zan etxeta.
- Ta tratua iten zenun euneroako?
- Bai.
- "Etorri zaite honea [...]"
- Bai, bai, bai, bai, bai, bai, bai; eunero eoten zan etxeta esnia ta konfidantza haundin. Zeatikan esne ona ba beti saltzen zan ondo. Ta ordun izaten zan esne ona.
- Sukaldeaiño pasa ta.
- Bai, bai, bai, bai. Gu, Jesus! konfidantza haundiya izaten gendun esnezalekin.
- Ze eamaten zenuen marmitatan?
- Bai, marmitatan. Marmitatan eaman ta bueno horrek hainbeste litro behar dittu bi, hiru, bat t'erdi ta neurtu eta eskailleretan behetik gora iyo.
- Ta nola neurtzen zenuen?
- Zea bat.
- Kazoakin.
- Ez, harek izena zun txantxilla eo ez dakit ze izena zun. Hola, neurriya zan. Bat litrokoa ta bestia litro erdikoa izaten zan.
- Zer da ontzi bat txantxilla?
- Bai, bai.
- Burdiñezkoa-edo?
- Bai. Eta harekin neurtu eta igual marmitan erdiya arte [...] gora ta hari eman litroa eo bi behar zittuna o litro erdiya o behar zuna eman ta [...] behera ta geo beste batena. Hola, bagenduzkan.
- Ta jendek etxen nola gordetzen zun jasotako esne hoi?
- Egosi egosi itten zun han bertan ta eun guztiko esnia hurrungo eguna arte, Hurrungo egunen gosaltzeako bukatzen zuen.
- Ta frigorifikoik-ta?
- A ez, ez det uste.
- Egunen egunekoa?
- Bai, bai; egunen egunekoa, dena.

6.23. Plazako salmenta

- **Hizlaria(k):** Larrañaga Beloki, Maria Dolores
- **Elkarrizketatzailea(k):** Soroa Hernandez, Maddi
- **Erref:** TOL-061/014
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:18:58. **Bukatu:** 00:20:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- **Laburpena:** Buruan otarra hartuta joaten zen ama plazara. Tratua nola izaten zen kontatzen du. Prezioa momentua jartzen zuten.

Transkripzioa

- Hoi izaten zan ba, "por ejemplo" ni burun zeakin xestokin holako bolitak-o izaten zian eta jun ta launtzen zizuen jeixten ta etortzen zian eostaillek eta: "Hau zenbaten nahi dezu? ta hau zenbaten dao, zenbaten?" eta saltzen ziñuzen denak. "En general", denak saltzen zian ta lanbatetan tinglaun saltzen zan babarruna eta hoitakoa'de bai, dena.
- Ta prezioa momentun jartzen zenien zuek?
- Bai, momentun jartzen zan. Honbeste dittuk babarrunak ta honbeste azak ta hainbeste letxuk. Hoi korrientea zan.
- Ta aita esaten zizun ze prezio jarri?
- Ez. Amak beak. Ni ez nintzen juten, amak, ama beak jartzen zun o "venta" ona baldin bazeon galestixeo ta txarra baldin bazeon bajatu pixkat eta hola.
- Ta aldamenekoi beidatzen zitzaion "a ver" harek zenbat?
- Ez, ez dut uste, ez, ez.
- Pixkat merkexeo jarri igual?
- A bai, ni uste det baietz, baiño ez honbeste ez. Oain, bazekien zenek ematen zun berdura ona ta zenek ematen zun txarragua eta beti juten zian berdura ona ematen zuenak.
- Ta ona zenek ematen zun?
- Guk'e oso berdura ona ematen gendun, koliflorrak-eta Jesus! Zestokak! Koliflorra ta aza ta baiño buruk, holakoxe buruk. Guk beti berdura ona eman deu.

6.24. Lur emankorra

- **Hizlaria(k)**: Larrañaga Beloki, Maria Dolores
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Soroa Hernandez, Maddi
- **Erref**: TOL-061/015
- **Iraupena**: 0:01:02. **Hasi**: 00:20:38. **Bukatu**: 00:21:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k)**:
Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- **Laburpena**: Terrenoa egutera edo ospela izateak eragina du. Gaztainak eta sagarrak eguterakoak hobea dira ospelak baino. Lurra goldatu egiten zuten.

Transkripzioa

- Ta zeatik eukitzen zenuen beste tokitan baiño hobia?
- Bueno, bestek baiño hobia akaso ez zan izango baiño terrenua o egutera, ospela eo beti izango da hobia. "Por ejemplo", kastañak'e eguterakok hobek omen die ospelakok baiño ta hortan.
- Ta zuena egutera zan?
- Egutera, egutera, egutera. Sagarra'de eguterakoa hobia da askoz'e, ospelekoa baiño. Dena eguterako zea ta. Guria zan, bueno gure baserría zan egutera, egutera.
- Ta beste zeoze iten zenuen lurrak ondo emateagatik?
- Bueno behiakin, zeatzen gendun, jiratu ta goldetu eta geo harekin beste katxarro batekin zeatu baneatu lurra.
- Alperakin?
- Bai, alperakin'e bai ta sojorra jotzea'de bai goizeko bostetan.

7. Politika

7.1. "¡Vamos a morir!"

- **Hizlaria(k):** Bergara Aginaga, Bernabe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** TOL-012/007
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:12:48. **Bukatu:** 00:14:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Gogoan du Urkizutik jaisten ziren soldaduek beherakoan "vamos a morir" esaten zutela.

Transkripzioa

- Hernialden ez zan beste istoriik izan, ez zan...?

- Beste istoriik izan? Ba ez, soldadun, Urkizutikan etorri zian soldaduk goitik behera, gerra bukatzea o zeatu zan garaiyan. Frentia Tolosako mataderoko hortan zeon frentia. Ta soldaduk nola jetsi zian, bai, Urkizu aldetikan, "¡Vamos a morir! ¡Vamos a morir!" esanez.

Hala esaten zuen

- Bai, hala esaten zuen.

- Baiño ze soldadu?

- Soldadu pill.

- Naparrak?

- Ez dakit naparrak zian o zer zian, nik ez nion ordun galdetu momentu hartan. Ez dakit, haik handik jetsi zian, ta bestek hemen zeuden, "así que"... Hoik puntatik punta ibili zian. Ez naiz hola besteik zeaten.

- Ez zan ikusi soldaduik eta zuen etxe ingurun?

- Ez, ez, ez, ez, han pasa bakarrik in zian. Han pasa bakarrik in zian. Oain, hemen Tolosan bai. Gure etxe ingurun, kuartelen, garai bateko plaza [...] kartzela hortan, ta hor denbora askon eon zian soldaduk.

- Ta zuen gurasongandik eta notizik jasotzen zenituen horrena?

- Zeiñenak?

- O zuen etxan bazan baten bat ordun Tolosako etxan?

- Bai, bai, bai, bai, soldaduk hor eon zianen? Bai, bai. Momentu baten, izango zan aitta bakarrik eon zana, aitta ordekoa bakarrik eon zana. Bestek esan dizut Hernialden nola zeuden. Hola, gaiñantzen ez. Gaiñantzen ez zen etxan gorabeheraiz izan.

7.2. Bonbaz zamatutako hegazkinak Bedaioko zeruan

- **Hizlaria(k):** Balerdi Gorostegi, Martin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** TOL-014/021
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:49:35. **Bukatu:** 00:50:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

- **Laburpena:** Bonbardatzera zihoazen hiru abioi ikusi zituen Martinek. Beasain, Tolosa eta Hernanin bota omen zituzten bonbak. Beldur handia pasatzen zuten, eta behi-asken azpian-eta ezkutatzen ziren.

Transkripzioa

<p>- Abionak ikusi nittun, hiru abion ikusi nittun nik: bat honea aldea sartu zan, Zaldibi aldea o alderdi hontaa. Oain, hemen Beasaingo hontan bota emen zittula esaten due /esateue/, bat. Beste horrek behintzat Tolosan bota zittun. Ta bestea, berriz, beheran esaten due, Hernanin o… zittun… bota zittula esaten due. Bai. Hiru abionak ikusi nittun, geldi-geldi nola etortzen zien. Haik Iruñan kargatzen zien, Panplonan. Panplonan kargatu ta honea etorri, […] sartzen zien. Aralarko gain hortatikan barrena taka ta bor-bor-bor-bor. “Hemen dittuk! Hemen dittuk” eta… Zea, behiek-eta ikuillun, zea, ganbelak-eta nola izaten dittuen? Hain azpia sartuta-ta jendea gordetzen ta… bai, joe… bestela badakizu zea hue… sartu ta lehertzen zan tokin garbittuk´e bazien! Zea, bai, bazien ta buu.</p>

<p>- Eta zuek sekula ikusi al zenduen abionik hoi baiño lehen?</p>

<p>- Zer?</p>

<p>- Sekula abionik ikusi gabek izango ziñaten zuek.</p>

<p>- Abiona ikusi gendun, baiño zea bakarrik… lehentxiotik ikusi nun nik abiona, bai, lehentxiotik. Baiño…</p>

7.3. Gerraosteko janaria

- **Hizlaria(k):** Ezeiza Otamendi, Santos
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** TOL-019/040
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 01:17:56. **Bukatu:** 01:19:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena:** Gerraostea gogorra izan zen: gosea etorri zen; olio oso garestia zen; esnea erabiltzen zuten janaria gozatzeko; txerriaren seboa okasio berezietarako gordetzen zuten... Seboa non gordetzen zuten azaltzen du.

Transkripzioa

- Ta handik aurrea, gerra ondorena gogorra izango zan ba?

- Bai, gosea. Orduan, gosea galanta ordun, ordun oliyoa, litro oliyoa hogei duro ta langilleak irabaziko zittun hamar duro, aste guztia pasata? Ta litro, litro oliyoa hogei duro patzen zun gue amak, baiño oliyoa eosten zun baiño oliyoa, ttantto bat. Ta geo, oliyoik prezio hartan eosteik ez zeon ta esneikin patatak ta jartzen giñuzen. Patatak ta aza're bai. Honek lehenozurik ta hau bota ta patatak zuri-zuri. Azak'e zuri-zuri. Jan itten gendun, hoi egiye da e, esneakin bustitzen gendun.

- Ta txerriyan sebua're erabiliko zenuen hortako?

- Txerria erabiltzen gendun. Baiño txerrin seboa, jesus, pixkana, iñor iñor etortzen baldin bazan ta. Gordeta eoten zan. Baiño esnekin.

- Nun gordetzen zenuen bestela sebua botillatan o?

- Bai.

- Emaztea: Ez, maskurin.

- Hoi zea maxkuriya bai. Txerrik maxkuriya izaten du, puztutzen gendun [...] erdin ta geo harea botatzen gendun txerrian grasa harea botatzen gendun, gantzak-eta. Bero-bero daola harea botatzen gendun ta geo hue maskuriko hazi [...] hue hola hazi zan ta han eukitzen gendun. Geo, gogortzen zan garaian kutxarekin ateatzen gendun, zuloa in ta gor-gor eoten zan-ta.

7.4. Zer da gerra, ama?

- **Hizlaria(k):** Albisu Toledo, Maria Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** TOL-020/011
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:19:10. **Bukatu:** 00:20:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena:** Gerra hasterako, Zumarragatik Urkizura itzuli zen. Zumarragako eskolako mojak beldur omen ziren eliza erreko ote zieten. 12 urteko gaztetxo batek gerra zer den ez jakitea eta hari zaion beldurrari buruz hitz egiten du. Tropak Urkizun ibili zirela gogoratzen du. Anaiak gerran ibili ziren soldadu.

Transkripzioa

- Zuk Zumarragan aitzen zendun gerra bazetorrela edo?
- Bai! Mojak, bai, negarrez-ta nola egoten zien. Nola ari zien etxek... zeak, elizak erretzen. Nunbait aitzen zuen periodikoti o nunbaiteti ta negarrez egoten zien. Bai. Jun beharko zuela ta itxi ingo ziela ta... Bai, orduako hasi zien amenazoka nunbait. Elizak erretzen-ta hasi zien, bai. Bai. Hori gogoratzen zait.
- Zuek´e bildurrez egongo ziñaten ordun.
- Bueno, bildurra... bai, gerrai bildurra zitzaion. "Zer da gerra?" esaten gendun guk, "Zer da gerra, ama?" ta "Zer da gerra?" ta.
- Ta allatu zala jakin zenduen egunen baten? Hola, goguan dezu zuk nun ziñan jakin zendunen allatu zala gerra, hasi zala?
- Bai, Jesus! Urkizua etorri zien tropak-eta etorri zien ta. Guk taberna genduken, ta tabernara etorri zien. Jesuuss! Danak motxillakin ta fusillakin ta. Hori gogoratzen naiz.
- Zuk gerra hasi aurretik ya Urkizua bueltatu ziñan bazpare.
- Bai, bai, bai, ya etxea. Etxea etorri nitzan, izebanetik etxea etorri nitzan ya. Eskolatik ya bukatu zan eskola. Han bukatu zien eskolak. Nere... Gero anaiak´e bai, anaiak´e soldau jun zian. Haik´e gerra.

7.5. Babarrunak, garia eta abereak ezkututzen

- **Hizlaria(k):** Iraola Olano, Joxe Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** TOL-022/012
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 00:11:15. **Bukatu:** 00:12:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

- **Laburpena:** Gerra ostean, babarruna gordetzen zuten ganbaran. Belarraren azpian garia ezkutatu ohi zuten. Abereen partea egiterako garaian, ez zuten baserrian zeuzkaten behi guztien berri ematen, eta Tolosatik "guardabinoa" bisitan joaterako behi batzuk ezkutatu behar izaten zituzten.

Transkripzioa

- Gerra denboran ezagutu gendun. Ordun'e gose gutxi e. Babarrunak-eta gordeta-ta itten giñun ez pentsatu.
- Ez harrapatzeagatik?
- Ez harrapatzeagatik. Guren goien kuarton bat, hola, zulo bat, hemen hor itxiko balitz bezela ta goien ganbaratiken sartu harea babarrunak gordetzeko ta, goitik. Ta hantxe eukitzen gendula.
- Beste zeozer gordetzen zenduen?
- Ordun belarren azpin garie o zeoze o beti zeoze ahalegiñe. Ta behiekin'e apuntatzea dana txarra zala, ta gutxigo apuntatu ta, zea, "hemen dator Tolosatik guardabinoa". "Guardabinoa" esaten zitzaion ordun oain aguazillei-eta esaten zaien bezela. "Guardabinoa hemen dator", ordun ta, dios, behiek hartu ta han goitik behera puxka bat ixkutatu ´re bai batzuk, hue jakitten zanen.
- Han bason baten euki lotuta eo...?
- Ba hortxe behera, bertan ixkutatu. Holaxe.

7.6. Ikastola gerra aurrean eta gerra ostean

- **Hizlaria(k):** Leunda Artola, Maria Dolores
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** TOL-031/013
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:22:25. **Bukatu:** 00:23:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Politika » Euskara eta politika
- **Laburpena:** Gerra aurrean, ikastolan ikasi zuen Maria Doloresek. Gerra ostean, ordea, ikastolak ez ziren legalak eta tranpa ugari egin behar izaten zituzten ikastolak aurrera ateratzeko.

Transkripzioa

- Zuek txikiyak ziñatenen'e bai, bazun ikastolak fama hoi, "euskeraz nola ikasiko due ba?" Ta...
- A! Bai. Geo bakizu zer zeon? Rezelua. Nola ez zeuden legalizatuk, eta tranpak in ber zian inspektoria etortzeko; ta Eskolapiok'e adibidez mesedia iten zuen, kartillak beak han han ikasiko balue bezela.
- Zuek txikik ziñatela?
- Ez, ez, ez, ni txiki... Ordun ez zan problemik, ordun ez zan problemik. Geo, esaten dizut, ikastolak Tolosan hasi zianian, adibidez, Eskolapiok, ba beren ikaslek balia bezela. Eta gero igual andereño titulodunik euskara ez zeon asko, eta batzuk titulua adosten zuen. Leno esan dizuten lagun honek esan ziten hoi, utzi zun bere titulua, utzi zuen prestatzen zuen horko andereñok balia bezela. Zeatikan igual zeuden batzuk titulo gabek. "O sea" denetikan.

7.7. Agirre lehendakariaren ihesa eta filosofia

- **Hizlaria(k):** Labayen Sansinenea, Mattin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** TOL-032/024
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:43:06. **Bukatu:** 00:44:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerrako administrazioa
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- **Laburpena:** Joxe Antonio Agirre Alemaniara mozorrotuta joan zen eta handik Amerikara iritsi zen. Bai Agirrek eta bai besteek barkatzen jakin zuten.

Transkripzioa

- Baiño habeidi habeidi nik uste det euskal refuxiatuak, abertzaleak, buruzagik, bai Agirrek ere, Agirre, Agirre, Agirreren polizia zabillen bere atzetik, alemanak, Gestapo. Ta refuxiatuta Alemanin jun zan. Ordun liburu bat "Gernika - Nueva York". [...] "¿Y qué hice? Con bigote [...]" bigotia jarri ta Alemania jun zan, handik Belgika, ta Belgikatik Ameriketa. Ta liburua bada, nobela bat dirudi. Hori egin daiteke pelikula bat, baiño busti egin zan e? Baiño gero esan zun: "Yo he sufrido mucho, me han hecho daño, me han... La fábrica de chocolate Bilbao, me hundieron". Hoi Agirretarrak zeukan txokolate-fabrika Bilbaon, Txobilkao. Dena hondatu zioten, dena kendu hura're bai. Baiño izan zun, "Cuidau con que tenga odio en el corazón. Yo perdono". Ta hoi barkatu in zuen denak, bai aitak eta denak, denak barkatu in zuen.

7.8. Aitonak gerra karlistetan borrokatu zuen

- **Hizlaria(k):** Gorrotxategi Pikasarri, Joxe Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** TOL-035/005
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 00:08:39. **Bukatu:** 00:09:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
Politika » Jarrera politikoak » Karlismoa, liberalismoa
- **Laburpena:** Aitona txapel gorria izan zen gerra karlistetan. Kartzelan zergatik sartu ote zuten galdetzen zion bere buruari.

Transkripzioa

- Urtez aurea zoazela, bakizu, baiño ni han hamabi-hamalau urte nitula, pentsatzen gendun, klaro, bueno, nere aittona, nere aittapuntakoa, ni Zegamara jutun nintzen urtero, ta gizon goxoa, jakintsue zan. Gaiñea, gerra karlistatan nola ibili zan, gerra karlistan ibilitako guztieri egin zieten "tenientes honorarios del ejército español", ta txapel gorriekin egoten zan ta bi izarrakin txapelan. Ta guardia zibillek pasatzen ziela lehen Seguratik Zegamara, ta batea ta bestea, nola saludatzen zuen, parre ingo zuten, baiño nola saludatzen zuten, zea orduan zeatzen genun. Ta nere aittona kartzelan zergatik egondu zan? Ni hamalau urtetik aurea.

7.9. Leihora irten eta tiroei ihes egin behar

- **Hizlaria(k):** Albizu Beraza, Gregoria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** TOL-039/004
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:05:38. **Bukatu:** 00:06:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Tolosan nazionalak sartu ziren garaian, paper-fabrikan soldaduak egoten ziren; eta behin ozta-ozta libratu zen Gregoria heriotzatik, leihora atera zen batean tiroak bota baitzizkioten leihora.

Transkripzioa

- Baiño goatzen zaitena da, sei urte izango nitun, sei-zazpi urte o... Tolosan, soldadu jun zien garaian gerra denboran, Arkauteneko fabrika, papeleran eoten zien soldaduk. Eta goatzen zait behintzet italianok zien, gorri-urdiñek eta borla zurikin, italianok garai hartan e? Eta atera nintzen hola... "O sea" guk genduken, zeak, leihok-eta bide, pasadizo bat aldea. Baiño pasadizo hortatik juten zan kanposantura. Kanposantuko bidea zan. Eta behin'e ez zait ahaztuko: atera naiz ume gisa, eta leihoa atera naiz, eta bastante aurea atera nintzen, ta tiro [...] bota zizkien kotxetik. "Solamente" airoso sartu nintzen. Tirok bota zizkien e? Eta "solamente" ez det uste gehio arrimatu nintzenikan leiho hartara.

7.10. Euskaraz egiteagatik, ilea moztu eta errizino-olioa hartu behar

- **Hizlaria(k):** Estanga Uriarte, Mariani Izaskun
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** TOL-054/014
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:19:33. **Bukatu:** 00:21:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Politika eta Franco
- **Laburpena:** Euskaraz hitz egiteagatik eta soldaduengana joategatik zer zigor jartzen ziren aipatzen du: ilea moztu eta errizino-olioa ematen zien, beherakoa eragiteko. Gero, herrian zehar ibiltzera behartzen zuten jendea, lotsa pasako.

Transkripzioa

- Eta ez dakit Tolosan gertatu zen emakumeei illia moztia eta...
- Bai, bai, adibidez, euskeraz hitz egiteagatikan eta —bueno, ni ya [hoi koxkorrita] nitzen— soldaduengana juteagatikan. E? Soldaduengana jun eta han harrapatu eta illea moztu, baiño raso. Eta ekarri... este... [...] errekatikan bide guztia lau soldadu arten eta sargentoa-edo zana aurretikan. Udaletxera ekarri eta lotsa pasarazi Tolosa barrenen. Tolosa barrenen. Eta [illeik ez], kaskamotza- kaskamotza. Baiño makinillakin dena pasa, e? Oain edozeiñek eamaten du horrela, baiño... Bueno, oso desatsegiña. Oso desatsegiña. Etxea jun eta amai esan nion "Jo, ikusi ditut hola ta hola", "Ez da beittu behar". Ez, ez da beittu behar, baiño... Tolosan

barrenen ibiltzen baldin [badittuzte, ez dezu ikusten?]. Eta euskera hitz eitteatikan ere bai. Eta “aceite ricino” ematen [zieten]. “Aceite de ricino, ala, a litros”. Oseake...

- Illea moztu ta “aceite de ricino” eman?

- Bai. Oseake... “hechas un trapo”.

- “Aceite de ricino” hori beherakua...

- Jo, beherakoa... eta kakalera! Kakalera ematen dizu. Baiño... Eta hartzeko, hartzeko hobeto hiltzea, e? Oso desatsegiña da hartzeko. Oso desatsegiña.

8. Natura

8.1. Udazkeneko ilberria, pagoa botatzeko garaia

- **Hizlaria(k)**: Gorostidi Etxaleku, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: TOL-024/032
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:48:40. **Bukatu**: 00:49:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Etxeberria, Eider
- **Gaia(k)**:
 - Natura » Meteorologia
 - Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- **Laburpena**: Zuhaitzak botatzeko orduan ilargiari begiratzen zaio. Barkuak egiteko pagoa erabiltzen da. Udazkeneko ilberria da botatzeko garairik onena. Hosto handia dutenak ilbeheran bota beharrekoak omen dira eta txikikoak ilberrian.

Transkripzioa

- Garai baten illargiyai zertako begiratzen zitzaien?
- Gauza prinzipala zan, egurre dana dana gauza. Egurre behintzat exakto e?
- Iñoi ez zitzaion okurrituko bere garaia ez zan baten moztia?
- Botatzen zittuen bai, baiña harek ez zun erantzunik ematen e? Hemengo pagua izaten zan, ematen zuen barkutako. Oain plastikua daon bezela, ordun barkutako. Zeatik uden, uden ez da usteltzen sekulan pagoa. Eta ude behar du e? Erabat ude. Eta hortako ematen zuen. Eta hemendik goatzen [...], goiengua baserri baten bota zuen piñudi haundi hoi asteasurrak eta... Eman zuen, eta bale. Baiño ikearri esan nahi du e?
- Pagua noiz botatzen da?
- Ilberrikoa. Ta udazkeneko ilberria hobena esaten due.
- A bai?
- Bai. Ta ilberri asko dia. Arbola asko e? Hosto haundie dun guztiya ilbeherakoa da. Ta hosto txikia duen guztikua ilberrikua.

9. Euskara

9.1. Ikasketak Iparraldean

- **Hizlaria(k)**: Labayen Sansinenea, Mattin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: TOL-032/029

- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:53:40. **Bukatu:** 00:55:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberría, Eider
- **Gaia(k):**
Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak
Euskara
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza
- **Laburpena:** Iparraldean zeudenean bai frantsesa bai euskara hitz egiten zuten. Andereño bat etxera joaten zitzairen. Mattin oso alferria omen zen, bere airera ibiltzea gustatzen zitzaion.

Transkripzioa

- Eta ordun zuek iparraldea errefuxiatu ziñatenian, zuen amak saiakeran bat in zun zuei frantsesa etxen erakusteko?
- Bai, bai, dudik gabe, dudik gabe, bai frantsesa, bai euskera ta bai erdera, hirurak. Ta ikasi daiteke hiru hizkuntza. Oain bezela, oain ikastoletan ere inglesa, uste det inglesa dagola, ezta? Inglesa, frantsesa, inglesa geo euskera, erdera. Bueno, bien.
- Zuei etxen ematen zizuen klase moduko bat?
- Bai, bai, bazan andereño bat, "era" Karmen Egia. Ta nik esan nun, oso alperra nintzan, "joder, más vago" gaiñea, alperra nintzan, bai. Ez zait gustatu estudiantzia neri. "Yo era" abenturak, nere aidea ibilli, Saran, nere aidean. Piperrak iten nitun [...]. Saran piperrak iten nun. Mitxeletak ere harrapatzen, baiño behin azkenian erori nintzan: "Ah! Volviste antes de tiempo y te calamos". "No me ha gustado estudiar. A mí mas estudiar me gustaba a mi aire. Me gustaba pintura también que es un oficio libre". Pintura ikusten dezu, koadroz betea daukazu hemen.
- Hoi galdetu ber nizun.
- Hoi izan zan ya [...] "cuarenta y cuatro o cuarenta y cinco", etorri giñan Donostia bizitzea.

10. Lanbideak

10.1. Bezeroekin harremana izatea gustuko izan du beti

- **Hizlaria(k):** Gorrotxategi Pikasarri, Joxe Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** TOL-035/010
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:18:36. **Bukatu:** 00:20:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberría, Eider
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Negozioak, dendak
- **Laburpena:** Bezeroekin harremana izatea beti gustatu zaio. Oso gaztea zenetik dendan egin du lan. Bertan asko ikasi duela dio.

Transkripzioa

- Hoi ikastiaz aparte, garai igualian, ya dendan urte batzuk, publikuakin lanian
ni beti izandu naiz publikokín, "o sea", nahiz obradoreen eon, ya bi obrero bazeren, aitta're bazeon, baiño nei gustazen zitzaian, jendearekin enkarguk hartu, tartak, [...] baldin bazan, ilusio pixka bat. Nei denda gustatzen zitzaian izugarri. Zergatikan hamalau urte arten larunbatetan nei

jartzen ziaten dendan aparte saltzen larunbatetan. Ta ez nintzan juten eskolara larunbatetan. Ya permisoa eskatu zuten aittak, "o sea", gurasok, eta larunbat goizetan ni dendan ta pozik, pozik. Neuken jenden hartu-eman, o erreztasuna jenden tratua.

- Eta nunbait irakurri det handik asko ikasi zendula esan zendula?
- Hoixe ikasi dedala, hoixe. Bai, bai, bai, jenden hartu-emanakin asko ikasten da, zergatikan gauz bat dao garbi: zu dendan baldin bazare, ta edozein gauza iten ai baldin bazare, goxo ta in behar dezu. Baiño behin ere ez utzi zuri bizkar gaiñetik parre itea. Bi gauz dira. ta momentu bat aillatzen da izan behar da, ba bueno, bai, baiño normalki komertziantea baldin bada komertziantea, zea, komertziantea ba izaten da goxoa ta zea.

11. Ekonomia eta industria

11.1. Amaren ideia aurrerakoiak

- **Hizlaria(k):** Agirre Azurmendi, Maria Luisa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** TOL-044/024
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:52:26. **Bukatu:** 00:54:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia
Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- **Laburpena:** Lehengo pentsamoldearen arabera, emakumeak ezkondu egin behar zuen eta ez zuen eskolarik behar. Maria Luisaren amak esaten zuen, ordea, emakumeek independenteak izan behar zutela gizonengandik eta emakume guztiek ikasi behar zutela lanbide edo karreraren bat.

Transkripzioa

- Zu konturatzen ziñan ordurako ba neska gutxi ziñatela, jendiak normalen zure edaden ya eskola utzi zula... Konturatuko ziñan?

- A bai, batzuk, "es que"... Amak zeukaten hemen sartuta ba ezkondu in behar zuela, ezkondu. Eta ezkondu ya ez zuela behar eskolaik. Eta nere amak esaten zien, esto, ez pentsatzeko, esto, ezkondu gauzak konpontzen ziela. Eta egin behar gendula, esto, izan behar gendula independentek gizonatik.

- Hoi zure amak esaten zun?

- Bai, denbora hartan. Eta danak ikasi behar gendula ofizion bat o karreraren bat. Etxen ze dirua? Ez zeon diruik. Baiño amak... Zeatik, egin behar gendula gizonen menden ez gendula egon behar. Bakoitzak bere poltsa eduki ezkeo, hobeto bizitzen zala.

- Hoi orduako, bastante e?

- Orduako, baiño hori askotan, eta burun ondo sartuta.

- Bai e?

- Bai, danak ikasi behar gendula ofizio bat o estudiatu. Hala, amak. Ez pentsatu e, esto... "porque" ezkondu gauzak konpontzen ziela.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Azerbaijangoa da (101-078/002)

Tarana Azerbaijangoa da. 14 urte daramatza Euskal Herrian bizitzen, Tolosan.

2. Azerbaijanerari buruz (101-078/004)

Azerbaijanera du ama hizkuntza, etxean ikasia. Datu batzuk ematen ditu hizkuntzari buruz: zein familiatakoa den, jatorria...

3. Azerbaijaneraz idazteko alfabetoa (101-078/005)

Azerbaijanera zein alfabetorekin idatzi izan den azaltzen du. Orain alfabeto latindarra erabiltzen dute.

4. Azerbaijaneraz seme-alabekin (101-078/006)

Azerbaijanera seme-alabekin eta familiarekin erabiltzen du, eta mantentzea gustatuko litzaioke.

5. Bikotekidearengatik etorri zen (101-078/008)

Nolatan etorri zen hona. Donostiako bikotekidea izan zuen, eta berarengana etorri zen. Familia sortu zuten, eta hemen egin du bizimodua.

6. Lehenengo hilabeteak zailak (101-078/010)

Lehenengo hilabeteak zailak egin zitzaizkion. Ez zekien ez gaztelaniz eta ezta euskara ere, ingelesez bakarrik. Ingurukoek laguntzen zioten, baina inpotentzia sentitzen zuen. Nola hasi zen gaztelania eta euskara ikasten.

7. Azerbaijango hizkuntzak (101-078/012)

Azerbaijanen ehuneko 90ek azerbaijanera hitz egiten dute; errusiar hiztunak ere badira (Errusiaren menpe egon zelako). Ingelesa eta arabiera ere ikasten dira.

8. Azerbaijango pertsonak inguruan (101-078/013)

Donostian badaude Azerbaijango gehiago. Estatuan 200-300 pertsona egongo direla pentsatzen du.

9. Integrazioari buruzko hausnarketa (101-078/014)

SOS Arrazakerian egiten du lana. Integrazioa ez da erraza izaten, baina berak lana izan du hasieratik. Konturatu da gizartean guneak banatuta daudela. Bakoitzak bere nortasunaren arabera bizi behar du prozesua. Zapia eramateagatik izan duen esperientzia.

10. Kultur aniztasunaz, elkarbizitzaz eta ezjakintasunaz (101-078/016)

Beti defendatu du kultur aniztasuna. Aberastasuna da. Gai honetan nola sentibilizatu? Non daude etorkinak? Askotan auzo jakinetan pilatzen dira. Garrantzitsua da nahastuta bizitzea, elkarbizitzarako. Behar berdinak dauzkagula dio. Ezjakintasun handia dauka jendeak.

11. Euskaraz eginda, gertutasuna (101-078/018)

Euskara eta integrazioa. Euskaraz hitz egiten duenean, jendea harritu egiten da. Hurbiltasuna ematen duela nabaritu du.

12. Donostian 60-70 hizkuntza? (101-078/019)

Donostian 60-70 hizkuntza hitz egin daitezkeela uste du.

13. Azerbaijandik faltan ematen duena (101-078/020)

Azerbaijanetik faltan ematen du: hizkuntza entzutea kalean. Janaria, musika, usainak, lekuak... Joaten dira noizbehinka, umeekin, familia bisitatzerara.

14. Gustatzen zaiona eta ez zaiona gustatzen (101-078/022)

Hemendik gustatzen ez zaiona euria da. Gustatzen zaiona: askatasun gehiago duela norbanakoak, bere bizitza nahi duen erara egiteko. Azerbaijanen presio handiagoa dago.

15. Oinarrizko hogeitaz azerbaijaneraz (101-078/024)

Hiztegia. Oinarrizko hogeitaz azerbaijaneraz.

16. Semearen eta alabaren izenak (101-078/025)

Bere gustuko hitzak azerbaijaneraz: semearen eta alabaren izenak. "Goxoa" eta "aberria".

17. Abesti abertzale bat azerbaijaneraz (101-078/027)

Azerbaijango abesti baten zatitxo bat errezipitatu du.

18. Danitzaren aurkezpena (101-101/002)

Danitzaren aurkezpena. Perukoa da. Tolosan

19. Peruko hizkuntzak (101-101/004)

Perun hainbat hizkuntza hitz egiten dira, ketxua eta aimara, adibidez, baina Danitz akostaldekkoa da eta gaztelaniaz soilik daki.

20. Nolatan Euskal Herrira? (101-101/005)

Gurasoek lana galdu zuten Perun, eta hona etorri ziren, eta ondoren beraiek, anaia eta bera. Bere birraitona, berriz, Perura joan zen lan bila.

21. Danitza izenari buruz (101-101/006)

Danitza izena Kroaziakoa da, amaren aita hangoa delako.

22. Barnetegian euskara ikasten (101-101/008)

Alegiara joan ziren lehenengo, eta ondoren Tolosara. Alegian jendeak euskaraz hitz egiten duenez, barnetegi batera joan zen bi udatan, euskara ikastera.

23. Lehenengo inpresioa (101-101/010)

Perukoa baino itxiagoa iruditu zitzaion hemengo jendea.

24. Euskara, integrazio hizkuntza (101-101/011)

Euskaraz ikasiz gero, erraza da integratzea. Azkenaldian ez du praktikatzen eta asko galdu du. Gaztelaniaz eta euskaraz aparte, ingeles pixka bat daki.

25. Euskara ikastea (101-101/012)

Euskara ikastea zaila dela dio, baina garrantzitsuena saiatzea omen da.

26. Perutik falta zaiona (101-101/013)

Perutko familia eta lagunak falta igartzen du hemen dagoenean, baina Perura doanean alderantziz: hemengoena.

27. Nongo lagunak dituen (101-101/015)

Alegiko eta Tolosako lagunak ditu, Kroaziakoak, Hego Ameriketakoak...

28. Euskal Herrian gustura (101-101/017)

Euskal Herritik gustatzen zaiona: kultura, musika, dantzak... Bera ere euskalduna sentitzen da jada.

29. Oinarrizko hitz batzuk gaztelaniaz (101-101/019)

Hiztegia gaztelaniaz.

30. Peruri buruzko abesti bat (101-101/021)

Peruri buruzko abesti bat kantatzen du.

31. "Hegoak ebaki banizkio" (101-101/023)

"Hegoak ebaki banizkio" kantatzen du.

32. Heriotzaren ondoren, lutoa (TOL-001/003)

Hildakoak etxean edukitzen ziren entierroa bitartean eta gero gizonek bizkarrean Amezketa eramaten zituzten. Ondoren beltzez jantzita ibiltzen ziren urtebetez. Arropa berriak egiten zituzten. Urtea bete arte familiakoak meza nagusira joan behar ziren. Orain, berriz, ezer ez dela egiten dio. Lutoa lehengusuek ere eraman behar izaten zuten. Dantzarik ere ezin zen egin.

33. Bedaioko sorginen kontuak (TOL-001/004)

Bedaioko sorginak eskopetak daudenetik ezkutatu dira. "Sacamantecas" ere bazen, umeei odola atera eta saldu egiten zuena. Denek sinesten zuten horretan. Neskame edo morroiak zelatatu egiten zituzten, gauez etxetik ateratzen ziren susmoarekin. Sorginak etxeko tximiniatik, behetik gora, ateratzen ziren esaldi berezi bat esanez. Istorio horiek denek kontatzen zituzten.

34. Sorginen kontuak (TOL-001/007)

Gurasoek sorginen inguruko esaerak esaten zizkieten. Lanetik zetorren bati katua azaldu; eta, ezin harrapatu zebilela, sorgina izango zela pentsatu zuen. Gizon bati gauez kristauen figura azaldu zitzaion, eta beldurrez alde egin zuen. Eskopetak azaldu zirenez gero, gauza horiek bukatu ziren.

35. Okerra eginez gero, infernura (TOL-001/009)

Elizara zintzo joan behar zuten. Komunioa hartzeko aurrena konfesatu egin behar izaten zuten. Okerra eginez gero, infernura joango zirela esaten zuten. Orain infernuri ez dela esaten dute. Infernua bizi osoan sutan egotea zela zioten.

36. Bataiatu gabeko umeak, Linbora (TOL-001/010)

Bataiatu gabeko umeak Linbora joango zirela zioten. Orain bataiatu gabeko ume gehiago daude. Jaio eta hurrengo egunean bataiatzen zituzten umeak. Etxean beti izaten zuten ur bedeinkatua eta umea gaizki jaioz gero, etxekoek bedeinkatzen zuten erramu bedeinkatuarekin aitaren eginda.

37. Konfirmazioa eta komunioa (TOL-001/011)

Konfirmazioa egiteko kandela eskuan hartu eta aldarera joaten ziren apaizarengana. Zazpi edo zortzi urte zituztenean Komunio Txikia egiten zuten eta bederatzi edo hamarrekin Komunio Handia, aingeruz jantzita.

38. Eskola gutxi eta dotrina asko (TOL-001/012)

Eskolara gutxi joaten ziren. Lanera joaten ziren. Errezoak asko ikasten zituzten. Dotrina ere ikasi zuten kartilak erabiliz. Euskaraz idatzitako liburu hura buruz ikasi behar izan zuten.

39. Eskolan ibili ondoren etxeko lanetan lagundu (TOL-001/013)

Eskola goiz eta arratsalde izaten zen. Neskak eta mutilak elkarrekin ibiltzen ziren eta adin guztietakoak nahastuta. Asko faltatzen ziren eskolara, etxean lana egin behar izaten zutelako. Eskolan ederki pasatzen zuten, jotzen ez zituzten bitartean behintzat. Etxera itzultzean hainbat lan egin behar izaten zituzten baserrian laguntzeko.

40. Jolastu, igandetean bakarrik (TOL-001/014)

Gutxi egiten zuten jolas, jaietan bakarrik. Garai hartako jokoak nolakoak ziren azaltzen digu. Etxe atarian ibiltzen ziren jolasean, baina ez zuten horretarako tarte handirik.

41. Pilotan bezperetatik atera ondoren (TOL-001/015)

Soka izaten zuten saltoka ibiltzeko. Igande arratsaldetan bezperetan apaizak abestiak erakusten zizkien. Bezperak amaitu ondoren pilotan jolasten ibiltzen ziren neska mutilak elkarrekin. Iluntzerako etxera itzuli behar zuten.

42. Bedaioko festak (TOL-001/016)

Udaran ez zuten denbora librerik etxean lana izaten zelako. Irailaren 8an Bedaioko festak izaten dira. Ingurutxoa egiten dute eta kanpotik jendea etortzen da. Harri-jasotzaileak ere izaten ziren. Soltea ere dantzatzen zuten txistuaren soinuarekin. Festa motzak ziren.

43. Ingurutxoa Bedaion (TOL-001/017)

Ingurutxoa zer zen azaltzen du. Neska eta mutilen artean egiten zen.

44. Neska-mutilen arteko harremanak (TOL-001/018)

Neska-mutilak ez ziren paseoan ibiltzen, bakoitza bakarrik itzultzen zen etxera. Garai batean bikoteak leihoetan hizketan ibiltzen omen ziren.

45. Ezkontzeko arreea prestatzen zuten (TOL-001/019)

Ezkontzerakoan, arreea eramaten zuten idien gainean. Soinu-jotzailea atzetik zerratela joaten ziren. Etxerako behar zen guztiak osatzen zuen arreea. Mairidireetan izena eta abizena jartzen zuten. Neskaren etxekoek erosten zituzten arreeko gauzak. Goizean elizan ezkondu ondoren, neskaren etxean gosaltzen zen eta ondoren mutilaren etxean bazkaldu. Nahiz eta gauzak ongi ez joan isilik egon behar izaten zuten, orain ez bezala.

46. Ezkondu eta hurrengo egunean lanera (TOL-001/020)

Ezkondu ondoren emakumeek gizonek bezalaxe egiten zuten lan baserrian. Oraingo emakumeekin gauzak asko aldatu dira.

47. Emakumeen menpekotasuna (TOL-001/021)

Beste etxe batera ezkonduz gero, isilik egon behar izaten zen. Orduan asko aguantatzen zen; orain, berriz, gauzak asko aldatu dira. Dirua gizonek izaten zuten eta emakumeak mende gelditzen ziren. Orain emakumeen nagusi direla pentsatzen du. Sukaldean emakumeek agintzen zuten. Jaietan bakarrik deskantsatzen zuten.

48. Umeak nola zaintzen zituzten (TOL-001/022)

Umea jaio eta egun batzuk etxean pasa ondoren, berehala lanera itzultzen ziren. Umea amonarekin etxean uzten zuten bularra eman ondoren. Egurrezko sehaskak gelan jartzen zituzten. Gauzak asko aldatu dira. Biberoirik ez zegoen eta janaria koilararekin ematen zitzairen.

49. Harri jaia Bedaion (TOL-001/024)

Elkarrizketa garaian, beste festa batzuk ospatzen zirenherrian, baina garai batean ez ziren. Egun batean harriak bazterrak apurtu omen zituen eta egun haren oroitzapenean festa antolatu zen. Elizara joan eta berrogei kredo esan behar izaten ziren. Egun hori jaia izan behar zela erabaki zuten. Prozesioa eta gero zahagi-ardoa banatzen zen. Soinua eta dantza ere izaten ziren.

50. Larraitzera oinez (TOL-001/026)

Lehen beti oinez ibiltzen ziren. Larraitzera joaten ziren dantza egitera. Bertako Ama Birjinari hamar zentimo botatzen zizkioten. Bertan merienda jaten zuten. Kuadrillan joaten ziren. Hamalau-hamabost urterekin hasten ziren. Erroskila saltzaileak egoten ziren.

51. Baserrian lan handia izaten da (TOL-001/028)

Iluntzerako etxera itzuli behar izaten zuten gurasoak horretara ohituta zeudelako. Orain, berriz, egunez lo eta gauez kanpora. Baserrian hori ezin da egin, lana dago-eta. Ardiak udaran mendian daudenez, lan gutxi ematen dute; neguan, berriz, etxean izaten dituzte.

52. Gazta nola egiten zuten (TOL-001/029)

Gazta egiteko pausoak azaltzen ditu.

53. Gazta ketua (TOL-001/031)

Gazta ketua egiteko gela itxi bat erabiltzen zuten eta bertan pago egurrarekin sua egiten zen. Elkarriketa garaian ez zuten hori egiten. Kearen ordeztatik ere erabili ohi zuten. Keak kolorea besterik ez zion ematen gaztari.

54. Tolosako zerkausira saltzera (TOL-001/032)

Lehen Tolosako zerkausian saltzen zuten gazta. Pisu txiki bat eraman eta kiloka saltzen zuten. Arrautzak ere eramaten zituzten. Elkarriketa garaian etxeetara etortzen dira gazta bila.

55. Baserrian neke handia dago (TOL-001/033)

Gazta egiteko indarra behar da. Prozesua luzea eta neketsua da. Baserrian neke handia dago. Etxekoei gustatu egiten zaiela dio. Ardi asko dituzte grabaketa egiterakoan ere, nahiz eta lanera kalera joan.

56. Eskolatik irtendakoan, Nagusi etxera (TOL-002/009)

Umetan, auzoko Nagusi etxean aritzen lanean. Gustura aritzen zen han: udareak biltzen, aza aldatzen... Eskolatik irtendakoan joan ohi zen. Puntu egiten ere bertan ikasi zuen.

57. Eguneroko eta jaiegunetarako arropa (TOL-002/011)

Lehen, arropak urtetik urtera egiten omen ziren. Azokan erosten zituzten arropak. Jaiegunetarako soinekoren bat izaten zen, beste arropen aldean berezi garbitu behar izaten zena. Soinekoak nolakoa izaten ziren kontatzen du. Egunerokoan, zer arropa erabiltzen zituzten kontatzen du: artilezko galtzerdiak, abarkak, soinekoa eta jertsea. Udan eta neguan arropa berdina ibiltzen omen zen.

58. Galtzak janzteagatik burlaka (TOL-002/012)

Aurrenekoz galtzak noiz eta zergatik jantzi zituen kontatzen du. Garoa biltzera joateko emakumeak galtzak jantzen hasi zirenean, mutilen burlak jasotzen omen zituzten.

59. Etxerako eta sororako oinetakoak aldatu behar (TOL-002/013)

Etxerako eta sororako arropa bera erabiltzen zen; oinetakoak aldatzen ziren. Abarkak eta zapatilak nolakoa izaten ziren kontatzen du.

60. Bitxiak eta gerrirainoko ilea (TOL-002/014)

Ez zuen koilare eta eskumuturrekorik erabili ezkondu zen arte. 16 urte zituela moztu zuen ilea; amak ez zion uzten moztzen. Gerri pareraino zuen ilea, eta ahizparen ezkontzarako moztu zuen. "Permanentea" egiteko pozarren zegoen. Ez zen makilatzen.

61. Kaleko neskek janzkera (TOL-002/015)

Kaleko neskek nola jantzen ziren kontatzen du. Kalekoen ez zuten galtzarrik jantzen.

62. Ile-apaindegira (TOL-002/016)

Urtea bete baino lehen joaten ziren ile-apaindegira. Gizonezko gehienak, berriz, "barberia"ra joaten ziren.

63. Neska langilea, ondo ikusia (TOL-002/017)

Neska langilea izatea ondo ikusia zegoen; "alperra" deitzea, berriz, iraina zen.

64. Medikuak eta gaixotasunak (TOL-002/019)

Beldur handiena zer gaixotasuni zitzaien aipatzen du. Tifusa eta meningitisa gaixotasun gogorrak ziren. Alegiako medikua zuten.

65. Mondejua nola egiten den (TOL-002/021)

Mondejuak nola egiten diren kontatzen du. Ontzi batean porrua eta tipula egin, bigundu arte. Beste ontzi batean, ardiaren tripakiak egosi eta txiki-txiki egin. Segidan, tripakiak, porrua eta tipula nahastu; arrautza eta seboa ere erantsi. Piper pixka bat eta gatza botatzen zaio gero.

66. Tripakiak garbitu eta hesteetan sartzea (TOL-002/023)

Tripakiak errekan garbitu ohi ziren. Hesteetan sartzeko inbutu txiki bat erabiltzen zen. Lan hori emakumeek egin ohi zuen.

67. Ogia nola egiten den (TOL-002/026)

Lehen, baserriko ogia nola egiten zuten kontatzen du.

68. Ogia egiteko labea (TOL-002/027)

Ogia egiteko labea etxe kanpoan zegoen. Labea nolakoa izaten zen kontatzen du. Ogia egiteko, labea ondo berotu behar izaten zen; "guri-guri" eginda egoten zen. Ogia labean sartu aurretik, labea garbitu egiten zen: garo edo belar luze batzuk pala batera lotuta erabiltzen ziren horretarako.

69. Taloa nola egiten den (TOL-002/031)

Taloea nola egiten den kontatzen du. Talo-burdinan erretzen zuten taloea. Etxekoandreak egin ohi zuen lan hori.

70. Etxeko lanak: "Beharrak erakusten dizkin!" (TOL-002/032)

Umeak ez ziren sukaldeko lanetan aritzen. Emakumeak etxean zer eginkizun zituen aipatzen ditu; amari laguntzen ikasi zuen etxeko lanak egiten. Ezkontzera zihoala, emakume batek esan ziona gogoratzen du: "Joakina, ba al dakin zer falta zanen?... Ogia erretzen ez haut, ba, nik askotan ikusi!". Ordurako, eltzekoak prestatzen ikasia zegoen. Estutasunean, lanak egiten "ederki" saiatu behar izaten dela dio.

71. Etxeko zereginak; emakumeak gehiago (TOL-002/033)

Baserriko lanetan, emakumeak lan gehiago egin behar izaten zuen. Gizonak, baserrian, kanpoko lanetan aritzen ziren: basoko lana, sorokoa... Emakumeak, berriz, etxeko lanez gain soroan ere aritzen ziren.

72. Osabaren egarriarekin zer egin? (TOL-003/009)

Osaba batek likidoak ezin zituen bota. Hari urik ez emateko gomendatzen zuten medikuek, nahiz eta hark ura eskatu besterik ez zuen egiten. Azkenean ura eman zioten.

73. Argindarrik eta urik ez zenean etxean (TOL-003/010)

Lehen ez zegoen argirik eta urik beraien etxean. Kinkean petrolioia sartzen zuten eta harekin moldatzen ziren. Lasto-argia ere erabiltzen zuten kanpoan argia izateko; argi ederra egiten zuen hark, su handia izaten baitzuen. Lehen ilargiaren argia aprobetxatzen zuten ahal zutenetan.

74. Estraperloan asko ibilitakoa (TOL-003/011)

Estraperloan asko ibilitakoa da Antonio. Zer bidetatik ibiltzen zen aipatzen du. Nafarroan garia ehotzea libre zen, baina Gipuzkoan ez.

75. Estraperloan abere sendoa behar (TOL-003/013)

Estraperloan asto koskor batekin ibiltzen zen. Abere sendoa eta indartsua behar izaten zuen, baina astoarekin konformatu behar izan zuen. Konformismoari buruzko gogoeta egiten du.

76. Estraperloan zebilela mandoa etzan zenekoa (TOL-003/014)

Behin bi abererekin zetorrela Atalluko errostatik, mandoa etzan egin zen. Laguntza eske joan zen orduan, baina bere kabuz moldatu behar izan zuen azkenean.

77. Estraperloan guardia zibilek harrapatu zutenekoa (TOL-003/015)

Behin estraperloan zebilela, guardia zibilek harrapatu zituzten; azkenean, mikeleteen laguntzaz, tratua egin zuten guardia zibilekin eta diru truk pasatzen utzi zituzten.

78. Mikeleteen funtzioa eta guardia zibilekin egindako tratua (TOL-003/016)

Mikeleteek ez zuten irinaren kontra ezer egiten, alkoholaren kontra baizik. Guardia zibilek behin harrapatu zituztenean, diru truk utzi zituzten pasatzen. Zergatik utziko ote zituzten hausnartzen du Antoniok.

79. Gerraostea gogorra, baina beraien baserrian goserik ez (TOL-003/018)

Umetan gerraostea bizi zuen, baina ez zuten goserik izan, baserrian izaten baitzuten janaria. Baserriko bizimodua gogorra zen.

80. Hitzaren balioa (TOL-003/021)

Lehen tratuak hitzez egiten ziren; hitza mantentzen ez bazen, faltsutzat hartzen zen pertsona hura eta inork ez zuen nahi izaten harekin traturik egin. Lehen auzolanean egin ohi zituzten lan ugari.

81. Auzolanetako janari berezia (TOL-003/022)

Auzolanean zer lan mota egiten zituzten aipatzen du. Normalean familiartekoen artean egiten zituzten auzolanak. Auzolanak egitean, janari berezia ateratzen zuten. Janari hari buruz hitz egiten du.

82. Janaria kontserbatzeko moduak (TOL-003/023)

Lehen janaria nola kontserbatzen zuten azaltzen du.

83. Labeko ogia egiteko prozesua (TOL-003/025)

Lehen baserri guztietan zegoen labea ogia egiteko. Labeko ogia nola egiten den azaltzen du Antoniok. Labeak nola funtzionatzen duen azaltzen du.

84. Altoketan jolasean (TOL-003/028)

Altoketan ibiltzen ziren jolasean umetan; nola jolasten zuten azaltzen du.

85. Kongregazioak zuen eragina (TOL-003/031)

Luistarren, Jesusen Bihotzaren eta San Frantziskoren kongregazioan egon izan da Antonio. Kongregazio haietan zer egiten zuten azaltzen du. Dantza lotua ezin zenean egin, baziren batzuk dantza lotua nork egin zuen salatzen aritzen zirenak. Jendeak beldurra izaten zuen kongregaziotik bidaliko zituztelakoan.

86. Lehengo musika-estiloak (TOL-003/033)

Lehengo musika-estiloak buruz hitz egiten du: fandangoa, trikitixa, soinu handia...

87. Neska-laguntzeko laguntza (TOL-003/036)

Herrian soinua izaten zen jai arratsaldetan eta hara joaten ziren. Iluntzean, neska-laguntzea izaten zen. Behin lagun batek laguntza eskatu zion neska-laguntzarako eta orduko komeriak kontatzen ditu.

88. Mutikotako lanak (TOL-003/038)

16 urte zituela, mailu-mutil joan zen. Han izaten zituen lanak eta zereginak aipatzen ditu. Belarra jaisteko, kablea erabiltzen zuten.

89. Mutil iharra baina bizia (TOL-003/039)

2 urtez aritu zen Antonio mailu-mutil. Garai hartan oso iharra zen, baina bizitasun handikoa. Azkenean, beste leku batera joan zen lanera, baldintza hobeak ematen baitzizkioten han.

90. Etxeen egitura lehen (TOL-003/041)

Lehen etxeak egiteko egur asko erabiltzen zen. Egiturak nola eraikitzen ziren azaltzen du. Tabikeak zumitzez egin izan ditu Antoniok. Karea pareta zuritzeko erabiltzen zuten.

91. Fedea izan nahi eta ezin (TOL-003/044)

Antonioren ustez, ez dago ez zerurik ez infernurik. Gizakiaren funtsari buruzko gogoeta egiten du. Fedea izan nahi duen arren, ezin du lortu.

92. Apaizaren esanak ezin sinetsi (TOL-003/046)

Garai batean, apaizak infernuari buruz ematen zuen azalpena kontatzen du. Pulpitutik sermoia botatzen zuenean, batzuek negar egiten zuten; baina Antoniok ez du sinesten gogoeta asko eta sakonak egin ostean.

93. Soldaduska Ceutan (TOL-003/049)

Afrikan egin zuen soldaduska, Ceutan. Han jasotako kolpeari buruz hitz egiten du: medikuari dirua eman zion zauria sendatzeagatik eta itzuli egin zioten gerora.

94. Soldadutzan baimena lortzeko komeriak (TOL-003/050)

Ceutan egin zuen soldadutza eta gurdizain ibili zen sei hilabetez. Behin baimena lortu zuen eta beste mutil bati esan zion garaia baino lehenago; orduko komeriak kontatzen ditu.

95. Aztiei zieten beldurra (TOL-003/054)

Aztiei beldurra zien lehen, eta gaztetan izandako anekdota kontatzen du.

96. Gerra hasierako oroitzapenak (TOL-004/005)

Gerra hasiera oroitzapenak gogoan ditu: Bedaio inguruko gazteak kartzelara eramane zituzten. Tiroketak egon ziren.

97. Mikeleteekin borroka egin zuen mutila (TOL-004/009)

Behin, estraperloan zebiltzan batzuk harrapatu zituzten mikeleteek. Orduan, borrokan hasi ziren. Estraperlistak ihes egin zuen, baina mikeleteak haren bila joan ziren herrira.

98. Oilo espero ez zuten lekuan (TOL-004/016)

Behin, aitarekin gurdia bete belar zetozen. Halako batean, oilo bat ikusi, eta beraiena zela konturatu ziren. Orduko anekdota kontatzen du.

99. Karobien funtzionamendua (TOL-004/021)

Karobiaren funtzionamendua azaltzen du.

100. Kare mota bat helburuaren arabera (TOL-004/022)

Lehen, karea sororako erabiltzen zuten, lurrarentzat ona omen zen-eta; lurra harrotu egiten zuen. Beraiek egiten zuten kareak ez zuen balio izaten etxekeo paretak margotzeko. Beste era bateko karea egoten zen horretarako.

101. Karobiko sua zaintzen (TOL-004/023)

Karea egiteko, 8 egun behar izaten ziren. Gau eta egun aritzen ziren egurra sartu eta sartu. Karobiko sua zaintzeko, nola moldatzen ziren aipatzen du.

102. Auzolanean, elkarri laguntzen zioten lehen (TOL-004/024)

Lehen, auzolana asko egiten zen. Elkarri laguntzen zioten beharra zeukatenean: soroan, garia eta artoa ebakitzeko izaten zen, besteak beste. Auzolanean, otordua ematen zitzaaien laguntzen aritu zirenei.

103. Txikitako kontuak (TOL-006/002)

18 urtera arte baserrian egin dute lana biek. Dotrina bakarrik ikasi zuen, eta eskolara oso gutxi joaten zen. Bedaion, ez zen erdaraz hitz egiten; eskolan, euskaraz ikasten zuten.

104. Kakorratz-lanak egiten ikastera (TOL-006/003)

Galtzerdiak, parpailak, kakorratz-lanean... egiten ikastera auzoko etxe batera bidaltzen zuen amak tarteka.

105. Neskame eta sukaldari ibilia (TOL-006/006)

Hainbat tokitan neskame eta sukaldari ibilia da. Tolosako 'Erbiya'-n, Gorrigi eta Pikua baserrietan, Alegiako 'Errota'-n... lanean ibilia da.

106. Sukaldeko lana (TOL-006/008)

Sukaldari lanetan ibilia da hainbat tokitan: Tolosan, Alegian... Zer janari prestatzen zuten kontatzen du: hegaztiak, arraina, zopa... Askotan, jeneroa Donostiatik ekartzen omen zuten.

107. "Lixua", arropak garbitzeko (TOL-006/009)

18 urtera arte baserrian egon zen. Txiki-txikitatik egiten zituen baserriko lanak. Ogiak erretzen zituen. Arropak nola garbitzen ziren kontatzen du. "Lixua" nola egiten zen kontatzen du.

108. Arropa tindatu, dolu-aldiaren seinale (TOL-006/010)

Etxeko norbait hiltzen zenean, arropak tindategira eramaten ziren tindatzera (beltzez tindatzen ziren). Gero, arropa horrek lan handia ematen zuen; izan ere, pixka bat bustiz gero tinda botatzen zuen, eta azpiko arropa izorratzen zen. Arropak kotoizkoak izaten ziren, eta kosta egiten zen hura garbitzea. Arropak lisatzeko lisaburdina erabiltzen zen. Lisaburdina txingarrez betetzen zuten berotasuna izan zezan.

109. Urtebeteko dolu-aldia (TOL-006/011)

Dolu-aldia urtebetekoa izaten zen. Dolu-arropak, janzen ez baziren, jendea gaizki-esaka aritzen omen zen. Dolu-aldian, zer ohitura zeuden kontatzen du; elizan saski txiki bat jarri behar izaten zen zapi beltz batekin gainean eta kandelaz inguratuta. Norbait hil eta bederatzi egunera, meza eta bazkaria egin ohi zuten hildakoaren senideek.

110. Etxean egindako galtzerdiak (TOL-006/016)

Galtzerdiak etxean egiten zituzten. Aitonak artilearekin haria egin ohi zuen. Gero, ari hori txaratiletan biltzen zen. Lakarrak izan arren, galtzerdi beroak izan ohi ziren.

111. Dotrinako kontuak (TOL-006/019)

Komunio txikia eta handia egin zituzten. Dotrinan zer liburu erabiltzen zituzten aipatzen dute. Lezioa ondo esaten ez zuenari apaizak atximurka egin edo kaskarrekoa jotzen zion.

112. Neguan, lasta-balak piztuta mezara (TOL-006/021)

Bideak oso onak izan ez arren, elurte garaian ere mezara joan ohi ziren igandetan. Lasta-balak piztuta joan ohi ziren goizean goiz, ilunpetan. Behin Bedaia iristen zirenean, oinetakoak aldatzen zituzten bizilagun baten etxean.

113. Igandetako meza (TOL-006/024)

Bedaion, bi meza izan ohi ziren igandetan. Baraurik joan behar izaten zen mezara. Meza ondorenerako, tabernako andreak salda prest izaten zuen.

114. Kinkea eta farola, argia egiteko (TOL-006/026)

Etxean ez zuten argindarrik. Karburoa, petrolioa eta kandelak erabiltzen zituzten argia egiteko. Etxean, kinkea; biderako, farola erabiltzen zituzten. Bedaioko eliza ba omen da farola.

115. Burukotea eta perra, ura garraiatzeko (TOL-006/027)

Iturrik hartu behar izaten zuten ura. Ganaduak iturrira eramaten zituzten ura edateko. Ura garraiatzeko, burukotea eta, haren gainean, urez beteriko "perra" jarrita ibili ohi zen jendea. Auzoko emakume batek ontzia bete ur buru gainean nola eramaten zuen gogoratzen dute.

116. Jolasak eta erromeriak (TOL-006/028)

Umetako jolasak: "airesaltoan", pilotan... ibiltzen ziren. Inguruko auzoetako erromeriak aipatzen ditu: Askarate, Ugarte, Larraitz.

117. Gramofono jarri eta dantzan (TOL-006/029)

Bezperen ondoren, dantza egiteko apaizak gramofonoa jarri zienekoa kontatzen du.

118. Gerrako oroitzapenak (TOL-006/032)

Gerrako oroitzapenak kontatzen ditu. Gogoan du hegazkinak nola pasatzen ziren. Etxean, laborea, txerriak eta potajea izaten zen, baina kalean gosete handia izan zen. Nafarroatik kontrabandoan irina ekartzen zen.

119. Kontrabando kontuak (TOL-006/035)

Gerra denboran, beldurra zegoen. Nafarroa eta Gipuzkoa arteko mugan, kontrabando handia izaten zen. Baserrian, simaurraren azpian, janariz betetako zakuak gordetzen zituzten. Bedaiotik Donostiarako bidea egiten omen zuten kontrabandoan. Auzoko errota bat itxi egin zuten.

120. Atallura irin bila (TOL-006/036)

Artoa zuten garaian, auzoko errota itxita zeudenez, Atallura (Nafarroa) joaten ziren irina lortzeko. Alegia, Amezketa... inguruko jendea asko joaten zen Nafarroara jana lortuko bazen.

121. Etxeko ogia (TOL-006/038)

Etxean ogia nola egiten zuen kontatzen dute. Orantza gordetzen zuten, hurrengo astean berriz ere ogia egiteko. Ogia egiteko kutxari, "erromari" (ore-mahai) esaten zitzaion. Orantza irinetan eta ur epeletan urtu ondoren, masa egiten zen. Gero, maindire zuri batekin estalita uzten zuten masa. Labea berotu eta masa arrotzen zenean, opilak egin eta labean sartzen ziren.

122. Ogia, ore-mahaian egina (TOL-006/040)

Ogia egiteko kutxa, "erromaria" (ore-mahaia), nolakoa izan zen kontatzen dute. Oholekin egindakoak izaten ziren, eta tapa izaten zuten. Masa hobea egiteko, hankak ondo garbitu eta zapaldu egiten zuten. Gero, masa maindire zuri batean txukun-txukun biltzen zen. Taloa egiteko ur beroa behar izaten dela diote.

123. Labea: ogia egiteko, artoa lehortzeko eta ezkutatzeko (TOL-006/041)

Ogia egiteko labea nola prestatzen zuten kontatzen dute. Behin ogia egindakoan, arto hezea sartzen zuten labean ihartu bitartean. "Gordeketan" aritzen zirenean, labean ere ezkutatzen omen ziren.

124. Gazta nola egiten den (TOL-006/043)

Gazta nola egiten den azaltzen du. Ardiak jetzi ondoren, esnea iragazkian pasatu behar da. Beste ontzi batean, "arkumearen gatzeria" beratu behar da uretan. Gero, ur hori iragazkian pasata ondo nahastu behar izaten da; hortik sortzen den masa egurrezko ontzietan jartzen da. Denbora bat utzi behar izaten da gazta lehortzeko. Bukatzeko, suaren kearekin kolorea ematen zaio.

125. Aita eta lau ume etxean (TOL-007/002)

Baserriko bizimoduari buruz hitz egiten du. Maria Doloresen ama anaia gazteenak sei hilabete zituela hil zen. Aita lau umerekin geratu zen. Maria Doloresek etxeko lanak egin behar izaten zituen.

126. Irakurtzen eta idazten etxean ikasitakoa (TOL-007/003)

Eskolako kontuak. Eskolara joaterako, aita irakatsi omen zien irakurtzen eta idazten. 6 urterekin joaten zen Eskolara.

127. Errotako kontuak, aitari entzunak (TOL-007/005)

Baserrian, errotarekin lan handia izaten zuten. Aitari entzun izan dizkio gerra aurreko kontuak: errota itxita eduki beharra, aita errota azpian gordetzen zen...

128. Errotako telefonoa eta estraperloa (TOL-007/006)

Gerra ondoreneko kontuak. Herriko bi telefonoetako bat errotan bertan zegoen. Bedaioko jendeak estraperloan ekartzen zituen jakiak Nafarroatik. Telefonoz abisuak jasotzen zituzten guardiak noiz pasatzen ziren jakiteko. Ukuiluan ezkutatu ohi zuten estraperloko jeneroa... Guardiek miaketak egiten zituzten baserrian inor falta ote zen jakiteko.

129. Errotak itxi eta artoa entregatu behar (TOL-007/007)

Artoa sorotik biltzeko garaia iristen zenean, errotak ixten zituzten. Baserri bakoitzak arto uztatik hainbesteko bat entregatu behar izaten zuen; errotan pisatzen ziren arto-zakuak. Errotako ataria zakuz beteta egoten omen zen.

130. "Goseak ez du barkatzen..." (TOL-007/009)

Errota ixten zutenean, ez zen jatekorik izaten. Errota nola prezintatzen zuten kontatzen du. Maria Doloresen aitak gauean ehotzen zuen artoa, prezintua kenduta. Jendea gauez joaten zen errotara.

131. Abarka jarrita, errotaren hotsa leuntzeko (TOL-007/010)

Errota prezintatuta egongatik, Maria Doloresen aitak gauetan prezintua kendu eta errota martxan jartzen zuen. Errotak talaka hotsik ez ateratzeko abarka jartzen omen zion.

132. Guardiak errota zaintzen (TOL-007/011)

Maria Doloresen aitak gauetan prezintua kendu eta errota martxan jartzen zuen. Guardiak zaintzen ibiltzen omen ziren. Gau askotan, guardiak aita jaikiarazten omen zuen errotan ari ote zen kontrolatzeko. Guardia zibila etxera joaten zitzairenean, jaten eman behar izaten zien.

133. Telefonoz jaso estraperloarako abisua (TOL-007/013)

Errota ondoko borda batean gordetzen zituen jendeak Nafarroatik estraperloan ekarritako gari-irin zakuak. Alegiatik telefonoz deitzen zuten errotara; handik jasotzen zuten estraperlorako abisua.

134. Kartila, ehotakoa apuntatzeko (TOL-007/014)

Garia entregatu egin behar izaten zen. Baserritar bakoitzak hainbesteko bat ehotzeko baimena izaten zuen. Errotara joaten zirenean, kartila eraman behar izaten zen, eta errotariak bertan idatzi behar izaten zuen zenbat eho zen. Hilaren azkenean, errotariak ehotako guztiaren kontua entregatu behar izaten zuen. Ehotako proportzioaren arabera hainbesteko bat ordaindu behar izaten zuen Maria Doloresen aitak.

135. Babarruna entregatu beharra (TOL-007/015)

Babarrunarekin jendea gaizki ibiltzen omen zen. Babarrun gutxi izaten zen, eta asko entregatu behar gobernuari. Bata besteari eskatuz osatzen zuten entregatu beharrekoa: gaur egungo prezioa baino gehiago ordaintzen omen zen eskatutako babarruna.

136. Bizikletak errotan utzi (TOL-007/016)

Lehen, ez zen errepiderik sagardotegitik gora. Oinez ibili ohi zen jendea. Errotan, gela batean uzten zituen jendeak bizikletak, motorrak... Goizean goiz, lanera joateko joan ohi zen jendea bizikleta bila... Maria Doloresen aitak irekitzen zien atea; gero, ohera joaten omen zen.

137. Errazionamendua eta entregatutako uzta (TOL-007/021)

Gerra ondoreneko errazionamenduaz hitz egiten du. Ogi beltza ematen zien. Entregatzen zen garia, artoa... itsasora botatzen zutela esaten zela dio.

138. Errotako lana eta bizimodua (TOL-007/022)

Baserriko bizimodua. Errotako gorabeherekin hazi zen Maria Dolores: errotako lanak, kontrabandoa, gauetan jaiki beharra... Uda partean, ur gutxi izaten zen... errota itxi-ireki ibiltzen ziren. Errotariarentzat gogorra izaten zen beharrean zegoenari ezetz esatea.

139. Guardi zibilak belarretan ezkutatuta (TOL-007/023)

Guardia zibilak errota eta inguruak zaintzen aritzen ziren. Automobilean ibili ohi ziren, eta, argiei esker, urrutitik ikusten zituzten. Bordako belarretan gordeta egon ohi ziren, errota aurreko pasoa zaintzen.

140. Aitaren aldeko familia (TOL-007/026)

Maria Doloresen aitak erdaraz hitz egiten zekien. Aitaren aldeko familiari buruz hitz egiten du. Amona langilea omen zen, bederatzi seme-alaba izan zituen (zazpi mutil eta bi neska), Alegiako bi ume ere hazi omen zituen...

141. Birraitona ere errotaria (TOL-007/027)

Maria Doloresen birraitona ere errotaria zen. Ez dakite errota noiz sortu zen. Aurrena, errota baino lehen txabola izango zela uste dute. Turtukiak gero egindakoak direla dio.

142. Errota, zatiak eta funtzionamendua (TOL-007/028)

Errotako zatiak izendatzen ditu. Errotak nola funtzionatzen duen azaltzen du. Errota gau eta egun egoten zen martxan; bi errotari aritzen ziren lanean (Maria Doloresen aita bat). Askak irinez beteta egoten ziren...

143. Laka, errotariaren ordaina (TOL-007/029)

Errotako kontuak. Irinaren hainbesteko bat errotariei eman behar izaten zitzairen lanaren ordain gisa; "laka" deitzen zitzaion. 20 kilotik 2 kilo errotariarentzat izaten ziren. Aita kontuak ateratzen ona zen.

144. Esnea, baserriko diru-iturria (TOL-007/032)

Baserri eta errotako bizimodua du hizpide. Baserrian, "esnea da hoberena; hilaren azkenean diru berria ematen duena".

145. Gari lanak (TOL-007/034)

Gari lanak nola izaten ziren azaltzen du.

146. Ogia egitea (TOL-007/035)

Ogia nola egiten den azaltzen du.

147. Jatekoa (TOL-007/038)

Gerra ondorenean, zer jaten zuten azaltzen du. Potajea, ogia, txerrikoa, oilaskoa, arrautza, arkumea... etxeko jakia izaten ziren. Jateko sano eta naturala zela dio.

148. Medikua eta sendabelarrak (TOL-007/040)

Alegiako medikua joaten zen Bedaiora. Hara joaten zenean, errotan janzen zituen botak eta zamarra, eta mandoarekin joaten zitzaizkion bila. Lehen, etxean prestatzen zituzten sendabelar eta enplastuak. Auzoko emakume batek sendabelar kontuetan asko zekiela dio.

149. 'Karmengoa' (TOL-007/041)

Gaixotasunak. 'Karmengoa' atera zitzaion eskuan, lodo, zainberria eta pasmo-belar

150. Perrexila, libratzeko (TOL-007/045)

Erremedioak. Umeak libratu ezinean zeudean, ipurditik perrexila sartu ohi zitzairen. Eztularentzat onak tipula eta baratxuria... Bainuak, enplastoak... aipatzen ditu.

151. Balore batzuk galdu dira (TOL-007/051)

Lehenengo eta oraingo bizimodua alderatzen ditu. Balore batzuk galdu egin direla dio. Lehen, elkar gehiago laguntzen zuten; gaur egun, bakoitzak berea egiten du eta kito.

152. Gazta egitea (TOL-008/008)

Gazta egitea. Lehen gazta nola egiten zuten kontatzen du.

153. Gatzura kentzea (TOL-008/009)

Gazta egitea. Gazta ontzeko, gatzura kendu behar izaten zaio. Gatzurak, denborarekin, gazta mintzen du. Garrantzitsua da prentsa toki epelean egotea; hotzarekin gatzura ez da behar bezala ateratzen.

154. Anai-arrebak zain eta baserrian lagundu (TOL-008/012)

Karlos bederatzi senidetan zaharrena da. Umetatik anai-arrebak zaintzeko ardura izan du. Umetan, baserrian zer lan egiten zituen kontatzen du.

155. Etxeko lan-banaketa (TOL-008/013)

Baserriko bizimodua. Gizon eta emakumeek arteko lan banaketak, ezberdintasunak... ditu hizpide. Lehenengo eta oraingo bizimodua alderatzen ditu.

156. Neska-mutiletan etxean lagundu behar (TOL-008/014)

Baserriko bizimodua. Gurasoek seme-alabekin nolako tratua zuten azaltzen du. Gazte garaian, lan berdintsuetan aritzen omen ziren neska zein mutil.

157. Igandetan, zazpietako mezara (TOL-008/017)

Igandetan, zazpietako mezara joan ohi ziren. Inguruko baserrietako umeak elkarrekin joaten ziren.

158. Garia (TOL-008/018)

Garia igitaiaarekin eta segarekin nola mozten zen kontatzen du. Gari nola jotzen zen eta sortak nola lotzen ziren azaltzen du.

159. Lasta-balak, bidea argitzeko (TOL-008/019)

Mezara zihoazenean, lasta-balak erabiltzen zituzten bidea argitzeko. Auzoko 'Jazku' baserrikoekin joaten ziren igandetan zazpietako mezara.

160. Auzoko tabernak (TOL-008/020)

Bedaio auzoari buruz hitz egiten du. Mezara joan aurretik, tabernan aldatu ohi zituzten oinetakoak. Meza ondoren, Bedaio Bitarteko tabernan egiten zen "gosari txikia". Auzoan beste aldekoak, berriz, "Valentinaneko tabernan" biltzen ziren.

161. Igandetan lana egiteko apaizaren baimena behar (TOL-008/022)

Igandetan ez zen lanik egiten. Igandetan baserrian lana egiteko, apaizari eskatu behar izaten zitzaion baimena.

162. Dantza eskatzeko lotsa (TOL-008/024)

Gaztetako ibilerak ditu hizpide. Auzoko erromerian, "sueltoan" aritzen ziren. Neskei dantza eskatzeko lotsak... Auzo alkatea aritzen omen zen erromeria zaintzen, agindutako orduan buka zedin.

163. Bedaioko apaizari boikota (TOL-008/025)

Bedaioko erromeriak. Apaizarekin gorabeherak izan zituzten askatasun gutxi ematen zuelako. Dantza lotuan eginez gero, kongregaziotik botako zituztela esan ohi zien gazteei. Denbora batean, apaizari boikota egiteko, gazte jendea ez zen igande goizeko mezara joan. Autobusa hartu eta Amezketara joaten ziren mezara.

164. Dantza lotua debekatuta (TOL-008/027)

Bedaioko erromeriak. Dantza lotuan eginez gero, neska zein mutil bota ohi zituzten kongregaziotik. Apaiza plazatik gertu bizi zen.

165. Erromeria, harremanetan hasteko aukera (TOL-008/029)

Auzokoen arteko harremanak. Gazte jendea nola hasten zen harremanetan. Bedaion, bi-hiru tokitan izaten zen soinujoalea, erromeria: 'Eskoletxe'-n, 'Zumizketa'-n eta sagardotegian.

166. Garai bateko ezkontzak (TOL-008/031)

Garai bateko ezkontzei buruz hitz egiten du. Etxean entzundakoak kontatzen ditu. Arreoa gurdian eramaten zen: gurdiaren ardatza lehor-lehor jartzen zen (gasa eman gabe) zarata atera eta horrela jendeak ezkontzaren berri izateko.

167. Ezkontzak eta ezkongabeak (TOL-008/033)

Lehen, gazterik ezkondu ohi zen jendea. Behin 30 urtez gero, bikoterik ez zuenari "neskazahar edo mutilzahar" esan ohi zitzaion.

168. Emakumeak eta galtzak (TOL-008/034)

Lehen, emakumeek ez zituzten galtzak janzen. Gutxi batzuk baserriko lanetarako jantzi ohi zituzten galtzak: garoa biltzera basora joan behar zutenean... Harrituta geratu ohi ziren emakumeak galtzak jantzita ikusiz gero.

169. Bedaio, bi nagusirena (TOL-008/036)

Bedaio bi nagusirena zen. Auzoaren zati bat Elosegirena zen, eta bestea, berriz, Alustizarena. Antza denez, Elosegik bere jabetzako lurretan errepidea egin zuen: eskuz, auzolanean... Bi lurren arteko muga non zegoen, eta errepidea noraino egin zen aipatzen du.

170. Birraitona eta abarkak (TOL-008/037)

Karlosek birraitonari buruzko istorio bat kontatzen du. 'Belarmuga' baserri parean lokatz handia egoten omen zen, eta Karlosen birraitona, Tolosara joateko handik pasa behar zuenez, abarkak kendu eta sorbaldan zintzilikatuta hanka-hutsik joan ohi zen. Abarkak ondatzeko beldurra zuen. Behin, hankan kristala sartu zitzaiola kontatzen du.

171. Abarkak eta mantarrak (TOL-008/038)

Abarka eta mantarrei buruz hitz egiten du. Mantarrak nola janzen ziren azaltzen du.

172. Amezketarren "bandido" fama (TOL-008/040)

Amezketarrek "bandido" fama zuten. Askarate eta Bedaioko jaietan zer gaiztakeria egiten zituzten kontatzen du.

173. Arrea, karrama eta goldea (TOL-008/042)

Baserriko lanetarako erabiltzen diren hainbat tresna aipatzen ditu: arrea, karrama, goldea... Tresnak nolakoak diren deskribatzen du.

174. Gaztetako ibilerak, gaiztakeriak... (TOL-008/043)

Bedaio inguruko festetan, gazte ugari biltzen zen. Amezketako gazteek zer gaiztakeria egiten zituzten kontatzen du: lan-tresnak zuhaitzetan ezkutatu...

175. Astakumea etxe barrura sartu (TOL-008/046)

Bedaioko gazte batzuek egindako gaiztakeriak kontatzen ditu. Neska-laguntza egin ondoren, astakumea auzoko baserri baten barrura sartu zutenekoa kontatzen du.

176. Arroz-esnea leihotik ostu (TOL-008/047)

Amezketarrek Bedaion egindako gaiztakeriak ditu hizpide. 'Bedaio Barrena' baserrian, leihoan hozten utzita zeukaten arroz-esnea. Gogoratu zirenenerako, falta zen egun horretako postrea.

177. Belar-metak errepidera bota (TOL-008/048)

Amezketarrek Bedaion egindako gaiztakeriak ditu hizpide. Bedaiona joandakoan, belar-metak errepidera bota zituztenekoa kontatzen du.

178. Behi begi bakarra... (TOL-008/052)

Auzoko gizon bati buruz hitz egiten du. Gizon hark ez zuen ondo hitz egiten, baina bertakoek ondo ulertzen zioten. Auzoko horrek hernaniar batzuekin egindako tratu bati buruzko pasadizoa kontatzen du.

179. Bidelapurra ote? (TOL-008/053)

Auzoko gizon bati buruz hitz egiten du. Gizon hark ez zuen ondo hitz egiten, baina bertakoek ondo ulertzen zioten. Gizon hori txekorra saltzetik Bedaiona bueltan zihoala bidelapur bat atzetik zuelakoan izandako gorabeherak kontatzen ditu.

180. Lapurretak baserrian (TOL-008/054)

Baserrian, lapurretak izaten ziren. Auzoan izandako lapurreta batzuk ditu hizpide.

181. Auzoan bi telefono (TOL-008/055)

Bedaion, auzoko bi etxetan zegoen telefonoa. Etxe horietakoek lan handia izaten zuten telefonoko abisuak etxez etxe ematen. Albaitariarekin hitz egiten erabili ohi zuten telefonoa gehien.

182. Aurreko telebistak Bedaion (TOL-008/057)

Bedaion, aurreneko telebista Zumizketan edo sagardotegian jarri zutela kontatzen du.

183. Joan Antonio Sarasola eta telebista (TOL-008/059)

Joan Antonio Sarasola txistulariari buruz hitz egiten du; "tximista madarika!" esateko ohitura omen zuen. Lehen, auzokoak 'Zumizketa'-n biltzen ziren pilota partida telebistaz ikusteko. Sarasolak galdetzen omen zuen telebistaz bestaldekoek bera ikusten al zuten?

184. Argindarra aurrenekoz (TOL-008/060)

Gogoan du argindarra noiz jarri zuten etxean: Amezketatik jarri zuten. Auzoko etxe batean, aurrenezko argia piztu zuteneko pasadizoa kontatzen du.

185. Argindarrarekin izandako istripua (TOL-008/063)

Argindarrarekin izandako ezbeharra Bedaion. Karlos umea zela, mutil batek istripua izan zuen argi-postean lanean zebilela. Mutil hura nola salbatu zuten kontatzen du.

186. Apaizaren boterea (TOL-008/065)

Apaizak botere handia zuen Bedaion, eta beldurra omen zitzaion. Mezara berandu iritsiz gero, zigorrak edo auzolanak ezartzen omen zituen.

187. Pazkoazkoa (TOL-008/067)

Elizaren indarra du hizpide. Apaizak herriko jende guztia kontrolatzen omen zuen. Pazkoazkoa egiteko txartelak eskuratzeko, apaizak dotrina galdetzen zuen. Karlosi behin ez omen zion txartelik eman.

188. "Zenbat Jainko dira munduan? Bi, nire jauna" (TOL-008/068)

Elizaren indarra du hizpide. Pazkoazkoa egiteko txartelak eskuratzeko, apaizak dotrina galdetzen zuen. Auzoko gizon bati buruzko pasadizoa kontatzen du.

189. "Nolako gurasoa, halako semea" (TOL-008/070)

Garizumako sermoiak oso luzeak izaten omen ziren. Behinola, fraidea "nolako gurasoa, halako semea" aritu zen sermoian esan eta esan. Elizatik ateratakoan, auzoko gizon batek egindako ateraldia kontatzen du: "Hala Jainkoa! Gezur ederra esan dik! Nire aita ez huen ni bezalakoa!".

190. Neska-mutilak artazuriketan (TOL-008/072)

Neska-mutil garaiko kontuak. Baserrietan, artazuriketan gustura aritzen ziren gazteak; ilunpean, "xirriak egiten...".

191. Gauean, neskak bisitatzeraz joandakoak (TOL-008/074)

Gaztetako ibilerak. Bedaion ezaguna den pasadizo bat kontatzen du: joan dira bi mutil gazte gauen baserri batera bertako alabak bisitatu asmoz, eskailera bat erabili dute haien logelara sartzeko...

192. Sorgin kontuak (TOL-008/075)

Sorgin kontuak ditu hizpide. Hainbat auzokide sorgintzan aritzen omen ziren; maindirearekin goitik behera estali eta bidean ateratzen omen zitzairen gaueko ibiltariei.

193. Eskopetak agertzean, sorginak bukatu (TOL-008/077)

Sorgin kontuak ditu hizpide. Lehen, jendeak beldurra zuten sorginei, baina denborarekin eskopetekin ibiltzen hasi zen jendea. Orduan, sorginak desagertzen joan omen ziren.

194. Sorginak, "ez direla, baino badirela" (TOL-008/078)

Sorgin kontuak ditu hizpide. Bedaion, sorginei buruzko esaera bat dute: sorginak, "ez direla, baino badirela".

195. Apaiz ehiztaria (TOL-008/081)

Bedaioako apaiz ehiztariari buruzko pasadizoa.

196. Bedaioko 'Ingurutxoa' (TOL-008/083)

'Ingurutxoa' dantzari buruz hitz egiten du. Joan Antonio Sarasola txistulariaren omenaldirako ikasi omen zuen dantza hori. Denbora batez, galduta egon zen dantza hori egiteko ohitura Bedaion, baina Karlosen gazte garaian berreskuratu zen.

197. 'Txano gorritxo' antzeztutakoa (TOL-008/085)

Eskola garaiko kontuak. Maistra batekin Txano gorritxo antzezlanak prestatu zuten eskolan. Gero, plazan antzeztu zuten. Antzezlanak euskaraz egin zuten. Karlosek otsoarena egin omen zuten.

198. Harri festaren jatorria eta zahagi-ardoa (TOL-008/086)

Harri festaren jatorriari buruz hitz egiten du. Harri festaren egunean egin omen zuten 'Txano gorritxo' antzerkia umeak zirela. Zahagia zer den azaltzen du. Festaren hasierako urteetan, zahagi-ardoa eta ogia herriak jarri ohi zuten. Gerora, bazkaria etxetik prestatuta eramaten hasi zen jendea.

199. Harri festako jolasak (TOL-008/087)

Karlos umea zela, Harri festan zer jolas izaten ziren kontatzen du. Umeei begiak estaltzen zizkien, eta makila batekin lurrezko eltzeak hautsi behar izaten zituzten...

200. Bertsolariak festetan (TOL-008/091)

Karlos umea zela, Bedaioko festetan bertsolariak izan ohi ziren. Lazkao Txiki, Mitxelena... aipatzen ditu. Jende asko bildu izan da Bedaioko festetan.

201. Eguterako eta ospelekoen arteko "pikea" (TOL-008/093)

Auzokoen arteko harremanak. Bedaion, eguterako eta ospeleko auzokideen artean "pikea" zegoen. Festetan, aizkora apustua jokatu da ospelekoen kontra.

202. Eguterakoak eta ospelekoak (TOL-008/095)

Auzokoen arteko harremanak. Bedaion, eguterako eta ospeleko auzokideen arteko bereizketa egiten zen. Muga non zegoen aipatzen du.

203. Ramon Jauregi harri-jasotzailea (TOL-008/098)

Ramon Jauregi (Aimar Irigoienaren aitona) Bedaioko harri-jasotzaileari buruz hitz egiten du. 'Bedaio'-k egindako marka, elikadura... aipatzen ditu.

204. Gipuzkoa eta Nafarroa arteko muga (TOL-008/101)

Askaraten zegoen Gipuzkoa eta Nafarroa arteko muga. Bi etxe zeuden, eta mikeleteak egoten ziren bertan. Mikeleteek txapel gorria erabili ohi zuten.

205. Baserriko lanetik bizi (TOL-010/002)

Aurrena, segarekin aritzen zen garia ebakitzen; gero, igitaiarekin. Auzoan, 'Zumizketa' baserrian zegoen gari-jotzeko makina. Baserriko lanetik bizi zen jendea. Etxetik kanpora 22 egun egin zituen lana, soilik: mandazain.

206. Auzoko mutilei merienda, gerra joan aurretik (TOL-010/004)

Gerra ondorenari buruz hitz egiten du: "oso gogorra zen". Juanen aitak auzoko mutilei merienda eman ohi zien gerrara joan aurretik.

207. Atallura irin bila, bederatzi urterekin (TOL-010/005)

Gerra ondorenean, Bedaio inguruko errota itxita zeudenez, aitarekin Atallura (Nafarroa) joaten zen irin bila Azkaratetik barrena. Atallun amaren lehengusu batzuk bizi ziren. Bederatzi urte zituen orduan, eta bi asto eta mandoarekin pasatako ibilerak kontatzen ditu: aita aurretik joan zen bidea zaindu eta "zibilek" ez harrapatzeko; Juani agindu zion bi txistu ilaran adituz gero, "sanmigel labana"-rekin abereei soka moztu eta Lizartza aldera jotzeko. 100 kiloko irin zakua 1.100 pezeta ordaintzen zen; 100 kiloko bi zaku ekarri zituzten. Kontrabando asko izaten zen, eta bideak ez ziren oso onak izaten.

208. Kontrabandoa: zortzi urterekin auzoko errota batera (TOL-010/006)

Gerra ondorenean, ogi falta handia izan zen. Gipuzkoako errota itxita egoten ziren. Juanen aita ez zen "ausartzen" kontrabandoan ibiltzen. Juanek zortzi urte zituela, auzoko errota batera joaten zeneko bizipenak kontatzen ditu. Goizeko laueterako joaten zen hara; guardia zibilek ez harrapatzeko. Etxera itzultzen zenerako aita zain izaten zuen sukaldean, sua eta kafea prest zituela. Kontrabando garai hura "estu samarra" zen.

209. Aitari buruzko oroitzapenak (TOL-010/007)

Juanen aita ez zen kontrabandista, baina bizkorra eta langilea bai "gorri-gorria zen gainera!". Aita "ona zen oso, umeentzako, lanerako...". Juanek 11 urte zituen aita hil zenean: garo-meta bat egiten ari zela erorita hil zen.

210. Belar-zuloak egindakoa (TOL-010/010)

Belarra kontserbatzeko belar-zuloak egindakoa da. Ezkon berritan egin zituen.

211. Maizterrak ziren (TOL-010/011)

Maizterrak ziren. Errenta hiru zatitan ordaintzen zen: artoa, garia eta 3.000 pezeta errenta ordaintzen zituzten.

212. Mandazain ibilitakoa (TOL-010/014)

Bedaion denak elkar ezagutzen dute. Etxetik kanpora lanean 22 egun egin ditu soilik, eta, egun horietan, Bedaion ibili zen mandazain. Mandazain lanari buruz hitz egiten du. Gustura aritu zen lan horretan, baina amak etxean lan egiteko eskatu zion. Amarekin zuen harremanaz hitz egiten du.

213. 1956ko otsail gogorra (TOL-010/015)

1956ko otsailean, hilabete osoa egunez elurra eta gauez izotza egin zuela kontatzen du. Inguruko pinu guztiak ihartu ziren, baita arbiak ere. Ganaduarentzako jatekorik ez zen. Udara lehorra izan zen; belar gutxi bildu zuten... Apirilean, Juan soldadu joan zen, eta etxean "beldur" ziren bere falta sumatuko ote zuten.

214. Guadalupen soldadu (TOL-010/016)

Soldadutzari buruz hitz egiten du. Guadalupeko gotorlekuan egon zen soldadu. Guadalupen bi taberna ziren.

215. Jazku baserrira, ogi eskean (TOL-010/018)

Juanen aita ogi zalea zen. Jazku baserriko osabarenera bidali ohi zuen seme-alabaren bat ogi eskean. Jazku Nafarroatik gertuago egonik, errazago lortzen zuten irina. Aitak eta anaiak elkar asko maite zutela dio.

216. Aita eta, 13 senide (TOL-010/019)

Aitaren sendiari buruz hitz egiten du: 13 senide ziren, bederatzi mutil eta lau neska. Osaba bati itsasoan gertatuko ezbehar bat kontatzen du.

217. Gosetea: patata haziak harrapatzen (TOL-010/020)

Gerra ondorena gogorra izan zela dio; are gehiago kaletarrentzat. Alegiako gizon baten kontatutako pasadizo bat kontatzen du: patata egiten ari zirela, jendeak hazia nun jartzen zen zaintzen omen zuen gauean harrapatzeko. Behar handia omen zegoen.

218. Gosetea: arbia harrapatzen (TOL-010/021)

Gerra ondoreneko gosetea du hizpide. Tolosatik Anoetara sorotik arbia harrapatzen joaten zen gizon baten pasadizoa kontatzen du. Arbia egosi eta jateko harrapatzen omen zuen. Behin, baserritarrek gizona hura harrapatu eta galdegin ondoren, zera esan zion kontatzen du. Kaleko jendeak gose handi pasa zuen.

219. Zumiztainera babarrun eskean (TOL-010/022)

Gerra ondoreneko gosetea du hizpide. Zumiztain baserrira babarrun eskean joan ziren bi emakumeri buruzko pasadizoa kontatzen du.

220. Gerra Zibilean hildako bedaiotarrak (TOL-010/023)

Espainiako Gerra Zibilari buruz hitz egiten du. Gerran hildako Bedaioko zenbait mutil aipatzen ditu.

221. Mandazain aterako jornalarekin bizikleta erosi (TOL-010/025)

Soldadu joan aurretik mandazain ibili zeneko ibili zenekoa kontatzen du. 15 duro eguneko agindu zizkion, baina eguneko 20 duro eman zizkion. 22 egunengatik 2.200 pezeta eman zizkion: garai hartarako, soldata ona zen. Taberna batean jan eta erretiratzen ziren. Ateratako diruarekin bizikleta erosi zuen Tolosan.

222. 'Euliana'-ko tabernaria (TOL-010/027)

'Euliana' esaten dioten etxean, Balentina izaneko emakume bat bizi zen. Taberna eta denda zituen bertan. Meza egunetan, inguruko baserrietako jendea bertako joan ohi zen oinetakoak aldatu eta berotzera. Auzotarrei asko lagundu zien. Juanek egurra eraman izan zion.

223. Juan Antonio Sarasola soinujolea (TOL-010/029)

Auzoko soinujole bat aipatzen du: Juan Antonio Sarasola. Oso gizon alaia omen zen. Urte batean, 13 herritan jo omen zuen soinua. Sarasola Juanen emaztearen osaba zen.

224. Luistarrak eta Mariaren alabak kongregazioak (TOL-010/030)

Luistarrak eta Mariaren alabak kongregazioak aipatzen ditu. Igandetan joan ohi ziren elizara, lepoko zintak jantzita. Jende asko joan ohi zen. Orduko janzkera aipatzen du: trajea janzten zuten elizara joateko.

225. Eliz giroko ospakizunak (TOL-010/031)

Igandetan, Bedaioko jendea elizara joaten zen; bezperetara. Kongregazioari buruz hitz egiten du; urtean hainbesteko bat ordaindu behar izaten zen. Juan ez zen bezperetara joaten beti; amak ez zuen nahi izaten semeak etxetik alde egiterik.

226. Bedaioko neska-mutilak (TOL-010/032)

Mezara eta eskolara joateko auzoko umeak koadrilan joan ohi ziren. Auzoko baserri bakoitzean zenbat neska-mutil zauden aipatzen du banan-banan. Goiz mezara 20 lagun elkarrekin joan ohi ziren lasta-balak piztuta, argia egiteko. Bidea oso txarra zen.

227. Bedaiorako Donostiako gotzaina joan zenekoa (TOL-010/033)

Bedaiora Donostiako gotzaina joan zenekoa kontatzen du. Bedaiorako bideak eskasak ziren, eta gotzainak lanak izan zituen iristeko. Jendeak harrera beroa egin zion. Auzoko gabeziak ikusita, gotzainak egunkarian idatzi omen zuen "Bedaio zer miserable zegoen kamino gabe" salatzeko.

228. Bedaioko festak (TOL-010/034)

Bedaioko festak Ama Birjina Eguna (irailak 8) baino lehenago ospatzen ziren. Hiru eguneko jaia, eta hurrengo igandea "repetizioa" izaten zen. Festa-giroari buruz hitz egiten du.

229. Festetan, etxea kanpoko beteta (TOL-010/036)

Zumizketan 60 lagun baino gehiago ziren, eta, festetan, 90 eta 100 lagun inguru izaten ziren. Festetan, etxea kanpoko betetzen omen zen. Jende asko joaten zen Bedaiora, eta "sekulako festa" izaten omen zen. Sagardotegian, 'Dionisio Amezketakoa' soinu-joleak jotzen zuen.

230. San Inazioko iturria (TOL-010/039)

San Inazio iturriari buruz hitz egiten du. Juanen amonak esaten omen zuen San Inazio, eri zela, bertatik eraman zutela Iruñetik jaiotetxera bide egitean. Iturri horren inguruko lurri ere horrela esaten omen zaien: 'San Inazioko barrutia', 'San Inazioko garo tokia'...

231. Bedaioko harri jaia (TOL-010/041)

Harri jaiari buruz hitz egiten du. Jaiaren jatorria zein den azaltzen du; amagandik ikasi zuen. XIX. mendean, hiru urtetan, ostegunez, harria egin zuen, eta urte haietako uztan izugarritzko kalteak eragin zituen. Ezbeharraren aurrean, meza jarri omen zuten holakorik berriz ez errepikatzeko.

232. Taloa egiteko errezeta (TOL-011/005)

Taloea nola egiten zuten azaltzen du. Su baxua eta neska baten izeneko tresna erabiltzen zituzten hartarako.

233. Taloea jateko moduak (TOL-011/007)

Taloea onak egiteko eskuak oso garrantzitsuak ziren. Taloea esnearekin, urdaiarekin, txorizoarekin, gaztarekin... jaten zuten.

234. Gerraostean goserik ez zuten pasa (TOL-011/011)

Gerraostean ez zuten goserik pasa, ondo moldatzen baitziren zeukaten janariarekin. Igandetan janari berezia jaten saiatzen ziren: garbantzuak, paella...

235. Ur bila Goiko Iturrira (TOL-011/013)

Ur bila Goiko Iturrira joaten ziren. Ura edateko erabiltzen zuten ontziari buruz hitz egiten du eta erakutsi egiten du.

236. Lixibarekin arropa garbitzen (TOL-011/016)

Lixiba etxean egiten zuten. Arropa nola garbitzen zuten azaltzen du.

237. Haria egiteko ardatza (TOL-011/020)

Haria egiteko erabiltzen zuten ardatza erakusten du eta nola funtzionatzen zuen azaltzen du Valentinak.

238. Amonak arropak egiten zizkien (TOL-011/023)

Orduko arropak aipatzen ditu: abarkak, mantarrak, galtzerdiak... Amonak egiten zituen galtzerdiak, eta nola egiten zituen azaltzen du.

239. Ahizpen arteko lan-banaketa (TOL-011/025)

Neguan ospelak ateratzen zitzaizkien kanpoan lan egin behar izaten zutenean; ez zituzten eskularruak erabiltzen. Bazkaria prestatzea eta ura ekartzea Valentinaren lana izaten zen. Ahizpa zaharragoei tokatzen zitzaizkien kanpoko lanak.

240. Ingurutxo dantza (TOL-011/028)

Dantzan gustura ibiltzen zen Valentina; zer musika estilo dantzatzen zituen azaltzen du. Ingurutxo dantza egiten zuten eta nola izaten zen aipatzen du.

241. Gabinaren ikasten zuteneko oroitzapenak (TOL-011/040)

Eskolan Gabinarekin ibili zen. Dotrina ikasten zuten gehienbat. Mutilek eta neskek batera ikasten zuten. Komuna den bistan zegoen. Zer zigor izaten zituzten azaltzen du. Euskaraz ikasten zuten.

242. 75 urte zituela izan zuen bere ama biologikoaren berri (TOL-012/003)

Fraisoroko umea zen eta 14 urte ingururekin jakin zuen hori. Gerora, 75 urte zituela jakin zuen bere ama moja sartu zela erditu ostean; baina berak nahiago zuen hori ez jakin. Bera hartu zuen familia oso ona izan zen.

Ezkontzeko dokumentuak ateratzera joan zenean, 1.000 pezetako libreta zuela konturatu zen.

243. Gerrako arriskuaz jabetzen ez zenekoa (TOL-012/006)

Fabriketako sirenen bidez jakin zuten gerra hasi zela. Orduan ez zuen beldurrik pasa, ez baitzen arriskuaz jabetzen: ihesean zebiltzan gizon batzuei gosaria eman zien zenbait egunetan, nahiz eta pareko menditik tiroka ari ziren; azkenean, gizon haiek harrapatu eta fusilatu egin zituzten.

244. Ontze-fabrikan lanean (TOL-012/009)

Lehen Falangera joan behar zen lanean hasi nahi bazen. Bernabek urtebete eman zuen ontze-fabrikan lanean: han larruarekin zer egiten zuten aipatzen du. Handik Galdakaora eraman zuten fabrika, baina Bernabek ez zuen nahi izan hara joan eta baserrira joan zen morroi.

245. Lan egiteko Falangean izena eman behar (TOL-012/010)

Lan egiteko Falangean izena eman behar izaten zuten; eta izena ematekotan, asteen behin joan behar izaten zuten hara. Falangean zer egiten zuten aipatzen du.

246. Ordiziara morroi joan zenekoa (TOL-012/013)

Albizturren 3 urtez lan egin ostean, Tolosara etorri zen etxera. Ordizian hasi zen orduan morroi; oso familia jatorra tokatu zitzaion han eta sagarrondo asko zeukaten.

247. Estraperloko garaia (TOL-012/014)

Ordizian morroi zegoela, estraperloan txekorrak hiltzen zituzten nagusiak. Zeraindik Segurara bizkarrez eramaten zituzten txekorrak 2-3 lagunen artean.

248. Morroi zenean egiten zituen lanak (TOL-012/015)

Ordizian morroi zegoela, baserriko lanetan aritzen zen. Behiak nola jezten zituen azaltzen du; lurra ere lantzen zuen. Garia lehen egiten zuten, baina ohitura hura galdu egin zen harria egin eta gari guztia jaulki zuenean.

249. Sagarren ekoizpen handia baserrian (TOL-012/016)

Sagarra nola biltzen zuten azaltzen du: zaku handi bat lotzen zuten gorputzaren inguruan sagarrak kargatzeko, eskuz biltzen zituzten sagarrak... Sevilalara saltzen zituzten sagarrak eta Sevilatik etortzen zen kamioia haien bila: urte batean 10.000 kilo bidali zituzten. Ordizian ere saltzen zituzten sagarrak.

250. "Engomadora modernan" lanean (TOL-012/017)

Ordizian morroi egon zenean, oso gustura egon zen, etxekoa balitz bezala tratatzen zuten. Azkenean, fabrikan lanean hastea erabaki zuen eta 28 urte eman zituen Tolosako "Engomadora moderna" lantegian. Han zer lan egiten zituzten azaltzen du.

251. Neska-lagunarekin hasi zenekoa (TOL-012/020)

Neska-laguna Hernioko erromeria batean ezagutu zuen, nahiz eta auzokoa zen eta egunero igarotzen zen bere etxe paretik. Neska-lagunarekin egiten zituen

planak aipatzen ditu. Jendea harritu egin zen besotik "azkarregi" hasi zirelako heldzen.

252. Irin eta ardo bila, zortzi urterako (TOL-013/009)

Gipuzkoan errotak itxita zeuden garaian, Bedaiotik Atallura (Nafarroa) joaten ziren, Zaratetik barrena. Zortzi urterako joaten omen zen aberea hartuta irin eta ardo bila. Ardoa Uztegi edo Azkaratetik hartu ohi zuen. Eugenioren amak usaimen ona zuen, eta segituan antzematen zuen nongo ardoa zen.

253. Gauez, errotara (TOL-013/010)

Gerra ondorenean, errotak itxita zeuden. Gauez joan ohi ziren errotara; guardia zibilak guardia amaitu ondoren. Lasta-balak erabiltzen zituzten bidea argitzeko.

254. Ardoa eta mikeleteak (TOL-013/011)

Ardoa erosteagatik, mikeleteei hainbesteko bat ordaindu behar izaten zitzairen. Mikeleteek ez harrapatzeko, iluntze partean eta beste bide batetik ibili ohi zen.

255. Amezketarrak eta mikeleteak (TOL-013/012)

Amezketarren izaera du hizpide. Amezketarrek mikeleteei zer trikimailu egiten zizkien kontatzen du.

256. Txekor bila etxera (TOL-013/014)

Baserrietan, txekorrak hazi ohi ziren, saldu eta dirua ateratzeko. Norberak saldu eta diru gehiago atera baino lehen, agintariak baserriz baserri ibiltzen ziren txekor horiek diru gutxiagoren truke biltzeko. Orduko Bedaioko alkateak baserritarrek salatzen omen zituen. Betelura bidean, poliziak auzoko bi mutil txekorrarekin harrapatu zituenekoa kontatzen du.

257. Osaba atxilotu zutenekoa (TOL-013/015)

Osaba batek Bedaioko alkatearekin izandako gorabehera bat zela medio, guardia zibilek atxilotu egin zuten. Jesuita baten bitartekaritzari esker ez zitzaion ezer gertatu, bestela hura hiltzeko agindua emanda omen zegoen.

258. Apaizarekiko tratamendua eta harremana (TOL-013/018)

Apaizari, berori esaten zioten. Soroan lanean baziren, eta hura pasatzen bazen, txapela kendu behar izaten zuten. Apaiza baserrietara jauna edo azken igurtzia ematera joaten zenean, haren aurrean belauniko jarri behar izaten zen.

259. Apaizari garia eta artoa eman behar (TOL-013/020)

Apaizei buruz hitz egiten du. Auzotarrek garia eta artoa eman behar izaten zioten apaizari. Larunbat goizetan, berriz, aberea hartu eta haren enkarguak egitera joan behar izaten zuten.

260. Apaizari uztarekin ordaindu behar (TOL-013/021)

Norbait hiltzen zenean, apaizari garia eman behar izaten zitzaion. Eugenioren amona hil zen urtean, harria egin zuen, eta laborea galdu egin zuten. Uzta faltan, ehorzketa diruarekin ordaindu nahi izan zuen amak, baina apaizak

ezezkoa eman zien usadioa galtzen zelako. Gauzak horrela, Nafarroara joan behar izan zuten uzta bila.

261. Baimena eskatu gabe teilatura igotzeagatik... (TOL-013/022)

Apaizarekin zuten harremanari buruz hitz egiten du. Anaia pilotan zebilela, pilota teilatuan geratu eta baimenik gabe teilatura igotzeagatik izandako gorabehera kontatzen du.

262. Arrosarioa esateari utzi zioteneko (TOL-013/025)

Iluntzetan, arrosarioa erreztatzen zuten etxean. Egun batean, lanak luzatu zitzaizkien baserrian, eta afari mokadua egiteko gogoz etxeratu zen Eugenio eta aita. Berandu izanagatik, ama gurutze santua egiten hasi zen, eta Eugeniok gurutzea egiteari utzi eta afaria ateratzeko eskatu omen zion. Han bukatu omen zen arrosario esateko ohitura etxean.

263. Erlijioa "estu" hartzen zen etxean (TOL-013/026)

Etxean, erlijioa nola bizi zuten kontatzen du. Erlijioa "estu" hartzen zen haienean. Anai-arrebek gaztetatik nahi izaten zuten etxetik atera lanera. Tolosako Isastegieta baserrian aritu zen lanean Eugenio, "jan aldera".

264. Aste Santuak: debekuak eta sermoiak (TOL-013/027)

Aste Santuetan, zer debeku izaten ziren aipatzen du: txistua jotzea, dantza egitea, irratia piztea... Goiz eta arratsalde joaten ziren elizara. Sermoiak oso gogorak izaten ziren.

265. Apaizaren boterea (TOL-013/028)

Bedaion, apaizak alkateak baino aginte gehiago izaten zuen.

266. Auzolana (TOL-013/030)

Bedaion egindako auzolanak aipatzen ditu. Meza ondoren, bilera egiten zen zer lan, nork eta noiz egin behar zen erabakitzeko. Etxe bakoitzetik bat joan ohi zen auzolanera.

267. Eliza auzolanean berritu (TOL-013/031)

Bideak konpondu, eliza berritu... zituzten auzolanean. Eliza berritu zutenekoak kontatzen du.

268. Kinkea, argia egiteko (TOL-013/034)

Etxean, ez zuten argindarrik; kinkea izaten zuten. Kinkeari petrolioa bota, metxa jarri eta sua eman behar izaten zitzaion.

269. Metxazko metxeroa (TOL-013/035)

Lehen, tabakoa erretzeko metxazko metxeroa erabiltzen zen. Metxazko metxeroa nola zen kontatzen du. Tabakoa errazionamenduan egoten zen. Eugenioren etxean ez zuen inork erretzen, eta osaba bati ematen zioten tabakoa.

270. Emakumeek ezin ardoa edan (TOL-013/036)

Gaizki ikusia zegoen emakumeak kalean ardoa edaten ibiltzea.

271. Ur bila (TOL-013/038)

Etxean urik ez zutenean, ura nola eramaten zuten kontatzen du.

272. Medikua eta sendabelarra (TOL-013/040)

Gaixotzen zirenean, Alegiatik joaten zen medikua. Kasu larrietan deitu ohi zitzaion medikuari; ondoezetan, kamamila, pasmo-belarrak... erabiltzen ziren. Pasma-belarra arriskutsua dela dio.

273. "Arrautzak Tolosara begira jaiotzen ziren" (TOL-013/041)

Otorduei buruz hitz egiten du. Bazkaritan, babarruna jaten zuten. Afaltzeko, berriz, porru-patatak edo baratxuri zopa izaten zuten. Arrautzak jaiotzen omen ziren, "baina Tolosara begira"; azokan saltzeko izaten baitziren. Negu partean, sardina zaharrak ere jaten zituzten.

274. Solomoak eta txorizoak oliotan, udarako (TOL-013/042)

Txerria hiltzen zenean, solomoak eta txorizoak oliotan jasotzen ziren; gero, udaran, belarretan aritzen zirenean, jateko. Etxean asko izanik, txerrikia berehala gastatzen zen.

275. Txanpon-jokoa (TOL-013/045)

Umetan, txanpon-jokoan ibiltzen zen. Txanpon-jokoan nola jolasten den kontatzen du.

276. Aitak txistua jotzean, pilota utzi eta etxera (TOL-013/047)

Frontoia etxe ondoan zuten. Askotan ibiltzen ziren pilotan. Aitak txistua jotzen zuenean, pilota utzi eta etxeratu egin behar izaten zuten. Aitari errespetu handia zitzaion.

277. Bedaioko frontoia (TOL-013/048)

Bedaioko frontoian, "txokoketan" aritzen ziren. Ume asko biltzen ziren, eta txandatz jolasten zuten. Apustuak ere egiten ziren. Ez zen erlojurik, eta kanpai-hotsa izaten zen erreferentzia.

278. Anaiaren diru-iturriak (TOL-013/049)

Anaiari buruz hitz egiten du. Dirua eskuratzeko hainbat bide izaten omen zituen. 12 urtez gero, pilota alokatzen omen zuen; "baratoa" esaten zitzaion. Larrua josi ohi zien pilotei, eta erosi ere egiten omen zituen. Nafarroara etxerako ardo bila joaten zenean, berarentzat olio edo erosi ohi zuen Tolosan saltzeko gero.

279. Olio, garestia (TOL-013/050)

Gerra ondorenean, olio garestia izaten zen. Eugenioren etxean, Nafarroatik ekarri ohi zuten olio. Eltzea gozatzeko, olio faltan, esnegaina erabili ohi zen.

280. Anaia, "traperoa" (TOL-013/051)

Anaiari buruz hitz egiten du. Pilotak alokatuz, dirua ateratzen zuen. Nafarroara joan eta olioaren erosteko adina. Olio oso garestia izaten zen. Gaztetatik, "negoziantea" izan zela dio.

281. Gaztetako ibilerak; neska-laguntzeak (TOL-013/053)

Gaztetako ibilerak. Neska-laguntzei buruz hitz egiten du. Musuak ez ziren erraz ematen, eta bizkarretik heltzea ere... Amezketak eta Bedaioako neska-mutilen arteko harremanaz hitz egiten du.

282. Amezketarrak (TOL-013/054)

Amezketarrei buruz hitz egiten du. "Asto xamarrek" omen ziren.

283. Bikote kontuak eta maiorazgoa (TOL-013/057)

Bikote kontuak ditu hizpide. Normalean, inguruan bilatzen omen zen bikotea. Seme zaharrenek etxera ezkondu behar izaten zuen: horrek sortzen zituen gorabeherak buruz hitz egiten du.

284. Harri jaia (TOL-013/060)

Harri jaiari buruzko azalpenak ematen ditu. Garai batean, meza ondorenean, bazkaria izaten zen: bakoitzak berea eraman behar izaten zuen, eta, ardoa, berriz, Tolosako Udalak jarri ohi zuen. Urte batzuetan festa ospatzeari utzi egin zioten, eta azken urteetan indarra hartu duela dio.

285. Bedaio inguruko festak (TOL-013/061)

Bedaio inguruko auzoetako festak buruz hitz egiten du. Azkarateko festak: Amezketatik jendea abereekin joaten zen.

286. Txahal bikiak erditzen lagundu (TOL-014/014)

Valdegobiako (Gaubea) komentuan (Angoston) lanean ari zirela, behi bat erditu ezinik ikusi zuen. Bikiak zekartzan, eta Martinek lagundu zien jaiotzen. Fraideek, esker onez, hamarretako ederra eman zioten. Handik aurrera, jaun eta jabe izan zen.

287. Gerra hasiera Bedaion (TOL-014/018)

Gerra sortu zenean, soldadu joandako herriko hiru mutil baimenarekin zeuden etxean. Gerra hasiera kontatzen du. Bedaio Nafarroako mugan dago, eta atzeko mendian zuten frontea gerra hasieratik.

288. Mutrikuko Kondeak Nafarroara ihesi gerra denboran (TOL-014/019)

Gerra sortu berrian, ardiekin mendian zebilela, galdutako bi gizon aurkitu zituen, bat zaurituta. Bedaioa zuzendu zituen. Zauritua astoan hartuta pasatu omen zuten Nafarroara. Mutrikuko Kondeak omen ziren, errepublikaren lurraldetik Francok hartutakoetara ihesi zihoazenak.

289. Hemengo gerra "zikina": anaiak anaien aurka (TOL-014/023)

Hemengo gerra hori "zikina" izan omen zen: anaiak anaien aurka. Gogoan du nola ibiltzen zen botazio egunean, mahaian inguruan partiduen txartelak-eta ipintzen.

290. Ugazabak agindutakoari eman behar botoa maizterrak (TOL-014/025)

Bedaïotar denak joaten omen ziren botoa ematera. Maizterrak denak, Segurako Markesa eta Elozegi ziren ugazabak, eta haiek agindutakoari eman behar botoa. Elozegi karlista zen. Bijilantzia eta presioa ikaragarria zen.

291. Monarkia umetan, monarkia zaharretan (TOL-014/027)

Karlisten aldeko botoa omen zen nagusi garai batean Bedaion. Baina nazionalistak indartzen ari ziren leku guztietan gerra sortu zenean. Monarkia eta Errepublikaren arteko gatazka. Txikitan monarkia ezagutu zuen eta zaharretan ere bai.

292. Ondarretako kartzelara esnea eramaten (TOL-014/028)

Bedaïoko hainbat gizon eraman zituzten Ondarretako espetxera gerra garaian. Martin morroi egon zen Benta Berriko baserri batean eta kartzelara joan ohi zen esnea eramatera.

293. Inbidiak indarra hartu gerra ondoren (TOL-014/030)

Denak berdintsu janzten omen ziren gerra etorri arte. Gero inbidiak handitu egin omen ziren.

294. Etxalarren tripa-truke lanean (TOL-014/032)

Etxalarren soldadu, zegoela garoa biltzen-eta laguntzen zien familia bati tripa-truke. Bigarren egunean urdaiazpiko ogitarteko ederra oparitu zion hango neskak, gero bere kapitainari emango ziona.

295. 13 gurdi belar ekarri zituenekoa (TOL-017/009)

Ereñozabal aldera idiekin joaten zen eta urte batean 13 gurdi belar ekarri zituen. Beste mendi batera behiekin joaten zen su egiteko egur bila. Lehengo suari buruz hitz egiten du.

296. Metak nola egiten diren (TOL-017/012)

24 meta belar egin zituzten urte askotan. Metak nola egiten diren azaltzen du.

297. Baserriko tresnak eta haien erabilera (TOL-017/013)

Gurdiak eta lurra lantzeko lehen erabiltzen zituzten tresnak aipatzen ditu: karramarroa, lauhortza, laiak... Goldea gerora sortu zen. Tresna haiek nola erabiltzen zituzten azaltzen du.

298. Garia eta arbia ereiten (TOL-017/015)

Garia jotzeko prozesua azaltzen du. Garia kendu eta gero, arbia ereiten zuten. Arbi beharra egoten zen. Arbia hazitakoan, neguan jasotzen zuten eta elurretan egin behar izaten zuten lan.

299. Gerra osteko elikadura (TOL-017/019)

Gerra ostean ez zuten goserik pasa etxean: beraiek egiten zuten ogia, arto-zopak eta taloak jaten zituzten... Arto-zopak nola prestatzen diren azaltzen du. Txerria bazeukaten eta noizean behin hiltzen zuten bat. Etxean zer abere izaten zituzten aipatzen du.

300. Egunero lanean ibili beharra (TOL-017/021)

Gaztetan egunero egin behar izaten zuten lan, baita igandetan ere. Goizean mezara joaten ziren. Beraien lursailak non dauden azaltzen du eta inguruko lursailen izenak aipatzen ditu.

301. Bailarako etxeen izenak (TOL-017/025)

Beraiek bizi diren bailarako etxeen izenak aipatzen ditu.

302. Gordeketan jolasean (TOL-017/028)

Gordeketan ibiltzen ziren umetan; orduko kantua abesten du. Gordeketan nola jolasten zuten azaltzen du.

303. Enseñanzako uniformeak (TOL-018/011)

Enseñanzen uniformeak eramaten zuten eta nolakoa zen azaltzen du.

304. Soldaduak pastela kendu zionekoa (TOL-018/015)

Mariak ikusi zuen nola etorri ziren soldaduak gerrako lehenengo egunean. Soldaduetako batek pastela kendu zion Mariari.

305. Soldaduekin erdaraz hizketan (TOL-018/020)

Urkizun egon ziren soldaduekin hainbatetan hitz egiten zuten; ahizpa zaharrenak bakarrik zekien erdaraz, eta hari esker moldatzen ziren. Soldadu haiek Nafarroakoak ziren.

306. Gorrotxategiko lana (TOL-018/031)

Anaiak gerratik itzuli zirenean, Gorrotxategi dendara joan zen lanera Maria; han 6 urte eman zituen lanean. 28 urte zituela ezkondu egin zen. Gorrotxategin zer lan egiten zituen azaltzen du. Baserriko lanen aldean, kaleko lana errazagoa iruditzen zitzaion; baina, hala ere, kalean ere asto-lana egitea tokatu izan zitzaion.

307. Gorrotxategin zebileneko bizimodua (TOL-018/033)

Lehen gozokiak saltzen zituzten Gorrotxategin eta Mariak behar zena baino gozoki gehiago ematen zituen. Goizetik gauera aritzen zen dendan lanean eta bertan egiten zuen lo. Goizero mezara joaten zen Maria.

308. Eskolan apaiza eta maistrarekin ikasten zuten (TOL-019/008)

Urkizuko eskola non zegoen aipatzen du. Apaizak ematen zien eskola eta hark ezin zuenean, haren neskameak. Gerora, 17 urte zituela, Tolosatik etorri zen maistra eta Santosen familiaren etxean bizi zen orduan. Eskolan neskek eta mutilek denek batera ikasten zuten. Apaizak makilarekin zigortzen zituen.

309. Urkizun izandako apaizak (TOL-019/015)

Urkizun apaizak ematen zituen eskolak; berak ezagututako apaizen izenak aipatzen ditu.

310. Urkizuko tabernako anekdotak (TOL-019/016)

Urkizun taberna zegoen lehen ere. Taberna beraien etxearen ondoan zegoen, eta gerra garaian norbaitek zuloa egin zion ateari daratuluarekin. Tabernako jabeak tabernari onak ziren. 18 urtera arte beraiek ez ziren tabernara joaten, helduei ez baitzitzaien gustatzen. Gerora, beti botilako ardoa edaten zuten; ardo hura garrafoikoa izaten zen eta konturatzen ziren.

311. Urkizuko frontoia eta pilotariak (TOL-019/018)

Lehen Urkizun frontoia non zegoen azaltzen du. Lehen baziren pilotari onak Urkizun eta haien izenak aipatzen ditu.

312. Gaztetako planak: gaztainak jan eta dantza egin (TOL-019/019)

Gaztaina garaian gaztaina erreak jaten zituzten eta sagardoa edaten zuten. Borda batean elkartzen ziren egun haietan, gizonak bakarrik. Lehen emakume dotoreak ziren Urkizun. Batzuetan soinua eramaten zuten Urkizuko plazara emakumeekin dantza egiteko. Soinua ordaintzeko dirua ateratzeko, txapela pasatzen zuten.

313. Prozesioetako ohiturak (TOL-019/022)

Urkizutik inauterietan eta Aste Santuan jaitsi ohi ziren Tolosara. Lehen Ostegun Santuan denak kandelarekin irteten ziren; arropa onena janzten zuten egun haietarako. Prozesioa nondik nora zihoan azaltzen du; gizonak aurretik eta emakumeak atzetik joaten ziren.

314. Aste Santuko tiroa (TOL-019/024)

San Isidroetan prozesioa egiten zen. Behin Aste Santuko egun batean, Santa Maria elizaren aurrean jende asko zain zegoen eta han bi guardia zibil zeuden; haietako batek eskopeta kargatuta zeukanez, tiroa bota zuen nahigabe sabaira.

315. Tolosako inauterietako ohiturak (TOL-019/025)

Tolosako inauterietan lehen ez zuten izaten dirurik txilaba erosteko; orduan, mozorroa prestatzeko nola moldatzen ziren azaltzen du Santosek. Gerraostean inauteriak galarazita egon arren, Tolosak eutsi egin zion ohiturari.

316. Mezalagun izan zeneko zereginak (TOL-019/029)

Santos mezalaguna izan zen eta zer zeregin izaten zituen aipatzen du: apaizari liburua eman, ur-ardo ontziak atera, limosna bildu...

317. Gerrako oroitzapenak (TOL-019/031)

Gerra hasi aurretik, esaten zen gerra zetorrela. Borroka non izan zen aipatzen du. Munizioa astoekin ekartzen zuten garai hartan. "Pakun!" zen tiro-hotsa.

318. Soldaduak etxean lotan (TOL-019/032)

Gerra hasieran, nafarrak etorri ziren eta batzuek Santosen familiaren etxean egin zuten lo lasto gainean; etxeakoak beldur ziren etxeak ez ote zuten su hartuko. Soldaduek baserritik presaka egin zuten alde eta bertan utzi zituzten arma pila bat eta aurreko egunean ostutako oilaskoak. Hori ikusita, Santosen familiak inguruko etxeetan banatu zituzten oilaskoak.

319. Arreba gorteiatu zuen soldadua (TOL-019/033)

Soldaduak hiru aste inguru egon ziren Urkizun, Tolosa hartu aurretik. Soldaduetako batek Santosen arreba bat gorteiatu zuen, baina arrebak ezetz esan zion, moja sartu nahi baitzuen.

320. Llanos fabrikan lanean (TOL-019/044)

32 urtera arte baserrian egin zuen lan Santosek. 23 urte zituela Llanos fabrikan hasi zen lanean. 1953ko uholdeak, ordea, kalte handiak eragin zituen hango makinerian.

321. Paper-fabrikan lanean hasteko egindakoak (TOL-019/045)

Uranga paper-fabrikan aritu zen lanean 41 urtez eta handik hartu zuen erretiroa. Lan hura nola lortu zuen kontatzen du. Lanera hasieran bizikletaz joaten zen, baina gerora motorra erosi zuen.

322. Garai bateko Urkizu (TOL-020/002)

Urkizuko tabernari buruz hitz egiten du. Garai batean, auzoa nolakoa zen kontatzen du. Sei senide ziren, eta Maria Jesus zen gazteena. Umetako eginkizunak aipatzen ditu: itulan egin, mezara joan eta eskolara joan. Egunero joan behar izaten zen mezara. Hilean behin, kongregazioan biltzen ziren.

323. Urkizuko eskola (TOL-020/004)

Eliza ondoan, Urkizuko eskola zegoen. Apaizak ematen zien eskola. Euskaraz ikasi zuen. Gerra ondoren, eliza aurrean eskolak egin zituzten.

324. Lau erregelak eta euskarazko liburuak (TOL-020/005)

Dotrina euskaraz ikasi zuen. Lau erregelak ere ikasi zituen: batuketa, "kenduketa", zatiketa eta "tolesketa". Xabiertxo, Sabin euskalduna eta Pernando amezketarra liburuak erabiltzen zituzten.

325. Errezoa, aurreneko gauza (TOL-020/006)

Eskolari hasiera emateko, errezzatu egin behar izaten zen aurrena: "Agur Maria guztiz garbia...". Neskak eta mutilak elkarrekin ikasten zuten.

326. Zumarragara, mojetan ikastera (TOL-020/007)

11 urte zituela, Zumarragara joan zen mojetara ikastera. Denbora horretan, izebaren etxean egon zen bizitzen. Eskola erdaraz izaten zen, eta hango kontuak kontatzen ditu.

327. Ezjakina, beti sufritzeko da! (TOL-020/008)

Zumarragako mojen eskolan, erdaraz egiten zuten. Maria Jesusek ez zekien hitzik ere erdaraz, eta beharrak irakatsi zioela dio. Erdaraz hitz egiten ez jakiteagatik asko sufritu du; euskaldunei barre egiten zien eskolan.

328. Eskolako betebeharrak eta laborea (TOL-020/010)

Ikasturte bat egin zuen Zumarragan, mojen eskola batean. Mojek ez zekiten euskaraz. Goizetan, dotrina eta matematikak egiten zituzten; arratsaldetan, laborea izaten zuten. Gurutze-puntua, bainikak, brodaketak... egiten zituzten. Bazkaltzera, Urretxura joaten zen izebarenera. Ez zuten uniformerik erabiltzen.

329. Tropak Urkizura sartu (TOL-020/012)

Gerrako kontuak aipatzen ditu. Lehenengo, "gorrien" tropak sartu ziren Urkizun, eta gero, nazionalak. Tiroketak, intendentziak... aipatzen ditu. Olamuño mendian hiru gorpu lurperatu zirela dio, baita auzoko beste baserri batean ere.

330. Hegazkinak zaintzeko etxola (TOL-020/014)

Soldaduei buruz hitz egiten du: txapel gorriak (erreketeak), karlistak, falangistak... Tropa bakoitzak zer bereizgarri zituen aipatzen du. Urkizun, etxola bat egin zuten soldaduek hegazkinak zaintzeko.

331. Soldaduek ere jan egin behar (TOL-020/016)

Soldaduak askotan joaten ziren Urkizuko tabernara. Soldaduek euren poltsikotik ordaintzen zuten tabernan hartutakoa.

332. Mendikute eta Albiztur aldetik tiroak (TOL-020/017)

Gerrako kontuei buruz hitz egiten du. Mendikute eta Albiztur aldetik izaten ziren tiroketak aipatzen ditu.

333. Soldadu ibilitako auzokideak (TOL-020/018)

Beldurra zela eta, Urkizuko zenbait gizon alde eginda egon ziren. Soldadu ibilitako auzokideak eta haien gorabeherak aipatzen ditu: zaurituk, hildakoak...

334. Anaiak, soldadu joandakoak (TOL-020/019)

Gerra denboran, auzotar ugari joan zen Urkizutik soldadu. Maria Jesusen anaiak ere soldadu joan dira.

335. Umetako jolasak (TOL-020/021)

Umetako jolasak aipatzen ditu: gordeketa, sokasalto, puxaketa... Neska eta mutil ibiltzen ziren jolasean.

336. Anaien berri jakin nahi (TOL-020/024)

Gerraren eragina. Gerrak 13 urtetik 18ra bitartean harrapatu zuen Maria Jesus. Soldadu joandako anaien berriak noiz iritsi zain egoten ziren etxean. Txokolatea, gazta eta dirua bidaltzen zizkien paketeetan. Gutunak ere bidaltzen zizkien.

337. Tolosara, zaldia kargatuta (TOL-020/026)

Urkizuko neskak egunero joaten ziren Tolosara esne-partitzera. Zaldian eramaten zuen esnea. Goiko baserrietakoak Monteskutik joaten ziren. Behekoak, berriz, Olarraindik, Bentaunditik barrena.

338. Etxez etxe, esnea partitzen (TOL-020/028)

Bederatziak alderako joaten zen Tolosara esnea partitzera. Esne-bezeroak zituen, eta etxez etxe ibili ohi zen esnea partitzen. Litro esnea neurtzeko txantxila erabiltzen zuen. Eguerdi parterako etxera itzultzen zen erosketak eginda.

339. Esne-salmenta, diru iturria (TOL-020/029)

Egunero joaten zen Tolosara esnea saltzera. Esne-bezeroak zituen, eta etxez etxe ibili ohi zen esnea partitzen. Esnea sobratzen bazen, plazan saltzen zuen. Esnea faltan izanez gero, berriz, auzokideei erosten zien bezeroekin kunplitzeko. Esnearen salmentarekin lortutako diruarekin ogia eta haragia erosketen zituen kolean.

340. Neguan eta igandetan ere esne-partitzera (TOL-020/030)

Elur garaian, bi egunetik behin joaten zen Tolosara esnea saltzera. Igandetan ere joaten zen, eta, orduan, Tolosan entzuten zuen meza. Baserritik alpagatekin ateratzen zen, eta, gero, jakineko toki batean zapatak janzten zituen.

341. Jaiegunetan, mantila (TOL-020/031)

Jaiegunetan, dotoreago jantzi ohi zen. Emakumeek mantila janzten zuten. Mantila beltza izaten zen, eta orratz batekin kateatzen zen buruan. Ezkontzetan ere mantila erabili ohi zen.

342. Igande arratsaldetako entretenimenduak (TOL-020/033)

Jai arratsaldetan Urkizun ibiltzen ziren. Bezperen ondoren, paseoan, karta-jokoan, dantzan... pasatzen zuten arratsaldea. Auzoko batek aho-soinua jotzen zuen. San Joanetan, inauterietan... jaitsi ohi ziren Tolosara.

343. Urkizuko San Pedro jaiak (TOL-020/034)

Urkizuko festak San Pedroetan ospatzen ziren. Alegiatik "ttuneroa" joaten zen. Zortziurreneko igandeari "festa domeka" esaten zioten, eta, orduan, gazte jendeak soinu-jolea eramaten zuen. Plater-tiroketa, boloak... izaten ziren.

344. Inguruko herrietako festak (TOL-020/035)

Inguruko herrietako festak. Albizturko festetara joaten ziren. San Joanetan, Tolosara joan ohi ziren. Urkizutik Tolosara oinez ordubeteko bidea zegoela dio.

345. Arrautzak, etxerako (TOL-022/016)

Lehen ez zituzten arrautzak plazan saltzen. Biltzen ziren arrautzak etxerako izaten ziren. Ez zen gaur adina arrautza izaten.

346. Afaltzeko, "eltzeko hondoa" (TOL-022/017)

Afaltzeko, eguerdian sobratutakoa jaten zuten; "eltzeko hondoa" esaten zioten. Eguerdian sobratutako azak eta babarrunak nahastuta jan ohi zituzten, baita porru-patatak ere.

347. Igandetako bazkaria (TOL-022/018)

Astegunetan ez zen postrerik izaten. Igandetean, oiloa eta oilo-salda, garbantzua eta arroz-esnea izan ohi ziren.

348. Gereziak eta "paxientxiak", luxoa (TOL-022/019)

Etzeko sagarra jaten zuten. Gainerakoan, ez zuten fruta asko jaten. Noiz edo noiz, gereziak eta "paxientxiak" erosten zituen amak, eta gustura jaten zituzten. Gabonetan, bisigua, turroia eta xanpaina izaten ziren.

349. Gabonetako afariko menua (TOL-022/022)

Gabonetan, arraina izaten zen jateko. Oilaskoa ere izaten zen. Edateko, berriz, xanpaina eta pattarra izaten ziren.

350. Kalean, gosea; baserrian, lana (TOL-022/023)

Kalekoen eta baserrikoen arteko diferentziak. Baserrian ez zen jatekorik falta izaten, baina lana gogotik egin behar izaten zen.

351. Eskale ugari (TOL-022/024)

Gerra ondorenean, kaleko jendea eskean ibiltzen zen baserriz baserri. Zakua bizkarrean hartuta ibili ohi zen jendea eskean. Astean, hiru-lau eskale joan ohi ziren baserrira.

352. Gabiriako pasiotarrak eskean (TOL-022/026)

Gabiriako pasiotarrak etxez etxe ibili ohi ziren babarrun eskean. Babarrun asko biltzen zuten.

353. Tolosako ohol almazenera, egurra saltzera (TOL-022/028)

Egurra ateratzen zuten basotik. Gurdia egurrez kargatu eta idiekin Tolosara joan ohi zen Joxe Mariren aita. Tolosako ohol almazenera eramaten zuen egurra saltzera.

354. Pago-enborrak aizkoraz bota (TOL-022/029)

Paga-enborrak aizkoraz mozten zituzten. Egurra gurdian kargatzen zuten. Gurdiaren atzean, hiru-lau pago-adar kateatzen zituzten arrastaka eramateko.

355. Ilargiaren eragina zuhaitzak botatzerako orduan (TOL-022/030)

Pagoa neguan botatzen zen. Ilargiaren eragina egurra botatzeko orduan. Zuhaitzak noiz bota behar diren aipatzen du.

356. Inaurkinetan (TOL-022/031)

Garoa eta orbela ekartzen zuten basotik. Udazkenean, orbela erortzen zen garaitik hasi eta lau-bost hilabetea inaurkinetan aritzen ziren. Segarekin mozten zuten garoa.

357. Belarra, segaz moztu (TOL-022/033)

Sega bizkarrean hartuta joan ohi ziren belarra moztera. Gero, gurdiaekin joaten ziren belarra jasotzera. Belarra ganbaran jasotzen zuten.

358. Metak egiten (TOL-022/034)

Metak nola egiten diren kontatzen du.

359. Otea biltzen (TOL-022/036)

Aitonak otea biltzen zuela kontatzen zion. Entzuna du otea moztu eta behiei ematen zitzaiaela.

360. Ura eta argia (TOL-022/038)

Argia eta ura bazituzten baserrian. Argiaren linea Albizturtik botatzen zuten, eta nahiko eskasa zen. Joxe Mari jaio zen urtean jarri omen zuten ura etxean. Lehenago, inguruko iturrietatik hartzen omen zuten ura.

361. Moztu aurretik, ogiari musu (TOL-022/040)

Moztu aurretik, ogiari musu emateko ohituraz hitz egiten du. Ogia ez omen da utzi behar azpikoz gain.

362. Sagasti handiak etxean (TOL-023/005)

Baserrian sagasti handiak izan dituzte beti; sagarra asko saltzen zen lehen; hezurte-garaian ere saltzeko adina izaten zuten. Sagarraren prezioei buruz hitz egiten du: garaiazen arabera aldatu egiten zen.

363. Etxeko sagardoa (TOL-023/006)

Etixerako sagardoa beti egin izan dute. Baserri inguruan dolare ugari zeuden. Sagardotegiak non zeuden lehen aipatzen du. Beraiek egiten zuten sagardoa etxerako izaten zen eta barrikatan sartzen zuten.

364. Zizarrari buruzko azalpenak (TOL-023/007)

Zizarra esaten zioten lehenengo egiten zen sagardoari.

365. Umeek sagardoa tamainan edateko gaitasuna (TOL-023/009)

Umeek ere sagardoa edaten zuten lehen, baina tamaina ondo hartzen zioten. Sagardoa urarekin ez zuten nahasten. Ijitoek bakarrik edaten zuten pitarra.

366. Sagardoa egiteko sagar onenak (TOL-023/011)

Sagardoa egiteko, sagar geza Errezil sagarrarekin nahastea izaten omen zen onena. Baziren beste hainbat sagar mota lehen ere, eta haietako batzuk aipatzen ditu.

367. Sagastiak zaintzen (TOL-023/012)

Urte batetik bestera alde handia egoten zen jaiotako sagar kopuruan. Sagastiak nola zaintzen zituzten azaltzen du.

368. Zuhaitzen gaitzak lehen (TOL-023/013)

Lehen ere zuhaitzek gaitzak izaten zituzten, baina ez zegoen orain adinako jakinduriarik horren gainean.

369. Sagardoaren izena garaiazen arabera (TOL-023/014)

Urritik Eguberrietara bitartean sagardoa egiten zen; irailean jasotako sagarrarekin, ordea, zizarra egiten zen.

370. Sagar-bilketa (TOL-023/015)

Sagarra eskuz biltzen zuten, hala gainera sagarrak ez omen ziren zulatzen. Irin-zakuak erabiltzen zituzten sagarrak jasotzeko. Neurri jakin batzuk izaten zituzten zaku haiek. 6 zakuk gurdi bat osatzen zuten.

371. Sagarra txikitzeko prozesua (TOL-023/016)

Etxean sagarra prentsa mekanikoarekin txikitzen zuten; lehenago, ordea, pisoiak erabiltzen zituzten Hilarionen arbasoek. Sagarrak jo baino lehenago ez zituzten garbitzen. Sagar txikituari patsa deitzen zioten eta sagardoa aterata gelditzen zenean, behiei ematen zitzaien.

372. Sagardoa gordetzeko barrikak (TOL-023/019)

Gaztetan barrikak egiteko zer egur klase erabiltzen zen azaltzen du. Barrikak noizean behin garbitu egin behar izaten; nola garbitzen zituzten azaltzen du.

373. Umetan itulan eta pilotan (TOL-023/022)

Lehen itulan egin behar izaten zuten ume guztiek. Askotan eskolara joateko betarik ez zuten izaten. Aisialdian pilotan jokatzeko gustatzen zitzaien. Orduko pilotak nolakoak izaten ziren azaltzen du.

374. Pilotan jokatzeko lehentasunak (TOL-023/024)

Pilotan mutil zaharrenek izaten zuten abantaila frontoian jokatzeko. Lehen neskak ez ziren pilotan aritzen, beste jolas batzuetan baizik.

375. Primo de Riveraren garaian hezkuntzari garrantzia ematen zitzaion (TOL-023/026)

1923an Primo de Rivera jarri zenean, hezkuntza gehiago kontrolatzen zen eta umeei eskolara joan behar izaten zuten. Eskolan zer ikasten zuten azaltzen du.

376. Erdara ikasten hasi zenekoa (TOL-023/027)

Eskolan zebiltzan garaian, ikasleek ez zekiten ondo erdaraz, baina moldatzen ziren maisuak erdaraz hitz egiten zuenean. Jolas-garaian euskaraz hitz egiteagatik zigorra izaten zuten: eratzunaren zigorra, hain zuzen ere. Erdara lehenengo aldiz entzun zuenekoa gogoan du. Erdaraz ikasi zituen lehenengo hitzak ere gogoratzen ditu.

377. Ezkioko Ama Birjina (TOL-023/031)

Ezkioko Ama Birjina azaldu zenean, jendea asko joaten zen hara. Gerora, ordea, elizak debekatu egin zuen, miraria gezurra zelakoan.

378. Primo de Riveraren garaiko hezkuntza (TOL-023/032)

Errepublika garaia iritsi zenean, zenbait aldaketa nabaritu zituzten: Primo de Riveraren garaian eskolan erdaraz egiten zuten, itulan egiteagatik faltatzat hartzen zen... Hilarionen aita auzo-alkatea izan zen; haren zereginak zein izaten ziren aipatzen du.

379. Gerran frontean egon zeneko bizipenak (TOL-023/039)

Gerran zer-nolako uniformeak izaten zuten azaltzen du. Gerran Teruelen izandako bizipenak eta bizi-baldintzak kontatzen ditu.

380. 14 urterako segan (TOL-024/002)

Itulan gazterik hasi zen. 14 urterako segan egiten zuen, aita ipinitako sega txiki batekin. 17 urterekin sega handiaz. Orduan dena segaz ebakitzen zen, belarra, garoa, sasiak...

381. Sega pikatzeko ingudea eta mailua (TOL-024/003)

Segan ondo egiteko aurrena ondo zorroztu behar da. Sega pikatzeko mailua eta ingudea (txingura) nolakoak diren. Altxairuzkoa izaten da ingudea.

382. Arraitzaz sega zorrozten (TOL-024/005)

Arraitza ezinbestekoa da sega zorrozteko. Harrobitik ateratzen dela du entzuna. Arraitzak asko irauten du ondo erabiliz gero. Arin samar ibili behar da beti, pikadura jan ez dezan. Ez da erraza eskua hartzea arraitzari, baina jardunez gero aisa ikasten da.

383. Sega pikatzen (TOL-024/006)

Goizean pikatzen omen da ondoen. Zuzen jo behar da mailuaz. Ez zaio aginik atera behar. Artean ondo ebakitzen duela pikatu behar da berriz. Bi ordu eta erdi-hiru irauten du ondo pikaldi batekin

384. Sega-potoa, arraitza eta mailua (TOL-024/007)

Sega-potoa eta arraitza beti eraman behar dira aldean lanerakoan. Moteldu ahala zorroztu egin behar da sega. Sega-potoak nolakoak diren. Ura behar du arraitzak ondo zorrozteko. Mailu berezia izaten da sega zorroztekoa, iltzeak sartzekoak ez du balio.

385. Segak berak erakusten du nola erabili (TOL-024/009)

Segak berak erakusten du nola eman behar diozun. Zorrozteko eta eskutan erabiltzeko trebetasun pixka bat behar da, besterik ez. Belarra azpi-azpitik ebakitzea hobea omen da.

386. Belar-klaseak (TOL-024/010)

Etxe inguruko belarra erraz ebakitzen da, baina mendiko zenbait belar oso nekez, muiloa, esaterako. Belar motak: albitza, muiloa, ote-belarra, tturkoa, plantilla-belarra, alpapa, pagotxa, ailorbea... Pagotxa nola ebakitzen zuten.

387. Garia segaz ebakitzen (TOL-024/012)

Segaz ere ebaki izan zen garia. Hiru hortz eransten zitzaizkion kirtenean eta kontu handiz egin behar zen lan, garia sortak egiteko moduan erori zedin, batetik, eta aletu ez zedin, bestetik. Igitaiz ere ebaki izan zen baina bere denborarako bukatuak zeuden kontu horiek.

388. Ontzaka neurtzen dira segak (TOL-024/014)

Ontzaka neurtzen ziren segak. Luzera neurria da ontza. 44koa da ezagutu duen handiena. 14koa da orain duen txikia. Burdinazko uztai bat sartzen da kirtenean segari eusteko. Gero txabeta bat ipintzen zaio gogortzeko.

389. Herribideak auzolanean konpontzen (TOL-024/017)

"Herribideen" txukunketa auzolanean egiten zen. Arratsaldean egiten zen normalean. Ogitartekoa norberak eramaten zuen eta alkateak (herriak) ipintzen zuen ardoa. Bideetako "sangra" edo urbideak konpontzea izaten zen eginkizun nagusia. Urtean bi edo hiru arratsalde izaten ziren.

390. Zumitzezko lur-saskiak bidegintzarako (TOL-024/018)

Zumitzezko lur-saskiak erabiltzen ziren bidegintzan. Nolakoak diren eta nola egiten diren kontatzen du. Gaztaina egurra erabiltzen zen egiteko. Simaurretan beratzen zen biguntzeko.

391. Auzo bakoitzak bere eginkizunak bidegintzan (TOL-024/019)

Urtean behin egiten zen jeneralean bidegintza, uztailan edo. Nondik norako bideak konpontzen zituzten zehazten du. Auzo bakoitzak bere eginkizunak izaten zituen, ez ziren nahasten beste auzo batzuetakoekin.

392. Ospeleko babarruna hobea eguterakoa baino (TOL-024/023)

Lehenago orain baino errazago saltzen zen babarruna. Plazan edo tabernetara bakoitzak berak saltzen zuen. Tolosako babarrunak fama handia izan du beti. Ospeleko babarruna gozoagoa eta bigunagoa omen da eguterakoa baino.

393. Babarrun motak (TOL-024/025)

Babarrun pinttoa edo "pinttarra" bazen lehenago. Gorria ere bai. Hemengo zuria ere oso gozoa omen da. "Petri" izenekoak bazen, parretan hartzen zena. Eta beste bat "babarrun motxa", orain "potxa" esaten zaiona, borobilagoa.

394. Artoa eta babarruna sartzen (TOL-024/026)

Artoarekin batera ipintzen zen gehienbat babarruna. Babarrun-sail ikusgarriak izaten ziren orduan. Lurra nola prestatzen zen kontatzen du. Aitzurrez sartzen zen beti euren etxean.

395. Artoa bakantzen (TOL-024/027)

Artoa "bakandu" egin behar izaten da, bi landare utzi bakarrik leku bakoitzean. Babarruna ez zen bakantzen. Inoiz babarruna asko hazi eta artoa eraitsi egiten zuen. Orduan giro hobea egiten zuela uste du, eta oso nekez hondatzen zela babarruna.

396. Tolosaldeko babarrunak gaitzik ez (TOL-024/028)

Garai hartan babarrunak ez zuen inolako gaitzik Tolosa aldean. Zenbait lekutakoak momorroa izaten zuen.

397. Babarrunak eskuinetik heltzen dio artoari (TOL-024/029)

Babarrunak eskuinetik heltzen dio beti artoari zein parrari. Sekula ere ez ezkerretik.

398. Ailorbea jandako aberea ezin hilabeteen hil (TOL-024/031)

Ilberrian ebakitako ailorbea jaten emanez gero, ezin da abere hura hil hilabeteen, haragiak gustu edo usain txarra hartzen duelako. Ilbeherakoarekin ez da horrelakorik gertatzen. Jagoba Rekondoren aholkuak.

399. Haltza maiatzeko ilberrian bota behar (TOL-024/034)

Haltza maiatzeko ilberrian bota behar da. Gurdi bat izan zuten arina eta gogorra haltzez egina. Arponez (trontza mota) ebakitzeko baino gogorragoa jartzen omen zen urtebetez lehortzen izandako haltza.

400. Gaztaina hagaz eraisteko teknika (TOL-024/036)

Gaztaina asko zuten. Hagaz bota eta morkotx eta guzti etxera ekartzen zuten. Gaztaina arbolatik eraisteko teknika azaltzen du. Goitik behera hasten ziren.

401. Matxardaz biltzen gaztaina (TOL-024/037)

Gaztaina morkotxak matxardaz (egur malgu bat) biltzen zituzten lurretik saskira. Gero gurdian garraiatzen zituzten etxera. Zakutan ere sartzen zituzten inoiz, gehiago garraiatu ahal izateko.

402. Gaztaina onena saltzeko eta eskasena etxerako (TOL-024/038)

Gaztaina zen hemengo bizitzaren oinarria. Gero gaitza sartu zitzairen eta akabo. Pilan ipintzen ziren etxe ondoan eta hilabete bat inguru edukitzen ziren horrela aletu arte. Onenak saltzeko eta bestelakoak etxerako edo ganaduentzako. Dena aprobetxatzen zen, baita morkotxa ere.

403. Kaletarrak gaztainak eta egurra biltzera (TOL-024/040)

Gerra osteko gose urteetan gaztainak eta egurra biltzera etortzen ziren kaletarrak. Anima Egunetik aurrera (azaroak 2) eskubidea zuten batu gabeko gaztainak hartzeko. Dena dela, ez zieten errieta handirik egiten bestela ere, egoeraren latzaz jabetuta.

404. Zintzilik jarrita lehortzen da tabakoa (TOL-024/045)

Donostiatik ekartzen zen tabako-landarea. Udaberrian sartu eta abuztu-irail aldera biltzen zen. Zuztarretik atera eta lehortzen jartzen zen buruz behera haizea zebilen estalpe batean. Kanpoko, erdiko eta puntako hostoek kalitate desberdina ematen zuten.

405. Seg a nola pikatzen den, eta segaren parteak (irudiak) (TOL-024/047)

Ingudea eta mailua erakutsiz sega nola pikatzen den azaltzen du Antoniok. Gero emazteak sega erakusten du eta elkarriketan aipatutako parteak seinalatzen.

406. Aitari laguntzera (TOL-025/003)

Ume-umetatik aritu dira baserriko lanean. Aitari lagun behar izaten zioten. Astoa hartu eta jatenak hartzera joan behar izaten zuten. Aitak hika hitz egiten zien. Gurasoei buruz hitz egiten dute.

407. Lo egiteko, binaka (TOL-025/005)

Hiru-lau logela zeuden baserrian. Antoniok aitonarekin egiten zuen lo. Beste anai-arrebak, binaka egiten zuten lo.

408. Baserrian, ume faltarik ez (TOL-025/006)

Ama Auzo Txikiko Saletxe baserrikoa zen, eta baserri horretan senide asko zirenez, hango umeak beraien baserrian jan eta lo egiten zuten batzuetan. Amak gauetan arropak nola garbitzen zizkien kontatzen du.

409. Baserri kaskarra (TOL-025/008)

Baserriak zer egitura aldaketa jasan dituen kontatzen du. Baserri kaskarra zen, eta, gerora, erantsi zizkioten hainbat gela.

410. Erlijioaren eragina (TOL-025/009)

Erlijioaren garrantzia dute hizpide. Lehen, diziplina handia zegoen. Elizako hainbat ospakizun aipatzen dituzte: bederatziurrena, San Antoniorenak, Maiatzeko loreak, purgatorioko arimarenak, Jesusen Bihotzarenak, arimenak, errogatibak...

411. Errogatibak, eguraldi ona egiteko (TOL-025/010)

Errogatibak: eguraldi ona egiteko egiten ziren eskariak. San Markesotan hiru eguneko errogatibak egin ohi zituzten; prozesioan ibiltzen ziren. Dena latinez izaten zen. Antonio zortzi urtean akolito ibili zen.

412. Corpusetako prozesioak (TOL-025/013)

Corpusetan, umeak zuriz jantzi ohi ziren; arroza botatzeko. Auzoko bi-hiru tokitan aldareak jartzen zituzten, eta prozesioa nola egiten izaten kontatzen dute. Prozesioa egiten zen bide guztia loreekin apaintzen zuten. Apaiza palio azpian joaten zen. Etxeetako leihoetatik ohazal eta maindire zuriak zintzilikatzen ziren.

413. Arto-zuriketa eta errezoa (TOL-025/015)

Iluntzetan, arrosarioa errezatzen zen. Arto-zuritzen aritzen bitartean ere arrosarioa errezatzen zuten. "Kyrie, eleison"-ak belauniko errezatzen ziren. Auzoko bat hil zenean, 15 misterioko arrosarioa eta 50 aitagure baino gehiago errezatu zirela kontatzen dute.

414. Hiletan inguruko ohiturak (TOL-025/017)

Etxekoren bat hiltzen zenean, auzokoak etxera joan ohi ziren erreztatza edo "kuxkuxeatza". Arrosarioaren ondorenean, gazta eta ogia, gailetak eta ardo goxoa eman ohi zitzairen. Lehen, gorpua etxean edukitzen zen; gero, elizara eramaten hasi ziren.

415. Aitonaren hileta (TOL-025/018)

Aitonaren hileta dute hizpide. Antonio soldadutzan zen, eta hiletarako etxera itzuli zen. Gorpua nola preparatzen zen kontatzen dute.

416. Agonia-kanpaiak (TOL-025/020)

Norbait hiltzen zenean, agonia-kanpaiak jotzen ziren; 33 kanpai. Kanpai horien bidez, jendeak jakiten zuen norbait hil zela. Kanpaiak jo ondoren, umeek abisua pasatzen zuten.

417. Hilketxa bizkarrean hartuta Tolosaraino (TOL-025/021)

Lehen, hilketxak bizkarrean hartuta jaitsi ohi ziren Urkizutik Tolosara. Hildakoak herri-bidetik jaitsi behar izaten ziren; errepidea inauguratu gabe baldin bazegoen, ezin zen bertatik pasa, eta, beraz, gorpua ezin zen automobilean eraman. Hilketxa auzokoen artean txandatzat garraiatzen zen.

418. Umeak eta aitona (TOL-025/024)

Etxeko eta kanpo ume mordo bat elkartzen ziren Etxeberriko sukaldean. Amak denentzat eltzekada txokolatea egingo zien, etxeko ogia txapan tustatu eta "aitona sozio" zutela jateko. Aitonak ume guztiak tentatzen zituen.

419. Errespetuaz (TOL-025/025)

Guraso eta zaharrekiko errespetua dute hizpide. Gurasoei eta apaizari "berori" esaten zioten. Apaizaren aurrean, egun onak eman eta txapela erantzi behar izaten zuten mutilek. Gurasoengandik jaso zuten berorika hitz egiteko ohitura.

420. Jaiotetxea, Paskualsoro baserria (TOL-026/002)

Paskualsoro baserria Aiako partean dago. Errepiderik ez zen garaian, oinez ordubeteko bidea zuten Zarautzera. Igandetan, Urdanetara joaten ziren mezara.

421. Lehengo eta oraingo idien entrenamenduak (TOL-026/006)

Lehengo eta oraingo idi-apustuak alderatzen ditu. Lehen idiak baserriko lanetarako erabiltzen ziren: goldean, egurretan, simaurketan... eta hori zen haien entrenamendua. Animalia, pertsona bezala, lanean zailduta egoten zen. Gaur egun, berriz, probetarako izaten dira soilik, eta pneumatikoekin entrenatzen dituzte.

422. Idi pare bakarra (TOL-026/007)

Etxean, idi pare bakarra zuten. Eta baserriko lanerako eta apustueterako erabiltzen zituzten. Ez zen ohikoa bi idi pare edukitzea; gehienez, hiru idi izaten ziren, txandatu ahal izateko.

423. Idientzat, "jan sekoa" (TOL-026/008)

Apusturako idiei "jan sekoa" eman beha izaten zaie: baba eta belar iharra.

424. Idien entrenamenduak (TOL-026/009)

Idiak nola entrenatzen zituen kontatzen du. Baserriko lana izan ohi zen entrenamendua. Hala ere, lera karga jarrita ibili ohi ziren; korrika ere eginarazten zitzairen.

425. Idiak elegante plazarako (TOL-026/010)

Idiak elegante preparatzen ziren plazarako: kopetekoak, uztarriak... Kopeteko onenak lodiak izaten ziren; idien adar-ondoetan minek ez emateko. Kopetekoak ganadu-larraz egindako hedeekin lotzen zitzaizkien idiei. Kopetekoek, apaingarri gisa, borla batzuk izaten zituzten; idien begi parean geratzen ziren. Borlak urdin-gorri kolorekoak izan ohi ziren.

426. Soldadutzatik bueltan, aurreneko sega-apustua (TOL-026/012)

Soldadutzatik bueltatu zenean, aurreneko sega-apustua jokatu zuen Iturriotzen; bi orduan zeinek ebaki kilo gehiago. Belarra pisatzeko, eskuarearekin belarra juntatu, besada egin eta, soka erdian zuela, sorta egiten zen. Gorabeherak izaten ziren pisuarekin.

427. Apusturako, 48 ontzako sega (TOL-026/013)

Segei buruz hitz egiten du. Belar klasearen arabera, sega bat edo bestea erabiltzen da. Patrizio Etxeberriaren segak famatzen ditu. Apusturako, sega handia erabiltzen zen; 48 ontzako.

428. Sega-pikatzea eta sega-jartzailea (TOL-026/014)

Sega-pikatzeko tresnak aipatzen ditu: mailua, ingudea, arraitza... Mailuak tenplaketaz gogorturiko altzairuzko punta izaten zuen. Tresna horiek errentariarenean, feriatan edota sega-jartzailearen etxean erosten ziren. Herri eta auzo guztietan izaten zen sega-jartzailea; Urdanetako Izeta baserriko sega-jartzaileak aipatzen ditu.

429. Sega-pikatzea eta zorroztea (TOL-026/015)

Sega eserita pikatu behar da: ahalik eta meheen, berdinen, utzi behar da; gero, arraitzarekin zorrozteko. Sega zorroztea garrantzizkoa da; zorrozten ez bada kamustu egiten da, nahiz eta sega pikatu.

430. Sega-potoa eta arraitza (TOL-026/016)

Segan aritzeko tresnak: sega, sega-potoa, arraitza... Egurrezko sega-potoak izaten ziren, eta gerrian lotuta eramaten ziren. Arraitzari ura, ozpina edota sagardoa botatzen zitzaion; harria lastu eta gehiago heldu zezan.

431. Bi orduko sega-apustua (TOL-026/017)

Sega-apustuen nondik norakoak kontatzen ditu. Aurrena jokatu zuen sega-apustuan, alde bakoitzak, 50.000 pezeta jokatu zituen. Bi orduko apustua izan zen; ohikoena ordubete edo ordu eta erdikoa izatea da.

432. Segalariaren lantaldea (TOL-026/018)

Segalariaren lantaldea: zorroztailea, non moztu irakasten zuena, bost-sei biltzaile eta bi pisatzaile. Segalariak beste batek zorroztu eta eskura emanda aritzen ziren.

433. "Erakustailea" eta segalaria (TOL-026/019)

"Erakustailea" esaten zitzaion sega-apustuetan belarra nondik eta nola moztu aholkatzen zuena. "Erakustailearen" eta segalariaren arteko konfiantzaz, aholkuez... hitz egiten du.

434. Sega-apustuetako epaileak (TOL-026/020)

Sega-apustuan epaileak izaten ziren. Epaileen eginbeharrak eta arauak aipatzen ditu.

435. Belarra moztea (TOL-026/021)

Belarra mozteko modua; ez zen berdina moztu apustuetan eta baserrian. Baserrian ahalik eta txukunen moztu saiatzen zen: apustuan, berriz, "narratxago"; berdina izaten zen tarteetan belarra luze uztea.

436. Sega-apustua: burdinak belar-sailean (TOL-026/022)

Belarra ahal zen beheenetik moztu behar izaten zen. Bi apustutan, burdinak sartu zizkioten belar-sailean kaltea eragiteko asmoz. Horregatik, desanimatu eta utzi egin zion sega-apustuei.

437. Segan egiteko belardi bila (TOL-026/023)

Segako entrenamenduak non egiten zituen: Asteasu, Larraul, Zizurkil eta Berastegin. Terrenoak ikusi, eta belarra gustatuz gero, baserritarrari belarra moztu uzteko baimena eskatzen zitzaion. Baserritarrek gustura hartzen zuten eskaintza.

438. Asteasura, Tapiaren segan egiten ikastera (TOL-026/024)

Asteasu 20 urte egin zituen Eleuterio Tapia segalariaren etxean; segan egiten ikastera joan eta etxeko bezala geratu zen. Familia artekoa zuen segarako lantaldea.

439. Eleuterio Tapia segalaria (TOL-026/025)

Asteasu segalari herria zen. Eleuterio Tapia segalari oso ona zen. Tapiak hiru sega-apustu eta Euskadiko Segalari Txapelketa bat jokatu zituen: denak irabazi zituen. Tapiarekin hartu-emanetan nola hasi zen kontatzen du.

440. Segarako zaletasuna (TOL-026/026)

Segarako zaletasuna nondik datorkion kontatzen du.

441. "Segalariak penatu egin behar du gogotik" (TOL-026/027)

Segalari ona izateko zer ezaugarri eduki behar diren aipatzen du: "penatzen beldurrik gogo gabea" izan behar da. Sega-apustuak udan izaten dira, eta han gogotik penatu behar izaten dela dio.

442. Hanka-hutsik segan (TOL-026/029)

Segan egiteko zer arropa erabiltzen zuen kontatzen du. Kamiseta eta galtza luzeak, belaun parera arte doblatuak. Hanka-hutsik egiten zuen segan, eta hanka azpiak ebakiz zailduta izaten zituen.

443. Segari utzi eta harriari eutsi (TOL-026/030)

Sega-apustuak zergatik utzi zituen kontatzen du: apustua irabazi arren, ez zuen marka eutsi. Penatuta, sega utzi eta harri-jasotzen hasi zen.

444. Harri-jasotzen hasi (TOL-026/031)

Segan egiteari utzi eta harri-jasotzen hasi zen. Ofizio honetan ere, Tapia izan zuen maisu. Hasierak nola izan ziren kontatzen du.

445. Harri-jasotzeko harriak (TOL-026/032)

Bergaran zegoen harrigilea. Lehengo harriek eskuzuloak izaten zituzten bakarrik. 100 kiloko harriarekin hasi, eta 200 kilo bitarteko harriak igo zituen. Aimar Irigoien harri-jasotzaile errejildarra aipatzen du.

446. Harri-jasotzeko entrenamenduak (TOL-026/034)

Tapiarekin egiten zituen entrenamenduak. Sozioek, apustueta dirua jartzen zutenek, entrenamenduak ikusi nahi izaten zituzten. Harria kaxa batera botatzen zuten: kaxa hondarrez betetzen zuten, eta gainetik manta bat josten zitzaion.

447. Harri-jasotzailearen gerrikoa (TOL-026/035)

Harri-jasotzailearen janzkera. Gerriko beltza erabiltzen zuen. Harria handia jaso behar zenean, gerrikoa estu lotzea komeni izaten zen. Harri txikiarekin, jaso-aldi asko egiteko, lasaiago hobe.

448. Apustuak eta harri-jasotzaile ezagunak (TOL-026/037)

Apustuak nolakoak izaten ziren azaltzen du. Hamar minutuko hiru txanda izaten ziren, zeinek altxaldi gehiago eman. Enda eta, Ostolaza, Goenatxo eta Zelai harri-jasotzaileak nabarmentzen ditu.

449. Altuera txikia, harri handia (TOL-026/038)

Harri handiarekin hobeto moldatzen zen. Baldintza fisikoak aipatzen ditu; altuera txikia eta beso motzak izatea ez zuen aldeko. Altuera txikiko harri-jasotzailea izanagatik, harridura sortzen zuen.

450. Apustularien elikadura (TOL-026/041)

Gerra ondoreneko giroa du hizpide. Ez zegoen diru eta janaririk, eta apustulariak ahal zuen moduan prestatu behar izaten zuen. Elikadurari buruz hitz egiten du.

451. Gazta ontzea (TOL-027/012)

Gaztak nola ketzen diren kontatzen du. Altzaren eta gereziaren egur hezea erabili ohi zuten gaztak ontzeko. Egur klasearen arabera, gaztak kolore argiagoa edo ilunagoa hartzen zuen. Haritzaren eta pagoaren egurrarekin egindako keak gehiegi iluntzen zuen.

452. Txikoria, gaztari kolorea emateko (TOL-027/013)

Txikoria ere erabiltzen zuten gaztari kolorea emateko. Gaztak ketzea baino arrisku eta lan gutxiago du txikoriarekin igurzteak. Gaztak ahalik eta toki freskoenean eduki behar izaten dira. Haizea txarra da gaztarentzat: harrotu eta pitzatu egiten du.

453. Gazta-ustela eta gazta-manteka (TOL-027/014)

Azkena egiten ziren gaztak "zakarragoak" izaten ziren; hondarrekin egiten zirelako. Euli batek gazta ukituz gero, gaztari harra hazten zitzaion, eta har horiekin usteltzen zen gazta. Erdi usteltzeaz zeuden gaztak erabiltzen zituzten "gazta-manteka" egiteko. "Gazta-manteka" nola egiten den azaltzen du.

454. Gazta-ustela (TOL-027/016)

Lehen, nahi izaten zuten gazteren bat usteltzea. Pakitak gustuko zuen. Gazta-ustela saldu egiten zuten.

455. Etxeko ogia (TOL-027/020)

Denbora gutxian ezagutu zuen garia etxean. Nafarroatik ekartzen zuten irina. Ogia nola egiten den azaltzen du.

456. Laberako, pago-egurra (TOL-027/021)

Labean sua egiteko pago-egurra erabiltzen zuten. Etxean labea zeukaten, eta plazaren ondoan ere bazen beste labe bat.

457. Garai bateko eta oraingo Aldaba eta Ikaztegieta (TOL-028/003)

Garai bateko Ikaztegieta txikia omen zen oso, eta Aldabakoek joera gehiago zuten Alegiarako Ikaztegieta baino.

458. Aldabako igande arratsaldeak (TOL-028/004)

Aldaban jende asko bizi zen, auzo txikia izan arren, eta igande arratsaldetan beti izaten zen ahoko soinua edo soinu handia jotzen zuen norbait, festa pizteko.

459. Ogia egiten hasi zirenekoa (TOL-028/011)

Baserrian eta baserritik bizi ziren aldabarrak. Gerra garaian behera egin zuen bizimoduak, eta orduan hasi ziren, esaterako, ogia erosi ordez etxean egiten, eta horretarako kontrabandoan ere bai.

460. Sinesmenak: ogiaren ingurukoak, tximistarengandik babestekoak... (TOL-028/012)

Ogiaren inguruko sinesmenak, soroen babesaren inguruko sinesmenak, tximista garaikoak, San Juan egunekoak...

461. Garizumako misioak eta infernuaren beldurra (TOL-028/014)

Garizuman misioak izaten ziren, eta sermoi gogorrak entzuten zituzten kanpotik etorritako hizlarien ahotatik. Bekatua gora eta bekatua behera, beldurrez egoten ziren haiei entzuten.

462. Artoa eta babarruna nola egiten zituzten (TOL-028/022)

Babarruna eta artoa batera egiten zituzten, maiatzean. Gero jorratu eta bakandu egiten zuten artoa. Irailaren bukaera aldera jasotzen zuten uzta: lehenik babarruna, eta artoa ondoren.

463. Babarrunak lehortu eta jo (TOL-028/023)

Babarrun lekak etxean lehortzen ziren, gero eskuz aletu beharrik ez izateko. Gero makilarekin joz jalkitzen zen alea. Haizea botatzen zuen makina bat ere bazuten etxean, alea eta leka banatzeko.

464. Etxean egindako lastairak eta koltxoiak (TOL-028/026)

Lehenago, artoaren zurikinik finenarekin lastairak egiten omen zituzten, koltxoien azpian jartzeko. Koltxoiak ere etxean egiten zituzten, erositako artilearekin.

465. Koltxoien artilea jo, eta azalak garbitu (TOL-028/030)

Artilezko koltxoiak jo egiten ziren, garbitzeko. Juanaren etxean urtean behin jotzen ziren. Koltxoiaren azalak ere garbitu egiten ziren.

466. Koltxoiaren azalak nola egin (TOL-028/031)

Koltxoiaren azalak egiteko telak oso onak izaten omen ziren. Erosi egin zitezkeen, baina, josten zekienak ere etxean egin zitzakeen.

467. Lehengo oheak, oraingo oheak (TOL-028/032)

Garai bateko oheak eta oraingoak antzekoak omen dira, neurri kontuak pixka bat aldatu direla susmoa badu ere.

468. Lastairatik "jergoi"-ra (TOL-028/033)

Lastairatik "jergoi"-ra pasatu omen ziren, eta artilezko koltxoitik "Pikolinos"-era. Lastaira mota berri horiek ere etxean konpontzen ziren, kanpoan erosten baziren ere.

469. Aitak tresnak, anaiak jostailuak. Zer ikusi, hura ikasi. (TOL-028/035)

Baserrian dena aprobetxatzeaz gain, gauza asko etxean bertan egiten ziren. Juanaren aitak, esaterako, arotz lan guztiak egiten zituen, arotza ez bazen Ere. eta orduko umeek ere hala ikasten zuten jostailuak eskuz egiten.

470. Aitak saskiak etxean egiten zituen (TOL-028/036)

Juanaren aitak etxean egiten zituen saskiak. Urritzaren egurrarekin egiten zituen, gehienez. Egurrari azala kendu, eta azal harekin saskia egin.

471. Ama hil ostean familia sakabanatzen saiatu ziren (TOL-030/002)

14 urte zituela, ama hil zitzaion 43 urterekin; Pepi zen senide zaharrena 8 anai-arrebaren artean. Elizari "laguntzen" zioten emakume batzuei buruz hitz egiten du: anai-arrebak sakabanatzen saiatu ziren; ez zuten lortu, baina ordutik aurrera begi guztiak haien gainean egon ziren. Emakume haiek ez zieten inoiz barkatu beraingana laguntza eske joan ez izana.

472. Elizak emandako heziketarekiko jarrera kritikoa (TOL-030/003)

Aitak paper-fabrikan egiten zuen lan, baina arotza ere bazen eta tailer txiki bat zeukan. Seme-alabei egunero joanarazten zien tailerrera dotrina euskaraz irakasteko. Pepiri ez zaio ondo iruditzen zer heziketa eman izan dieten elizan. Dena ondo ikasiz gero, txartela ematen zieten parrokiako zinera joateko. Mojek igandero meza nagusira joatera derrigortzen zituzten. Pepik anai-arrebak zaindu behar zituenez, meza bat barkatzen zioten eta ez zuen joan beharrik izaten. Mojek ez zieten uzten inauterietara joaten.

473. Gauerdiko errezoak (TOL-030/004)

Lehen dena bekatua zen eta beldurrez bizi ziren. Gauerdian esnatu egin behar izaten zuten errezatzeko eta lo hartzen zuten. Infernuarekin beldur izugarriak sartzen zizkieten.

474. Mojek egiten zituzten beheramenduak (TOL-030/005)

Jesusen Alabak mojen eskolara joaten zen ikastera. Mojek alde handiak egiten zituzten ikasleen artean haien familien maila ekonomikoari begiratuta, eta beheramendu handiak egiten zizkieten ikasleei. Mojen eta elizaren artean ikamikak zeuden.

475. Euskararekiko kontzientzia handia familian (TOL-030/007)

Pepiren gurasoek garbi zeukaten beraien seme-alabek euskaraz ikastea nahi zutela. Baserriko umeei parrokian euskaraz ematen zitzaien dotrina, baina kalekoei ez; horregatik, aitak bere kabuz ematen zien seme-alabei dotrina euskaraz. Etxean beti euskaraz egin izan dute, kontzientzia handia izan dute beti euskararekiko.

476. Euskararen transmisioa eten izanaren arrazoiak (TOL-030/008)

Lehen dotrina kalekoei erdaraz eta baserrikoei euskaraz ematen zitzaien. Haurtzaindegian egon zen eta han ere erdaraz ikasten zuten. Orduko kanta bat gogoan du. Euskararen transmisioa eten egin da baserriko jendearen umeen artean, lehenago mespretxuak jaso izan zituztelako euskaraz hitz egiteagatik.

477. Mespretxuak euskaraz hitz egiteagatik (TOL-030/009)

50. hamarkadatan etorkin asko etorri ziren Tolosara Espainiatik. Haiek kontuak eskatzen zizkieten Tolosako euskaldunei euskaraz hitz egiteagatik. Gehienbat euskaraz hitz egiten zuen jendeak mespretxu handiak jaso zituen. Eskolako pasarte bat kontatzen du.

478. Ikastolatik kanpo ere euskaraz egiteko neurriak (TOL-030/013)

Ikastolan ikasten zuten ume batzuek kanpoan ez zuten egiten euskara, eta erronka horri nola egin zioten aurre azaltzen du: udalekuak euskaraz, asteburuetako mendi-irteerak...

479. Udako ekintzak antolatzen (TOL-030/014)

Ikastolaren baitan, udako ekintzak antolatzen hasi zen Pepi. Hori lortzeko izandako gorabeherak aipatzen ditu.

480. Udan Aurizberrira euskaraz egitera (TOL-030/015)

Ikastolaren udako ekintzak Nafarroara zabaldu nahi izan zituzten, eta hori lortzeko izandako nondik norakoak kontatzen ditu Pepik. Azkenean, Aurizberri herrian topatu zuten leku aproposa eta behar bezala txukundu zuten leku hura beraiek erabili ahal izateko.

481. Aurizberrikoekin izandako esperientzia zoragarriak (TOL-030/016)

1975-1990 bitartean, ikastolako gurasoen taldeak udalekuak antolatu eta gauzatu zituen. Nafarroako Aurizberri herrira joaten ziren eta bertakoekin harreman oso ona egin zuten, hangoei euskara irakasten baitzieten beraiek herrian hartzearen truke; esperientzia zoragarria izan zen hura.

482. Aurizberrin euskara sustatzen (TOL-030/018)

Nafarroako Aurizberri herrian udalekuak egiten zituzten ikastolako umeekin. Herri hartako adineko jendeak bazekien euskaraz, baina ez zuten egiten lotsagatik. Pepik harreman ona egin zuen haiekin eta euskaraz hitz egin zezaten animatzen zituen. Aurizberriko jendearekin oso harreman polita sortu zuten.

483. Euskararekiko kontzientzia Nafarroan (TOL-030/019)

1975. urtean bazegoen euskararekiko kontzientzia Nafarroan, horren adibide batzuk aipatzen ditu.

484. Udalekuetan familia handi bateko giroa (TOL-030/020)

Ikastolako gurasoen taldean 4 bat bikote aritzen ziren udalekuak antolatzen. Familia handi bat bezalakoa ziren. Garai hartako umeek Aurizberriko udalekuen oso oroitzapen ona dute. Sari bihurtu zen zigorraren oroitzapena kontatzen du.

485. Ikastolaren sorrerako nondik norakoak (TOL-030/022)

Ikastolaren sorreran, arazo handiena baimen eza zen. Ezkutuan aritu behar izaten zuten hasieran; pixkanaka leku handiagoak bilatzen joan behar izan zuten, ikasle guztientzako lekua egon zedin. Ikastola berria eraiki nahi zuteneko proiektua nola atera zuten aurrera aipatzen du. Gurasoak asko inplikatu ziren ikastolaren sorreran.

486. Indar psikologikoaren garrantzia (TOL-030/023)

Lehengo umeak zailduagoak ziren, ohituta zeuden sufritzen; ikastolaren sorreraren garaiko umeek, ordea, ez zuten ohitura hori. Indar psikologikoa oso garrantzitsua da bizitzako arazoei aurre egiteko.

487. Hausnartzeari esker lortutako jarrera (TOL-030/025)

Bizitzak emandako astinduen ondorioz, oso pertsona serioa bihurtu zen Pepi; baina horretaz konturatu zenean, aldatu egin zen eta gazteak ulertzen saiatu izan da beti. Oso esperientzia onak izan ditu hausnarketa horri esker. Gazteekin izandako esperientzia horietako batzuk kontatzen ditu.

488. Ikastolan ikasi zuen Errepublika garaian (TOL-031/003)

Tolosan gerra aurretik bi ikastola zeuden eta non zeuden azaltzen du. Berak Laskorain ikastolan ikasi zuen eta izebaren etxean bazkaltzen zuen orduan. 1936an batxilerra ikasteko apuntatu zen eta Oñatira joan zen batxilerrean sartzeko azterketa egitera. Asko gustatzen zitzaion ikastea.

489. Garai hartako batxilerra (TOL-031/004)

Gerra hasi zenean, ikastola bukatu zuen. Batxilerra ikasi nahi zuenez, Sagrada Familian egin zuen batxilerra. Garai hartan 7 urtean ikasten zen batxilerra eta azterketa gogorra izaten zen bukaeran: Valladoliden izaten zen azterketa hura eta dena jokatzeko zuten han.

490. Azterketaren bezperan anaia hil (TOL-031/005)

Batxilerreko azterketa egiteko bezperan, abisua eman zioten anaia hil egin zela. Familiakoak saiatu ziren azterketa egin arte berri txarra ezkutatzeko, horrela Maria Dolores lasai egon zedin; azkenean jakin egin zuen eta gogorra izan zen. Amak asko sufritu zuen, lehenengo alargun geratu zelako eta gero semea hil zitzaiolako.

491. Mojetako azterketak (TOL-031/009)

Sagrada Familiako mojetan ikasi zuenean, aurreneko urteetan institutura joaten ziren azterketa egitera; gerora, lizentziatuak etortzen ziren eskolara azterketa egin zezaten.

492. Irakasle-ikasketetatik ikastolarako bidea (TOL-031/015)

Irakasle-ikasketak egin ostean, urte askoan ez ziren oposizioak atera. Maria Dolores, ordea, hasiera batean bulego batean hasi zen lanean. Orduan Donostiako merkataritza-eskolan ikasi zuen. Hala, mojek deitu zioten administrazioko eskolak emateko. Han zebilela, ikastolatik deitu zioten. Ikastolaren sorrera nolakoa izan zen kontatzen du.

493. Ikastolaren hasieran gurasoek izandako meritua (TOL-031/016)

Ikastolaren sorreran, gurasoek kuota ordaintzen zuten eta handik ateratzen zen irakasleen soldata. Pixkanaka, leku gehiago behar zuten, eta eraikuntza batetik bestera ibili ziren aldatzen. Lan-baldintzak pixkanaka hobetzen joan ziren. Ikastolako haurren gurasoek meritu handia izan zuten sistema hartan konfiantza jarri izanagatik.

494. Gerra zibila gaur egungo egoeraren aldean (TOL-031/025)

Gerra hasi zeneko oroitzenak kontatzen ditu: bonbak, manifestazioak, banderak... Umeentzat hori festa bezalakoa zen. Gaur egungo berriak ikusita, aldea dago hemengo gerraren eta oraingo munduko arazoaren artean.

495. Inauterietako mozerroa (TOL-031/029)

Mojetan ikasten zuenean, arratsaldeko 7ak arte uzten zieten egoten kalean, baita inauterietan ere. Maria Dolores bere modura mozerrotzen zen orduan. Dantza egitea gustatzen zitzaion. Luto garaian ezin zen festatara joan.

496. Tolosako lehen ikastola (TOL-032/004)

Aita Tolosako alkate izan zen 1936 urtean. Garai hartako oroitzenak ez du. Lehenengo ikastola aitak sortu zuen Orixe, Lizardi eta Aitzolekin batera. Gerrak bertan behera utzi zuen beraien proiektua.

497. Mattinen aita jakintsua (TOL-032/006)

Mattinen aita jakintsua zen. Alemanian ikasi zuen. Bost hizkuntza zekizkien. Han ezagutu zituen gustuko izango zituen antzerkiak. Gerrak amaitu zituen bere antzerki lanak. Antzerki asko sortu zituen.

498. Aita Jelkidea (TOL-032/008)

Aita gizon ona, baketsua eta erlijiosoa zen. Jelkidea zen. Oraingo EAJ asko aldatu dela iruditzen zaio. Egiatzko abertzaleak lehengoak zirela dio eta haiek aipatzen ditu.

499. Maitasun tolerantia transmititu zien aitak (TOL-032/011)

Aitak maitasuna transmititu zien, Euskal Herriaren aldeko maitasuna. Baina beti besteak errespetatuz. Maitasuna tolerantia izan behar du. Politikariak eta herritarrak desberdindu behar direla dio. Politikariak dira pluralismoa onartzen ez dutenak eta Espainiako herritarrak berriz euskaldunak ongi ikusten dituzte. Espainiatik etorritako askok primeran hitz egiten dute euskaraz.

500. Sarako urte zoriontsuak (TOL-032/013)

Gerra hasi zenean, Ziburura joan ziren eta ondoren Sarara. Hiru urte egon ziren bertan. Gero, Donibanen egon ziren. Sarako oroitzenak dira onenak, hura da bere zerua. Eresoina abesbatza sortu zen, eta bertan Luis Mariano ezagutu zuen.

501. Sarako giro euskalduna (TOL-032/014)

Gerra garaian, Saran mugimendu euskaltzale handia zegoen. Giroa erabat euskalduna zen. Saran zeuden pertsonaia ezagunak gogoratzen ditu.

502. Euskararen aldeko apaizen lana (TOL-032/015)

Euskararen aldeko lan handiena apaizek egiten zuten. Etxepare, Axular, Lekuona, Azkue eta beste batzuk aipatzen ditu.

503. Alemanak Saran (TOL-032/017)

Sarako garaian, alemanekin kontaktua izaten zuten. Alemanen armada Saran sartu zenean, aitzak alemanez zekienez, berarekin harremanetan jarri ziren interprete-lanak egiteko. Euskaldunak arioak zirela zioten; eta, horregatik, ez zituzten molestatu.

504. Frantziako erbestealdia (TOL-032/021)

Donibanen zegoela, gabezia handiak gogoratzen ditu. Irratiz dei bat jaso zuten. Erbestean zegoen Eusko Jaurlaritzaz hitz egiten du. Estatu Batuek Francori emandako babesa aipatzen du. Frantzian espainoltzat hartzen zituzten. Errepublikanoak ere bazeuden Frantzian.

505. Aita deportatu egin zuten (TOL-032/022)

Erbesteratuta zeuden espainolekin harremanak bazituzten. Aita deportatu egin zuten. Amak asko sufritu zuen. Mattin txikia zenez ez zen ezertaz enteratu.

506. Amak frantsesez ongi zekien (TOL-032/028)

Amak frantsesez ongi hitz egiten zuen. Ama Donostiako familia aberatsa batean jaio zen eta ondoren Hernanira joan ziren bizitzera. I. Mundu Gerra garaian frantsesekin negozioak egin zituzten. Hernanin zegoen Jesuita euskaltzain batekin harremana izan zuten eta mojan eskolan frantsesez ikasi zuen.

507. Donostiako Jesuiten eskolan (TOL-032/030)

1944ean Donibanetik Donostiara bidali zuten, Jesuitekin ikastera. Mattinek Frantzian geratu nahi zuen eta asko sufritu zuen Jesuitak eskuineko aldekoak zirelako. 1952 arte egon zen Jesuitekin. Urte haietan anaia eta bera Pasaian bizi ziren.

508. Lehenengo ikastolak (TOL-032/031)

Frantzian azkenean onartu zituzten eta ongi egokitu ziren. Donostian zeudela anaia politikan sartzen hasi zen. Urte haietan ezagututako irakasleak aipatzen ditu. Saran egon zen lehenengo ikastolan ikasi zuten. Gero hemen sortu zuten lehen ikastola baina modu klandestinoan.

509. Hizkuntza independentzia baino garrantzitsuagoa da (TOL-032/033)

Ez du inoiz politikaren tentaziorik izan. Euskalduna eta euskal zalea dela dio baina politika oso urruti ikusten du. Politikariak profesionalak izan behar dutela iruditzen zaio. Independentzia defendatzen du baina bakean sortzen bada. Euskara da garrantzitsuena, hori galtzen bada independentziak ez du zentzurik. Hizkuntzak ematen dio nortasuna herriari.

510. Pinturarekiko zaletasuna (TOL-032/035)

Oso txikitatik pintura gustatu zaio. Afizioa baino gehiago bere bizitza izan da. Agirre Lehendakariak artea ere aberriaren aldeko lana egiteko baliotsua izan zitekeela esaten zuen. Mattinek akademia batean umeei pintatzen erakutsi die. Gizarteari ezin zaio bizkarra eman.

511. Artea herriaren zerbitzura (TOL-032/036)

Mattinentzat pintura herrian kultura zabaltzeko tresna izan da. Artea herria kulturaren bidean jartzeko tresna da, hori da bere pentsamendu magikoa.

512. Pintore bezala nola formatu den (TOL-032/037)

Donostian Martiarena izeneko pintura maisua izan zuen. Ondoren Parisen ikasi zuen. Arte Ederrak postaz ikasi zituen.

513. Mattinen arte lanak (TOL-032/038)

Bere lanak infantilak dira baina indarra dute. Bere pinturaren inozentzia sentsibilitatearekin lotuta dioala uste du. Parra pintoreak horrela definitu zuen Mattinen obra.

514. Galdutako zorionaz hitz egiten du (TOL-032/039)

Paisaiak margotu ditu. Betidanik jakin du hori zela egin nahi zuena. Galdutako zoriona faltan botatzen du. Ruben Dario eta Bertol Bretch aipatzen ditu.

515. Euskara batuaren aldekoa da (TOL-032/043)

Euskara bakarra izan beharko lukeela iruditzen zaio. Sarako euskara ikasi zuen. Han ikasitako hitzak errepasatzen ditu. Tolosako euskara hoberena den edo ez daki, ez da filologoa. Mattinek Sarako euskara oso gustukoa du.

516. Fedea eta barne bizipenak (TOL-033/002)

Fededuna da kristauak askotan irudi onik ez eman arren. Nazional katolizismoak zabaldutako erlijioa salatzen du. Fedea gauza sakona dela dio. Amak erakutsi zion fedearen bidea. Espiritualitatea beharrezkoa dela iruditzen zaio. Diruak bakarrik ez du balio, barne bizitza behar dugu.

517. Beste Euskal Herri batekin amets egiten du (TOL-033/003)

Beste Euskal Herri bat nahiko luke, baketsua, tolerantzia eta biolentziarik gabekoa. ETak armak utzi behar dituela dio.

518. Inozentziari buruzko gogoetak (TOL-033/006)

Gauza serioez serio hitz egiten du. Txikitako inozentzia kentzea ez zaio gustatzen. Zergatik okertzen gara?

519. Sei urterekin Uitzira, neskame (TOL-034/002)

Sei urte zituela neskame eraman zuten Uitzira (Nafarroa) izeba-osabarenera. Oinez joan zen Bedaiotik Uitzira. Izeba-osabek taberna eta denda zuten bertan. Umeak zaindu eta tabernako ontziak garbitzen zituen han. Bi jaunartzeak Uitzin egin zituen. Eskolara ere joaten zen, komentura.

520. Ahizparekin Iruñeko familia batera (TOL-034/004)

Uitzitik (Nafarroa) etxera itzuli zen. Etxean denboraldi bat egin eta gero, Martina eta ahizpa bat Iruñera bidali zituzten. Osaba batek hango familia aberats batera eraman zituen. Famili horrek inguruetakoa lantegi handienetakoa omen zuen. Etxe horretako bulegoan 20 "eskribiente" baino gehiago aritzen zirela dio.

521. Gerra hastean, Iruñean (TOL-034/005)

Gerra hasi zenean, Iruñean zegoen ahizparekin familia batean. Gerrako oroitzapenak kontatzen ditu. Iruñetik etxera nola itzuli ziren kontatzen du: Amezketara bueltan zihoazen soldadu batzuekin bueltatu omen ziren etxera.

522. Gerrako oroitzapenak (TOL-034/006)

Gerra denborari buruz hitz egiten du. Garai tristeak ziren. Iruñeko familia baten etxean neskame zegoen ahizparekin batera, eta etxean gordeta egoten omen ziren. Etxe ondotik hildako eta zaurituak pasatzen ikusten zituzten. Soldaduak Iruñera eraman, eta, gero, handik banatzen omen zituzten.

523. Amezketako soldaduekin Iruñetik etxeratu (TOL-034/007)

Gerra denborari buruz hitz egiten du. Soldaduak Iruñera eraman, eta, gero, handik banatzen omen zituzten batera eta bestera. Iruñetik Zugaztira bueltatu zirenekoaz hitz egiten du. Amezketara bueltan zihoazen soldadu batzuekin joan omen ziren etxera.

524. Nafarroara, irin bila (TOL-034/009)

Gerra denborari buruz hitz egiten du. Baserrikoak emandakotik jaten zuten, eta ez zuten goserik pasa. Gipuzkoan errota itxita zeuden, eta Nafarroara joaten ziren irin bila. Etxean egiten zuten ogia.

525. Iruñean egon zeneko oroitzapenak I (TOL-034/010)

Ume garaian, Martina eta Frantxiska, ahizpa, Iruñeko familia batean egon ziren neskame. Han, bertako alabak balira bezala tratatzen omen zituzten. Osaba baten bidez egon ziren Iruñeko familia horrekin.

526. Iruñean egon zeneko oroitzapenak II (TOL-034/012)

Ume garaian, Martina eta Frantxiska, ahizpa, Iruñeko familia batean egon ziren neskame. Famili horrek lantegi bat zuen. Etxe horretako bulegoan 20 bulegari baino gehiago aritzen zirela dio. Martina eta ahizpa etxekoandrearekin eta sukaldariarekin egon ohi ziren etxean.

527. "Jan eskasia" (TOL-034/015)

Errazionamenduari buruz hitz egiten du. "Jan eskasia" izan zela dio. Hala ere, baserrian beti izaten zen zerbait jateko: patata, babarruna, esnea... Gipuzkoako errota itxita zeudenez, Atallura (Nafarroa) joaten ziren irin bila. Irin horrekin, ogia egiten zuten etxean.

528. "Baserrian, gustuko lanik ez" (TOL-034/016)

Iruñetik bueltatu zenean, baserriko lanetan aritzen zen. "Baserrian, gustuko lanik ez" zela dio; "denetik egin beharra" izaten zen.

529. Garia (TOL-034/021)

Baserriko uztak. Lurra lantzeko zein tresna erabiltzen zituzten aipatzen du: laia, lurrari buelta emateko; area, berriz, lurra berdintzeko. Garia nola botatzen den azaltzen du.

530. Babarruna eta artoa (TOL-034/022)

Baserriko uztak. Babarruna nola ereiten den azaltzen du; artoarekin batera sartu ohi da lurrian. Lehen, eskuz egiten zen lan hori; gero, makinaz. Behin babarruna heldutakoan, lekan bildu eta lehortzen utzi behar da. Babarruna nola aletzen diren azaltzen du.

531. Babarrun alea eta leka (TOL-034/024)

Baserriko uztak. Babarruna aletutakoan, zakuetan sartzen zuten. Leka, berriz, behiei jaten emateko izaten zen. Urte osorako babarruna izaten zen.

532. Tripa eta eguzkia, orduen adierazle (TOL-034/026)

Erlojurik ez zen garaian, barruak adierazten omen zien jatorduak egiteko garaia noiz zen. Eguzkiaz ere baliatzen ziren.

533. Eliza eta kongregazio kontuak Ugarten (TOL-034/030)

Elizako kontuak. Ugartera joaten ziren mezara. Bezperetara eta kongregaziora ere hara joaten ziren. San Frantziskoren kongregazioan ibilia da Martina. Zinta zuria eramaten zuten.

534. Aitak egindako abarkak (TOL-034/032)

Martinaren aitak abarkak egiten zituen ganaduaren larruarekin. Aitak abarkak nola egiten zituen kontatzen du. Ez zituzten gomazko abarkak erabiltzen, baina botak bai.

535. Artilea, haria eta arropak (TOL-034/033)

Gehienetan, etxean egindako arropa erabiltzen zuten. Martinaren amak artilearekin haria egin ohi zuen; "liñaie" eta "ardatza" erabiltzen ziren haria egiteko. Artilezko arropak egiten zizkien amak.

536. Kontrabando kontuak (TOL-034/035)

Nafarroan, senideak zituzten eta hara joaten zeren janari bila. Aita eta anaiak ibiltzen ziren kontrabandoan.

537. Arropa garbiketa (TOL-034/036)

Arropak nola garbitzen zituzten kontatzen du. "Lixua" esaten zioten. Xaboia erabili ohi zuten. Ura zuten etxean.

538. Aurreko emakumeek, gona gorria (TOL-034/038)

Emakumeen janzkeraz ari da. Martina txikia zela, emakumeek gona gorriak janzten omen zituzten. Berak soinekoak erabiltzen zituen.

539. Artilezko arropekin hotzik ez (TOL-034/040)

Baserrian ibiltzeko, artilezko galtzerdiak eta abarkak erabiltzen zituzten beti. Jertsea eta gona ere artilezkoak izaten ziren. Ez zuten hotzik pasatzen.

540. Ile luzea, txirikordan bildua (TOL-034/042)

Ilea nola erabiltzen zuen kontatzen du. Ile luzea eramaten zuen, txirikordan bildua. Ugarten ba omen zen ile-apaintzailea.

541. 'Zugazti'-tik 'Zugazti barrenera' ezkondu (TOL-034/044)

28 urterekin, 'Zugazti' baserritik auzoko 'Zugazti barrena' baserrira ezkondu zen. Baserri batetik bestera trasteak eramateko zamalanak abereek egin zituzten. Altzariak, berriz, Tolosan erosi zituen.

542. Arreoa eta dotea (TOL-034/045)

Ezkondu zeneko garaian hitz egiten du. Gurasoek arreoa eta dotea eman zien.

543. Ezkon gauean, etxera (TOL-034/046)

Ezkondutako gauean, senarraren etxera joan ziren. Ez zuten eztei-bidaiarik egin. Martina Zugazti barrenera bizitzera joan zenean, bertan zenbateko familia zegoen aipatzen du.

544. Auzora ezkontzearen bentaja (TOL-034/048)

Martina 'Zugazti barrena' baserrira ezkondu zenean, ez zen emakumerik bertan. Etxekoak gertu zituzenez, haien laguntza izaten omen zuen etxeko lanetan. Maiz izaten omen zuen etxekoen bisita.

545. Umeak erditzea, (TOL-034/052)

Umeak etxean erditu izan ditu. Gurasoen eta emakumeen laguntza izan zuen erditzeetan. Medikua ere etxea joaten omen zen gero.

546. Haurrari titia ematea (TOL-034/053)

Bularrera esnea igo bitartean, ura eta behi-esnea nahastuta eman ohi zitzaion umeari.

547. Ahia umearentzat (TOL-034/056)

Behin umeak bularra hartzeari uzten zionean, ogi irinarekin egindako ahia eman ohi zitzaion.

548. Anai-arreba bikiak (TOL-034/057)

Bikiak edukitzeaz hitz egiten du. Anai-arreba bikiak zituen: ahizpa zaharrenak eta Martinak hasi zituzten. Ahizpa bakoitzak ume baten ardura omen zuen. Aitak egindako sehaskan egoten ziren bi Bikiak edukitzeaz hitz egiten du. Anai-arreba bikiak zituen: ahizpa zaharrenak eta Martinak hasi zituzten. Ahizpa bakoitzak ume baten ardura omen zuen. Aitak egindako sehaskan egoten ziren bi umeak.

549. Abertzaleak euskaraz hitz egiteko beldurrez (TOL-035/001)

Aita karlista zuen; eta amaren familia, berriz, abertzalea. Familiako bazkarietan eztabaidak sortzen ziren batzuetan. Euskaraz hitz egitea debekatuta egon zen garaian, abertzaleek ez zuten euskaraz hitz egiten, beldurragatik. Karlitek, oster, lasaiago egiten zuten euskaraz. Emaztearen senide bat gudari gisa ibili zen eta, preso hartu ostean, heriotza-zigorra kondenatu zuten. Nola libratu zen. Emaztea ikastolan ibili zen, baina gerora euskara ahaztu egin zuen.

550. Euskaratik erdarara itzulpenak egiteko arazoak (TOL-035/002)

Zeru Txiki tabernan gertatutako anekdota bat kontatzen du. Jendeak beldurra zeukan gerra ondoren.

551. Gerra aurretik, alderdiek desfileatu egiten zuten (TOL-035/003)

Gerra aurretik, desfileak izaten zirela gogoratzen du. Alderdi guztietakoak ibiltzen ziren kalean. Umeak atzetik joaten ziren. Alderdi bakoitzak bere abestiak ere bazituen.

552. Gerra giroa umeen ikuspegitik (TOL-035/004)

Tolosan gerra oso azkar bukatu zen, egun gutxi batzuetan nazionalak sartu ziren eta. Gerra aurretik talde politiko asko zeuden Tolosan. Gerra garaian umea zen, baina gauza bitxiak gertatzen ari zirela jakin zuen. Checa komandantea Tolosako sarreran hil zutela ere jakin zuten.

553. Euskal kulturaren inguruko liburuak lortu zituen (TOL-035/007)

Pablo Gorosabelen liburu bat lortu zuen. Euskararen inguruko beste liburu batzuk ere lortu zituen, eta asko ikasi zuen. Euskaldun sentitzen zen, baina separatismoa ez zuen kontuan hartzen.

554. Manuel Lekuonaren hitzaldia Oargi elkartean (TOL-035/008)

Joxe Mari txikia zenean, Tolosan baserrietatik etorritakoek hitz egiten zuten euskaraz. Oargi elkarteko lehendakari zela, Manuel Lekuona Tolosara eraman zuen hitzaldi bat ematera. Hitzaldi hartan zertaz hitz egin zuen kontatzen du. Han entzundakoak asko markatu zuen.

555. Tolosako euskararen garapena (TOL-035/009)

Tolosan azoka aspalditik ospatzen zen, eta, bertara leku askotako jendea biltzen zenez, denen artean euskara aberastu egin zuten.

556. Dendako bezeroak eta produktuak (TOL-035/011)

Dendako bezero gehienak langileak eta baserritarrak izaten ziren. Joxe Mariren familiak gozotegi bat zeukan, eta bertan zer gauza saltzen zituzten kontatzen du. Tolosan baziren gozo-denda gehiago.

557. Pianoa zeukan konfiteria bat Tolosan (TOL-035/012)

Garai batean emakumeek ez zutenez ikasten, lanera joaten ziren; goi mailakoek, berriz, pianoa jotzen zuten. Korreo kalean zegoen konfiteria batera emakumeak ere joan zitezkeen, eta bertan pianoa jotzeko aukera ere izaten omen zuten.

558. Pixkanaka gozo gehiago saltzen hasi ziren (TOL-035/013)

Hasieran txokolatea, mazapana eta horrelakoak egiten zituzten. Geroago hasi ziren produktu gehiago lantzen. Aldaketa hura noiz eta zergatik gertatu zen kontatzen du. Donostiako Garibai etxean ikasi zuen.

559. Hainbat lekutan ibili da gozogintza ikasten (TOL-035/015)

Hainbat lekutan ibili zen gozogintzaren inguruko jakintza handitu asmoz. Iruñean "konfiteritza berezia" ikasi omen zuen. Handik urte gutxira Bartzelonan eskola bat sortu zen eta hara joan zen, Jaume Sagarri bat i Aumassu; maisu handiarengana. Gerora zenbait ikastarotan parte hartu zuen. Emaztea hil zenean, 65 urterekin, Alemaniara joan zen, bertako txokolategintzako eskola ofizialera, eta lau hilabete eta erdi egin zituen bertan.

560. Zegamatik dator bere familia (TOL-035/016)

Joxe Mari Gorrotxategi Pikasari. Aitona Zegamako zuen, artzaina eta ondoren Renfeko langilea. Renfekoek bidali zuten Tolosara lanera, eta bertan jaio zen Joxe Mari bertan. Pikasari abizena jatorriz Sarakoa omen da.

561. Zegamako baserria eta Tolosako kale-giroa (TOL-035/017)

Zegama asko estimatzen du, txikitan urtero hilabete pasatzera joaten zen eta. Tolosan jaio zen, kale Nagusian. Baserri giroa ezagutu du, eta horrek asko aberastu du. Baserri mundua maite du. Garai bateko emakume baserritarrak goraiatzaren ditu.

562. Benetako matriarkatu batean bizitu zen txikitan (TOL-035/018)

1929ko Erramu egunean jaio zen. Lau senideetatik zaharrena eta mutil bakarra zen. Benetako matriarkatu batean bizitu zela dio. Amak familia eta denda zituen lehentasun moduan.

563. Kalean langile giroa bizi zuten (TOL-035/019)

Kaleko jendearen artean desberdintasunak baziren. Langile giroan bizi ziren. Eskolapioen ikastetxean oso gutxi iristen ziren Batxilergoa ikastera. Gehienak 14 urte betetzerakoan lanera bidaltzen zituzten.

564. Umetan, janari osasuntsuak eta kirola (TOL-035/020)

Joxe Mari umea zenean, denak argalak zirela dio. Garai haietan zer jaten zuten kontatzen du. Korrika eta saltoka ibiltzen ziren. Igandetan 10 zentimoko paga ematen zieten. Mezara joanez gero, zinerako balea jasotzen zuten.

565. Umetako jolasak (TOL-035/021)

Eskolatik atera ondoren jolasean ibiltzen ziren. Joko haiek nolakoak ziren gogoratzen du; kirola egiteko modua ziren. Joko haietan erabiltzen zituzten abestiak ere gogoan ditu. Nesken jolasak bestelakoak izaten ziren.

566. Txokolatea egiten errazionamendu garaian (TOL-035/023)

Lau senidetan mutil bakarra zen. 14 urte bete zituenean, eskola utzi eta txokolatea egiten hasi zen etxeko gozotegian. Txokolatea nola egiten zuten kontatzen du. Gabezia garaiak ziren, eta txokolatea zen gauza gozo bakarra. Produktuak errazionamenduaren bidez jasotzen zituzten. Txokolatea udaletxeetara eramaten zuten, eta handik banatzen zuten etxeetara errazionamendu kartilen bidez.

567. Txokolatea nola egiten zuten (TOL-035/024)

Txokolatea egiteko prozesuaren deskribapena. Hogei kiloko txandak egiten zituzten, eta handik berrehun gramoko tabletak ateratzen zituzten. Azpian jartzen zuten papera umeen gaixotasunak sendatzeko erabiltzen zuten emakumeek.

568. Txokolatea gogortzeko, etxeko eskaratzean gordetzen zuten (TOL-035/025)

Txokolate tabletak egiteko pisua erabiltzen zuten. Hozkailurik ez zegoenez etxeko eskaratzean gordetzen zuten txokolatea, gogortu zedin.

569. Gerra garaia umeen ikuspegitik (TOL-035/027)

Gerra hasi baino aste batzuk lehenago, Jaunartzea egin zuen. Gerra aurreko garaietan izandako manifestaldiak gogoratzen ditu. Gerra hasi zenean, umea zen eta ez zen gehiegi ohartu. Familietan tragedia handiak bizitu ziren; haietako batzuk gogoratzen ditu.

570. Teknologiari esker gauza asko aldatu dira gozogintzan eta sukaldaritzan (TOL-036/003)

Lanean hasi zenean egurra erabiltzen zuten labea pizteko. Labean produktuak zein ordenetan sartzen zituzten kontatzen du. Orain teknologiari esker hainbat aurrerapen ditugu.

571. Aspaldiko teknikak aitarengandik ikasi zituen (TOL-036/004)

Joxe Mariren aitak ofizioa Donostian eta Oñatin ikasi zuen. Aitaren teknikak txikitan ikasi zituen. Teknika haiek nolakoak ziren kontatzen du. Labea zaintzea artea zen garai haietan.

572. Hainbat produktu egiten zituzten, bakoitza bere teknikarekin (TOL-036/005)

Petixuak, bizkotxoak, rusoak eta hainbat produktu egiten zituzten gozotegian. Bakoitzak labe tenperatura bat behar zuen. Erabiltzen zituzten tresna gehienak argindarrik gabekoak ziren. Lana eskuz egiten zuten.

573. Gorrotxategiko karameluak (TOL-036/006)

Gozokiak egiten trebeak ziren. Haien errezeta azaltzen digu. Karameluak nola zatitzen zituzten ere gogoan du.

574. Loidi kopa bat eta pastela jatera joaten ziren Gorrotxategira (TOL-036/007)

Gorrotxategiko "xaxu"ek fama handia zuten. Garai batean gutxi ziren haiek eros zitzaketenak. Azokara etortzen ziren baserritarrek "Loidi" kopa bat eta pastela jaten zuten gozotegian. Haietako baserritar bati buruz hitz egiten du. Pastelak 10 zentimo balio zituen.

575. Dendan bizitutako anekdotak (TOL-036/008)

Gazteluko festak ospatzeko tarta enkargatu zioteneko pasadizoa gogoratzen du. Baserrietan turroi gutxi jaten zen. Dendan gertatutako beste anekdota batzuk kontatzen ditu. Zainzuriak (esparragoak) eta orburuak (alkatxofak)

gutxi saltzen ziren. Tomatea, berriz, asko. Urte gutxitan gauzak asko aldatu dira.

576. Gorrotxategin argizaria eta kandelak ere saltzen zituzten (TOL-036/010)

Bertan egindako argizaria ere dendan saltzen zuten. Paper lantegiak parafina saltzen zien, eta horri esker kandelak egiten zituzten. Bi motako kandelak izaten ziren. Argizaria Soriatik eta Zamoratik trenez ekartzen zuten.

577. Kandelak egiteko prozesua eta tresnak (TOL-036/011)

Kandelak, eskubilduak eta argizaiolak nola egiten zituzten deskribatzen du. Pertza berezi batzuk erabiltzen zituzten. Hainbat tresna nolakoak ziren erakusten du.

578. Buruko mina jartzen zitzaielako, argizarigintza utzi zuten (TOL-036/012)

Argizaria egiteko ateak itxita eduki behar izaten ziren, eta buruko min handia jartzen zitzaien. Horregatik utzi zuten lan hura.

579. Argizariaren eta gozogintzaren arteko loturak (TOL-036/013)

Argizaria egiteak eta gozogintzak badute loturarik. Azukrerik ez zen garaian, janariak gozotzeko eztia erabiltzen zen. Argizaria gauza askotarako erabiltzen zen garai batean.

580. "Xaxu" gozoen izenaren jatorria (TOL-036/018)

"Xaxu" gozoen izena nondik datorren argitzen du: "Xaxueta" baserriko gozogile baten izenetik dator.

581. Arroz-esnea egiteko errezeta berezia (TOL-036/021)

Garai bateko postreak arroz-esnea, konpota eta horrelakoak izaten ziren. Festetan San Blas baselizan arroz-esne berezia egiten zuten. Liburuetan antzinako sukaldariei buruz irakurritakoa.

582. Lopez-Mendizabal abizenaren jatorria (TOL-037/002)

Lopez-Mendizabal abizenaren jatorria azaltzen dute.

583. Aitona karlista euskaltzalea eta aita abertzalea (TOL-037/004)

Aitona karlista foruzalea eta euskaltzalea zen. Aitak hizkuntza ugari zekizkien eta behin Italiara joan zen, bere aitak hara bidalitako gutun bat iritsi ote zen begiratzera. Sabino Aranaren garaian, aita abertzale egin zen eta erreparoa ematen zion bere aitari esateak ez zela karlista.

584. Aitaren helburua: Euskadi aurrera ateratzea (TOL-037/005)

Aitak zuzenbidea eta filosofia ikasi zituen Deustun. Gizon jantzia zen eta asko irakurtzen zuen. Abertzale egin zen eta Euskadi aurrera ateratzea zen bere helburua. Ikastolen mugimendua hasi zen orduan eta bera Tolosako mugimenduaren buru izan zen. Orduan argitaratu zituen liburuak aipatzen dituzte eta liburu haien sorrerari buruz hitz egiten dute.

585. Euskaltzaleak munduan zehar (TOL-037/007)

Aitaren euskarazko gramatikari buruzko liburuarekin ikasi zuen euskaraz Txekoslovakiako gizon batek: zoragarri idazten zuen euskaraz. Kataluniako gizon batekin posta-tru <http://www.ahotsak.com/admin/gaiak/gaia/kea> zuen aitak: haren ustez, Euskal Herriatik Kataluniara bitarteko toponimian euskal izenak daude. Aitak posta-trukea izaten zuten munduko hainbat lekutako jende euskaltzalearekin.

586. Gramatika-liburua idazteko ideia (TOL-037/010)

1914an aita Ipar Amerikan izan zen. Han zegoela bururatu zitzaion gramatika-liburu labur bat idatziko zuela, jendeak euskaraz ikas zezan. Liburua atera zuenean idatzi zuen eskaintza irakurtzen du Ixiarrek. Aitaren liburuak agortu egiten ziren beti, baita Argentinan ere.

587. "Dotrina laburra" idatzi eta bedeinkazioa jaso (TOL-037/011)

"Dotrina laburra" euskarara itzultzea aitari nola bururatu zitzaion azaltzen du Ixiarrek. Dotrina idatzitakoan, Pio X. Aita Santuak bedeinkazioa bidali zion liburuari.

588. Aita euskarako irakasle Buenos Airesen (TOL-037/012)

Aita oso langilea izan zuten, 95 urterekin oraindik lanean jarraitzen zuen: Buenos Airesen zegoela, euskarako klaseak ematen zituen eta hara joaten zen euskara ikastera Pedro Mari Otaño bertsolariaren alaba.

589. Buenos Airesen ikasleak oso gustura aitarekin (TOL-037/014)

Aitak Buenos Airesen ematen zituen euskarako klaseak. Ikasleak oso gustura joaten ziren harengana.

590. Aitaren apaltasuna (TOL-037/016)

Aita lotsatu egiten zen bere liburutik bere izenarekin sinatzeaz. Aita zergatik bidali zuten Argentinara azaltzen du Ixiarrek.

591. 15 eguneko gerra zelakoan, 3 hamarkada etxetik kanpo (TOL-037/017)

Gerra garaia nola bizi izan zuten kontatzen dute: lehenengo, Urkizura joan ziren. Amak uste zuen gerra 15 eguneko kontua izango zela, baina 30 urte gelditu ziren Argentinan.

592. Gerra osteko goseari aurre egiten (TOL-039/002)

9 urte izan bitartean, kalean bizi izan zen. Baina gerra osteko goseari aurre egiteko, amaren baserrira joan ziren Uztegara; aita eta anaia, baina, Tolosan gelditu ziren txapel-fabrikan lanean. Aitak presa garbitzen zuen eta askotan urak kontserba-latak ekartzen zituen berekin; aitak lata haiek hartu eta etxera ekartzen zituen.

593. Gurasoek lan asko egin zuten goserik pasa ez zezaten familian (TOL-039/003)

Gerra ostean ez zuten halako gosea pasa; aita lehengusuaren baserritik sagardoa ekartzen zuen. 9 senide izanda, gurasoek lan asko egin zuten denak aurrera ateratzeko.

594. Tolosako bonbetatik ihesi Uztegiko baserrira (TOL-039/006)

Aldameneko etxean gerra garaian bonba bat bota zuten, baina bertan bizi zen emakume zaharra onik atera zen. Bonbak bota zituzten garaian, Gregoriaren familiak Tolosatik alde egin zuen: Uztegira joan ziren eta 5 urte eman zituzten han; aita eta anaia, ordea, Tolosan gelditu ziren txapel-fabrikan egiten baitzuten lan.

595. Santa Luziako eskolan ikasia (TOL-039/008)

Tolosan bizi zirenean, Santa Luzia eskolara joaten zen. Nesken maistra Donostiatik etortzen zen eta mutilen maistra Tolosatik bertatik. Dotrina parrokiari ikasten zuten.

596. Familiako giroa zaintzen (TOL-039/013)

Etxean ez zuten egunero erreztatzen arrosarioa, baina mezara ez zuten huts egiten. Gurasoak erlijiosoak ziren. Aita fededuna, gozoa eta errespetuz jokatzeko zuena zen. Gurasoek kontu handia jartzen zuten umeen aurrean arazoei buruz ez hitz egiteko. Umeak hezteko filosofiari buruz hitz egiten du.

597. Etxeko giro ona (TOL-039/014)

9 senide izanda, gogoan du nola antolatzen ziren etxean denak batera bizitzeko. Etxean ondo moldatzen ziren, borondatea eta autoritatea behar zen. Otorduetan denek batera jaten zuten.

598. Aitaren nortasuna (TOL-039/015)

Aita tabernara joaten zen bokadiloa hartuta, han egunkaria irakurtzeagatik. Aitak perretxikotara bila joateko zaletasun handia zuen: perretxikoak etxera ekartzen zituen, seme-alabei azalpenak ematen zizkien onak eta txarrak bereizten jakin zezaten.

599. Amarotzeko lima-fabrikako lana (TOL-039/018)

14 urterekin Amarotzeko lima-fabrikan fabrika hasi zen lanean: goizeko 05:30ean jaiki eta oinez joaten zen hara Tolosatik. Lan txarra zen hangoa, uretan eta karetan garbitu behar izaten baitzituzten limak.

600. Kaleko umea izan arren, baserriko lanak egiten ondo ikasia (TOL-039/022)

Behin Gregoriak, mutil-lagunarekin zebilen garaian, gizon zahar batzuekin bizipen mingarria izan zuen. Handik urtebetera ezkondu egin zen baserrira: berehala ikasi zituen baserriko lanen gorabeherak, nahiz eta kalekoa izan.

601. 8etan lanean eta 10etan umea izan (TOL-039/026)

Lehenengo haurra 21 urterekin izan zuen. Haurdun zegoela ere, lanean jarraitzen zuen, baita erditu zen egunean ere. Erditzeko garaian, medikuak nahiago izaten zuen emakumea baserritarra izatea kalekoa izatea baino.

602. Erdara eguneroko bizimoduan sartuta (TOL-044/002)

Segoviako familia batzuk etorri ziren lanera paper-fabrikara; haiekin erdaraz egiten zuten dena eta Maria Luisaren aita haserretu egiten zen, ez baitzuen erdara ulertzen. Amarekin eta eskolan ere erdaraz egiten zuten.

603. Inguruan gehienbat mutilak bizi ziren (TOL-044/003)

Inguruko baserrietan gehiena mutilak bizi ziren. Neskekin jolasten zuenean, zer jolasetan aritzen ziren kontatzen du.

604. Galdategiko lur beltzarekin jolasean (TOL-044/004)

Etxe inguruan galdategia zegoen eta handik hartzen zuten lur beltzarekin gauza asko egiten zituzten. Etxe inguruko tren-estaziora botatzen zuten galdategikoek lur beltz hura.

605. Zuhaitzen ordeztasun, beste jolas batzuk asmatu (TOL-044/005)

Etxe aurrean zuhaitzik ez egon arren, hainbat jolas asmatzen zituzten: leihotatik salto egitea, zuloan sartu eta irten...

606. Errekako jolasak (TOL-044/006)

Errekan jolasean aritzen ziren: zapaburuei begira, igelak harrapatzen... Gerora, gaztetan, erreka hartan arropa garbitzen aritzen zen.

607. Galdategiko lanak imitatzen (TOL-044/007)

Trenbide inguruan jolasean aritzen ziren: trenetako beruna hartzen zuten eta likido berotan sartzen zuten; galdategiko prozedurak imitatuz, forma ematen zioten berunari.

608. Belarrarekin eta arrainekin jolasean (TOL-044/008)

Baserrian belarra ekartzen zutenean, zulo batetik behera botatzen zuten belar lehor hura. Umetan zulo horretara egiten zuten salto. Oria ibaiak urez gainezka egiten zuenean, amuarrainak harrapatzera joaten ziren sare batekin.

609. Txorien hilerria (TOL-044/009)

Maria Luisa askotan bakarrik egoten zen umetan, inguruan neska gutxi bizi baitziren. Hala ere, denbora asko ematen zuen jolasean. Teilatutik hilda erortzen ziren txoriak bildu eta berak egindako txorien hilerria eramaten zituen; behin amak ikusi zuen zertan ari zen, eta ordutik ez zuen berriro egin.

610. Bere baratze txikia umetan (TOL-044/010)

Lehen soro asko zeuden etxe inguruan, eta arto artean sartuta bere baratze txikia egiten zuen Maria Luisak. Neskekin elkartzen zenean, beraien jolasetara aritzen ziren.

611. Kirol-zelaiko ariketak imitatzen (TOL-044/011)

Berazubi kirol-zelaian egiten zituzten ariketak imitatzen zituzten umetan: salto egitea asko gustatzen zitzaaien gehien.

612. Garbitegia plisti-plasta (TOL-044/012)

Udatan garbitegia astean behin garbitzen zuten, eta hondartzan bezalaxe aritzen ziren plisti-plasta.

613. Norekin konfesatu aukeratzen (TOL-044/015)

Lehenengo jaunartzea festa ederra izan zen; egun hartan zer jan zuten aipatzen du. Apaiza ez zitzaion gustatzen, ez baitzuen adeitasunik izaten jendearekiko; horregatik, San Frantziskora fraideengana joan zen konfesatzera. Orduko bekatuak aipatzen ditu.

614. Udal-eskolako maistra paregabea (TOL-044/016)

Mojetan ikasi ostean, Tolosako udal-eskolara joan zen. Izan ere, mojetan ordaindu egin behar zen, eta etxean ez zegoen dirurik horretarako. Udal-eskolan oso maistra ona izan zuen, asko kezkatzen zen ikasleez. Emakume hark omenaldia merezi duela uste du Maria Luisak.

615. Udal-eskolan maistra onak eta ez hain onak (TOL-044/018)

Udal-eskolan fundamentuzko andere^{ak} jarri zieten: do^a Maurelia. Lehenago izandako maistra ez zuen gustuko, beti haserre egongo balitz bezala baitzegoen. Do^a Maurelia oso andere^a ona zen eta ikasleekiko ardura zintzoa zuen.

616. Diru-laguntzak emateko irizpide "garbiak" (TOL-044/019)

12 urte inguru zituztela, Errepublika garaia zen, eta eskolako andereñoak neska batzuei lagundu zien goi-mailako ikasketak egiteko diru-laguntzak lortzen. Diru-laguntzak ematean, baina, tranpak egon ziren eta arrazoi politikoengatik eman edo ukatu zituzten.

617. Peñafiorida institutura ikastera (TOL-044/020)

Maria Luisaren aita trenean egiten zuenez lan, Maria Luisak ez zuen trenik ordaindu behar izaten. Eskola bukatutakoan, Donostiara joan zen Peñafiorida institutura ikastera. Orduan hasi zen gerra zibila, baina Donostia nazionalek azkar hartu zuten, ez ziren eten ikasketak.

618. Peñafioridako ikasketen maila ona (TOL-044/021)

Eskola bukatutakoan, Donostiara joan zen Peñafiorida institutura ikastera. Espainiako irakasle onenak izan zituzten han eta Maria Luisak oso gustura ikasi zuen.

619. Paulino Caballero saria irabazi zuenekoa (TOL-044/022)

Peñafioridako instituan zebilela, oso irakasle ona izan zuen. Maria Luisak takigrafia ikasteko asmoa zuen, eta oso ikasle ona izan zen: Paulino Caballero saria eman zioten ikasle onena izateagatik.

620. Ikasle ona izanda, sariak eta diru-laguntzak lortu zituen (TOL-044/027)

Peñaflorida institutuan zebilela, Paulino Caballero saria eman zioten; orduan udaletxera joan zen goi-mailako ikasketak egiteko diru-laguntza eskatzera; diru-laguntza eman zioten eta medikuntza ikastea erabaki zuen. Poz izugarria hartu zuen orduan, baina gurasoak triste geratu ziren, kezkatuta ea Maria Luisak ikasketa egokiak aukeratu ote zituen.

621. Madrilen familia baten etxean bizitzen (TOL-044/030)

Madrilen ikastea oso garestia zen egonaldiarengatik bereziki, eta horregatik familia baten etxean jarri zen bizitzen. Etxe hura non zegoen azaltzen du.

622. Mutilekin ikasten ohituta (TOL-044/032)

Medikuntzako fakultatean ikasten hasi zenean, Maria Luisa zen emakume bakarra. Maria Luisa ez zen kikiltzen mutilen artean, Errepublikara garaian eskolan ohituta zegoen mutilekin batera ikastera. Francoren garaian, ordea, bereizi egin zen mutilen eta nesken arteko heziketa. Orduan izandako gutun erromantiko batzuen istorioa kontatzen du.

623. Raquelen gutun erromantikoen misterioa (TOL-044/036)

Eskola garaian izan zuen posta-trukeari buruz hitz egiten du. Helburua ikasturtearen amaieran elkar ezagutzea zen. Egunero idazten zuen eta egunero jasotzen zuen erantzuna. Inork ez zekien bera zenik gutunak idazten zituen neska.

624. Igandetan, bi aldiz elizara (TOL-048/004)

Igande goizetan, mezara joaten ziren. Handik etxera joan, eta gosalduta egiten zuten, eta hamarretako mezara, meza nagusira joaten ziren gero. Elizan, abestu egiten zuen. Apaizak organoa jotzen irakatsi nahi zion, baina etxean lagundu behar zuelako eta diru faltagatik, ez zen posible izan. Ikasketarik izan ez arren, gustura bizi ziren.

625. Aldabazar baserria (TOL-048/006)

Aldabazar baserrian bost familia bizi ziren. Hamar senide ziren. Familia bakoitzean zenbat ziren aipatzen du.

626. Ikastei buruzko iritziak (TOL-048/007)

Lehen, ikasketak izateari ez zitzaien garrantzia handia ematen. Ikasketak zituen jendea "arroxka edo aprobetxatuak" zirela esaten zuten. Anaiak Tolosako eskolapioetan ikasten zuen. Pakitak anaiaren liburuak hartu eta ganbaran aritzen zen ikasten.

627. Anaia, gerran ibilia (TOL-048/008)

Gerra etorri zenean, anaiak 17 urte zituen eta gerrara joateko deitu zioten. Hiru urte egin zituen gerran. Eta gero, beste lau urte egin zituen Ceuta-Melilla aldean, soldadu. Anaiak "permisoak" zituenean ez zuen beti etxera joaterik izaten, eta etxekoek paketeak bidaltzen zizkien. Etxeratu zenean, gaixo egon zen eta arrebek zaindu ohi zuten.

628. Aldabazar baserria (TOL-048/010)

Aldabazar baserria nolako zen kontatzen du. Baserri handia zen, eta hainbat bizitza ziren bertan. Pakitaren familiak lau gela zituen, eta binaka egin ohi zuten lo.

629. Garizuma (TOL-048/012)

Garizumako jaiei buruz hitz egiten du. Aldabako frontoian, pilotan aritzen ziren mutilak. Eta zenbait gizon ostatuan ere ibili ohi ziren.

630. Umetako jolasak (TOL-048/013)

Umetako jolasak aipatzen ditu: sokasalto, etxeko andrezka... Umetako ibilerak kontatzen ditu.

631. Argia eta ura (TOL-048/014)

Baserrian ura jarri zutenean, Pakitak sei urte zituen. Auzolanean egin omen zen lana. Etxean argia jarri aurretik, kinke batzuekin moldatzen ziren.

632. Iturria eta "ekonomika" (TOL-048/017)

Etxean ez zuten urik, eta egunero joan behar izaten zuten iturrira ur bila. Beheko sua zuten, "ekonomika" jarri zutenekoa kontatzen du.

633. Beheko sua (TOL-048/018)

Beheko sua nola zen kontatzen du. Janaria nola prestatzen zuten kontatzen du.

634. Eltzea eta jaki prestaketa (TOL-048/020)

Janaria prestatzeko eltzeak nolakoa izaten ziren kontatzen du. Ama arduratzen zen janaria prestatzeaz. Dotrinako liburua aurrean hartuta aritzen omen zen Pakita patata zuritzen

635. Mahaian, gurasoak beti toki berean (TOL-048/022)

Udaran, aitari laguntzen zioten soroko lanetan. Aitak eguzkiari begiratuta antzematen omen zuen zer ordu zen. Jatorduetan, mahaian, aita eta ama beti toki berean eseri ohi ziren. Bederatzi lagun izaten ziren mahaian.

636. Jatorduak eta bedeinkazioak (TOL-048/024)

Jatorduak ditu hizpide. Jan aurretik, errezatu eta ogia bedeinkatzen zuten. Ogia moztu aurretik, gurutzea egin eta musu ematen zioten. Bazkaritan, babarruna, aza eta "sakramentuak" izan ohi ziren. Bakoitzak bere plateretik jaten zuen. Egunaren amaieran, aitak lanak amaitu eta afaria prestatu bitartean, arrosarioa errezatzen zuten.

637. Ur bedeinkatua (TOL-048/025)

Ur bedeinkatua edukitzen zuten etxeko gela bakoitzean. Larunbat santu egunean bedeinkatutako ura izaten zen. Etxeko sarreran ere bota ohi zen ur bedeinkatua. Etxetik ateratzerakoan, aitaren egiten zuten.

638. Erramu bedeinkatua eta tenporak (TOL-048/026)

Baserriko leihoetan, erramu bedeinkatua jartzen zuten trumoa egiten zuenerako. Pakitaren aita eguraldia antzematen ona omen zen; eguzkiari begiratuta zer ordu zen jakiten omen zuen. Tenporak noiz izaten diren aipatzen du.

639. Baserriaren errenta (TOL-048/028)

Baratzeko lanak aipatzen ditu. Babarruna urte osorako izaten zuten. Maizterrak ziren, eta urtean hainbesteko bat ordaindu behar izaten zuten; Santo Tomas bezperan, bi kapoi entregatu behar izaten zizkioten nagusiari. Nagusia Albizturkoa zen. Gari denboran, bi zaku gari ematen zizkioten.

640. Larunbatetan, Tolosara (TOL-048/029)

Larunbatetan, amarekin joaten zen Tolosako azokara. Pakita umea zen, eta gustura joaten amarekin. Zaldiari bi saski jarrita joaten ziren herrira.

641. 15 urterekin, esnea saltzera (TOL-048/030)

Bi urtean ibili zen Tolosan esnea saltzen. 15 urte zituen garai hartan, eta egunero joaten zen herrira. Elurra egiten zuenean, zaldiarekin gorabeherak izaten omen zituen. Bideak txarrak ziren.

642. 15 urtera arte, besteren arrokekin (TOL-048/034)

15 urtera arte, ez omen zuen arropa bat bera ere estreinatu. Ahizpa zaharragoen arropa eta zapatak jantzi ohi zituen. Amak josi ohi zizkien arropak. Tolosan erosten zuen tela, eta makinarekin josten zituen gero.

643. Jaiegunetako arropa eta zapatak (TOL-048/035)

Jaiegunetarako arropak bereziak izaten ziren, baita oinetakoak ere. Baserriko lanetarako oinetako batzuk erabiltzen zituzten, eta mezara joateko beste batzuk. Elizara joateko, bideak txarrak zirenez, abarkak janzten zituzten. Behin eliz atarian, abarkak bazter batean laga eta zapatak janzten zituzten.

644. Arropa garbiketa I (TOL-048/036)

"Lixua" nola egiten zuten kontatzen du. Zuritutako maindire eta arropak urberritzeko auzoko aska batera joan ohi ziren. Negu garaian, kanpoan lan horiek egin eta gero, amak ardoa, kanela pixka batekin berotuta, prestatzen zion.

645. Arropa garbiketa II (TOL-048/038)

Sutako hautsa erabiltzen zen arropak zuritzeko. Trapu bat erabiltzen zen hautsa iragazteko. Arropak tina izeneko ontzi batean garbitzen ziren. Tina gelditzen zen urarekin kolorezko arropak garbitzen zituzten. Arropak lehortzeko, etxe inguruan esekitzen zituzten.

646. Hondartzara, jende aberatsa (TOL-048/040)

Umetan ez ziren hondartzara joaten. Aldabatik Tolosara ordu eta erdiko bidea zuten oinez... Hondartzara jende aberatsa joaten omen zen.

647. Gari lanak eta gero, errekan garbitu (TOL-048/041)

Gariarekin ibiltzen zirenean, hauts asko izaten zen eta errekan garbitzen ziren. Errekak ur asko izan ohi zuen. Ez zuten bainujantzirik; soinekoekin sartzen ziren uretara.

648. Perretxikoak, Donostian saltzera (TOL-048/044)

Perretxikoak biltzeko ohitura zuten. Gero, Donostiako San Martingo plazan saltzen zituzten perretxikoak. Etxean ere perretxiko asko jaten zuten. Ganbaran uzten zituzten perretxikoak lehortzen.

649. Orbela eta garoa (TOL-048/045)

Orbel eta garo asko hartu ohi zuten basotik ganaduaren azpiak egiteko. Moztutako garo eta belarrak "gela" esaten zioten gurdi batean biltzen zituzten. Mozteko, berriz, sega erabiltzen zuten.

650. Etxeko txikia izateak... (TOL-048/046)

Pakita etxeko txikienetakoa izanik, ez zen segan eta laian asko ibili; ahizpa zaharragoak bai, ordea. "Umea da eta utzi" esan ohi zuten gurasoek.

651. Gari lanak (TOL-048/048)

Gari lanei buruz hitz egiten du. Garia igitaiarekin mozten zuten, sortak egiten zituzten gero... Gari-jotzea nola izaten zen kontatzen du. Auzolanean egin ohi zuten lana. Garia Albizturko errotara eramaten zuten.

652. Albizturko errota (TOL-048/049)

Albizturko errotara joaten ziren gariarekin. Errotan jasotako irinarekin taloa eta ogia egin ohi zituzten etxean. Ez zuten goserik "ikusi". Errazionamendu garaia aipatzen du.

653. Gerra osteko inspektoreak (TOL-048/050)

Gerra osteko garaia buruz hitz egiten du. Ez zegoen animaliarik etxean hiltzerik. Auzokoekin batera txekorra hil ohi zuten ezkutuan. Errotak ere itxita egoten ziren. Inspektoreak ibili ohi ziren baserriz baserri, dena kontrolatu nahian; anekdota bat kontatzen du.

654. Aldabako eskola (TOL-048/052)

Aldaban ibili zen eskolan. Arratsaldetan, apaizaren arrebak josten irakasten zien. Bederatzi urte zituela utzi zuen eskola, etxean lagundu behar zuelako. Apaiz bat joan zen gurasoekin hitz egitera, ikasten segi zezan, baina etxean lana zegoen egiteko eta dirurik ez.

655. Eskolako kontuak (TOL-048/054)

Katona izeneko liburua erabiltzen zuten eskolan. Eskolan, ez zien uzten euskaraz hitz egiten. Erdaraz gaizki hitz egiteagatik barre egiten zien, eta Pakitak nahiago izaten zuten isilik egotea.

656. Irratia entzuten (TOL-048/056)

Diktadura garaian, desinformazio handia zegoen. Radio Francia Internacional entzuten zuten; gaztelaniaz ematen zituzten albisteak eta horrela izaten zuten gauzen berri.

657. Aldabako San Migel festak (TOL-048/058)

Dantzan, "sueltoan" egin behar izaten zen. Aldabako festak San Migeletan izaten ziren, eta aurrekua egiten zen. Erroskilla saltzailea ere izaten zen festetan. Zozketa batean erroskilla tokatu zitzaiola kontatzen du. Herri-kirolak ez zen izaten, baina pilota partidak bai.

658. Leihoetan, koltxoak eta mantak jarrita (TOL-049/001)

Gerrako oroitzapenak kontatzen ditu. Hegazkinak ikusten zituzten. Auzoko baserri batean, 'Marea'-n, tiroketa bat izan zen eta hiru lagun hil zirela kontatzen du. Etxetik ateratzeko beldurrez egoten ziren. Arto tartean ere ezkutatu ohi ziren. Leihoetan, koltxoak eta mantak jartzen zituzten tiroak botaz gero barrura ez sartzeko.

659. Anaia, Francoren aldeko tropekin (TOL-049/002)

Gerrako oroitzapenak. Anaiari, 17 urte zituela, gerrara joateko deitu zioten. Francoren aldeko tropekin aritu omen zen; auzoko beste mutilak bezala. Etxe jabeak karlistak omen ziren, eta Pakitaren aita karlisten alde botatzera behartu omen zuten, etxetik bidaliko zituzten mehatxupean. Emakumeek ez zuten botoa ematerik.

660. Umetan, Franco agurtzera (TOL-049/006)

Gerrako oroitzapenak. Bederatzi urte zituela, eskolako umeak Franco agurtzera Ikaztegiara eraman zituztela kontatzen du.

661. Urria, "Ama Birjinaren arrosarioko hila" (TOL-049/013)

Garizuma garaian, misioak izaten ziren. Urriari "Ama Birjinaren arrosarioko hila" esaten zioten. Eta hilabete horretan, babarrunetan aritzen baziren ere, lana utzi eta arrosarioa errezzatzera joan behar izaten zuten iluntze aldean. 'Ave Maria' jotzerako etxean egon behar izaten zen.

662. Mariaren alabak kongregazioko presidente (TOL-049/014)

Mariaren alabak kongregazioko presidente izendatu zuten. Zinera joateagatik, dantza lotuan egiteagatik... kongregaziotik botako zituztela esaten zien. Dena bekatua zen.

663. Loiolako gogo-jardunak (TOL-049/017)

18 urte zituela, Loiolara joan zen gogo-jardunetara. Etxetik ateratzeko aitzakia izaten omen zen. Infernuari buruz hitz egiten zien han, eta gauean beldurra pasatzen zuela kontatzen du: bost egunean zortzi kilo argaldu zen.

664. Apaizarentzat txerriki onenak (TOL-049/019)

Igandetan, Pakitaren amak meza nagusiaren aurretik konfesatu eta komulgatzen zuen. Elizara joaten zenean, apaizari babarrun zakua eta arrautzak ematen zizkion. Pakitak, berriz, sutarako egurra eraman ohi zion apaizari. Txerria hiltzen zutenean, txerriki onenak apaizarentzat izaten omen ziren.

665. Prozesioak (TOL-049/021)

Aldaban egiten ziren prozesioei buruz hitz egiten du. Prozesioak pasa behar zuen tokia lorez apaintzen zuten.

666. Hilerokoa (TOL-049/024)

Hilerokoari buruz hitz egiten du. Ahizpa zaharragoak edukiagatik, sekula ez zien hilerokoagatik hitz egiten aditu. Pakitari hilekoa etorri zitzaionean, ahizpa batek eman zizkion azalpenak; gurasoekin ez zen gai horretaz hitz egiten.

667. Bost ahizpa moja joanak (TOL-049/026)

Pakitaren etxean, bost ahizpa sartu ziren moja. Gerraren etorrerarekin, Pakita moja joan zen. Moja izateari buruz hitz egiten du; elkartean bizitzea, bakardadea... Azpeitian, Valladoliden eta Burlatan egona da.

668. Moja joateko erabakia hartu (TOL-049/028)

Moja joateko erabakia noiz eta nola hartu zuen kontatzen du. "Hermana" izateko sartu zen. Lan asko egiten zuen, eta ikasi gutxi. 1948an, profesatu eta Azpeitira joan zen. Handik, berriz, Valladolidera bidali zuten. Atezain, elizain, zerbitzari... lanetan ibili izan da.

669. Moja ibilbidea (TOL-049/029)

1946an, moja sartu zen Tolosan. Sei hilabete "postulante" egon eta gero, bi urteko nobiziatua egin zuen. 1948an, Azpeitira bidali zuten. Eta handik, berriz, Valladolidera. Burlatan zegoela, moja izateari buruzko gogoeta hasi zuen. "Permiso de ausencia" eskatu eta urtebete pasa ondoren, utzi egin zuen.

670. Moja izateari utzi (TOL-049/030)

Moja izateari utzi ondorengo bizimoduari buruz hitz egiten du. Etxe bat erosi zuen: neska batzuei logelak alokatzen zizkien. Iruñean urte asko egin eta gero, Donostiara joan zen bizitzera.

671. Gurasoek erdaraz jakin ez (TOL-052/002)

Urkizu Tolosatik zortzi kilometrora dago. Carmenen gurasoek ez zuten erdaraz hitzik egiten, eta etxejabea erdalduna zenez, etxearen salmenta bideratu ahal izateko apaizak bitartekari lana egin behar izan zuen.

672. Tolosara, erdara ikastera (TOL-052/003)

Aurrena, Urkizun ibili zen eskolan. Gero, erdara ikaste aldera, gurasoek Tolosako Jesusen Alabak ikastetxera bidali zuten. Eskolan, "caseras" esaten zien; ez zirelako erdaraz moldatzen. Uniformea jantzita joaten ziren eskolara. Astea, Bentaundin bizi zen izeba baten etxean pasatzen zuen; eskolatik gertuago zegoelako. Anaiak eskolapioetan ibili ziren.

673. Eskolako burlak (TOL-052/005)

Jesusen Alabak ikastetxea estazio ondoan zegoen. Gustura ibili zen eskolan, baina euskaldunei burla egiten zien: "estas caseras ni saben hablar...". Ostegun arratsaldetan, jai izaten zuten, eta izebarekin paseora joaten zen.

674. Esnea saltzera Tolosara (TOL-052/006)

Tolosara egunero jaisten ziren esnea saltzera. Astoari alde banatan bina marmita kateatuta joan ohi zen. Zortzi behi zituzten baserrian. Tolosako Justizia Plazan lotzen zuten astoa, eta marmitak hartuta etxez etxe aritzen zen esnea banatzen. Soberan esnerik izanez gero, Plaza Berrian saltzen zuen.

675. Anaia, sei urte soldadu (TOL-052/008)

Carmenek 12 urte zituela etorri zen gerra. Anaiak 18 urte zituela joan zen soldadu, eta sei urte egin zituen soldadu. Baserriko lanetan laguntzeko, ahizpak behiak jezten ikasi behar izan zuen.

676. Gerra hasiera (TOL-052/009)

Gerra hasi zeneko oroitzapenak kontatzen ditu. Alegian zen gurasoekin, izeba baten ezkontzan. Handik bueltan zirela jakin zuten gerra hasi zela.

677. Soldaduak Urkizun (TOL-052/010)

Gerrako kontuak. Urkizu gain batean egonik, soldaduak denbora luzez egon omen ziren bertan. Soldadu batzuk euren ganbaran, belarretan, erretiratzen ziren; kargudunei, berriz, ohea ematen zien. Soldaduen arteko karguen izenak orduan ikasi omen zituen.

678. Soldaduei gosaria ematen (TOL-052/011)

Amak eta ahizpak baserrian lo egiten zuten soldaduei kafesnea ematen zien. Dirua zeukanak pagatu egiten omen zuen: bi erreal.

679. Guardia zibilaren bisita (TOL-052/014)

Anaiak soldadu joanda zirenez, aitzak baserriko lanetan laguntzeko morroi bat ekarri zuen Tolosatik. Denbora batera, morroiak lana utzi egin zuen, eta guardia zibilak haren bila baserria nola miatu zuten gogoratzen du.

680. Kalean, gabezia (TOL-052/016)

Gerra ondorean, kalean pobrezia handia zegoen kalean. Etxez etxe esnea partitu aurretik, Tolosako "auxilio social"-ean litro erdi bat esne utzi behar izaten zuen.

681. Sagar faltarik ez (TOL-052/017)

Gerra ondorenean, baserrian ez zuten janik falta izan. Sagar eta gaztaina ugari izaten omen zen, baina lana ere gogotik egin behar izaten zen. Sagarra zakuetan saltzen zen, eta hori zen neurria; "zakuka". Sei sagar zakukadarekin "gurdi zaharra" osatzen zen.

682. Sagar biltzen kazkabarretan (TOL-052/018)

Umea zela, eguraldi txarrarekin sagarra biltzen aritu zeneko pasadizoa kontatzen du. Sagarrak etxeetara saltzen zituzten.

683. Etxeko sagardoa (TOL-052/019)

Baserrian dolarea zuten. Sagardoa nola egiten zuten azaltzen du.

684. Nola egiten zen sagardoa... (TOL-052/020)

Urkizun bi dolare ziren, eta auzokoak euren baserrira joaten ziren sagardoa egitera. Fruta-arbola hobeak non izaten ziren aipatzen du. Sagarra kanpora saltzen zuten, baina sagardoa ez.

685. Josten ikastera (TOL-052/022)

Ezkondutik aurretik, Tolosan josten ikasten aritu zen. Urkizuraino bueltara ez aritzeagatik, ahizparen etxean erretiratzen zen.

686. Eguberrian, kapoiak (TOL-052/023)

Behiak eta oiloak izaten zituzten baserrian. Eguberrietan, berriz, kapoiak hazten zituen Carmenek amak. Oilaskoak irendu eta kapoiak hazten zituzten larunbatetan Tolosako ferian saltzeko. Tolosara astoarekin joaten ziren.

687. Tolosako larunbatetako feria (TOL-052/024)

Garai bateko Tolosako larunbatetako feria nola izaten zen kontatzen du. Sagarrak, kapoiak... saltzen zituzten.

688. Urkizun, dibertsiorik ez (TOL-052/025)

Eguberriak nola ziren kontatzen du. Jai arratsaldetan, bezperen ondoren karta-jokoan ibili eta etxera joaten ziren. Urkizun, dibertsio gutxi izaten omen zen. Tolosako festak aipatzen ditu; neskek galarazita zuten tabernetan sartzea. Urkizuko San Pedro jaietan dantza egitea asko gustatzen zitzaion.

689. "Aizu, aiku Carmen atzoko ofiziotik..." (TOL-052/026)

Bezperan erromerian dantzan ibilita ere, hurrengo egunean baserrian lana egin behar izaten zen. Gaztetako pasadizo bat kontatzen du; soro barrenetik lurra ateratzen zebilela mutil batek zer esan zion gogoratzen du. Baserritarren izaera du hizpide.

690. Urkizuko San Pedroak (TOL-052/027)

Urkizuko festetan erroskilla saltzaileak egoten ziren. Ttuntuna, dantzasoka... izaten ziren. Dantzasoka nola egiten zuten kontatzen du.

691. Tolosako inauteriak (TOL-052/029)

Tolosako inauteriak. Txarangak, zezenak... jai-giro polita aipatzen du. Anaia aitaren brusarekin atera omen zen inauterietan. Mozorroak: nahikoa izaten zen pixka bat ezberdin janztea.

692. Umetako arropak eta oinetakoak (TOL-052/031)

Umetako arropak. Soineko eta bata, barrena hartuta ibiltzen zituzten; hazi ahala askatzeko. Oinetakoak: Urkizun abarkekin ibiltzen ziren, eta, behin kalera jaitsitakoan, jakinetako etxe batean abarkak utzi eta zapatak janzten zituzten.

693. "Tingladua" eta gurasoen ostatua (TOL-053/003)

Tolosako azoka "tingladua" esaten dioten toki batean egiten da. Garai batean, arkumeak, hegaztiak eta untxiak bizirik saltzen ziren bertan. Gurasoek ostatua zeukaten eta apopilo jendea izaten zen bertan.

694. Dendako merkantzia Txerri plazan salgai (TOL-053/005)

Azoka polita egiten zen Txerri plazan larunbatetan. Tokia deskribatzen du. Bello oihal dendak, Muñagorrik, Urkiolak, Begiristain sastreak, Lunbresek... dendako merkantzia plazan jartzen zuten salgai, baserritarrak dendetara ez sartzeko.

695. Tingladua eta Txerri plaza (TOL-053/006)

Larunbatetan, Txerri plazan zaldiak, astoak, txerriak, ahuntzak... saltzen ziren. "Tingladuan", berriz, jatekoa erosten zen. Astelehenetan, behiak eta idiak... saltzen ziren.

696. "Tolosa? Astoen herrie" (TOL-053/007)

Ordiziarrek Tolosa "astoen herrie" zela esaten omen zuten. Baserritarrak Tolosara astoarekin jaitsi ohi ziren: astoari saski bana alde bakoitzean jarri, eta marmita eta uztekin betetzen zituzten. Nafarroa aldetik, Berastegitik, Bedaiotik... jaisten ziren baserritarrak salmenta egitera.

697. "Gota de leche", behartsuei laguntzeko (TOL-053/009)

Gerra ondorenean, esnearen kalitatea aztertzeko probak egiten ziren. Esnezaleek "arbitrios" izeneko zerga-mota ordaindu behar izaten zuten herrian sartzearen. "Gota de leche" izenez ezagutzen zen zentro baten esnea entregatu behar izaten zen: behartsuentzako izaten zen esne hura.

698. Inoxentxi taberna, gurasoena (TOL-053/011)

Gurasoek Inoxentxi taberna eduki zuten. Amaren izena zuen tabernak. Marianik bost urte egin arte eduki zuten taberna. Amandreak zaintzen zituen Mariani eta anaia.

699. Rondilla kalean, zezen-plaza aldean eta Laskurain kalean bizitakoa (TOL-053/012)

Taberna utzi zutenean, Rondilla kalean, Maria-enea gainean, bizi izan ziren. Eta handik, berriz, zezen-plaza aldeko Iraetaneke etxetan bizi izan ziren. Ondoren, Laskurain kalera joan ziren bizitzera, eta han hasi ziren apopiloak hartzen. Garai hartan, jendeak maiz aldatu ohi zuen bizilekua.

700. Ostatuko apopiloak (TOL-053/013)

Ostatu-etxea oso handia zen. Urkizutik kalera lanera jaitsitako baserritarrek astea pasatzen zuten bertan, esaterako. Soldadutza egiten ari zen jendea ere egon ohi zen ostatuan.

701. Errazionamendua (TOL-053/014)

Gerra ondoren, errazionamendua izaten zen. Umetan, Marianirentzat garrantzitsua zen erne egotea janaria herrira noiz iristen zen jakiteko. Gizon bat danborrarekin ibili ohi zen, herriko jakineko tokietan, errazionamendua noiz izango zen iragartzen.

702. Enkarguak egiten, "bi xox" ateratzeko (TOL-053/015)

Gerra ondoreneko urteak tristeak izan ziren haurrentzat. Jendearentzako enkarguak egiten aritzen zen Mariani, "bi xox" ateratzeko. Arratsaldetan joaten zen eskolara, josten ikastera.

703. 19 apopilo etxean (TOL-053/016)

Etxe guztia apopiloz beteta izaten zuten: 19 apopilorentzako oheak zituzten. Marianiren familia, gela batean bizi zen; bi alabak eta gurasoek gela batean egiten zuten lo, eta, bi semeek, berriz, jangelan. Etxea dirua ateratzeko prestatuta zuten.

704. Aita 'Aliron'-en eta ama ostatuan (TOL-053/017)

Mariniren aitak 'Aliron. Luminia' lantegian egiten zuen lan: betuna eta argizaria egiten zituzten. Etxean, apopiloek ematen zioten zerbitzua eta prezioa aipatzen ditu. Ama aritzen zen lan horiek egiten. Marianik 12 urte egin arte kanpoko pertsona bat aritzen zen amari laguntzen; gero, Mariani hasi zen amarekin.

705. Tolosanako "labaderoa" (TOL-053/018)

Astelehenetan, pertsona baten laguntza izaten zuen arropak garbitzeko. Arropa "barreñu" batean hartu, eta hura buru gainean jarrita joaten ziren "labaderora". Tolosana paper-fabrika ondoan zegoen "labaderoa". 10-12 emakume elkartzen ziren han, eta eguna ematen zuten arropa garbitzen.

706. Ostatua, euskal eskola izandakoa (TOL-053/019)

Ostatua, eraikina bera, euskal eskola izandakoa zen. Logelak nolako ziren kontatzen du.

707. Apopiloen bazkariak (TOL-053/020)

Ostatuko kontuak aipatzen ditu. Apopilo gehienak elkarrekin bazkaltzen zuten: 12 lagun inguru izaten ziren bazkaritan. Trenbideetako langileei, jana eramateko prestatzen zitzairen. Bazkaritako menua aipatzen du.

708. Menuak (TOL-053/021)

Ostatuko menuari buruz hitz egiten du.

709. Aitonaren artilezko galtzeri eta mantarrak (TOL-053/022)

Umetatik aritu izan da etxeko lanetan. Aitona artzaina zen, eta hark erakutsi zion puntuan egiten. Aitonak ardiak zituen, eta, haria egiten zuen. Artilezko galtzerdiak eta mantarrak egiten zituen baserriko lanetan aritzeko. Amonak, berriz, finagoak egiten zituen; saltzeko.

710. Aitonak haria nola egiten zuen (TOL-053/023)

Aitonak haria nola egiten zuen kontatzen du. Aitona-amonak Betelukoak zituen.

711. Udarán, Betelura (TOL-053/024)

Aitona-amonak eta gurasoak Betelukoak zituen, eta udarak han pasatu ohi zituzten. 12 urtez geroztik, ez zen joan Betelura festetara etxean lan egin behar baitzen.

712. Zoruari argizaria eman eta "lustrea" atera (TOL-053/025)

Etxean apopiloak zituztenez, egunero lan egin behar izaten zuten. Igande arratsaldetan, deskantsua hartu ohi zuten. Zoruari argizaria eman behar izaten zitzaion hilean behin; eta egunero aritzen ziren distira ateratzen. Lan hori nola egiten zen kontatzen du.

713. Goizean goizetik etxea garbitzen (TOL-053/027)

Etxea distiratsu ikusteko ilusioa izaten zuten. Goizean goizetik hasten ziren etxea garbitzen, 11etara erosketak egitera joan eta 12etarako bazkaria prest izateko.

714. Betelura bizikletaz, haragi bila (TOL-053/028)

40ko hamarkadatik aurrera, errazionamendu garaian, Betelura joaten zen bizikletaz. Han, osaba harakina zuten, eta etxerako janari bila joaten zen. Bizilagunei ere ekartzen zien jeneroa Betelutik. Bidean, karabineroak egoten ziren, eta, janaria harrapatuz gero, konfiskatu egiten zuten.

715. 12 urtera arte Jesusen Alabetan ikasia (TOL-053/029)

12 urtera arte, Tolosako Jesusen Alabak ikastetxean egin zituen ikasketak. Ez zen egunero joaten eskolara; etxean lagun behar izaten zuen. Umeek etxeko zereginetan parte hartu behar zuten, ohituraz. Marianiren amak esan ohi zuen: "Iana egiten ez duenak ez du jaten, ez du beharrik, ez da nekatzen".

716. Etxeak txukun-txukun egon behar (TOL-053/030)

Amaren laguntzailea behin gaixotu zeneko pasadizoa kontatzen du. Anaia zaharrenak lagun zion amari sukaldea garbitzen. Etxeak txukun-txukun egon behar zuen. Etxearen egitura nolako zen kontatzen du.

717. Errazionamendurako txanda egitera (TOL-053/033)

Errazionamendua tokatzen zenean, goiz joan behar izaten zen txanda hartzera; denda seietan irekitzen bazen, Mariani lauutarako joaten zen. Errazionamendua bi egun lehenago iragartzen zen: non eta noiz emango zen haragia esaten zuten, esaterako.

718. Jesusen Alabak ikastetxea (TOL-053/034)

Jesusen Alabak ikastetxeari buruz hitz egiten du. Lehenengo jaunartzea egin arte, neska eta mutil elkarrekin ikasten zuten. Handik aurrera, mutilak eskolapioetara joaten ziren, eta neskek bertan jarraitzen zuten ikasten 14 urtera arte. Mariani 12 urtera arte ibili zen eskolan.

719. Bere etxean ere apopiloak (TOL-053/036)

Ezkonduraren ondoren, bere etxean ere apopiloak hartu zituen; hiru gela zituen horretarako. Gurasoenetik ikasiko ofizioari jarraitu zion. Marianiren senarra trenbideetako langilea zen.

720. Eskolako oroitzapenak (TOL-053/037)

Eskolako oroitzapenak kontatzen ditu. Andoaingo moja batekin euskaraz hitz egiten zuen: moja horrek, euskaraz hitz egite aldera, ume batzuei eginkizunak jartzen zizkien eskola orduz kanpo.

721. Eskolara beti berandu (TOL-053/038)

Mariani sekula ez zen garaiz iristen eskolara; beti atea itxita egoten zen bera iristerako, eta etxera joan eta hango lanak egin behar izaten zituen. Eskolara sartzeko ordua atzeratu zioten arren, ez zen garaiz iristen; antza, bere amak nahiago zuen etxean geratzea hango lanetan laguntzen. Batzuetan, eskolako atean geratzen zen, eta bera kasa ikasten zuen eguneko lezioa.

722. "Muerte" h-z idatzi zuenekoa (TOL-053/040)

Eskolako pasadizo bat kontatzen du. "Muerte" hitza beharrean, "muherte" idatzi zuenekoa kontatzen du. Mojak zaplaztekoa eman eta zigorra jarri zion.

723. "Nire bihotzekoa da euskaraz egitea" (TOL-053/041)

Eskolan, euskaraz hitz egitea debekatua zegoen. Kalean ere ez zen euskaraz hitz egiten. Plazara joaten zenean, baserritarrekin euskaraz hitz egiten zuen; tratua beti euskaraz egiten zuen. Amona batek gaztelaniaz hitz egiten zion Marianiri, eta berak, berriz, gaztelaniaz jakinagatik euskaraz egiten zion; "ni abuela naiz" esaten zion.

724. Falangea eta 'Sección Femenina' (TOL-053/043)

Tolosako gazte jendea, falangera joaten zen. Haren eraginaz hitz egiten du. Mutilak militar gisa sartzzen ziren, eta hainbat gauza ikasten zituzten. Neskak, berriz, Sección Femeninan ibiltzen ziren, eta eskulanak egiten zituzten.

725. 'Sección Femenina'ko txartela ezinbestekoa (TOL-053/044)

Edozein titulu ateratzeko (ikasketak, pasaporte, gidabaimena...) Sección Femeninako txartela aurkeztu behar izaten zen. Sección Femeninan ibili gabe ezkontuta egonez gero, ez zuten txartelik eskatzen emakumeak bazuelako "nork gobernatu".

726. Diru kontuak, bien izenean (TOL-053/045)

Behin ezkontuta, bankuko dirua eta ondasunak senarraren izenean jarri ohi ziren. Marianik bankuan kontua ireki zuen, ezkongabea balitz bezala eta, gero, senarra ere jarri zuen erabiltzaile gisa. Kontuko diruarekin zerbait egiteko, elkarren baimena behar zuten. Hori salbuespena zen garai hartan.

727. Euskal izenak frankismo garaian (TOL-054/002)

Errepublikara garaian jarritako izen euskaldunei buruz hitz egiten du. Frankismo garaian, ezin ziren aipatu ere egin.

728. Korneta entzutean, eskua altxatu eta gelditu beharra (TOL-054/003)

Gerra zibila hasi zenean, Marianik hiru urte zituen. Gaueko zortzirenetan "isiltasuna" jotzen zuten. Udal artxibotik jotzen zuten korneta, eta herri guztitik entzuten zen; kalean harrapatuz gero, eskua altxatu eta gelditu egin behar izaten zen.

729. "Silencioak" kalean harrapatu (TOL-054/004)

Gerra garaiko debekuei buruz hitz egiten du. Gaueko zortzietan korneta jotzen zen, eta ezin izaten zen kalean ibili. 'Silencio'-ak kalean harrapatuz gero, tokian gelditu eta eskuineko besoa altxatu behar izaten zen. Anaia gaixo zela eta, Mariani eta amari botika bila zihoazela 'silencioak' kalean harrapatu zienekoa kontatzen du.

730. "Bandera nazionala" jarri beharra (TOL-054/005)

Gerra garaia du hizpide. Egun seinalatueta, "bandera nazionala" jarri behar izaten zen balkoian. Aguazila joaten zen etxez etxe, eta balkoiak apaintzeko agindua ematen zuen.

731. 'Cara al Sol' eta "ereserki nazionala" (TOL-054/006)

Gerra garaia du hizpide. Eskolan, mojetan, Cara al Sol eta "ereserki nazionala" abestu behar izaten zituzten. Behin lehen jaunartzea egin eta gero, ez zuten kantatu.

732. "Soldadu nazionalen" desfileak San Frantzisko pasealekuan (TOL-054/007)

Egun seinalatueta, "soldadu nazionalen" desfileak izaten ziren San Frantzisko pasealekuan. Desfileetatik ihes egiteko, Betelura joan ohi zen bizikletaz. 12 urte bitartean, igandero joaten zen Betelura aitona-amonak bisitatzen.

733. Etxez sarritan aldatu (TOL-054/009)

Gerra etorri zenean, Marianiren familia Tolosan geratu ziren. Jende asko alde egin zuen. Etxez sarritan aldatu ziren, Laskurain kaleko etxera joan ziren arte.

734. Hustutako etxeak, gobernuarentzat (TOL-054/010)

Gerra etorri zenean, jende askok alde egin zuen Tolosatik. Hutsik geratu ziren etxeek beretzat hartu omen zituen gobernuak. Seccíón Feminako etxea gobernuak beretzat hartua izan zen.

735. Garai bateko San Frantzisko pasealekua (TOL-054/012)

Gerra garaian, desjabetutako etxeei buruz hitz egiten du. San Frantzisko pasealekuan, Tolosako "jauntxo jendea" bizi zen. Bertan ziren Seccíón Femenina eta mojak ere.

736. Errizino-olioa (TOL-054/015)

Errizino-olioa zertako erabiltzen zen kontatzen du: betekada kasuetan koilarakada bat hartu ohi zen. Beherakoa eragiten zuen.

737. Jangela soziala (TOL-054/016)

Tolosako jangela sozialari, 'auxilio sozial'-ari buruz hitz egiten du. Alargunak, gerran desagertutakoen senideak, umeak... joan ohi ziren jangela horretara. Mariani leihotik egoten omen zen jangelara begira. Jangelako gorabeherak kontatzen ditu: umeei eskuak garbitzeko eskatzen zien, jan aurretik errizino-olio koilarakada bat ematen zien, jateko zerbait zuria ematen zien...

738. 'Auxilio sozial', 'gota de leche' eta Gurutze Gorria (TOL-054/018)

Rondilla kalean zeuden 'auxilio sozial', 'gota de leche' eta Gurutze Gorriko laguntza zerbitzuak. Medikuek dohainik ematen zuten zerbitzua Gurutze Gorrian; medikuak derrigortuta zeuden astean behin han zerbitzua ematera.

739. Baserritarren esnea entregatu behar (TOL-054/019)

Baserritarrek behartuta zeuden litro bat esne "gota de leche"-n entregatzera. Baserritarrek jeneroarekin herrira sartzerako, "arbitrios" izeneko kaxeta batean zergak ordaindu eta esnea utzi behar izaten zuten; kaxeta hori non zegoen kontatzen du.

740. Emakumeak paper-fabrikara (TOL-054/020)

Gerra ondoren, emakume askok egiten zuen lan SAM paper-fabrikari. Lanean ziren bitartean, emakume horien haurrak 'Siervas de Jesus' babes-etxean zaintzen zituzten.

741. 'Margaritas' emakume karlisten mugimendukoa (TOL-054/022)

'Margaritas' emakume karlisten mugimendukoari buruz hitz egiten du. 'Margariten' jatorria, eginkizunak... Mariani, haurra zela, 'margarita' izendatu zuten; eta, horren adierazle, txapel zuria jantzi zuen 1939 aldera arte. Juanita Kapaña tolosarra aipatzen du; kantinera zen eta frontean zer eginkizun zituen aipatzen du.

742. 'Círculo Carlista' eta batzokia (TOL-054/023)

Gerra aurretik, Tolosan baziren Círculo Carlista eta batzokia. Gero, falangearen esku geratu eta Círculo Carlista y Tradicional y de las JONS izena hartu zuen bata, eta arte eta lanbide eskola jarri zuten bestean.

743. Gerrako ospitalea (TOL-054/025)

Gerrako kontuak ditu hizpide. Frontetik iristen ziren zaurituak Tolosan zegoen gerrako ospitalera eramaten zituzten; lehenago miseriak izan omen zen. Marianiren senide bat han egon zen Maltako sukarra zuelako.

744. Gerrako umezurtz eta alargunak (TOL-054/026)

Gerrako kontuak. Gerran aita eta senarra galdu zuten umezurtz eta alargunei buruz hitz egiten du. Jangela sozial eta 'gota de leche'-n jaten eman ohi zien. Okindegietan, ogia ematen zien.

745. Olur litografia eta gizarte zerbitzuak (TOL-054/029)

16 urte zituela, Olur litografian aritu zen lanean. Han lanean zebilela, gizarte zerbitzuetan laguntzeko agindua eman zioten. Gizarte zerbitzuetara joaten ez

bazen, astean irabazten zituen 37 pezetatik bost kenduko zizkiotela esan zioten. Marianiren ama karlista zen, eta ez zion utzi falangisten gizarte zerbitzuetara joaten. Gauzak horrela, lana utzi behar izan zuen.

746. Mutilentzat, falangea edo arte eta lanbide eskola (TOL-054/030)

Diktadura garaia buruz ari da. Senarra eta anaia 14 urterekin hasi ziren lanean. Lantegien izenak aipatzen ditu. Lanetik ateratakoan, mutilek falangera edo arte eta lanbide eskolara joan behar izaten zuten. Marianiren senarra falangera joan zen, eta han musika ikasi zuen. Anaia, berriz, arte eta lanbide eskolan ibili zen.

747. Josten ikastera (TOL-054/031)

Diktadura garaia buruz ari da. Mariani ez zen Sección Femeninara joan, baina jostun batekin ikasi zuen josten. Zer lan egiten zituzten kontatzen du. Emakumeak etxekoandre ona izaten ikasi behar zuela dio.

748. Ezkondu eta gero, lana utzi behar (TOL-054/032)

Diktadura garaia buruz ari da. Neskak 14 urterako lanean hasten ziren. Behin ezkondu ondoren, lana utzi ohi zuten. Lana uzteagatik propina jasotzen zuten; derrigortuta uzten omen zuten lana.

749. Alargunak eta eskaleak (TOL-054/033)

Diktadura garaia buruz ari da. Emakume ezkonduak ezin zuten etxetik kanpo lanik egin. Alargunek, desagertutako emazteak eta pobreak zuten lanean edota eskean ibiltzeko baimena. Eskean aritzen ziren emakumeei buruz hitz egiten du.

750. Larunbatetan, 'casa de baños'-era (TOL-054/034)

Neskame joan aurretik, ez zuen ezagutu etxean dutxarik. Lehenago, 'casa de baños'-era joaten ziren garbitzera; non zegoen aipatzen du. Bainuetxeko prezioak aipatzen ditu: 25 zentimo dutxatzea, 30 zentimo bainera, 50 zentimo toallarekin... Larunbatetan joan ohi ziren, eta jende asko izaten zen bertan.

751. Nobio eta ezkontza kontuak (TOL-054/038)

Nobio garaiko kontuak aipatzen ditu. Senarra nola ezagutu zuen. Elkarrekin hasi eta sei urte eta erdira ezkondu ziren. Esposatu ziren egunari buruz hitz egiten du.

752. Dantzaldiak eta nobio garaia (TOL-054/040)

Igandetan, dantzara joan ohi zen plazara. 18-19 urte zituenean, frontoian egiten omen zen "dantza itxia": sarrera ordaindu behar izaten zen. Han ezagutu zuen senarra. Mariani prest zegoen ezkondu aurretik elkarrekin bizitzen jartzeko, baina senarrak ezkontzea nahiago zuen. Elizaren indarra aipatzen du.

753. "Euskara parerik gabekoa da" (TOL-054/046)

Euskararekiko zer sentimendu duen kontatzen du. Hainbat bizipen izan ditu euskaraz egiteagatik: Ingalaterran gertatutakoa kontatzen du.

754. Eskolapioak utzi eta lanera (TOL-055/004)

Jaunartzea egin eta gero, eskolapioetara joan zen. 14 urtera arte egin zituen ikasketak. Merkataritza ikasi zuen. Eskolapioetako erretorearekin ez zen ondo konpontzen, eta ikasketak utzi eta lanean hastea erabaki zuen.

755. Laneko ibilerak (TOL-055/005)

15 urterekin hasi zen garaje batean "eskribiente, txupatintas, pintxe" lanetan. Hura utzi, eta ondo lantegi batean 17 urte egin zituen tornulari lanetan. Soldadutzatik bueltan, bost lagunek Eredu kooperatiba sortu zuten Ikaztegietan. Bost urte kooperatiban lan egin eta gero, Leitzako amuarrairain haztegia batean aritu zen lanean 40 urtez.

756. Aitonaren sagardotegia: Txaparro (TOL-055/009)

Xabierren aitona sagardotegia zeukan: Txaparro sagardotegia. "Corazonista"-k dauden lekuan zegoen sagardotegia. Herriko beste bi tokitan ere sagardotegia izan zuten; Letxuga kalean, esaterako.

757. Tolosan, 40 sagardotegi edo... (TOL-055/010)

Tolosan sagardotegi ugari zeuden; "40 sagardotegi edo baziren Tolosan".

758. Aita Frantzira alde eginda (TOL-055/011)

Gerra garaian, Xabierren aitak Frantziara alde egin behar izan zuen. Aita gabe egon ziren bost urtean. Bitartean, ama lau semerekin geratu zen: zaharrenak sei urte zituen; gazteenak, urte eta erdi. Euskara galarazita zegoen. Herriko jendeak ez zekien gaztelaniaz hitz egiten.

759. 'Lizardi'ren monumentua (TOL-055/012)

Xabierren aita Lizardiren laguna zen. Lizardiri buruz hitz egiten du. 1934an, Urkizura bidean, Lizardi irakurtzera joan ohi zen toki berean, monumentua jarri zioten. Gerra denboran, monumentua bota zuten. Norbaitek jaso eta urte batzutara, berriz jarri zutela kontatzen du.

760. Gerra hasiera gogoan (TOL-055/015)

Gogoan du gerra hasi zeneko eguna. Uztailaren 18an Izaskunera joan ziren gurasoak eta lau anaiak. Etxera bueltakoan, aurreneko tiro hotsak entzun zituzten Lizartza eta Leitza aldetik.

761. Aitaren bila joan zirenekoa (TOL-055/017)

Aitari abisu eman zioten bere bila joango zirela, eta ihes egin zuen: Izaskundik Berastegira, handik Doneztebera eta, han, muga zeharkatu zuen. Iluntzean, guardia zibila Xabierren aitaren bila joan zen etxera.

762. Aitaren faltan, gogorak ikusitakoak (TOL-055/018)

Aita ihes eginda egon zen denboran, etxekoan laguntza izan zuten. Lau anaia izanik, hiru aitonaen etxera joaten ziren bazkaltzera eta bestea osaba batenera. Xabierren ama jostuna zen, eta lan ugari egin behar izan zuen.

763. Gerra garaiko inauteriak (TOL-055/020)

Gerra garaian, inauteri eta festak kendu zituzten. Gerra hasi eta hurrengo urtean, espainiarrek hiribururen bat bere egiten zutenean, Tolosatik estaziora

joaten ziren bandarekin. Trenean bueltatzen ziren boluntarioei, zaurituei... ongietorria egiteko ereserki nazionalak jotzen ziren. Estaziotik bueltan, bandak inauterietako pieza bat jo eta jendea kalean saltoka ibili zela gogoratzen du. Gero, zezenak ere izaten omen ziren. Jendea ez zen mozarrotzen: gehienez, txaketa buelta emanda edota brusa jantzi ohi ziren. Garai hartan, "ikaragarritzko miseria eta gosea zegoen".

764. "Poliki-poliki" inauteriak martxa hartzen (TOL-055/021)

Gerra ondorenean, "poliki-poliki" hasi zen inauterien jaia ospatzen. Aurrena, txaranga bat; gero, danborrada... Udalak ez zeukan dirurik, eta, orduan, zozketak antolatu ziren dirua lortzeko. Herriko koadrilen batzorde bat osatu zen.

765. Pintxana, aurreneko txarangak eta Txinparta (TOL-055/022)

Inauteriak ditu hizpide. Juanito Pintxana txarkuteroari buruz hitz egiten du. Pintxanak bonboa jo ohi zuen beste pare bat musikarirekin sagardotegian, eta "ikaragarritzko umorea egiten zen". Eta handik hasi ziren gero txarangak sortzen. Txinparta elkartea aipatzen du.

766. Emakumeen aurreneko presentzia inauterietan (TOL-055/023)

Inauteriak ditu hizpide. Mozorroak janzten 1960 aldera hasi omen ziren. Inauterietan, aurreneko zezen plazari buelta ematera emakumeak sartu zirenekoa kontatzen du. Herriko hainbat "karnabaler"-ren izenak aipatzen ditu.

767. Lehenbiziko konpartsak: 1947an, 'Nikjan College' (TOL-055/024)

Inauteriak ditu hizpide. Aurreneko konpartsak. 1947an, 'Nikjan College' izeneko eskola atera zutenekoa kontatzen du; arropak, apaindurak, 'Atalloarra' autobusean Gudaluperaino nola joan ziren ... Txapel lantegian egiten zituzten entseguak. Javier Bello-Portu eta Juanito Azaldegi aipatzen du. Kalean, euskaraz kantatu zuten; abestia abesten du.

768. Lehenbiziko konpartsak: 1946an, ezkontza (TOL-055/025)

Inauteriak ditu hizpide. Aurreneko konpartsak. 1946an, ezkontza bat irudikatu zutenekoa gogoratzen du. Juanito Lope "ikaragarritzko inauteri zalea" izan zela dio. Beste urte batean, zineko artistaz atera zirenekoa kontatzen du: Villabonatik posta-treanean joan ziren Tolosara, estazioko ongietorria...

769. 60ko hamarkadako karrozak, estaziotik (TOL-055/026)

Lehen, inauterietako festa Rondilla kalean egiten zen bakarrik. 1960an, karrozak-eta estaziotik atera behar zirela. Urte hartan, prezintatuko automobil bat erabili zuten trena egiteko. Xabier mikelete jantzita atera zen.

770. 'Pitxi-pitxi eskola' eta 'Isabelita' karrozak (TOL-055/027)

1961ean, 'Pitxi-pitxi eskola' izeneko karroza atera zuten. 'Pitxi-pitxi' izena nondik hartu zuten kontatzen du: inauterietako pieza batetik, Strauss-en polka

batetik, alegia. Kantatu egiten du: "Pitxi pitxi polit bat nik daukat zuretzako, apain-apain jantzita apapa joateko...". 1962an, berriz, 'Isabelita' izeneko txalupa bat atera zuten. Karroza nolakoa zen kontatzen du. 'Habanera Pakita' kantatzen du: "Txintxin atea ireki nazu, txintxin ezin det ireki... Txintxin alkatia dator, txintxin aguazilakin...".

771. Inauteriekiko zaletasuna, gurasoengandik jaso (TOL-055/029)

Inauteriekiko zaletasuna gurasoengandik jaso du. Amak aitari buruzko istorioak kontatzen zizkien: "aita harakina zen, eta titiak jartzen zituen maskuriarekin eginda...". Emakumeek etxean egon behar izaten zuten inauterietan.

772. Inauteriak, erlijioa, debekuak... (TOL-055/030)

Acción Católica eta Mariaren alabetako gazteek debekatuta zuten inauterietan ibiltzea. 18 urte zituela, Xabierrek elkarte erlijiosoa utzi eta inauterietan ibiltzea aukeratu zuen. Dena debekatua zegoen erlijioaren izenean. Amak errieta egiten zion neskekin baltseoan ibiltzeagatik.

773. Amak purua erretzen harrapatu zuenekoa (TOL-055/031)

Inauterietan, amak purua erretzen harrapatu zuenekoa kontatzen du.

774. Hernion orientazio mahaia jarri zenekoa (TOL-055/034)

Gaztetan mendigoizalea zen. Lehen, Tolosako futbol taldeak mendiko saila zaukan, eta han biltzen zen Xabier lagunekin. Hernion orientazio mahaia jarri zutenekoa kontatzen du. Bizkarrean hartuta igo zuten mahaia bederatzi lagun artean. Igoerako gorabeherak kontatzen ditu: lokatza, alpargatak, jendetza... 2011n 60 urte bete ziren mahai hori jarri zela. Asteasukoe eta Alkizakoe Hernion gurutzea jarri zutean, Xabier han zela kontatzen du. Gurutzean ikurrina jarri zuten; mendia guardia zibilez beteta zegoen.

775. Izaskungo ermitan, tertzioen banderak falta... (TOL-055/035)

Izaskungo ermitan, gerra irabazi zuten tertzioen banderak egoten ziren zintzilik. Egun batean, bandera horiek kendu egin zituzten. Tolosako 40 lagun inguruk abisua jaso zuten guardia zibiletara joateko; Xabier tartean zen. Galdeketari buruz hitz egiten du.

776. 'Frente de Juventudes'era ez zen joaten (TOL-055/037)

Frente de Juventudes eta Sección Femeninari buruz hitz egiten du. 14-15 urterekin, lanetik irten eta talde horiek ematen zituzten eskoletara joan behar izaten zen. Eskola horiek "mugimendu eta altxamenduari buruz"-koak izaten ziren. Xabierren nagusiak erabaki zuen hura ez bidaltzea, eta isuna ordaintzen zuen.

777. Txapel gorria eta euskal izenen debekua (TOL-055/038)

1936tik 1942ra bitartean, txapel gorria jantzita ibili behar izaten zuten umeek. Futbol partida ikusten ari zireneko pasadizo bat kontatzen du: haizeak txapela eramane zion. Euskal izenak debekatu zirela kontatzen du.

778. Gerra garaiko zigorrak: andereñoen ile-mozketak... (TOL-055/040)

Gerra garaiko zapalkuntza eta zigorrei buruz hitz egiten du. Andereñoen ilea moztu eta kalean desfilarazten ziren. Atxilotuei errizino-olioa ematen ziren beherakoa eragiteko.

779. 'Haritz' dantza taldea eta euskal antzerkia Tolosan (TOL-055/042)

Tolosako Haritz dantza taldearen sorrera aipatzen du. Antonio Labayenen Lau urtaroak antzezlanak egin zuten umeei. Eta Xabierrek, berriz, Xabier Lizardiren Ezin ezkondu zitekeen mutila lanean hartu zuen parte.

780. Tolosako 'Lizardi' antzerki-taldea (TOL-055/043)

Lizardi antzerki-taldeari buruz hitz egiten du. Ezin zuten euren izena erabili, eta, babes moduan, Tolosako Oargiko Lizardi taldea jarri zioten izena. Pazko bigarrenetan, euskarazko antzezlanak egin ohi zituzten Tolosako Iparragirre antzokian. Antzerki erdian, bertsolariak izaten ziren; Lazkao Txiki, Txomin Berrobi eta Basarri. Hainbat tokitan egin zituzten antzezlanak: Donostian, Bilbon, Eibarren, Arrasaten, Alegian eta Parisen. Antzeztu zituzten lan batzuk aipatzen ditu: Ordu eroslea, Damua garaiz, Jokua ez da errenta, Galtzaundi...

781. Inguruko herrietan antzerki-taldeak sortu (TOL-055/045)

Lizardi taldea 1958 urte inguruan sortu zen. Inguruko herrietan ere sortu ziren antzerki-taldeak, eta antzerki lehiaketa bat izan zela aipatzen du.

782. Pazko bigarrenetan, antzerkia (TOL-055/046)

Jendea ez zegoen antzerkia ikustera ohitua; euskaraz, are gutxiago. Hala ere, zain-zain egoten zen herriko jendea. Pazko bigarrenetan egiten zituzten antzezlanak. Astelehenetan, berriz, feria izaten zen Tolosan; "baserritar eguna izaten zen". Antzerkiaz gain, bertsolariak, aizkolariak, pilota partidak... ere izaten ziren. Antzezlanak egin ahal izateko, gobernadoreari antzezlanaren kopia eman behar izaten zitzaion.

783. "Seneroak" gauez kantatzen utzi ez (TOL-055/050)

Gaztetan, elizan eta lagunekin kantatzen zuen. Larunbatetan lagunekin elkartu eta kalean kantari aritzen ziren. Behin gaueko hamarrak eta gero, "serenoak" ez zuen uzten kalean kantatzen.

784. Kanturako zaletasuna (TOL-055/052)

Familiatik datorkio kanturako zaletasuna. Afarietan, bazkarietan, kuadrillan... kantatzeko ohitura izan du beti. Gaztetan, euskarazko kantak abesten zituzten.

785. Soldadu lagunei gutunak idazten (TOL-055/055)

Inguruko herri txikietatik Tolosara joaten omen ziren hango eskoletan erdaraz ikastera. Gaztelania ez zekiten soldadu lagun batzuei buruzko kontuak aipatzen ditu. Idazten ere ez zekitenez, Xabierrek idazten zizkien gutunak.

786. Ikasketak (TOL-055/059)

Gerra hasi zenean, mojetan hasi zen ikasten. Mojak "sorginak" omen ziren. Eskolapioetan ibili zen gero. Hango gorabeherak aipatzen ditu. Ikasketak jarraitu ez izanaren pena du. Hainbat ikasgai aipatzen ditu: takigrafia, geografia, kaligrafia, "urbanidad", "historia sagrada", frantsesa, ingelesa, kontabilitatea...

787. Umetako jolasak: "zopak egiten", "txorro, morro..." (TOL-055/063)

Ume garaiko jolasak: "zopak egiten", kaniketan, pilotan, "Txorro, morro, piko, talo, ke!". Erreka bazterrera joan, eta harriak uretara jaurtitzen zituzten ia zeinek ur gainean "zopa gehiago egin". Ebakuntza egin ziotenean, egurrezko eskopeta bat oparitu ziotela kontatzen du.

788. Mojaren mirariz sendatu... (TOL-055/066)

Umetan peritonitis pasa zuen. Ebakuntza ondoren, hil egingo zela uste zuten. Moja batek eta amak gaua errezatzen pasa zuten Xabier senda zedin; Xabier suspertzea mirari gisa hartu omen zuten. Gero, moja hura kanonizatu egin zutela kontatzen du.

789. Herniora, eskolapioetatik (TOL-055/071)

Eskolapioetan zebilela, Herniora joan zireneko irteera bati buruz hitz egiten du. 10 urte zituen orduan.

790. Hernioko erromeria (TOL-055/072)

Hernioko erromeriara joateko ohitura zuten. Hango giroari buruz hitz egiten du.

791. Aita Lazkaon, Arantzazun eta Gasteizen ikasia (TOL-056/002)

Joxeren aita Ataungoa zen, eta Lazkaoko beneditarretan egin zituen ikasketak; beneditarrek frantsesa hitz egin eta irakasten zuten soilik. Bokaziorik ez zuela eta, amak esan zion Arantzazura joateko proba egitera. Arantzazun, bi-hiru urte egin eta gero, Joxe Migel Barandiaranengana jo zuen Gasteizera.

792. Aita 'La Perla'-n sukaldari ibilia (TOL-056/003)

Gasteizen zela, Joxeren aitak erabaki zuen "goserik pasako ez zuen ofizio baten aritzea", eta sukaldaritzaren bideari heldu zion. Donostiako 'La Perla' hotelean sei hilabete egin zituen sukaldari lanetan. Primo de Riveraren garaian, hotel asko itxi ziren Donostian; 'La Perla' zen horietako bat.

793. Gurasoak nola ezagutu zuten elkar (TOL-056/004)

Aitak Afrikan egin zuen soldadutza. Han, sukaldari laguntzaile lanetan aritzen zen. Etxera joateko baimena eman zioten batean, Ibarrako soldadu-lagun batek bere familia bisitatzeko eskatu zion; bisita hartan ezagutu zuten elkar Joxeren gurasoek.

794. Aita, kargaontzi bateko sukaldari (TOL-056/005)

Aita sukaldaria zen, eta, garai hartan, lana bilatzeko nahiko lan izaten zen. Aldi batez, Europan zehar zamalanak egiten zituen kargaontzi txiki batean sukaldari lanetan aritu zen.

795. Gurasoek 'Zeru Handi' jatetxe eta hotela hartu (TOL-056/006)

Aitak kargaontziko lana utzi, eta gurasoek Zeru Handi izeneko jatetxe eta hotela hartu zuten errentan. Hasierako gastuei aurre egiteko, familiaren laguntza izan zuten.

796. 10 senideko etxe bateko giroa (TOL-056/007)

13 urtean, 10 senide jaio ziren. Denak etxean jaio ziren. Gurasoek jatetxean lan egin behar izaten zuten, eta ume-zaintzaileak zituzten.

797. Gerra aurrean, Tolosako ikastolan ibilia (TOL-056/008)

Gerra aurretik, Joxe eta arreba zaharrena, Maritxu, Tolosako aurreneko ikastolan ibili ziren. Gerra zibila hasi zenean, "frantseseta" esaten zioten eskolara joaten hasi ziren.

798. Etxea nolakoa zen (TOL-056/010)

Etxea txiki-txikia zen. Etxea nolakoa zen deskribatzen du. 10 ume, bi neskame eta bi txakurrekin pasora nola joan ohi ziren kontatzen du.

799. Txakurrak: txerri-janak jateko, arratoiak uxatzeko... (TOL-056/011)

Ez zen ohikoa etxean txakurra izatea. Baina Joxeren etxean, hoteleko garbitasuna mantentzeko beharrezkoa ziren txakurrak. Txerri-janak jateko, arratoiak uxatzeko... behar zituzten txakurrak.

800. Aitak "gala" zeukan euskaraz hitz egiten (TOL-056/013)

Aitak oso ondo hitz egiten zuen euskaraz. Okupazio garaian, norbaitek esan zuen Joxeren aitak oso ondo zekiela euskaraz, eta multa jarri behar ziotela hori zigortzeko; ezagun batek ezeztatu zuen asmoa.

801. Hoteleko jangela txikia, erresistentziaren kuarter (TOL-056/015)

Gerra hasi zeneko oroitzapenak. Zortzi urte zituen. Etxean zerbait pasatzen ari zela konturatu zen: hoteleko jangela txikia erresistentziako tropen kuarter nagusia izan zen.

802. Izaskundik tiroak eta hotelera bonba (TOL-056/016)

Gerrako kontuak. Izaskun aldetik tiroak izan zirela gogoratzen du. Senide guztiak amarekin gela batean gordeta egon ziren. Hotelera bonba txiki bat erori omen zen.

803. Francoren aldeko tropen ospakizunak (TOL-056/018)

Francoren aldeko tropek garaipenak ospatzen zituzten: kanpaiak jotzen zituzten, hitzaldiak ematen zituzten. Udaletxeko balkoian, Espainiako bandera

eta "gloria, lor y honor al ejercito español" esaten zuen kartela egon ziren jarrita.

804. Ume denboran ikasitako hizkuntza (TOL-056/020)

Eskolan eta kalean ikasi zuen gaztelaniaz hitz egiten. Anai-arreba zaharrenetatik gazteenetara euskaraz hitz egiteko garaian zer alde dagoen aipatzen du.

805. Gurasoak beti lanean (TOL-056/021)

Etxean, erdaraz hitz egiten zuten betidanik. Opor garaian, Ibarako edo Gaintxurizketako baserrira joaten ziren aitona-amonengana, eta han euskaraz hitz egiten zuten. Ume-zaintzaileak zituzten, eta gurasoekin "bizitza oso gutxi" egiten zuten; beti lanean aritzen baitziren.

806. Arrain-zopak, izugarrizko fama (TOL-056/022)

Gurasoen jatetxeak "fama" zuen Tolosan. Kabila, Gure Txokoa... eta inguruko beste elkarteetatik janaria enkargatu ohi zuten. Gurasoen arrain-zopak izugarrizko fama zuen.

807. 'Hotel restaurante Cielo Grande' kartelean (TOL-056/024)

Jatetxe kanpoan kartela zegoen: Hotel restaurante Cielo Grande jartzen zuen. Frantsesak ibili ohi ziren hotelean. Denborarekin, gurasoek etxea erosi eta aldaketa batzuk egin zituzten.

808. "Zeru Haundiko janlekua" kristal zahar batean (TOL-056/025)

Debekatuta zegoen kartelak euskaraz jartzea; jatetxe barruan bazen "Zeru Haundiko janlekua" jartzen zuen kristal zahar bat.

809. Batxilergoko ikasketak eskolapioetan (TOL-056/026)

"Frantsesetatik" eskolapioetara joan zen, batxilergoko ikasketak egitera. Zazpi urte behar ziren batxiler osoa egiteko. Ikasketei buruz hitz egiten du.

810. Ikasle garaiko erresidentziak (TOL-056/027)

19 urterekin batxilergoa bukatu, eta Bilboko Industria Ingeniaritza eskolara joan zen. Aurreneko lau urtetan, Opus Deiko erresidentzia batean egon zen. Gero, gelak alokatzen zituen emakume baten etxean egon zen; "patrona" esaten zitzaion.

811. Ingeniaritza ikasketak (TOL-056/028)

Ikasketei buruz hitz egiten du. Dena ondo joanda, Ingeniaritza ikasketak zortzi urtekoan egiten ziren; bi urte "ingresoan" eta sei karreran.

812. Arte eta lanbide eskola; 'Laborde y Labayen' grafika lantegia (TOL-056/031)

Tolosan, industria asko zegoen. Urteekin, industria asko galdu omen da. Arte grafikoei buruz hitz egiten du. Tolosan ba zen Escuela de Artes y oficios izeneko eskola, eta handik artista eta marrazkilari ugari ateratzen omen zen. 'Laborde y Labayen' grafika lantegiari buruz hitz egiten du.

813. Gurasoei berorika (TOL-056/035)

Gurasoein euskaraz hitz egiten zuten. Tratamenduari buruz hitz egiten du. Gurasoei "berori" esaten zien. Anaia-arreba gazteenak, berriz, "zu".

814. Emaztea nola ezagutu zuen (TOL-056/037)

Emaztea nola ezagutu zuen kontatzen du. Emaztea Bavariakoa (Alemania) da. Arrebaren bidez ezagutu zuen emaztea. Gurasoek hotela zutenez, anai-arreba guztiek hizkuntzak ikasi zituzten. Joxeren arreba bat alemana ikastera joan zen orain bere emaztea den familiaren etxera.

815. Seme-alabek ikasteko grina (TOL-056/041)

Anai-arreba denek ikasi zuten pianoa jotzen; "batzuk besteak baino hobeto". Joxeren gurasoak seme-alabei heziketa bat ematen saiatu ziren; ingelesa, frantsesa edota alemana hitz egiten ikasi zuten.

816. Gurasoei buruz (TOL-056/044)

Gurasoei buruz hitz egiten du. Oso langileak ziren, "saiatuak". Seme-alabekin hartu-eman handirik ez zuten izan, baina hezkuntza eta ikasketak izateaz arduratu ziren. Gurasoek ez zuten oporrik egiten.

817. Aitaren ikasketak (TOL-056/046)

Aitari buruz hitz egiten du. Gerra aurretik, Arantzazun gaztelaniaz irakasten omen zuten. Hara joan aurretik, Zalduondoko (Araba) senide batengana bidali zuten gaztelaniaz hitz egiten ikas zezan. Aurretik, berriz, ikasketak frantsesez egin zituen.

818. Aita gerran ibilia (TOL-057/002)

Pasaian jaio, eta bi urterekin Tolosara amaren jaiotetxera eman zuten. Gerra denboran, ama baserrira bueltatu zen aita errepublikanoekin zelako. Aita atxilotu egin zuten Santanderreko bidean, eta Gasteizen bi urte egin zituen preso.

819. Santa Luziako eskola (TOL-057/003)

Amak etxeko lanak egiten zituen. Santa Luziako eskolara joaten zen 12 urtera arte. Andereñoa oso maitea zuten. Gero, mojetan egin zuen batxilerra.

820. Esne-partiketa eta azokako tratua (TOL-057/006)

Baserria kaletik gertu zegoen. Bost-sei behi zituzten, eta Maria Luisa eta ahizpa esne-partitzen ibiltzen ziren goizean eta arratsaldean. Tolosako azokara egunero joaten ziren tratua egitera. Txikitatik lagundu behar izan zuten baserriko lanean: arropak garbitzen, baratzean, itulan... Baserria nolakoa zen azaltzen du.

821. Baserriaren deskribapena (TOL-057/007)

Baserria nolako zen kontatzen du: mandioa, sukaldean labea, egurrezko komuna, ganbara... Etxean ez zuten urik, baina iturria gertu zuten.

822. Baserriko lan banaketa (TOL-057/008)

Baserriko lanen banaketa. Gizonezkoek eta emakumezkoek zer lan egiten zituzten aipatzen du.

823. Laudion eta Eibarren bizitakoa (TOL-057/009)

Gerra ondoren, aita kartzelatik atera zutenean, familia Laudiora joan zen bizitzera. Eta han, bi urte egin zituen. Amak Tolosara itzultzeko grina zuenez, aitak lekualdatzea eskatu zuen, eta Eibarko koartelera destinatu zuten. Eibarren urte bat egin, eta Tolosara itzuli ziren.

824. Gurasoekin bizitzeko "txirrinta" (TOL-057/011)

Eibarren bizi zenean, Untzaga plazan zegoen herriko eskolara joaten zen ikastera. Eta Tolosara bueltatu zenean, Santa Luzia bailarako eskolara joaten zen. Maria Luisa baserrian amonarekin hazitakoa da, eta gurasoekin bizitzeko gogoarekin bizi izan zen beti.

825. Jan faltarik ez (TOL-057/012)

Baserrian ez zuten goserik pasa. Tolosara egunero joaten ziren tratura, eta han ateratako diruarekin, etxerako hainbat elikagai erosten zituzten: haragia, arraina... Baserrian, ez zuten berdura faltarik. Jatorduei buruz hitz egiten du. Tomate asko biltzen zuten, gero potetan kontserbatzeko.

826. Garia kanpoan erosi (TOL-057/013)

Gosaltzeko, esnea eta taloa izaten zuten. Etxean egiten zuten ogia gari-irinarekin. Ez zuten garirik lantzen. Garia kanpoan erosi eta errotara eramaten zuten irina eskuratzeko.

827. Frutak eta loreak (TOL-057/014)

Intxaurrak, sagarrak, udarea, melokotoia... ez zuten fruta faltarik izaten baserrian. Loreak ere edukitzen zituzten, eta, gero, saldu egiten zituzten.

828. "Kukurutx eztularen" sendagaia (TOL-057/016)

Osasun kontuak aipatzen ditu: elgorria, "kukurutx eztula"... pasatu zituen. "Kukurutx eztula" sendatzeko erremedioa: arbia barrutik hustu eta barruan barraskiloak jarri; ondoren, estalita utzi. Hark botatzen zuen zukua izaten zen sendagaia. Jateko gogoa egiteko, berriz, bakailaoren olio ematen zioten.

829. Tolosako ospitaleak (TOL-057/019)

Tolosan zer ospitale zeuden aipatzen du. Lehen, botikak garestiak izaten ziren.

830. Gramofonoa etxean (TOL-057/020)

Etxean, gramofono bat zuten, txokolatearekin oparitutakoa. Nola funtzionatzen zuen kontatzen du. Eguberrietan jarri ohi zuten. Baserrian, lan asko izaten zuten, eta ez zuten denbora-pasarako tarterik izaten.

831. Gaztetako ibilerak (TOL-057/021)

Nerabezaroan, igandetan Tolosara joaten ziren eta etxera bueltatzen ordua jarrita izaten zuten. Plazan, musika izaten zen jendeak dantza egiteko: "sueltokoa", baltsekoa... Zinemara ere joan ohi ziren. Zizurkil, Villabona... eta inguruko herri txikietako jaietara joan ohi ziren noizbehinka.

832. Igandetan, Tolosara (TOL-057/022)

Umetan, amonarekin joaten ziren Tolosara. Baserritik jaitsi eta kafetegi batean egoten ziren. Gero, gurasoen etxean bazkaltzen zuten, eta, arratsaldean, umeentzako zinea ikustera joan ohi ziren.

833. Amari salaketa euskaraz egiteagatik (TOL-057/023)

Eibarren bizi zireneko pasadizo bat kontatzen du. Amari salaketa jarri zioten, gizon batekin euskaraz hitz egiten ari zelako. Aita guardia zibila izanik, guardia zibilaren etxean bizi zirela kontatzen du. Amarekin euskaraz hitz egiten zuten, eta, aitarekin, berriz, gaztelaniaz.

834. Tolosara, tratura (TOL-057/025)

Egunero joaten ziren Tolosara tratura. Astoa eta gurdia berduraz kargatuta joan ohi ziren Tolosara. Gehienetan, Maria Luisaren ahizpa joan ohi zen, eta, behin plazan, amak egiten zuen salmenta. Ateratako diruarekin etxerako elikagaiak erosten zituzten: kafea, azukrea, haragia, arraina...

835. Baserriko ateak, zabalik (TOL-057/026)

Baserria kaletik nahiko gertu zegoen, eta Larramendi kaleko jendea baserri aurreko "labaderora" joan ohi zen arropak garbitzera. Hotza egiten zuenean, baserrira sartu ohi ziren berotzera eta kafesnea hartzera. Eskaleak ere joan ziren baserrira, eta beti otorduren bat ematen zien. Eskale asko ibili ohi zen: etxe aurrean jarri eta errezo batzuk egiten zituzten; limosna eta janaria ematen zitzaien.

836. Basoko lana (TOL-057/027)

Gizonezkoek baserrian zer lan egiten zuten kontatzen du. Basoko lanetan aritu ohi ziren. Uzturre inguruan zituzten lurrak.

837. Ohiturak eta sineskerak (TOL-057/028)

Baserriko sineskerak aipatzen ditu. Baserriko ate sarreran, eguzki-lorea eta bedeinkatutako gurutzeak jartzen zituzten urtero. Ekaitza egiten zuenean, berriz, bedeinkatutako erramu sorta botatzen zuten sutara. San Blasetan, ogia, irina, gatza, olio... bedeinkatzen zituzten.

838. Abereak (TOL-057/031)

Abereen erditzei eta gaixotasunei buruz hitz egiten du. Behiak, txekorrak, idiak... zituzten. Baserriko lan gogorrek egiteko, Izaskun aldeko gizon bat joan ohi zen baserrira bere idiekin.

839. Aberren elikadura (TOL-057/032)

Abereen elikadura: pentsua, artoa, zahi larria, belarra... Zahi larria eta zahi mehearen arteko bereizketa egiten du. Behien azpiak egiteko, orbela erabili ohi zen.

840. Abere kontuak: ferrak eta zezenak (TOL-057/033)

Abereei ferrak aldatzeko, Tolosako ferratokira eramaten zituzten. Behiren bat susara jarriz gero, Tolosan baziren bi-hiru baserri zezenak zeuzkatenak "behiak botatzeko".

841. Asto gaiztoa, soldaduei eman (TOL-057/034)

Asto gaizto bat omen zuten baserrian: hozka egiten zuen. Gerra denboran, soldaduak sartu zirenean, haiei eman omen zien asto hura.

842. Gerra ondorenean, euskara debekatua (TOL-057/036)

Diktadura garaian, euskaraz hitz egitea debekatua zegoen. Auzoko eskolan, euskaraz ikasten zen; baina gerra ondoren galarazi egin zuten. Hala ere, denak baserritarrek izanda, euskaraz egiten omen zuten.

843. Tolosako batzokia (TOL-057/038)

Gerra aurretik, Tolosako batzokiak Euskal Jaiak antolatzen zituen. Gerra denboran, batzokia itxita egon zen; "PNV-ri kenduta zeukaten". Gaur egungo toki berean zegoen batzokia.

844. Haurdunaldiak (TOL-057/041)

Lehen, haurdun zegoen emakumeak ez ziren gaur adina zaintzen; eguneroko martxan aritzen ziren. Azken unera arte, lanean aritzen omen ziren. Haur bat zutik zegoela eduki zuela kontatzen du.

845. 11tatik bederatzi etxean erdituak (TOL-057/042)

11 seme-alabatatik bederatzi etxean erditu zituen. Emagina, senarra edota bizilaguna izan zituen erditzeetan laguntzen. Erditzeko unean izan daitezkeen arriskuei buruz hitz egiten du. Haurra jaio eta hurrengo egunean jartzen zen umea amaren bularrean.

846. Etxeko inkubagailua (TOL-057/043)

Lehenengo umea, jaioberritan, oso txikia zen. Medikuek zurezko kaxa bat paperez bildu eta bertan sartu zuen umea. Hiru botila ur beroz bete eta umearen inguruan jarri zituen. Ordu-erdiatik ordu-erdira botila bat aldatu egin behar izaten zitzaion.

847. Umeak paseatzeko denborarik ez (TOL-057/047)

Behin umeak koskortutakoan, amonak ateratzen zituen umeak paseora. Maria Luisak ez zuen denborarik izaten. Gero, bi alaba zaharrenak hazi zirenean, haiek ibiltzen zituzten gainerako anai-arrebak.

848. Baserriaren deskribapena (TOL-058/002)

Baserria nolakoa zen kontatzen du. Baserriaren egitura deskribatzen du.

849. "Suilla" buruan hartuta (TOL-058/003)

Baserriko bizimodua. Ez zuten urik baserrian. Gerora jarri zuten. Senarraren jaiotetxera ezkondu zen, eta han ere ez omen zen urik. Buruan "suilla" hartu ibili ohi ziren, ura etxera eramateko.

850. Arropa garbitzea (TOL-058/005)

Arropa nola garbitzen zuten kontatzen du.

851. Baserriko komuna (TOL-058/007)

Baserrian, nolako komuna zuten azaltzen du. Hondakinak, ukuilura erortzen ziren.

852. Menda-erratzak, ohe azpiak garbitzeko (TOL-058/010)

Igandetan, menda-erratzarekin garbitzen zituzten ohe azpiak. Menda-erratzak nola egiten zituzten azaltzen du: "menda"-rekin sorta egin eta makila bati lotzen zioten.

853. Baserriak emandakotik (TOL-058/014)

Baserriak emandakotik jaten zuten. Esnea, potajea, txerrikiak, arrautzak... izaten zituzten. Ahal zela baserrian ateratakotik jaten zuten; kalekoa asko ordaindu behar izaten zen.

854. Garaian, garaikoa (TOL-058/016)

Baserriko lanak. Garaian garaikoa landatzen zuten. Garia eta baba azaroan egiten zuten. Artoa, berriz, maiatzean egiten zen. Idi edo behiei "karramarrua" eta besarea eransten zien lurra lantzeko. Alperrea erabiltzen zuten lurra zabaltzeko, puskatzeko, goxatzeko...

855. San Joanetan, apaiza bedeinkazioa ematera (TOL-058/019)

Uzta ona izateko bedeinkazioak egiten ziren. San Joanetan, apaiza joaten zen baserrira bedeinkazioa ematera. Baserritarrek uzta ona ateratzeko fedea eta esperantza izaten zuten.

856. Tolosako plazara (TOL-058/023)

Tolosako plazara joaten zen baserriko jeneroa saltzera. Tratua nola izaten zen kontatzen du: erosleek "regateatu" egiten omen zuten. Oinez joaten ziren Auzotxikitik Tolosara, astoarekin.

857. Diruarekin haragia, sardina zaharra... erosi (TOL-058/025)

Salmentan ateratako diruarekin haragia, sardina zaharra... erosten zuen.

858. Abereak (TOL-058/027)

Baserrian zer abere zituzten aipatzen du: astoak, txekorra, behiak, idiak... Behiak, esnetarako edukitzen zituzten. Txekorrak hazi eta, gero, saldu egiten zituzten.

859. Erramua, gurutzeak eta kredoa (TOL-058/029)

Santa Krutzetan, erramu egunean, erramu bedeinkatzen zen. Erramu horrekin gurutzeak egiten ziren. Santa Krutz egunean, gurutzea soroan jartzen zuten eta kredoa errezatu ohi zen.

860. Dotrina, kredoa, konfesioak (TOL-058/031)

Dotrinak bestelako eskolak baino garrantzia handiagoa zuen lehen. Dotrina, kredoa... aipatzen ditu. Apaizarengana konfesatzera joan behar izaten zen. "Fedea eta apaizaren esana txintxo egin".

861. Konfesioak, bekatuak, penitentziak... (TOL-058/033)

Konfesioei buruz hitz egiten du. Elizan, konfesatokietan, konfesatu behar izaten zen. Bekatuak esan eta apaizak penitentzia eman ohi zuen: Agurmariak errezatzea... Mezara ez joatea bekatua zen.

862. Dotrina, komunioa eta konfirmazioa (TOL-058/036)

Eskolatik atera eta Urkizura joaten zen dotrina ikastera; komuniorako prestatzera. Zazpi urterekin egin zuen komunioa. Konfirmazioa, berriz, lau urte zituela jaso zuen.

863. Ilunabarrean, arrosarioa (TOL-058/039)

Egunero, ilunabarrean, arrosarioa zuten. Ogia hasterako, gurutzea egin ohi zien. Kandela eta ura bedeinkatuak izaten zituzten etxean.

864. Erlijioaren eragina (TOL-058/042)

Lehen, jende asko sartzen zen apaiz eta moja. Fraideak eskean ibiltzen ziren, eta mutikoei eurekin joateko gonbita egiten omen zien.

865. Auzotxikiko eskola (TOL-058/045)

Eskolan zer ikasten zuten kontatzen du: irakurtzen, idazten, matematikak... Auzotxikiko eskolara joaten zen. Maisuaren izena aipatzen du: maisu ona zen. Euskaraz egiten zuten eskolan.

866. Eskolatik azkar etxera, lanera (TOL-058/046)

Eskolatik atera eta gero, pixka bat jolasten zuten. Hala ere, etxeko lanetan laguntzera joan behar izaten zuen azkar: umeak zaindu, ganajatekoa egin, ganadua gobernatu...

867. Umetako jolasak: 'Kuku miku' (TOL-058/056)

Ilunabarrerako etxeratu behar izaten zuten. Ordura arte, karta-jokoan edo jolasean aritzen ziren. Harrapaketan aritzen ziren. Abestu egiten du: "Kuku miku, txantxa perro, castellano, pon-plon! Nik ikusi det erdiye..."

868. Umetako jolasak: 'Itsuketan' (TOL-058/058)

Umetako jolasak. 'Itsuketan' nola jolasten zuten kontatzen du. Neska-mutilak aritzen ziren jolasean.

869. Hernioko erromeria (TOL-058/062)

Herniora joateko ohitura zuten. Hernioko erromeria aipatzen du. Mendian zer jan eta edaten zuten kontatzen du. Kuadrillan joaten ziren, eta "sueltoan" aritzen ziren dantzan.

870. Baltsean egitea, "bekatu handia" (TOL-058/063)

Baltsean dantza egitea "bekatu handia" zen, apaizek kondenatu egiten omen zuten. Baltsean eginez gero, konfesatzera joan behar izaten zen. "Sueltoan" aritzen ziren dantzan.

871. San Joanetako sua (TOL-058/066)

San Joan jaiei buruz hitz egiten du. San Joan bezperako sua nola egiten zuten kontatzen du. Tolosan, su artifizialak botatzen zituzten.

872. Arropa eta oinetakoak (TOL-058/068)

Lehen, hanka-hutsik noiz-nahi ibiltzen zen jendea. Gerrian apretak hartu eta hanka-hutsik joaten zen jendea kalera, ez puskatzeagatik. San Joanetarako soinekoa egiten bazen, hiru-lau urte irauten zituen.

873. Mezarako arropa eleganteagoa (TOL-058/072)

Igandetarako arropa eleganteagoa izaten zen. Mezara joateko egiten zen arropa berria. Arropa berria elizako egun seinalatuetan estreinatzen omen zen.

874. Gona luzeagoa eta galtzarik ez (TOL-058/075)

Lehen, gona luzeagoak janzten ziren. Emakumeak galtzak jantzita ibiltzea "bekatu ederra" zela dio.

875. Gerra ondoreneko gaitza (TOL-058/078)

Lehen, ez zen hainbeste gaixotasun izaten. Gerra ondorenean, janik ez zen, eta jendeari biriketan "mantxa" ateratzen zitzaion ahultasunagatik. Hura zen orduko gaixotasunik larriena.

876. Gerra garaian, taloa gogotik (TOL-058/079)

Gerrako denborako oroitzapenak. Joanak 11 urte zituen garai hartan. Zer jaten zuten kontatzen du: taloa, babarruna, esnea... Kanean, gosea eta miseria zegoen.

877. Hiru kanoikada baserri ingurura (TOL-058/081)

Gerra denborako oroitzapenak. Baserritik tiroak eta kanoikadak entzuten zituzten. Bera bizi zen baserri ingurura hiru kanoikada bota zituztela kontatzen du.

878. Kaletik baserrira, gerraren beldur (TOL-058/084)

Gerra denborako oroitzapenak. Gerra hasi zenean, kaleko jendea baserrietara joaten hasi zen. Baserrietan, esnea eta taloa izaten zen, eta ez zuten goserik pasatzen.

879. Gosetea eta estraperloa (TOL-058/086)

Gerra ondorenean, gosea "latza" izan zen. Jendea Nafarroara joaten zen irin bila; "ixilka" joan behar izaten zuten.

880. Errazionamendua (TOL-058/088)

Gerra ondoreneko kontuak ditu hizpide. Jendea Nafarroara joaten zen irin bila. Errazionamendua zer ematen zuten aipatzen du: arroza, garbantza... Tolosako dendetara joan behar izaten zuten errazionamenduko jakiak hartzera.

881. Hiru egunen barruan bataiatu behar (TOL-058/095)

Lehen, umea jaio eta hiru egunen barruan bataiatu behar izaten zen. Umea bataiatu gabe hilez gero, linbora joaten zela esan ohi zen.

882. Bularra ematea (TOL-058/097)

Ume jaioberriari, bularra ematen zion. Esnerik ez zuenak, biberoia ematen zion. Urte bat edo bi egin arte ematen zitzaion umeari bularra. Auzoko umeei bularra emateaz hitz egiten du.

883. Hika eta berorika (TOL-058/100)

Euskara; tratamendua. Jaiotetxean hika gehiago hitz egiten zuen. Gurasoei hika egitea "itsusia" da; haiei berorika egiten zien. Apaizari, medikuari eta edadeko jendeari ere berori esaten zitzaien. Senarrarekin eta seme-alabekin zuka egiten du.

884. Gerran eskola utzi behar (TOL-059/003)

Eskola dotrina baino inportanteagoa zen. Eskolan denetarik ikasten zuten. Javierrek eskola agudo utzi zuen, gerra zela-eta. Anaia Langileen Batailoietan izan zuen eta aita gaixo. Hori dela-eta, etxean bere jorjala behar zen.

885. Maistrak eta jolasak (TOL-059/004)

Maria Luisa Olano, Jesusa Gogorza eta Engrazia maistrak ezagutu zituzten. Bazkaltzera etxera joaten ziren. Jolas-orduan, eskola azteko belazean futbolean aritzen ziren mutilak; neskak, berriz, beste jolas batzuetara aritzen ziren.

886. Sokasaltoko abestiak (TOL-059/005)

Sokasaltoan "Txantxibiri-txantxibiri" abesten zuten. Kanta hori kantatzen du. "Al cocherito lere" ere abesten zuten.

887. Ziban, kaniketan, futbolean... (TOL-059/007)

Mutilak ziban eta kaniketan aritzen ziren. Javierri aitona egin zion ziba. Kaniken jokoa azaltzen dute; kanikak galdu edo irabazi egiten ziren. Baloiak beraiek egiten zituzten eta errepidean jolasten ziren. Belar desberdinak batu eta dendetara jolasten ziren: belarrak saldu eta harriekin ordaindu. Neskak ere aritzen ziren futbolean eta pilotan. Txokotara ere aritzen ziren.

888. Gerra hasiera (TOL-059/008)

Gerra hasierako oroitzapenak. Maria Eugeniaren etxean gizonak mendira joan ziren mendira eta umeak amarekin gelditu ziren. Kanoikadak paper-lantegira botatzen zituzten. Aireplanoei begira egoten ziren. Gauza asko ikusi zituzten.

889. Gerran etxea utzi behar (TOL-059/009)

Maria Eugeniaren etxea frontearen erdian zegoela-eta, Tolosara joan ziren bertako etxe batera. Nafarrak Tolosara sartu zirenean bueltatu ziren berriro ere. Javierren etxekoek ere bide bera egin zuten.

890. Jatekoa Nafarroan erosi Tolosan saltzeko (TOL-059/012)

Maria Eugeniaren nebaren etxera joaten ziren irratia entzutera. Goserik ez zuten pasa, Nafarroa aldetik ekartzen baitzuten jana. Jatekoa handik ekarri eta herrian saltzen zuten. Sasoi hartako hainbat bizipen dakartza gogora Jabierrek.

891. Antxumeak ezkutuan ekarri (TOL-059/013)

Gerraostean, haragia nahi izanez gero harategian txanda eskatu behar izaten zen. Behin antxumeak ekarri zituztenekoa kontatzen du Jabierrek. Ez zuten beldurrik izan. Irabazitako dirua amari eman behar izaten zitzaion.

892. Soldata amari eman behar (TOL-059/014)

Irabazitako dirua amari eman behar izaten zitzaion. Jabierrek 4.90 irabazten zuen eta Maria Eugeniaren lehen soldata asteko 21 pezetakoa izan zen. 14 urterekin hasi ziren lanean.

893. Paper-lantegiko lanak (TOL-059/015)

Amarozko paper-lantegian egiten zuten lana eta bertako betebeharrak azaltzen dituzte. Dena egin behar zen eskuz. Makinak heldu zirenean, lanpostu asko galdu ziren. Lantegia antzinako zen. Beraiek aritu ziren garaian langile asko zeuden.

894. Paper-lantegirako pasta (TOL-059/016)

Paper-lantegirako pasta atzerritik ekartzen zuten. Pasta nola egiten zen eta ematen zitzaion tratamendua azaltzen dute. Egurra bukatu zenean, belarrarekin hasi zinen lanean. 200 kilo inguruko pasta-fardoak ekartzen zituzten.

895. Sendabelarrak (TOL-059/020)

Osin belarrak egosten zituzten katarrorako. Pasma belarrak zaurietarako erabiltzen zuten. Enplastoak berbenarekin egiten zituzten minarentzak.

896. Ezkon-bidaia Bilbora (TOL-059/023)

Ezkondu zirenean, zazpi eguneko oporraldia izan zuten paper-lantegian. Andra Marin ezkondu ziren eta Bilbo aldera joan ziren bidaian. Paper-lantegiko soldata gero igo zuten.

897. Igandetean dantzara edo zinemara (TOL-059/025)

Etiket lanera eta lanetik etxera bizi ziren gaztetan. Igandetean joaten ziren plaza berriko dantzaldira. Gorritiko zinemara ere joaten ziren. Hala ere, batzuetan, lanera ere joaten ziren makinak garbitzera, eta pozik joan ere; izan ere, aste guztiko jorнала baino gehiago irabazten zuten orduan. 2.50 pezeta balio zuen zinemako sarrerak.

898. Zinema eta titiriteroak (TOL-059/026)

Zineman ikusten zituzten pelikula zuri-beltzezkoak eta gaztelaniazkoak ziren. Hasieran NO-Doa botatzen zuten. Zine mutua. Titririteroak ere ikusten zituzten kalerak.

899. Liburuak eta egunkariak (TOL-059/027)

Jabierri beti gustatu izan zaio irakurtzea. Liburu bat erosi eta idazten joaten ziren. La Voz de España eta El Diario Vasco egunkariak irakurtzen zituzten. Normalean igandez irakurtzen zuten egunkaria, eta astelehenetan La Hoja del Lunes futbol-emaitez ikusteko. Jabier beti izan da athleticzalea.

900. Tolosako futbol-taldea (TOL-059/028)

Tolosan beti egon da futbol-taldea, Jabier sozioa izan da. Bertako hainbat jokalarai aipatzen ditu.

901. Zokor-jotzea (TOL-061/016)

Zokor-jotzea zer den azaltzen du. Zokor zatiak, lur zati trinkoak, eskuekin hartu eta lurraren kontra botatzen zituzten txikitzeko. Goizean goiz jaikitzen ziren lan hori egiteko.

902. Mutilak eskolara, neskak etxean (TOL-061/019)

Itulan eta segan egiten zuen. Anaiak eskolapioetara joaten ziren eskolara, eta neskak, berriz, etxean geratu behar izaten zuten lanean.

903. Etxeko lanak (TOL-061/020)

Ama plazara joaten zen saltzera, eta Maria Dolores eta bere ahizpak etxean geratzen ziren hango lanak egiten: bazkaria, lisaketa...

904. Jateko kontuak (TOL-061/027)

Egunerokoan, babarruna, aza eta txerrikia izaten zen jateko. Eguberrietan, berriz, bisigua, azalorea eta turroia izaten zen jateko.

905. Ijitoak eskean (TOL-061/029)

Ijitoak urtero joaten ziren baserrira eskean. Maria Doloresen amonak garbantzuk eta haragi zati bat ematen zien. Ijito asko ibiltzen zen eskean; ezagunak izaten ziren.

906. Gerrako kontuak (TOL-061/031)

Gerrako kontuak. Behin, zuhaitz baten azpian ezkutatu zen bonbak jaurtitzen ari zirelako. Alegiara joaten ziren etxerako irin bila.

907. Hegazkinak bonbak botatzen (TOL-061/032)

Gerra denboran, ez ziren ausartzen etxetik ateratzen. Tiro hotsak, kanoikadak... entzuten zituzten. Arbia egiten ari ziren batean, bonbak botatzen zituen hegazkin bat pasa zen; korrika ihes egiten zuten babes bila. Tiroak izaten zirenean, baserriko hormen kontra jartzen ziren.

908. Igandetan, Urkizura (TOL-061/034)

Nobiotako kontuak kontatzen ditu. Festetan neska eta mutil denak elkarrekin ibiltzen ziren. Igandetan, Urkizura joaten ziren. Han, "A tres ovalos" jolasean ibiltzen ziren pilotarekin. Berandu hasi ziren Tolosara joaten.

909. Amasan ezkondu (TOL-061/037)

Maria Dolores eta ahizpa ospakizun berean ezkondu ziren. Amasan egin zuten ezkontza. Eztei-bidaian Gasteizera joan ziren bi bikoteak.

910. Baserriko lanak eta Arroako eskola (TOL-063/003)

Sei-zazpi urterekin Arroako herriko eskolan hasi zen. Etxetik oinez joaten ziren eskolara. Ordura arte, baserriko lanetan laguntzen ibili zen: soroan, itulan... Maistrak erdaraz egiten zien. Bi ahizpa zaharrenak txandaka joaten ziren eskolara: bat eskolara joaten zenean, bestea etxean geratzen zen anai-arrebak zaintzen, eta alderantziz.

911. Eskolan, denbora gutxi (TOL-063/004)

Eskolako kontuak. Denbora gutxi egin zuen eskola "idazten justu-justu ikasteko" adina. Eskolan, erdaraz hitz egiten zuten. Cara al Sol kantarazten zien. Juanitaren gurasoek ez zekiten erdaraz hitz egiten.

912. Eskola eta dotrina (TOL-063/006)

Eskolako kontuak. Eskolan, erdaraz hitz egiten zuten. Zigorrak: txoko batean paretara begira jartzen zituzten. Dotrinara ere joaten ziren, eta hura euskaraz izaten zen. Dotrina ematen zien apaiza "nazionalista" omen zen.

913. Apaiza, zorrotza (TOL-063/011)

Dotrina euskaraz ikasten zuten. Apaiza zorrotza omen zen. Apaizari maistrari baino beldur handiagoa omen zioten. Meza garaian, komunian hartzeko ilaran zuzen joan behar izaten zuten. Behin, apaizak Juanitaren lagun bat jo eta lurrera bota omen zuen ilaratik kanpora zihoalako.

914. Zoru garbiketa: hondartzea, alanbrea pasatzea, argizaria ematea... (TOL-063/013)

15 urte zituela, Zarautzera joan zen neskame. Baserrian eta kale etxean zer lan egiten zituen kontatzen du. Neskame zegoen etxeko garbitasuna: hondartu egiten zuten lurra, belauniko. Baserrian, berriz, argizaria eman aurretik ondo garbitzen zen zorua alanbrez.

915. Ume-zaintzaile (TOL-063/014)

Neskame joan zen etxean, familia izateko ziren. Etxeko lanez gain, umearen zaintzaz ere arduratzen zen Juanita. Trenez joaten zen Arroatik Zarautzera.

916. Igandetan, "libre" (TOL-063/015)

Zarautzen neskame egon zeneko garaiari buruz hitz egiten du. Igandetan, "libre" izaten zuen, baina ez zen beti joaten etxera. Zarauzko lagunekin paseatzera ateratzen zen.

917. Neskametzako soldata (TOL-063/016)

Zarautzen neskame egon zeneko garaiari buruz hitz egiten du. Zer soldata zuen aipatzen du: hilean 14 duro irabazten zituen.

918. Nagusiak eta konpas lantegia (TOL-063/017)

Zarautzen neskame egon zeneko garaia buruz hitz egiten du. Eibarko familia batentzat egiten zuen lan. Industria txiki bat zuten, eta beren kargurako langileak zituzten. Konpasak egiten zituen.

919. Arropa garbitzera (TOL-063/020)

Zarautzen neskame egon zeneko etxeari buruz hitz egiten du. Komuna eta ura bazituzten. Arropak eskuz garbitu behar izaten ziren. Jendea "labaderora" ere joan ohi zen

920. Tolosara, 'Politena' tabernara lanera (TOL-063/021)

Lau urte Zarautzen neskame egin eta gero, utzi egin zuen. Etxera bueltatu zen, eta "han egon ezin". Tolosara lanera joateko eskaintza bat izan zuen "barrarako". 'Politena' tabernan aritu zen lanean.

921. 'Politena' taberna (TOL-063/022)

'Politena' taberna nolakoa zen kontatzen du. Etxeko andrea Zestoakoa zen, eta ezaguna zelako joan zen bertara lanera. Tabernan, lanean zebilela ezagutu zuen senarra. Garai hartan, emakumeak ez ziren tabernara sartzen. Tabernako nagusi eta lankideei buruz hitz egiten du.

922. Feria egunean, baserritar ugari tabernan (TOL-063/024)

Tabernako giroari buruz hitz egiten du. Jendeak zer edan ohi zuen aipatzen du. Bigarren solairuan, jangela zegoen. Jateko zer egoten zen kontatzen du. Larunbatetan, feriara joandako baserritar asko ibiltzen zen tabernan. Emakumeak, sukaldera sartu ohi ziren salda hartzera.

923. Emakumea eta taberna (TOL-063/025)

Lehen, emakumeak ez ziren tabernara zerbait hartzera sartzen.

924. Tolosako kalean, euskara gutxi (TOL-063/027)

Gerra ondorenean, Tolosan euskara gutxi entzuten omen zen. Kalean, ez zen entzun ere egiten euskararik.

925. Tabernan, baserritarrek euskaraz (TOL-063/029)

Larunbatean, feria egunean, baserritar asko joaten zen Juanitak lan egiten zuen tabernara. Baserritarrek euskaraz eskatzen omen zuten tabernan.

926. Erreterriako lehengusua etxean ezkutatuta (TOL-063/035)

Gerra denboran, Erreterriako lehengusu bat eduki zuten baserrian ezkutatuta. Belar eta lasto artean ezkutatzen omen zen, ganbaran. "Nazionalak" Arroa inguruetan sartzen ikusi omen zituzten; etxe inguruko mendi batera igo zirela kontatzen du.

927. Nobiotan, paseoan (TOL-063/038)

Nobiotako garaian, Tolosan zer giro zegoen aipatzen du. Paseoan ibiltzen omen ziren.

928. Igandetako dantzak (TOL-063/039)

Igandetan, Plaza Berrian dantzaldia izaten zen. Denbora batean, frontoian ere egon omen zen. Musika erdalduna izaten omen zen. Dantza "helduta" egiten zen.

929. Inauterietan aurrenezko (TOL-063/043)

Senargaiaren etxera lehenengo aldiz inauterietan joan omen zen. Tolosako inauterietan aurrenezko egon zeneko oroitzapena kontatzen du. Edadeko gizonak eta jende serioa "ttantto" edo brusa jantzita ikustean harritu egin omen zen. Gauetan ere festa egoten zen.

930. Inauterien, Donostiatik emakumeak Tolosara (TOL-063/044)

Tolosako inauterien fama. Lehen, gizonak bakarrik ibiltzen ziren festan, eta emakumeak etxean geratzen ziren. Inauterietan, Donostiatik "fulanak" joaten omen ziren Tolosara, eta hortik etxeetan zer gorabehera sortzen ziren kontatzen du.

931. Inauterietako txilaba (TOL-063/049)

Tolosako inauteriei buruz hitz egiten du. Lehen ere txilaba erabiltzen omen zen. Juanita txilabak jositakoa da, eta tela zer dendatan erosi ohi zuen aipatzen du: 'Kilo'-koan, 'Anttonineko denda'-n...

932. San Joanetako bazkaria (TOL-063/051)

San Joan jaiei buruz hitz egiten du. Familiakoek bisita izan ohi zuten jai horretan. Famili giroan pasatzeko jaia omen da. Zer jateko prestatzen zen kontatzen du.

933. San Joanetako zezenketak (TOL-063/053)

San Joanetako jaiei buruz hitz egiten du. Bazkal ondoren, senarra eta haren aita zezenketara joan ohi ziren. Zezenketa "famatuak" izaten ziren, eta kanpoko jendea ere joaten omen zen ikustera.

934. San Joanak, Zumardi Handiko aurreskua (TOL-063/055)

San Joanetako jaiei buruz hitz egiten du. Familiarekin egon, elkarrekin bazkaldu eta zezenketak ikustera joan ohi zen jendea. Zumardi Handian, aurreskua izaten zen. Udaberri dantza-taldea aipatzen du.

935. Meza eta prozesioak (TOL-063/058)

Lehen, jaiegunetan, elizak bete egiten ziren, eta prozesioetan jende askok parte hartu ohi zuen.

936. Herriko dendak (TOL-063/060)

Lehen, Tolosan denda txiki ugari zegoen. Desagertzen ari direla dio. Kale nagusian egin ohi zituen erosketak; 'Garmendia' jangai-denda aipatzen du.

937. Gizona lanera, emakumea etxeko lanetan (TOL-063/062)

Lehen, gizona joan ohi zen etxetik kanpora lanera, eta emakumea etxeko lanez arduratu ohi zen. Emakumeak zer zeregin izaten zituen aipatzen du: otorduak jarri, erosketak egin, etxea garbitu...

938. Euskalduna eta Arco-iris elkarteak (TOL-066/007)

Gerra garaian, "Euskalduna" elkarteko kideek alde egin zuten Tolosatik. Gero, gerra pasatakoan, ez zieten utzi elkartea berriro irekitzen; eta, hutsa zegoenez, Arco-iris taldekoak jarri ziren bertan.

939. Elkarteetako janaria nork prestatu? (TOL-066/009)

Lehen, elkarreetan zer giro egoten zen aipatzen du. Gizonek ez zekiten sukaldean moldatzen. Horregatik, Zumeta tabernatik erosten zuten janaria, eginda.

940. Donostian txarangarekin pasatako egun ahaztezina (TOL-066/011)

Solfeorik ez du izan; baina, 1961-63 ingururako, txarangako zuzendari bihurtu zen. Behin Donostiako Mendekosteko desfilea joan zirenekoa gogoan du: jendea atzetik saltoka hasi zen, eta giro izugarria sortu zen.

941. Ibilian-ibilian, txarangako zuzendari izaten ikasi (TOL-066/012)

Solfeoko jakintzarik izan ez arren, pixkanaka, txarangako zuzendari-lanetan hasi zen. Ibilian-ibilian ikasi izan du.

942. Pixkanaka, txarangako zuzendari bihurtu zen (TOL-066/014)

Txarangako zuzendari nola bihurtu zen kontatzen ditu: behin, elurra ari zuen Ostegun Gizen batean, zuzendariak ez zuen txarangarekin atera nahi izan; eta, orduan, Migelek hartu zuen haren ardura. Egun hartan, oso gustura aritu zen Migel; eta, gerora, baimena eskatu zion zuzendariari beste behin ordezkatzeko. Hala, pixkanaka, bera bihurtu zen zuzendari.

943. Tolosako inauteriak kentzeko saiakerak (TOL-066/017)

Tolosako moztarroak beti izan dira originalak. Garai batean, inauteriak kentzekotan ibili ziren. Izaskun auzoa sortu zeneko kontuak aipatzen ditu.

944. Burgosko epaiketak zirela, inauteriak bai ala ez? (TOL-066/018)

Burgosko epaiketak gertatu zirenean, inauteriak bertan behera uztekoan egon ziren; baina, azkenean, gutxi izanda ere, beraien txaranga atera zen. Orduko komeriak kontatzen ditu.

945. Inauterietan atera ezinagatik, nahigabetan (TOL-066/019)

Behin, txaranga atera ziren batean, lagun bati mazoa erori zitzaion hanka gainera, eta negarrez aritu zen, inauteri haietan gehiago atera ezingo zuelako larrituta.

946. Tolosako inauterien mozerroa: "Fiestas de Primavera" (TOL-066/023)

Tolosako inauteriak debekatu nahi izan dituzten arren, aurrera atera izan dituzte "Fiestas de Primavera" izenarekin mozerrotuta.

947. Alemanak Tolosan (TOL-069/004)

Tolosa azken urteetan beti berdin mantendu izan dela dio Jose Miguelek. Alemanak Tolosan zeudeneko oroitzapena du, gerra garaian Italia eta Alemaniako soldaduak egon omen ziren. Militarrez gain familiak ere etorri izan zirela dio.

948. Tolosako eskolak (TOL-069/006)

Neska eta mutilak bereizita joaten ziren eskolara. Eskola publikoez gain, ordaintzeko beste lau eskola zeuden Tolosan. Jose Miguel etxe alboan zegoen mojen eskolara joaten zen: hiru-lau urterekin hasi eta zazpi urtera arte. Ondoren, eskolapioetan hamar urte egin zituen. Ikasketa guztiak gazteleraz egin zituela kontatzen du.

949. Eskolako metodologia (TOL-069/007)

Eskolako metodologiaz hitz egitean, irakasleen prestakuntzaren garrantziaz hitz egiten du. Lizentziatuak izan beharko lukete irakasle izateko eta irakasle askok ez zuten titulurik izaten. Hala ere, notak astero bidaltzen zituzten etxera eta guraso eta irakasleen arteko harremana oso estua izaten omen zen. Erlijio aldetik ere oso lotuak egoten ziren.

950. Meza ohiturak (TOL-069/008)

Eskolak hasi aurretik, egunero joaten ziren zortzietako mezatarara. Zigorrak irakasleari erantzuteagatik, elizan hitz egitearren edo lanak ez egitearren izaten zirela azaltzen du Jose Miguelek. Ez zuten "Cara al sol" abestu beharrik izaten normalean baina noizean behin, apaiz zehatz batekin, tokatzen zitzairen .

951. Eskolako txango eta denbora pasak (TOL-069/009)

Urtean behin eskolatik txangoan joaten ziren; ez ziren urrunera joaten lehenengo urteetan. Jose Miguel eskola uztear zegoela kostaldera ere joaten hasi ziren. Antzerkia ere egiten zuela oroitzen du.

952. Atletismo taldean (TOL-069/010)

Eskolapioetan futboleant, pilotan edo txorro-morrotan jolasten zuten umetan. Atletismoan eskola utzi ondoren hasi zen. Atletismo taldean parte hartu zuenez, Gipuzkoako beste talde batzuen aurka ibiltzen ziren txapelketetan. Espainiako lehenengo estadioa izan omen zen Tolosakoa eta hortik omen zetorren afizio handi hura.

953. Umetan jolasean (TOL-069/011)

Neguan kaniketan aritzen ziren beti eta udan kanpoan ibiltzeko ohitura handia zuten. Oria ibaia zikina egoten zen eta inguruko erreka txikiagoetara joaten ziren igerian egitera. Hondartzara ere joaten ziren urtean behin Donostiara tranbiaz.

954. Trena eta tranbia (TOL-069/012)

Trena eta tranbiaren arteko desberdintasunak azaltzen ditu Jose Miguelek. Tranbia erabiltzen zen gehien.

955. Pregoneroa, serenoa. etab. (TOL-069/013)

Pregoneroa danborrarekin ezagutu zuen Jose Miguelek. Txapel gorriarekin joaten zen kaletik. Serenoa ere ezagutu zuen, gauez zaindari lanetan ibiltzen zen. Autoritate handiko pertsona izaten omen zen. Zorroztaila ere ibiltzen zen kaleetan. Tolosan mugimendu handia izaten omen zen larunbatetan, inguruko herrietako jende asko ere etortzen baitzen. Astelehenetan ganadu feria izaten zen.

956. Musika herrian zehar (TOL-069/014)

Igandero izaten zen musika, bandak jotzen zuen astero eta txistulariak ere aritzen ziren. Bandak, kaleetan zehar edo plaza desberdinetan jotzen zuen. Dantza egitea dohainekoa izaten zen baina frontoi barruan ordaindu egin behar izaten zen.

957. Gabonetan kantuan (TOL-069/015)

Gabonetan kantuan egiteko ohitura izaten zuen Jose Miguelek. 40.hamarkadan lehiaketa antolatu omen zen gabon egunean eta eskolarekin joan zela kontatzen du.

958. Inauteriak Tolosan (TOL-069/016)

Inauterietan sokamuturra izaten zen Tolosan. Izugarri gustatzen zitzaion Jose Migueli. Txarangak etengabe kaleak girotzen, nahi zuten guztia egiten zutela gogoratzen du, ez ordutegirik, ezta araurik ere. Lanen bat egin behar bazen, doan egiten zen egun haietan. Gaur egun baino egun gutxiago irauten zuten. Aurpegia estaltzea edo eta apaiz edo militarrez mozorrotzea debekatua zegoen.

959. Franco Tolosan (TOL-069/019)

Franco Tolosatik pasatzen zen Donostiara kotxez joaten zen bakoitzean. Egun finkorik ez zen egoten baina paper fabrikak erreka garbi zuenean jakiten zuten pasatzear zegoela.

960. Zuhaitzen "mugarratzea" (TOL-069/027)

Zuhaitzak bota beharrean adar bat kendu eta bizirik lagatzeari "mugarratzea" esaten zitzaion. Teknika hau berreskuratzeko asmotan ikertzaile Ingeles batzuk Jose Miguelekin harremanetan hasi eta 10 urterako ikerketa plan bat abian jarri zuten.

961. Kalean gazteleraz (TOL-069/033)

Umetan gazteleraz hitz egiten zuen Jose Miguelek. Hala ere, etxean euskaraz egiten zuten. Baserritarrek gazteleraz hitz egiten ez zekitela gogoratzen du. Larunbatetan Tolosara kanpoko jende asko joaten zen.

962. Gerraosteko errazionamendua (TOL-069/036)

Gerraostean errazionamendua nolakoa izaten zen kontatzen du Jose Miguelek. Dirua izan arren, zer erosi ez zegoela kontatzen du. Mugetan zaintza zegoenez, mendiz ibiltzen ziren herriz herri jatekoa lortzeko.

963. Aurkezpena (TOL-074/002)

Julen Telleria Lopetegi 1990eko irailaren 28an jaio zen Iruran. Urtebete zuela, bere gurasoekin Tolosara joan zen bizitzera. Aita tolosarra du eta ama Belauntzako baserri batekoa. Bi anaietatik bera da zaharrena. Kalekumea den arren, Tolosako auzo batekoa da. Txikitan txabolak egitea gustatzen zitzaion.

964. Haurtzaroko eskola eta aisialdia (TOL-074/003)

Julenen auzoak lurre izena du, eta ikastolan auzoka sailkatzen zituztela kontatzen du. Ondorioz, bere ikaskideak auzokoak zituen. Koadrila ere eskolako berbera du, denak mutilak. Euren haurtzaroa San Esteban auzoko parkean pasa zuten. Gero, hamasei urterekin lokala hartu zuten.

965. Aisialdirako lekuak: lokalak (TOL-074/004)

Bere belaunaldikoak zein zaharragoak diren gazteek lokala izateko duten ohituraz dihardu. Lokalean bere koadrilakoek musean jolasteko ohitura zuten. Tolosan koadrilak talde hertsia dira, baina Julenek zortea du talde askotan ibili izan baita eta, ondorioz, koadrila asko ditu.

966. Musika ikasten eta txaranga jotzen (TOL-074/005)

Musika munduan nola murgildu zen kontatzen du. Hiru urterekin musika eskolan hasi zen, eta zortzi urterekin, aitaren gomendioei jarraiki, perkusioa ikasi zuen. Txikitatik bere ilusioa inauterietako txaranga jotzea zen. Eskolan ere txaranga bat sortu zuten. Hamabost urte inguru zituela, Erretereriako txaranga batean jotzen hasi zen profesional gisa.

967. Txarangaren kultura Tolosan (TOL-074/006)

Erretereriako txaranga sartu zela eta hainbat urte bertan eman dituela kontatzen du. Ondoren, bere anaiarekin eta ikaskideekin batera Tolosako txaranga batean jarraitu zuen. Azkenik, euren txaranga sortu zuten, "Jai nekin" izeneko. Tolosan txarangarako ohitura handia dago.

968. Bonberenea gaztetxea (TOL-074/007)

Bonberenea gaztetxearen inguruan dihardu, auzolanaren bitartez eraiki zena gazteentzako. Proiektu hori aurrera ateratzeko egindako lana azpimarragarria dela uste du.

969. Udaberri dantza taldeko danbor-jole (TOL-074/009)

"Udaberri" dantza taldean danborra jotzen ere ibilia da Julen. Egun, bost urteren ondoren, taldea utzi du denbora faltagatik. Tolosan dantzarako ohitura handia dago, eta hori Jose Luis Vallejo irakasleari esker izan da.

970. Bateria jotzea, bidaiatzeko aitzakia (TOL-074/010)

Udaberri dantza taldearekin bidaia asko egin ditu Espainian zehar. Ibarako Alurr taldearekin, berriz, Esloveniara joan zen bateria jotzera.

971. Musikari ibilbidea (TOL-074/011)

Dantza taldetan eta txarangan ez ezik, talde pare batean bateria jole zein abeslari gisa ere aritu izan da. Unsain anaiekin bateria jole gisa eta Dolce Tangana-rekin abeslari gisa.

972. Nolakoa da parranda Tolosan? (TOL-074/012)

Tolosako gau giroaren inguruan dihardu. Lehen giro gehiegi ez zegoen arren, orain asteburuetan giro ederra dagoela esaten du.

973. Lagunekin euskaraz? Eta hiketan? (TOL-074/013)

Julenek euskaraz hitz egin arren, lagunartean gaztelaniaz jarduteko joera du. Hitanoari dagokionez, amaren baserrian Belauntzan denek elkarren artean hiketan egiten dutela dio. Aitak ere hiketan egiten die. Berak esaldi motzetan erabiltzen duen trataera bat da, Tolosan oro har hiketan gutxi hitz egiten baita.

974. Herri euskalduna al da Tolosa? (TOL-074/014)

Tolosa herri euskalduna da eta jende gehienak badaki euskaraz. Erabilera handia izan ez arren, Tolosan euskaraz arazorik gabe bizi daitekeela uste du.

975. Tolosako festak (TOL-074/015)

Tolosako festa nagusiak Inauteriak eta San Juanak dira. Hala ere, "Babarrun egunak" eta "Koadrilen egunak" gero eta indar handiagoa dute.

976. Inauteriak I (TOL-074/016)

Inauterietako giroa nolakoa den kontatzen du. Txikitatik txarangarekin lotu izan ditu festa hauek, eta urte askoan berak ere txarangan parte hartu izan du. Hunkigarria iruditzen zaio astearte gauean Tolosako txarangek egiten duten emanaldia.

977. Inauteriak II (TOL-074/017)

Inauterietako prestakuntza lanei dagokionez, Julenek eta bere lagunak azkeneko momenturako uzten dituzte lan hauek. Mozorroa etxean prestatzea gustatzen zaio, ganbarara joan eta bertan dagoena janztea.

978. Nola hasi zen komunikazioan lanean I (TOL-074/019)

Komunikazioaren munduan lanean nola hasi zen kontatzen du. Euskadi Irratian praktiketan hasi zen. Gero, unibertsitatea bukatzean, Gaztea irratitik deitu zioten praktikak bukatu eta aste betera. Gero, telebistan lan egiteko eskaintza egin zioten. Egun, bietan lan egiten jarraitzen du.

979. Nola hasi zen komunikazioan lanean II (TOL-074/020)

Telebista eta irratia, biak ditu gustuko. Irratian, ordea, erosoago sentitzen da lanean denbora gehiago daramalako. Erretiroa hartu arte irratian lan egitea amesten du, asko gustatzen baitzaio.

980. Sare sozialak eta giza harremanak (TOL-074/022)

Sare sozialek giza harremanetan izan duten eraginaz dihardu.

981. Antzerkigintzarako zaletasuna (TOL-081/002)

Hamalau urte zituenetik izan zuen antzerkian ibiltzeko gogoia. Hamasei urterekin hasi zen antzerki tailerrean lanean. Filosofia ikasketak bukatu eta antzerkigintzaren munduan sartu zen master baten bitartez.

982. Antzerkiari buruzko artxiborik ez (TOL-081/004)

Euskal antzerkigintzari buruzkoak bilatzen hasi eta informazio eskasiarekin egin zuen topo. Labaien eta Antzerti aldizkaria izan ziren bere tesiaren ardatz, hauen bitartez garaiko antzerkigintza ezagutu baitzuen.

983. Euskal Teatro Modernoaren aurrekariak (TOL-081/005)

Euskal teatro modernoa antzokietan egiten den antzerki formatuari deitzen zaio. Honen aurrekarietako bat Martzelino Soroa litzateke, Toribio Alzaga aktore zuela. Gero Toribio Alzagak hartu zuen lekukoa.

984. Euskal Iztundea eta Errepublikako antzerkigintza (TOL-081/006)

Toribio Alzagarekin eta Euskal Iztundearekin antzerki mugimendu bat sortu zen. Errepublika garaian loraldia izan zuen antzerkiak, euskal elementu identitario gisa. Euskara modu naturalean eta herri osoari zuzenduta erabiltzeko bidea izan zen.

985. Bertsolaritza eta antzerkigintza (TOL-081/007)

Eskutik egin dute euskalgintza eta euskal nortasunaren bidea. Antzerkia taldean egitea herritarrak biltzeko modu bat izan zen,

986. Donostia inguruko antzerkigintza (TOL-081/008)

Herri askotan ez dago antzerkigintzari buruzko informaziorik. Batez ere Donostia inguruko herrietako antzerkigintzaren berri jaso da.

987. Lauaxetaren antzerki ibiltaria (TOL-081/009)

Lorca eredutzat hartuta, Lauaxetak eta Manu Sotak antzerki ibiltaria antolatzen zuten. Ibilbidea ez zen luzea izan.

988. Antonio Maria Labaien eta Antzerti (TOL-081/010)

Euskalgintza mugimendu intelektual bat bazen Antonio Maria Labaienen garaian, Aitzol, Lizardi eta bestelakoekin batera. Talde lanaren emaitza izan zen Antzerti aldizkaria, eta Labaien izan zen bertako zuzendari. Izena, ordea, Lizardik asmatutakoa izan zen.

989. Antzerti aldizkariak zortzi pezeta (TOL-081/011)

Antzerti aldizkariak 54 ale zituen, 34 liburuxkatan banaturik. Antzerki testuak eta garaiko berriak, antzerkiaren ingurukoak argitaratzen zituzten bertan. Guztira 46 antzerki obra argitaratu ziren lau-bost urtetan. Loraldi hau ordea, aurretik Toribio Alzagak egindako lanari esker izan zela esam daiteke.

990. Euskal Iztundearen sorrera (TOL-081/013)

Abelino Barriola Donostiako zinegotzia zen, eta haren laguntzarekin Euskal Iztundea sortzea, euskara irakasteko eskola izango zena. Antzerkia helburua lortzeko metodo pedagogiko gisa erabili zuten.

991. Euskal antzerkigintza motak, gaiak (TOL-081/015)

Hasiera batean komedia izan zen landutako generoa, batez ere gerra aurretik. Ondoren, drama etorri zen. Entretenimendua zen euskara herritarrengana hurbiltzeko tresna, eta horretarako edukia sortu behar zuten. Gerra aurreko obrak garaiko bizimoduaren isla ziren. Antzertik dagoeneko hasi ziren Sofoklesen obra baten itzulpena. Bakoitzak bere euskalkian idazten zuten, ahalik eta euskara garbienean.

992. Amale Arzelus eta Neskamearen Marmarrak (TOL-081/016)

Luzearren arraba Amale Arzelus aitaren obretan eta irratsaiotan ere ibili zen. Aitak Antzertin Neskamearen Marmarrak idatzitako obra errepresentatu zuen Amalek. Herriz herri ibili zen antzerki obra hau eginez. Lehen euskal irratsaioa sortu zuen Luzearrek. Hasiera batean astena behin egiten zituen, eta jende ezzaguna eramaten zuen bertara.

993. Luzearrek Iparraldera ihes (TOL-081/018)

Arzelustarrek ihes egin behar izan zuten gerra garaian Iparraldera. Amale, alaba, Donostiara itzuli zen gero. Aita noizbehinka mozorroturik agertu omen zen batzuetan.

994. Erbeste garaiko antzerkigintza I (TOL-081/020)

Hamar urteko isiltasunaren ondoren, testugintza lantzen hasi zen, itzulpenak (erbestean), Telesforo Monzonen taldea, herri txikietako antzerki taldeen berpizteak... Erbeste garaian Shakespeare eta Sofoklesen lanak ekarri ziren euskarara.

995. Erbeste garaiko antzerkigintza II (TOL-081/021)

Isiltasunaren ondoren, zentsurari aurre egiteko itzulpengintzarekin hasi ziren. Testugintza berreskuratzen hasi ziren, beti ere Iparraldean lehenengo. Eskolako, elizako antzerkiak hasten hasi ziren modu xume eta isilean.

996. Gerraosteko antzerkigintza (TOL-081/022)

Bi eredu zeuden gerraostean, gerra aurrekoaren eta gerra osteko antzerkigintza berriaren talka eman zen. Euskal antzerkigintzaren komunitatea bi hauen artean zatikatu zen.

997. Euskal Iztundearen bigarren zatia (TOL-081/023)

Gerraostean mugimendu kontrajarri bat zegoen. Maria Dolores Agirre zegoen batetik, gerra aurreko bizimoduaren errepresentazioa egiteko helburuz. Horretarako gerra aurreko antzerki obrak errepresentatzen zituzten. Bestetik, belaunaldi aldaketa batetik sortu zen mugimendu berria zegoen, iraultzaileagoa zena. Helburua eduki berria sortzea zuten.

998. Antzerki genero berriak erbestearen ondorio (TOL-081/024)

Absurdoaren teatroa, konprometitua, existentziala... sortu ziren, gerra ondorengo mugimenduetatik jaio ziren, ikuspuntu iraultzaileaz. Gerraosteko antzerkigintza zatitzera eraman zuen honek, nolabait aurrera begira eta atzera begira zeudenak banatuz.

999. Antzerkigintza iraultzailea sortzeko arazoak (TOL-081/025)

Dramaturgorik ez zen garai hartan mundu mailako antzerkigintza Euskal Herrira ekarriko zuenik. Hori zela eta, Jarrai antzerki taldea kanpoko antzerki obra esanguratsuak euskarara ekartzen hasi zen. Horretarako, itzulpenak egin ziren, besteak beste, seminarioetako kideen laguntzaz. Geroago Arestik antzerki obra bat idatzi zien, haientzat apropos pentsatutakoa: Beste mundukoak eta zoro bat.

1.000. Jarrairen lan berritzaileak (TOL-081/026)

Salbador Garmendiak "Historia Triste Bat" antzezlanarekin sari bat irabazi zuen. Ondoren, Jarraik obra hau interpretatu zuen.

1.001. Antzoki Zaharreko estreinaldiak (TOL-081/028)

Udaletxeak babesa eman zion Jarrai antzerki taldeari, eta Antzoki Zaharrean egiten zituzten estreinaldiak. Emanaldak ere herri askotan egiten zituzten, sekulako arrakasta izan baitzuten.

1.002. Forcadaren eszenografia: ikuspuntu minimalista (TOL-081/029)

Mikel Forcadak eszenografia sortzen zuen Jarrairentzat. Madrilen egin zituen ikasketak, eta eszenografia berritzailearen estiloa eskarri zuen Donostiara.

1.003. Jarrai taldeko kideak (TOL-081/031)

Kultur mugimendu bat sortu zen Jarrai antzerki taldearen inguruan, Ez Dok Amairuko kideak tartean zebiltzan, besteak beste, Lete, Saizarbitoria, Arantxa Gurmendi...

1.004. Jarrai beste antzerki taldeen eredu (TOL-081/032)

Jarraik beste antzerki taldeekin harremana izan zuen. Euskal Iztundearekin talka egin zuena, ordea, Jarrai izan zen. Gerora sortutako antzerki taldeek ere Euskal Iztundeari edo Jarraik zabaldutako bideari jarraitu zioten. Arestiren laguntzas sortu zen Bilbon Kriseilu antzerki taldea.

1.005. The Living Theatre Donostian (TOL-081/034)

Jarraik The Living Theatre ekarri zuen Donostiara, Victoria Eugenia egin zuten antzezlanarekin. Oso probokatzailea izan omen zen euren lana, eta ez zuen harrera ona izan.

1.006. Inguruko herrietako antzerki taldeak (TOL-081/036)

Ezer gutxi ikertu da herrietako antzerki taldeen inguruan. Besteak beste Urnietan eta Tolosan egon ziren.

1.007. Zentsura eta antzerkigintza (TOL-081/039)

Jarraik zentsura jasan zuen baina ezin da konparatu Intxixu antzerki taldeak jasandakoarekin. Entsegu orokor bat egin behar izaten zuten emanaldia eman aurretik, baita testuak zentsuraren arabera moldatu ere.

1.008. Antzerkigintza ahuldu, besteak indartu (TOL-081/041)

Jarrai antzerki taldeko kide asko euskalgintzari lotuta antzerkitik banatu eta beste alorretan lanean hasi ziren, hala nola, musikagintzan.

1.009. Zinemaren hedadura (TOL-081/043)

Gerraostean zinema indartu zen, merkeagao baitzen hau ekoiztea antzerkia baino. Antzerkiak indarra izan zuen herrietako antzokiak zinema bihurtu zituzten.

1.010. Kantugintzaren sorrera, erraza (TOL-081/044)

Kantugintzak euskal komunitatea bildu zuen, kanpoko mugimendu abangoardistak jarraituz. Honek indarra eman eta oso erraz zabaldu ziren abestiak gizartean. Honela, kutur jakintza herrira iritsi zen.

1.011. Musikak euskara aurrera begira jarri (TOL-081/045)

Antzerkigintza ahuldu zenean musikagintza indartu eta abangoardismoa euskara eta euskal gizartera ekarri zuten. Honela, mundua euskaraz ulertzeko bidea ireki eta euskara iraganetik atera zute, aurrera begira jartzeko.

1.012. Gerraurrea, gerra garaia eta erbestea, eta gerraostea (TOL-081/047)

Gerra aurretik Toribio Altzagaren garaia azpimarratzen du Idoiak. Gerra ondoren Jarrai eta Euskal Iztundea daude, teatro zaharra eta berria bereizten dituztenak

1.013. Antzerti eskola eta aldizkaria (TOL-081/049)

Antzerti eskola Donostian sortu eta belaunaldi berri bat ekarri zuen, ondoren telebistan lan egingo zutenen formakuntza eskaini zuena. Antzerti aldizkaria berriro berpiztu eta antzerki obrak argitaraten hasi ziren, baina Eusko Jaurlaritzaren babespean.

1.014. 'Txiki' Antzerti aldizkariko ilustratzaile (TOL-081/051)

Antzerti aldizkariko ilustratzaile izan zen 'Txiki', ondoren euskal kartelgintzaren sinbolo bilakatu zena.

1.015. Jarrairen ibilbidea: gerraurreko antzerkigintzatik gerraostekora (TOL-081/053)

Hasiera-hasieran Jarrai antzerki taldeak irakurketa dramatizatuak egiten zituen. Sariketa batera aurkeztu eta lehenengo saria elkarbanatu zuen beste bi talderekin. Handik aurrera, antzezpenak egiten hasi ziren. Hasiera-hasieran gerraurreko antzerkiaren estiloari jarraitu zioten, baina ondoren itzulpenak antzezten hasi ziren, Nemesio Etxaniz itzultzaile zutela.

1.016. Jarraiko kideak (TOL-081/055)

Bakar batzuk aipatzen badira ere, berrogei bat taldekide ziren Jarri osatzen zutenak.

1.017. Telesforo Monzonen taldea (TOL-081/057)

Jarrai antzerki taldea hamaika tokitan ibili zen antzezten, Iparraldean, ordea, ez omen zuen emanaldirik eman. Han Telesforo Montzon ibili zen antzerki talde batekin.

1.018. Tolosatik Elgoibarrera aldatzean, euskara alboratu zuen (TOL-085/004)

Tolosan jaio zen eta 12-13 urterekin iritsi zen Elgoibarrera. Aldaketa gogorra izan zen berarentzat. Ordura arte euskaraz bizi zen, baina Elgoibarren ez zen euskararik hitz egiten. Etxean ere amarekin euskaraz, baina aitarekin gaztelaniaz. Gainera, euskaldunekin euskaraz hasten zenean, barre egiten zioten, bere euskara desberdina zelako. Arrazoi horiengatik euskara alboratu egin zuen.

1.019. Euskaltegira joan eta euskararekiko kontzientzia piztu (TOL-085/005)

Ikasketak amaitu zituenean, euskara ikasten hasi zen Elgoibarko Udal Euskaltegian. Agurtzane Epelde izan zuen irakasle. Orduan atera zuen barruan gordeta zuen guztia. Oso gustura sentitu zen. 4-5 hilabeteen EGA atera zuen. Euskararekiko kontzientzia hartuta, lagunartean ere euskaraz egitea erabaki zuten.

1.020. Zazpiki irratia ren sorrera I (TOL-085/008)

Donostiara joaten zen ikastera eta gustuko zituen fanzineak batzen zituen. Musika zalea ere bazen, batez ere orduan modan zegoen rocka edo punka. Mugimendu kultural handia zegoen eta Elgoibarko taldetxo bati irratia libre bat sortzea bururatu zitzaion. Koldo Aranburu izan zen irratia ren bultzatzaile nagusia eta izena ere berak jarri zion. Gogoan du Hala bedi irratia ezagutzea joan zirela, Zazpiki irratia martxan jartzerako.

1.021. Zazpiki irratian egiten zituen saioak (TOL-085/009)

Asteazken Donostian egoten zen ikasketengatik. Bere intereseko kontuak biltzen zituen han (musika kontuak, fanzineak...) eta gero asteburuetan Zazpiki irratiko irratsaio batean komentatzen zituen. Bera orduan gaztelaniaz bizi zen eta irratsaioa gaztelaniaz egiten zuen. Geroago beste irratsaio bat egiten hasi zen umeei larunbat goizetan eta han jada euskaraz hasi zen pixkanaka. Irratia ren sorreran euskarazko saioak ere egingo zirela uste du, baina beraienez oso ohikoa zen gaztelaniaz egitea. Berak ez zuen guztiz galdu euskara, amarekin egiten zuelako, baina ez zuen erabiltzen.

1.022. Elgoibarko institutuan lanean; Euskara mintegiko kideak (TOL-085/010)

Elgoibarren euskararen egoerari izugarritzko buelta eman zitzaiola uste du. Ikasketak bukatu ostean Elgoibarko institutuan lan egiteko aukera izan zuen. Hango euskara mintegiko kide ziren Angel Ugarteburu, Andres Alberdi, Iñasio Garmendia, Miriam Villasante... Lan izugarria egin zuten bai institutua eta bai ikasmateriala euskaratzen eta erreferenteak izan ziren. Urte asko egin zituen han lanean eta asko ikasi zuen. Garai hartan jada D eredua zen nagusi institutuan.

1.023. Zazpiki irratia ren sorrera II (TOL-085/011)

Zazpiki irratia sortzeko bilerak Gabi tabernan egiten zituzten. 10 lagun inguru ibiliko ziren sorreran. Dirua lortzeko, txosnak jartzen zituzten eta baita kontzertuak antolatu ere. Hasieran gaur egun Kultur Etxea dagoen lekuan egon zen Zazpiki irratia eta geroago Aita Agirre plazan.

1.024. Umeekin egiten zuen irratsaioa (TOL-085/012)

Zazpiki irratan umeekin egiten zuen irratsaio bat larunbat goizetan. Ume batzuekin euskaraz eta beste batzuekin gaztelaniaz. Kantatu ere egiten zuten zuzenean.

1.025. Irrati librean mugimenduaren testuingurua (TOL-085/013)

Irrati librean askatasunaren aldarrikapena izan ziren. Ez zegoen gazteen gustuko gaiak jorratzen zituen edo gazteen gustuko musika jartzen zuen irratirik eta irratia librean nahi zutena jar zezaketen, inolako zentsurarik gabe. Mugimendu bateratu bat izan zen. Beraiek Halabedi irratia izan zuten eredu. Garai eroak izan zirela dio: politikoki garai gogorra eta drogen eragina ere izugarria izan zen gizartean. Errotatxo elkarteak egindako lana.

1.026. Borondatezko lana Zazpiki irratan; euskararekiko jarrera (TOL-085/015)

Jendeak borondatez lan egiten zuen Zazpiki irratan. Asteazken zehar asko lanean edo ikasten zeuden. Zaila zen ordu guztiak betetzea. Berak larunbatetan bi saio egiten zituen eta igande goizean beste bat. Zazpiki irratan bazegoen euskararen aldeko jarrera. Lankideek esaten zioten bere saioa euskaraz egiteko, baina bera une hartan ez zen horretarako gai sentitzen.

1.027. Gaztetxearekin harremana; diru-iturriak (TOL-085/017)

Gaztetxearekin harreman zuzena zuen Zazpiki irratia. Elkarri laguntzen zioten. Zazpiki irratan zebilen jendea saltsa askotan sartuta zegoen. Herriko jaietan euren txosna propioa jartzen zuen Zazpiki. Irabaziekin materiala eta diskoak erosten zituzten. Udalak lokala uzten zien. Pare bat urtean "Udaberri eguna" antolatu zuten.

1.028. Donostiako giroa ikasle sasoiari (TOL-085/020)

Donostian ikasten egon zen sasoiari asko gustatzen zitzaion El Huerto tabernara joatea, han jartzen zuten musikagatik. Gainera, fanzine pila bat egoten ziren eta interesatzen zitzaizkionak hartzen zituen. Gaztelaniaz ziren gehienak. Berak Zorroagan ikasi zuen eta ordurako bazegoen euskaraz ikasteko aukera, baina artean ez zen gai sentitzen. Bere ikaskide batzuek, esaterako, Fermin Muguruzak, ikasgai batzuk euskaraz ematen zituzten. Ikasketak amaitu ostean, euskaltegiara joan zen eta gozatu egin zuen.

1.029. Euskara galdu eta berreskuratu duen euskaldun zaharra (TOL-085/022)

Bere buruaren definizioa: euskara galdu eta berreskuratu duen euskaldun zaharra. Euskara zeharo baztertuta izan zuen, konplexuagatik, baina batez ere espainieraren inposizioagatik. Kontzientzia nola hartu zuen. Gaur egun euskaraz bizi da.

1.030. Euskara, identitatearen ezaugarria (TOL-085/024)

Euskara barnean duen altxor bat dela dio. Askotan ez gara konturatzen gure hizkuntzaren aberastasunaz. Bere identitatearen ezaugarri bat da euskara.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-27

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com